

Kerexeta

KENPIS

Kerexeta

KENPIS



KEREXETA

KENPIS

1989

NIHIL OBSTAT:

Garaigordobil-dar Bitor, Gotzaiña.
Urkiola-n, 1988, urrillak 10.

EUSKERATZAILLEA:

© **Kerexeta-tar Jaime**, abadea.
Elizburu, 24.
48230 ELORRIO (Bizkaia).
Tel 682 00 12.

WILSEN EDITORIAL

Muelle de Olabeaga, 21.
Tel. 4418362.
48013 BILBAO.

L.S.B.N.84-85918-40-1
Depósito Legal: B-358-89

PRAKOR Industrias Gráficas.
Muelle de Olabeaga, 21.
48013 BILBAO.

BERBA BI

Emen dozu zure eskuetan, irakurle, Ebanjelioaren ostean, Erdi-Aroan geien argitaratutako liburua. "Kristoren Antz-bidea" dau izena.

Kenpis-tar Tomas alemandar idazle mistikuak egin eban. Renania-n jaio zan, 1379-garren urtean. Lagunarteko bizitzako anaidian sartu zan eta 1413-an abadetza sakramentua artu eban. Birritan izan zan prailletzeko nagusi-ordea (1425 eta 1448-an).

Espiritu ta teolojiari buruzko ainbat lan idatzi eban, eta, euron artean, aurrean dozun "Kristoren Antz-bidea" oso entzutetsua. Izan be, espirituaren janari egokia izan da gizaldi askorentzat, XV-garren mendetik asi ta oraintsurarte.

Batez be, eliz-gizonentzat izan zan egiña. Alan be, oiñarriztat Ebanjelioa, Biblia eta osterantzeko idazle jatorrak artu ebazan ezker, guztientzako liburua dala esan daiteke ezpai bagarik. Gaiñera, giza-biotza sakon ezagutzeagaitik eta agertzen dauskun irakatsi zuzenagaitik, liburu au oso egoki dator bizitzako mailla guztietarako eta bakotxaren egoera ta abagune guztietarako. Ain zuzen be, liburu oni buruz, norbaitek auxe idatzi eban: "Ezin azaldu daiteke gizonak zelan idatzi

daikezan Kenpis-tar Tomasen "Kristoren Antz-bidea" izeneko liburuan irakurten diran lako gai zoragarriak, jaungoikozko argiaz izan ezik".

Ez da bat-batean irakurteko liburua, atalburuka irakurtekoa baiño, ataltxo ta esaldi bakotxa astiro ausnarturik. Izan be, Jesukristoren irakatsia apurka-apurka artu bear da, gero gure jokabidean artez erabilteko. Kristo ezagutu leenen, eta Bera artu eredutzat gure egitadetan. Orixe da Kristoren jarraitzaileen jokabide jatorra. Geure egintzen bidez agertzen dogu gure nortasuna. "Gorputza espiritu bagarik ilda dagoanez, sinismena be, egintza bagarik, ilda dago", dirausku Santiagok (2, 26).

Azken-aldean **Iztegitxo**a dator.

Liburu onek, bizibide ta egoera guztietan, Kristo eredutzat artzeko balio izan dagitzula, ba, irakurle.

Elorrio-n, 1988, iraillak 9,
Arantzazu-ko Andra Mariaren eguna.

KEREXETA

ESPIRITU-BIZIKERARAKO BURUBIDE ONURAKORRAK

LEENENGO ATALBURUA

Kristoren antz-bidea.

Lurreko uskeria guztiak baztartzea

1. "Neuri jarraitu daistana, ez da illunetan ibiliko", diño Jaunak (Jn 8, 12). Kristorenak dira berba orreik; bere bizikera ta oiturak eredutzat artu dagiguzala esaten dausku, benetan argituak eta biotz-itsukeria bagarik bizi nai badogu.
2. Gure arazo nagusia Jesukristoren bizitza ausnartzea izan bedi, ba. Kristoren ikasbidea santuen irakaspen guztiak baiño gorago dago, eta Kristoren espiritua euki dagianak, ikasbide orretan mana ezkutua aurkituko dau.
3. Baiña askok, Ebanjelioa sarritan entzunarren, ez dabe Jaungoikoaganako gogo aundirik izaten, Jau-naren espiritua ez dauke-ta.
4. Kristoren berbak osoro ta jakintsuki ulertu nai dagizanak / bere bizitza guztia Aren antzeko egiteko aalegiñak egin bear dauz.

Ez da jakitea naikoa, bizi bizi izan ezik

5. ¿Zetarako yatzu Irutasunari buruz gai sakonak azaltzea, apaltasun bagarik / Irutasuna naibagetzen badozu?
6. Benetan, berba bikaiñak ez dabe gizona santu ez zuzen egiten; bizikera onoimentsua da Gizona Jaungoikoaren adiskide biurtzen dauana.
7. Damua zer dan jakin baiño damu izatea naiago dot.
8. Biblia osoa ta filosofu guztien esakunak buruz bazekiz be, ¿zetarako litzakizu guzti ori / Jaungoikoaren maitasun eta grazi bagarik?
9. "Uskeria utsa, guztia da uskeria" (Izlaría 1, 2), Jaungoikoa maite izatea eta Bera bakarrik zerbitzea izan ezik.

Benetako jakituriaren tonorra

10. Ona emen jakituriarik gorena: lur onetako gauzak iguintzearen bidez, zeruko erreñurantz eten-

bagarik jotea.

11. Beraz, uskeria da ondasun galkorrek arduraz billatzea eta itxaropena areitan jarrea. Uskeria da ospe-zale izatea, baita norbere maillatik gora dagozan gauzak gura izatea be.

12. Uskeria da aragiaren zelekierai jarraitzea, baita gero zigor zorrotza ekarriko dauan atsegiña gura izatea be.

13. Uskeria da bizitza luzea gura izatea, bizikera ona izan daiten arduratu bagarik. Uskeria da oraingo bizitzaz bakarrik arduratzea eta gero etorriko dan bizitzara ez begiratzea.

14. Uskeria de beingoan ezereztan diran gauzak maite izatea, eta betiko atsegiña arduraz ez billatzea.

15. Gogoratu egizu sarritan esakun au: "Begiak ez dira ikusten aseten, ezta belarriak be entzuten" (Izlaría 1, 8).

16. Egizu, ba, aal dagizun guztia / zure biotza ikusten diran gauzetatik aldentzen eta ikusten ez diranetara biurtzen. Izan be, zentzunen bizikereari jarraitzen dautsanak, bere barrua loitu eta Jaungoikoaren grazia galdu egiten dau.

BIGARREN ATALBURUA

Norberari buruzko eretxi apala

1. Edozein gizonek berez dauko jakiteko guraria. Baiña, ¿zer balio dau jakintzak / Jaungoikoaganako bildur bagarik?
2. Obea da, izan be, bere buruaz aaztuta eta aundi-ustez beterik, izarren ibillerea aztertzen dauan filosofua baiño Jaungoikoa otseintzen dauan basarritar apala.
3. Norbere burua ondo ezagutzen dauanak / txartzat jotan dau, eta alakoak ez dauz atsegin gizonen txaloak.
4. Munduan dagoan dan-dana jakiñarren, maitasunik ez baneu, ¿zetarako balio izango leuskit /nire egiñai dagokienez epaituko nauan Jaungoikoaren aurrean?
5. Ezi egizu jakingura larregia, orretan zabarkeria ta iruzur aundia dago-ta. Ikastunak eta jakintsuak jakituntzat ikusiak eta artuak izatea dabe atsegin.
6. Gai asko dagoz jakingarriak, baiña arimeari onura gutxi edo ezer be ez dautsoe emoten. Eta, orregaitik,

oso zentzunbagea da / norbere salbamenera eroaten ez dabezan gaietara makurtzen dana.

7. Berba asko eginda ez da arimea aseten; bizikera onoimentsua da adimena bizkortzen dauana, eta barru garbia Jaungoikoagan uste aundia sartzen dauana.

Jakiteak beartu egiten gaitu

8. Geiago ta obeto jakin, eta gogorrigo izango zara epaitua, santutasunean bizi ez bazendiz.

9. Ez zaitetz, ba, arropuztu ederti (*arte*) edo jakintzaren bate(ta)n trebea bazara, emon izan yatzun ezaguera orregaitik bildur izan baiño.

10. Asko dakizula baderitzazu, ez dakizuna askozaz geiago dala izan aurrean. Ez zaitetz arrotu; autortu egizu, ostera, zure ezjakitea.

11. Beste batzuk zu baiño askozaz be jakitunagoak eta Jaungoikoaren legean argiagoak diran ezker, ¿zegaitik dozu zure burua areik baiño geiago dalakotan?

12. Ezer zeure onerako ikasi ta jakin nai badozu, ez-ezagun eta ezertzat izan zagiezala gura egizu.

Norbere burua ezagutuzea, jakintzetarik onurakorrena

13. Auxe da jakintzetarik sakon eta onurakorrena: norbere buruaren benetako ezaguera eta norbera aintzat ez artzea.

14. Norbere burua ezerertzat izatea eta enparaduai buruz ondo ta begi onez epaitzea / oso jakintsu ta bikain izatearen ezaugarri da.

15. Inõr agirian pekatu edo oben larriak egiten ikusiko bazendu, orrela ta guzti be ez dozu zure burua obetzat artu bear, onean noiz arte iraun aal izango dozun ez dakizu-ta.

16. Auskorrak gara guztiok, egia da; baiña zeu baiño auskorragotzat inõr be ez egizu izan.

IRUGARREN ATALBURUA

Egiaren jakintza

1. Zorionsua / egiak berak irakasten dauan gizona;

ez, gero, irudi edo berba igeskorren bidez, benetako egiaren bidez baiño.

2. Gure eretxi ta senak sarritan iruzur egiten dauskue, eta gutxitxo da inguratzen gaituen gauzetarik euren-ganatzten dabena.

3. Gai ezkutu ta illunak aztertzeak, ¿zer obari edo on lortzen dau, orrelakorrik jakin ezagaitik auzi-egunean ez dauskue agiraka egingo-ta?

4. Onurakorra ta bearrezkoa alde batera itzita, kaltegarri eta barrikerietan jardutea / zorakeria aundia da. Benetan, begiak euki eta ez dogu ikusten.

5. ¿Zer yakuz dialektikuen “erak eta muetak”? Jainko-Semeak berba egiten dautsanak / eskolaren eretxi asko alde batera itzi eta aretatik alde egiten dau.

Jainko-Semea, berba egiten dauskun asiera

6. Gauza guztiak Jainko-Seme bakar orregandik datoz eta guztiak euren batasuna iragarten dabe, eta “Bera da berba egiten dauskun asiera” (Jn 8, 25). Bera bagarik / inõr ez da artez ulertzeko ez epaitzeko gauza.

7. Gauza guztiak bat yakozana, eta guztiak batera dakazana, eta guztiak baten ikusten dauzana, orrexek izan daike sendo biotza eta Jaungoikoagan baketsu iraun.

8. Egizu, Jaungoikoagaz bat zarean egia orrek, maitasun itzungi-eziñaz zeuri lotuta bizi naitela!

9. Gai asko irakurri ta entzuteak gogait egin daust sarri askotan; izan be, zeugan dago nai eta gura dodan guztia.

10. Zure aurrean, mututu beitez irakasle guztiak, isildu beitez izaki guztiak; zeuk bakarrik egidazu berba, Jauna.

11. Norbait bere barruan geiago batu eta lauagoa izan, alakoak gai geiago ta aundiagoak ulertuko dauz neke bagarik, adimenaren argia goitik artzen dau-ta.

12. Arazo askotan jardunarren be, arima garbia, laua ta iraunkorra ez da sakabanatzen, guztia Jaungoikoaren aintzarako egin eta bere buruaganako ardura guztitik aldentzeko aalegiñak egiten dauz-ta.

13. Zure biotzaren zalekeri ezibageak baiño geiago, ¿zek galerazo ta lotzen zaitu?

14. Gizon onak eta Jainkozaleak / agirian egin bear

dauzan egintzak / bere barruan atondu bear dauz aurretiaz. Eta ez dau izten egintza orreik bere burua griña okerretara eroaten, eta egintzok adimen zuzenaren menpean jarten dauz.

Burrukarik latzena norbere burua azpiratzea da

15. ¿Bere burua azpiratzen aalegintzen danak baiño burrukaldi aundiagorik nok dauko?

16. Eta onexek izan bear leuke gure arazorik aurrenengoa: gure burua azpiratu, egun oro gure zalekerien aurka indar aundiagoak eskuratu, eta onbidean zerbaite aurrera egin.

17. Bizitza onetan edozein bikaintasunek arako akatsen bat dauko, eta gure adimenaren jardunaldiak ez dira illuntasun bageak.

18. Jakintzako azterpen sakonak baiño norbere buruaren ezaguera apala Jaungoikoagana eltzeko bide ziuurrago da.

Ezagutu baiño bere burua ezagutzea da bearrezkoagoa, eta asko jakitea baiño artez bizi izatea

19. Jakintza eta berez ona danaren eta Jaungoikoak eratu dauanaren ezaguera ez da alde txarrera jaurti bear; baiña beti barru onaren autorpena ta bizikera onoimentsua naiago izan bear doguz.

20. Alan be, askok, ondo bizi izateko baiño jakiteko / geiago arduratzen diran ezker, sarri askotan uts egiten dabe eta euren jakitetik fraturik gutxi edo ezer be ez dabe ataraten.

21. Alperreko jakingaiak arakatzeko daben ardurea / griña txarrak zuzarretik atara eta onoimenak ereteko artuko balebe, ez litzakez errian ainbeste gaiztakeri ta okerbide jazoko, eta prailletxeetan be ez litzake ainbeste nasaikeri izango.

22. Ain zuzen be, auzi-egunean ez yaku zer irakurri genduan itanduko, zer egin genduan baiño; ezta berba ondo egin genduan be, ea santutasunean bizi izan gintzazan baiño.

Jakintzaren eta giza-aintzaren ezereza

23. Esan egidazu: bizi zirala / orren ondo ezagutu zenduzan arako jaun eta irakasleak, irakasle-lanetan nagusi ziran areik, ¿non dira orain?

24. Arein irakaste-aulkiak beste batzuek daukez onezker, eta areik inõk gogoan dauzanik be ez dakit. Bizi ziran artean, mundu onetan zerbaite zirala zirudien; orain, barriz, arein bizitza ta ospealdiak inõk be ez dauz aitatzen.

25. Mundu onetako aintza bai arin joaten dala! Arein bizikerea arein jakintza lakoia izan balitz! Orduan bai frutuz ikasi ta irakurriko ebela!

26. Amaikatxo galdu dau munduan alperreko jakintzak, baita Jaungoikoaganako zerbitzua ain gutxi zaintzeak be! Apalak izatea baiño aundi izatea geiago nai daben ezker, euren asmakerietan galtzen dira negargarriro.

27. Izan be, maitasun aundia daukana bakarrik da aundia. Norbere burua txikitatz daukana eta gorengo ospeak ezerertzat daukazana, orixe da benetan aundia.

28. “Kristo irabaztearren, lurreko gauza guztiak simaurtzat daukazana” (Flp 3, 8), orixe da benetan jakituna ta zuurra. Eta Jaungoikoaren naia bete eta norbere naia alde batera izten dauana, orixe da benetan jakituna.

LAUGARREN ATALBURUA

Egitekoetan zuurtasuna

1. Ez da edozein berba arin-arin sinistu bear, ezta edozein eragiñi esana egin be, gauza bakotxa zuur eta astiro-astiro Jaungoikoaren erataraz aztertu baiño.

2. Au da samiña! Lagun-urkoari buruz sarritan ona baiño txarra errazago sinistu ta esaten dogu: gu bai makalak!

3. Baiña gizon bikaiñak edonoren esamesak ez dauz erraz sinisten, gizona makala, beti txarrerako makurra, eta berbetan oso ariña dana badakigu-ta.

4. Ekintzan ariñegi ez ibiltea eta norberaren eretxiari setakeriaz ez eustea / zuurtasun aundia da.

5. Gizonak diñoen guztia ez sinistea, eta entzun edo sinistu dana beingoan beste batzui ez esatea be / jakituria orri dagokiona da.

6. Artu burubidea barru zuzenaz jokatzen dauan

gizon zuurragandik; zeure ekin-bideai jarraitu bagarik, zu baiño obeak zuzendu zagizala naiago izan egizu.

7. Bizikera onak gizona Jaungoikoaren eratara jakitun egiten dau, eta, bide batez, zuur biurtzen dau.
8. Gizona apalago ta Jaungoikoaren menpekoagoa dan bestean, jakitunagoa izango da edozetan, eta alakoak bake geiago aurkituko dau.

BOSGARREN ATALBURUA

Bibliako irarkurgaiak

1. Biblian egia billatu bear dogu, eta ez berba-etorri ederra. Biblia guztia / idatzi izan zan espiritu beraz berotuta irakurri bear dogu.
2. Izkera zorrotza baiño espirituaren onurea ta irabazia geiago billatu bear doguz liburu santuetan.
3. Liburu gorengo ta sakonak lez, liburu Jainkozale ta lauak be gogo onez irakurri bear doguz.
4. Jakituria txikiko edo aundiko idazlea izan, egiaren maitasunak bakarrik eraginda joan bear dozu irakurtera. Ez begiratu nok diñoan, diñoana aditu baiño.
5. "Gizonak badoaz, baiña Jaunaren egiak beti irauten dau" (Sal 117, 2).
6. Era askotara eta nor nor dan begiratu bagarik egiten dausku berba Jaungoikoak.
7. Gure jakingura larregia sarritan eragozpen biurtzen da, eta orrek Bibliako irakurgaitik gura dogun frutua ataratea galerazo egiten dausku: idaztxatalak irakurri ta beste bagarik aurrera egin bearrean, areik sakondu ta eztabaidatu nai izaten doguzta.
8. Irakurgaitik fruturik batu nai badozu, gogo apalez, lauaz eta sinismenez irakurri egizu, eta aren bidez jakitun-izena izaterik bein be ez egizu gura izan.
9. Ez zagizala itauntzeak lotsatu, atsegiñez itandu baiño, eta santuen berbak isilik entzun egizuz; eta zaarren esanak eta eretxiak ez dakizuzala gogaikarri izan, ez dabez errazoi bagarik esaten-eta.

SEIGARREN ATALBURUA

Gurari okerrak

1. Gizonak, zerbait oker gura dauan bakotxean, bere-

alaxe galtzen dau bere arimearen baretasuna.

2. Arroak eta zekenak ez dabe atsedetik iñoiz be; apala ta gogoz beartsua dana, ostera, bake aunditan bizi da.
3. Oraindiño bere buruarentzat guztiz il ez dan gizona, gai txiki ta txarxarretan laster zirikatu ta azpiratuko dabe.
4. Gizon espiritu-makala eta arteetan zerbait aragikoi ta zentzunak somatzen daben edozeri makurtuta dagoanak, gurari lurkoi orretatik nekez askatu daike osoro bere burua.
5. Orregaitik, orreititik aldendu-bearra dauanean, sarritan biotz-minduta geratzen da; geiago oraindiño: iñok aren gurariai aurka egiten badautse, bein goan asarratzen da.

Gogor eginda aurkitzen da bakea

6. Baiña gura ebana jaristen badau, bere barruko eztenak atsekabetu egiten dau bereala: berak biziro gura eban bakea jaristeko gauza ez zan zalekeriaren bultzakada itsuari amor egin eutsan-eta.
7. Griñai gogor egiñez lortzen da, ba, biotzeko benetako bakea, eta ez morroi lez arein buztarriari makurtuz.
8. Bakea gizon gogotsu ta espiritu-zaleagan bakarrik dago, eta ez gizon aragikoiaren biotzean, ezta azalekoetan murgilduta dabillenagan be.

ZAZPIGARREN ATALBURUA

Alperreko itxaropenetik eta aundikeriatik iges egin bear da

1. Bere itxaropena gizonakan edo izakietan ezarten dauana / gizon utsala da.
2. Jesukristoganako maitasunagaitik enparaduen zerbitzari izateaz eta mundu onetan beartsu agertzeaz / ez zaitez lotsatu.
3. Ez egizu zure burua erdi-lekuan ezarri, zure gaitasuna zeugan ezarririk; jarri, ostera, zure ustea Jaungoikoagan. Egizu zeuk aal dagizuna, eta Jaungoikoak lagunduko dau(tso) eurrez zure borondate ona(ri).
4. Ez jarri ustea zure jakintzan, ezta iñoren maltzur-

keritan be, Jaungoikoaren grazian baiño; Berak eusten dautse apalai eta beeratzen dauz arroak.

Ustea Jaungoikoa ez dan edozetan jarrea utsean jarrea da

5. Ondasunak badaukazuz, eurotan ez arropuztu, ezta adiskideakan be aaltsuak dirala-ta: guztia emon eta, batez be, guri Berbera emotea gura dauan Jaungoikoagan baiño.
6. Ez arrotu zure gorputzaren lerdentasun edo edertasunagaitik, geisoaldi arin bataz zimeldu ta itxurabagetu egiten da-ta.
7. Ez aunditu artu izan dozun trebetasun edo adimenagaitik, Jaungoikoa aspertu ez dagizun: zuk daukazuzan jatorrizko ondasun guztiak Beragandik datoz-ta.
8. Ez uste izan enparaduak baiño ohea zareanik, gizonagan zer dagoan badakian Jaungoikoaren aurrean gaiztoagoa agertu ez zaitez.
9. Ez zaitez arrotu zure egintza onakaitik, Jaungoikoaren eta gizonen arteko eretxietan alde aundia dago-ta; sarritan, gizonai atsegingarri yakena / Jaungoikoari iguingarri yako.
10. Zugan ezer onik badago, izan aurrean enparaduenak obeak izan daitekezala; orrela, zure apaltasuna iraunerazo egingo dozu.
11. Beste guztiak baiño zu atzerago jarreak / ezin ekarri daiketzu kalterik; bati bakarrik aurreratzeak, ostera, kalte aundia ekarri daiketzu.
12. Apalak bake iraunkorra dauko; leia ta sumiña, ostera, sarritan bizi izaten dira arroaren biotzean.

ZORTZIGARREN ATALBURUA

Adiskidetasun larregitik iges egin bear da

1. "Ez zabaldu zure biotza edonori" (Sirak 8, 19); artu, ostera, burubidea gizon jakintsu ta Jaungoikaganako bildur danagandik.
2. Ez billatu larregi gazteen eta arrotzen lagunartea. Ez banatu koipekeriarik aberatsai, eta ez zaitez agertu mundu onetako aundikien aurrean aurpegi onez.
3. Apal, lau, eraspentsu ta oitura onekoakaz batu

zaitez, eta arekaz onbiderako gaietaz berba egizu.

4. Emakume bategaz be ez egizu adiskidetasun larregirik izan; baiña emakume on guztien alde otoitz egiozu Jaungoikoari.
5. Barru-barruko adiskidetasuna Jaungoikoagaz eta Beronen aingeruakaz bakarrik izan egizu, eta gizonen ezagutzetik iges egizu. Maitasuna guztiakaz izan bear da, baiña adiskidetasun larregirik ez da egoki.
6. Batzuetan, maitagarri egiten yaku ezagutzen ez dogun norbait bere entzute onagaitik bakarrik; baiña, aregaz artu-emonak astean, aren bizikereari buruz sortu izan yakun eretxia illunduta geratzen da.
7. Beste batzuetan, gure jarduna enparaduai atsegin yakela uste dogu; baiña, gudan nor garean agertzen gaituen oitura ezibageak ikusten dabezanean, iguingarri izaten gakiez (*gaiakez*).

BEDERATZIGARREN ATALBURUA

Esaneko izatea ta menpetasuna

1. Agindupean egon, nagusiaren menpean bizi eta norbere buruaren jabe ez izatea, gauza aundia da.
2. Agintzea baiño esana egitea / askozaz be sendoagoa da.
3. Asko / besterik ezean bizi dira menpean, eta ez maitasunez; orrelakoak, oi danez, atsekabetuta egoten dira eta momoxeteari emoten dautsoe erraz. Jaungoikoaganako maitasunagaitik, burua biotzbiotzez menperatzen ez badabe, ez dabe espirituaskatasunik iñoiz be jadetsiko.
4. Zabiz orra-ona; baiña, edonora joanarren be, aginpidean diarduanaren menpean apalik bizi ezik, ez dozu atsedetik aurkituko.
6. Ameskeriak eta toki-aldatzeak askori iruzur egin dautsee.
7. Egia da, bakotxak norbere eretxiz pozago diarduala, eta bere eretxikoakana erraz makurtzen dala.

Norbere eretxiak ez dau iñorena ezereztu bear

7. Baiña Jaungoikoa geure artean badago, bakeagaitik noizean bein gure eretxia alde batera itzi bear dogu.
8. Gauza guztiak ondo-ondo dakizan jakituna, ¿nor

da? Beraz, zure eretxian uste larregirik izan bagarik, entzun atsegiñez iñoren eretxia be.

9. Zure pentsakerea ona izanarren be, Jaungoikoaganako maitasunagaitik, enparaduenai jarraitzeko, alde batera izten badozu, orreaz asko irabaziko dozu.

10. Izan be, sarritan entzun dot, iñoren burubidea entzun eta artzea / burubidea emotea baiño ziurrago dala.

11. Norbere eretxia ta iñorena onak izatea be jazo daiteke; baiña, norbere eretxia itzi eta enparaduenak onartu nai ez izatea adimenak naiz inguruko gorabeerak arela eskatzen dabenean be, arrokeria ta burugorkeri-ezagarria da.

AMARGARREN ATALBURUA

Alperreko berbak ez doguz esan bear

1. Urrindu zaitez aalbait geien gizonen zaratotsetatik: munduko artu-emonetan jardutea, asmo garbiaz jokatuarren be, zuretzat eragozpen aundia da-ta.

2. Izan be, laster zikintzen gara eta uskeriak bere sareetan artzen gaitu.

3. Isilik egon banintz eta gizonen artean izan ez banintz izaten dot nai sarritan.

4. Baiña, ¿zegaitik egiten dogu berba onen atsegiñez, eta zegaitik doguz alkarrizketak, isillaldira biurtzerakoan gure barruari geienetan zelanbait kalte egiten dautsagu-ta?

5. Oso atsegin izaten dogu ori, berbeteari esker, alkarriz poz emotea nai izaten dogu-ta; geure biotza poztutea gura izaten dogu, inguratzen daben ainbat bururapenez estututa egoten da-ta.

Jaungoikoaren gaiak buruz berba egiteak emoten dauan pozkaria

6. Eta oso maite eta gura doguzan gaiak, baita geure aurkakoak diranak be, gogoan eta berbetan oso pozik darabilguz.

7. Baiña, ene!, sarritan ezer jadetsi bagarik eta alperrik; izan be, azaletiko pozaldi au jaungoikozko ta barruko pozkariaren kalte aundirako izaten da.

8. Orregaitik, iratzarrik egon eta otoiñez egin bear da,

aldia berbeta alperretan jigaroz ez dakigun. Berba egitea bidezko ta egoki bada, zure berbak onbidea erakusteko izan beitez.

9. Miiña txarto erabiltea eta bide onean aurrera egiteko ardura-eza dira, geienetan, gure berbetan bearrezko negurriak ez gordeteko doguzan errudunak.

10. Espirituari dagokiozan gaiak berbetan erabiltea, barriz, arimearentzat espiritu-obari aundia izaten da, batez be Jaungoikoagan alkartuta eta espiritu ta elburu berak berotuta dagozan personeren artean.

AMAIKAGARREN ATALBURUA

Bakea eta espiritu-bizikeran aurrera egiteko ardurea zelan jadetsi

1. Gure ardurapeko ez diranen esan-egiñetan naastuko ez bagintzaz, bake aundia izango geuke.

2. Iñoren arazoetan naastu, inguruetako jauspideak billatu eta bere barruan gutxitan naiz bein-edo-bein batzen danak, ¿zelan iraun daike baketan luzaro?

3. Zorionsuak biotzez lauak, etenbagariko bakea izango dabe-ta!

4. Santu batzuk, ¿zegaitik izan ete-ziran ain bikaiñak eta otoiñez-zaleak? Euren gurari lurkoietan euren burua guztiz ukatzeko aalegiñak egin ebezalako, eta alan, Jaungoikoari biotz-biotzez lotuta, euren arimearen aurrerapideari lotura bagarik, jarraitu eutsotelako.

5. Gu, ostera, gure gurariak aseteari oso-osorik lotzen gakioz (*gaiakoz*) eta gauza igeskorren ardura larregiaz bizi gara.

Onbidean aurrera egin

6. Era berean, gutxitan azpiratzen dogu griña txar bat eta ez gara adoretzen egun oro oinkada bat aurrera egiteko; orregaitik, beti otz eta epel geratzen gara.

7. Gure buruarentzat osorik ilda eta gure barruan inguruko ardura bagarik bagengoz, orduan bai, orduan Jaungoikoaren gauzak gai gozotzat artu aal izango geukez eta zeruko zertxobait somatzeraiño be eldu aal izango gintzakez.

8. Eragozpenik aundiena, eta bakarra bere bai, gure

griña ta zalekerietatik askatuta ez egotea eta santuak ain ondo jarraitu eutsoen bidean sartzeko erabagirik ez artzea da.

9. Ezbeartxoren bat jazoten yakunean be, beingoan galtzen dogu adorea, eta gizonen gozagarriren eske asten gara barriro.

10. Gizon sendoak lez, burrukan sendo irateko aalegiñak egingo bagenduz, Jaunaren laguntasuna zerutik geugana eltzen be somatuko geuke.

11. Izan be, geuk irabazteko, burrukan egiteko abagunea emoten dauskun Jauna / bere grazian ustea jarrita burrukan egiten dabena laguntza emoteko be gertu dago.

12. Gure espiritu-aurrerapen guztia azaleko egintzak beteten bakarrik jarten badogu, laster makalduko da gure on-gosea.

13. Ezarri dagiogun, ostera, aizkorea zustarrari, menperatzen gaituen zalekerietatik garbiturik, espirituko bakea izan dagigun.

14. Urte oro griña txar bat zustarretik kenduko bagendu, laster elduko gintzakez gizon bikaiñak izatera.

15. Baiña okerretara, sarritan auxe ikusten dogu argi: gure onbidean urte asko eginda gero baiño gure onbideratze-asieran obeak eta garbiagoak gintzazala.

16. Gure barruko beroa ta aurrerapena geitu egin bear litzakez egunean-egunean; baiña orain, leenengo berotasunaren sail bat iraunerazotea be asko dala deritzagu.

17. Naikoa izango zan leenengotan gure buruari indar apur bat egitea, gero guztia erraz eta atsegiñez egin aal izateko.

Borbera burua ezitea

18. Gaitz da oituta gakiozanari (*gaiakozanari*) uko egitea; baiña gatxagoa da norbere naiaren aurka egitea. Baiña, gauza txiki ta errazak garaitzen ez badozuz, gauza gatxak ¿noiz eta zelan aal izango dozuz azpiratu?

19. Zure makurkeriai leenengotik gogor egiñik, edozein oitura txar bertan-beera itzi bear dozu, astiro-astiro eragozpen aundiagoetara eroan ez zagian.

20. Jokabide akats-bageaz zuk izango zeukean bakea eta enparaduai emongo zeuskien poza bazeki, zure espiritu-aurrerapidean arduratsua jokatu zeukela uste dot.

AMABIGARREN ATALBURUA

Zoritzarrak dakarrezan onurak

1. Noizean bein, ezbear eta naibageren batzuk izatea ondo datorkigu, gizonari mundu onetan erbestean bizi dala jakiñerazoteko eta arek bere ustea lurreko gauzetan jarri ez dagian, bere barrura egiten dautsoe dei-ta.

2. Ondo da batzuetan naibageak sufritzea eta, guk artez pentsatu ta egiñarren be, besteak gu txarto ta oker artzea. Onelakoak geienetan apalak izaten lagundu eta arropuzkeri-arriskutik aldendu egiten gaitue.

3. Izan be, agiri diranetan gizonak gu baztarten gaituenean —gugan sinisterik ez ezarteraiño baztatu be—, orduantxe diardugu ardura aundiagoaz Jaungoikoaren billa, gure arima-barruan geure testigu izan daiten.

4. Orregaitik, gizona oso-osorik Jaungoikoagan sendotu bear litzake, ainbeste giza-pozkari billatubearrik izan ez dagian.

Jaungoikoa bear dogula jakiñerazoten dauku atsekabeak

5. Gogo oneko gizonak bere burua atsekabeaz, tentaldiaz naiz bururapen gaiztoz inguratuta daukala somatzen dauanean, Jaungoikoaren bearrian geiago daukala ulertzen dau, eta, Jaungoikoa bagarik, ezer onik ezin egin daikela ezagutzen dau.

6. Orduan, biotz-minduta jarten da, eta, eroaten dauzan zoritzarretatik bere burua askatuta somatzeke, antzi ta errege egiten dau.

7. Orduan, bitzta luzea gogaikarri egiten yako, eta eriotza etorri dakiola gura dau, bere burua gorputz onetako lokarrietatik askatuta ikusteko eta Kristogaz egoteko.

8. Orduan, ziurtasun osorik eta bake osorik mundu onetan ezin izan daitezkeza be ulertzen dau.

AMAIRUGARREN ATALBURUA

Tentaldiai gogor zelan egin bear yaken

1. Mundu onetan bizi garean artean, ezin izan gaitekez lan eta tentaldi bagarik. Orregaitik, Job-en liburuan auxe dago idatzita: "Gizonaren bizitza lur-gaiñean tentaldia da" (Job 7, 1).
2. Orregaitik, bakotzak arduraz ibili bear leuke, bakotxa bere tentaldien aurka zoli egon eta otoitzean beti iratzaririk, deabruaren maltzurkerietan ez jausteko; izan be, gaizto ori iñoiz be ez dago lo, beti "inguruan dabil, nor iruntsiko zain" (P 1^a, 5, 8).
3. Noizean-bein tentaldirik ez daukan gizon ain bikain eta santurik ez dago; beraz, ezin egon gaitekez arekandik guztiz askatuta.
4. Baiña tentaldiak, gogaikarri ta nekegarriak izanarren be, gizonari sarritan oso onurakorrak yakoz, gizona beeratu, garbitu eta irakatsi egiten dabe-ta.

Tentaldia santuen senipartea da

5. Santu guztiak eroan bear izan dabez neke ta tentaldi asko, eta areitatik onura aundiak atara ebezan euren obekuntzarako. Eta tentaldiari gogor egiteko gauza ez ziranak, zoritxarrekoak egin eta betiko galdu ziran.
6. Giza-mailla guztietan, mailla ori oso santua eta toki oso ezkutu ta basa-bazterra izanarren be, tentaldiak eta ezbeharak eroan bear izango dira.
7. Gizonak, bizi daiten artean, tentaldietatik guztiz aldentuta iñoiz be ez da geratuko: zalekeriaz jai gintzazan ezker, arein jatorria geugan daukagu-ta.
8. Tentaldi edo nekegarri bat doaneko, beste bat dator bereala; eta olan, beti izango dogu nekeren bat eroan-bearra, gure leenengo zorientasunaren izate-doaia galdu egin genduan-eta.

Ez da naikoa iges egitea; batez be apaltasuna ta eroapena dira bearrezkoak

9. Askok iges egiten dabe tentaldietatik, eta gero gogorrago jausten dira areitan. Iges egiñez bakarrik ez doguz garaituko; eroapena ta benetako apaltasuna bear dira: orrekaz gure arerio guztiak garaitu-eziñak

egiten gakiez (*gaiakez*).

10. Azaleko abaguneari bakarrik iges egiñik, gatxa zuzarretik ataraten ez dauanak / alperrik egingo dau lan, eta onegan tentaldiak ariñago ta askozaz gogor-rrago biurtuko dira.
11. Zure indar eta aalegiñaz baiño errazago irabaziko dozu, astiro-astiro, eroapenez eta adore onez, Jainko-laguntzaren bidez.
12. Tentaldietan burubidea sarritan eskatu egizu; tentaldietan dagoanarentzat ez zaitetz latz agertu, zeu pozutea gura izango zeuken eratarata / alakoa pozututeko aalegiñak egin baiño.
13. Espiritu aldakorra eta Jaungoikoaganako uste urria da tentaldien jatorria.
14. Itsasontzia lema bagarik olatuak batera ta bestera darabillenez, bere asmoetan ardurabagea ta aldakorra dan gizona be zearka doa, arerioaren erasoan pentzutara.

Benetan gareana agertzen dau tentaldiak

15. "Burdiñearen gogortasuna suak aztertzen dauanez, gizon zintzoa tentaldiak aztertzen dau" (Sirak, 27, 5).
16. Ez dakigu sarritan geuk egin daikeguna; baiña benetan gareana tentaldiak agertzen dau.
17. Orregaitik, zoli egon bear dogu, tentaldia agertzen danean batez bere; izan be, arimearen atetik barruan sartzen ezetara be itzi bagarik, atea joala brinbelean gogor egiten bayako, arerioa errazago garaitzen da.
18. Orregaitik, norbaitek auxe esan eban: "Gatxari gogor egiozu asieran; osterantzean, gatxa luzaro sendotu ezker, osagarria berandu eltzen da" (Ovidio, Remed. Am., 91).
19. Ain zuzen be, leenen bururapen utsa agertzen da, gero irudi gartsua, bereala indarrez sartzen dira atsegiña ta eraginkizuna, eta azkenez, baiezkoa dator.
20. Eta olan, asieratik gogor egiten ez yakonean, arerio gaiztoa igarri bagarik sartu eta arimearen jabe egiten da oso-osorik.
21. Eta ari gogor egiteko geldi ta nagia izaten dana / egunean-egunean makalago biurtzen da, eta arerioak indar aundiagoak artzen dauz aren aurka. Tentaldian

erasoa edozelakoa izanarren be, izan uste ona.

22. Batzuek onbideratze-asieran izaten dabez tentaldirik gogorrenak; beste batzuek, barriz, azkenaldian, eta batzuek euren bizitza guztian.
23. Norbaitzuek tentaldi ariñak dabez, Jaungoikoaren asmo ta jakiturari dagokienez; Berak emoten dautse negurria tentaldiai zuzenkiro, gizonen egoera ta merezimentuari dagokienez, eta Berak eratu dau guztia aurretiaz bere aukeratuen salbamenerako.
24. Orregaitik, tentaldiak inguratzen gaituanean adorea galdu bagarik, naibage guztietan laguntza eskatu bear dautsagu Jaungoikoari ekin eta ekin. Izan be, San Paulok diñoanez, "tentaldiaz batera, tentaldiarri gogor egiteko laguntza eragillea emongo dausku" (Kor 1^a, 10, 13).
25. Beeratu dagiguzan, ba, gure arimak Jaungoikoaren eskupean edozein naibage ta tentaldietan, "biotzez apalak diranak Berak salbatu ta goratuko dauz-ta" (P 1^a, 5, 6).
26. Atsekabe ta tentaldietan ezagutzen da ondoen gizonaren espiritu-aurrerapena; tentaldietan lortzen da merezimeturik aundiena, eta areitan agertzen da geien onoiñena be.
27. Izan be, atsekabeak estutzen ez dauanean, erraz yakoz gizonari eraspene edo on-gosea izatea; baiña zoritxar-aldian atsekabea eroapenez eroaten badau, alakoagandik espiritu-aurrerapen aundia itxaron daiteke.
28. Batzuek, tentaldi aundietan, euren burua oso ondo dakie zaintzen; baiña jausi egiten dira sarritan egun oroko tentaldi txikietan: euren burua beeraturik, garrantzi aundirik ez dabenetan ain makalak agertzean, tentaldi aundietan ustea euren buruan ezarri ez dagien.

AMALAU GARREN ATALBURUA

Ez dogu eretxi ariñegirik egin bear

1. Begiak zeugana biurtu egizuz, eta ez egizuz zure lagun-urkoaren egitadak epaitu. Enparaduak epaitzen, gizonak alperrik egiten dau lan, sarritan egiten dau uts eta oso erraz egiten dau pekatu; baiña bere burua epaitzen eta aztertzen dauanean, frutua ataraten dau beti.

2. Geienetan, geure biotzaren makurkeriaren eratarata epaitzen doguz gaiak; izan be, gure buru-maitakeriak erraz galduazoten dausku eretxi zuzena.
3. Gure gurarien asmo bakarra Jaungoikoa balitz, gure eretxiaren aurka dagozanak ez gendukiez gu onen laster artegatuta itziko.
4. Baiña sarritan tataras eroaten gaituan eragin ezkutua dogu gugan, edo-ta bere atzean garoazan azaleko lillurakeria bat.
5. Askok, eurak konturatu bagarik, egiten dabez zetan euren buruaren billa dabiz. Eta alan, gaiak eurak gura eta nai dabez eratarata jazoten diran artean, bake onean dagozala deritze. Baiña, gaiak euren gurarien eratarata jazoten ez bayakez, beingoan artegatu eta biotz-minduta jarten dira.
6. Uste ta eretxiak bardiñak ez diranean, adiskide ta auzokoen artean, baita erlejoso ta Jainkozaleen artean be, oso sarritan eztabidak sortzen dira.
7. Antxiñako oiturea nekez izten da, eta norbere eretxia iñok be ez dau gogo onez alde batera izten.
8. Menperatze-onoiñenean baiño zeure sen eta asmenean geiago oiñarritzen bazara —menperatze-jarraibidea Jesukristok irakatsi euskun —, gutxitan eta nekez izango zara argitua; izan be, Jaungoikoak gu bere naipean oso-osorik egotea nai dau, eta, eretxi guztien gaiñetik, gugan maitasun gartsua izan daitela nagusi.

AMABOS GARREN ATALBURUA

Maitasun-egintzai buruz

1. Mundu onetako ezegaitik, ezta iñoganako maitasunagaitik be, ez da gaiztakeriarik egin bear; baiña, bearrizana dauanaren onerako, bidezko izango da egintza on bat atzeratzea edo beste egintza obe batzaldatzea.
2. Izan be, orrela egintza ona alperrik galdu bagarik, merezimentu aundiago biurtzen da. Errazoitzat maitasuna ez daben azaletiko egintzak / ez dabe merezimeturik; maitasunaren bultzakadaz egiten dana, barriz, oso txikia ta apala izanarren be, beti da onuratsua.
3. Izan be, egiña baiño egillearen asmoa geiago begiratzen dau Jaungoikoak eta ari garrantzi aundi-

agoa emoten dautso.

4. Asko maite dauanak asko egiten dau. Egiten dauana ondo egiten dauanak / asko egiten dau. Norberaren naitarako baiño guztien onerako egiten dauanak / ondo egiten dau.
5. Sarritan maitasuna dirudiana / aragiak eragindako egintza baiño ez da; izan be, norbere naiaren jatorrizko jokereari gutxitan jakiten dogu uko egiten; saria jasoteko itxaropena eta norbere onurako asmo berekoiak be ezin urrindu daikeguz gugandik.
6. Maitasun benetakoa ta osoa daukana, ezetan be ez dabil bere buruaren billa: gauza guztietan Jaungoikoa goratua izan daitela baiño ez dau gura-ta.
7. Ez dautso iñori ikusi-eziñik be, ez dau bere buruarentzat ezer onik billatzen-eta. Bere buruagan be ez dau poztu nai, eta, eskintzen yakozan ondasun guztien gaiñetik, bere zoriona Jaungoikoagan aurkitzea nai dau.
8. Iñori be ez dautso onik ezarten, guztia Jaungoikoari ezarten dautso-ta; izan be, on guztiak, iturritik lez, Jaunagandik datoz, eta santu guztiak, azkenez, Aregan artzen dabe atsedena atsegin zori-ontsuen artean.
12. Benetako maitasunaren izpi bat nok izan daiken! Orduan bai ikusiko leukezala mundu onetako gauza guztiak uskeriz beteta!

AMASEIGARREN ATALBURUA

Iñoren akatsak eroan-bearra

1. Gizonak, norberagan edo besteakan ondu ezin daikena, eroapenez eroan bear dau, Jaungoikoak beste era batera atondu artean.
2. Bearbada, zu aztertzeke ta zure eroapena lantzeke / orrela obe izango dala erabili egizu buruan: eroapen bagarik gure merezimentuak ez dira aundizat artu bear-eta.
3. Alan be, lagun egin dagitzula eskatu bear dautsazu Jaungoikoari, orrelako eragozpenak ondo eroaten jakin dagizun.
4. Norbait, baten edo birritan burubidea artuta, ontzen ez bada, aregaz eztabaidan asi bagarik, guztia Jaungoikoaren eskuetan itzi egizu, Beronen naia bete eta bere morroi guztiakan goratua izan daiten,

txarretik ona ataraten ondo be ondo daki-ta.

5. Aalegiñak egizuz zure lagun-urkoen obenak eta makaltasunak eroapenez eroaten, enparaduak eroan bear dabezan akatsak zeuk be badozuzala ez yatzu aaztu bear-eta.

*Zugan zuzendu daikezuna
ez nai izan enparaduakan zuzendu*

6. Zure burua zeuk nai dozun eratakoa ezin egin badaikezu, *¿zelan euki daikezuz besteak zure naiaren negurritara?*
7. Enparaduak bikaiñak izan daitezala nai dogu; baiña ez doguz geure utsak zuzentzen. Enparaduak negurri gogorrez artu dagiezala nai dogu; baiña gu zuzenduak izatea ez dogu nai.
8. Gu inguratzen gaituenai erraztasun larregi emotea iguin yaku; baiña eskatzen dogunik guri ukatzea guk ez dogu nai.
9. Enparaduak arau eta aginduen bidez lotuak izan daitezala nai dogu; baiña geuri ezertxo be galerazotarik ez dogu nai.
10. Berba batez, argi ta garbi dago / geure burua negurtzen dogun negurri berberaz gure lagun-urkora gutxitan negurtzen daguna.

Eroapenaren onurak

11. Guztiak bikain-bikaiñak balitzaz, gure antzekoen aldetik *¿ze(r)* neke eroan bear izango geuke Jaungoikoagaitik?
12. Baiña "alkarren nekeak eroaten" (Gal 6, 3) ikasi dagigula erabagi dau Jaungoikoak. Izan be, iñor be ez dago akats bagarik, iñor be ez gurutze bagarik, ezta norberarentzat naikoa jakintsu danik be.
13. Ain zuzen be, bearrezkoa da alkar ondo eroatea eta alkar poztutea, eta bearrezkoa da alkar laguntzen, irakasten eta alkarri burubideak emoten jakitea be.
14. Zoritxar-aldietan agertzen da ondoen, ain zuzen be, onoinemetan baktotxa noraiño eltzen dan. Eta abaguneak ez dabe gizona makal egiten, baiña nor dan agertzen dabe.

AMAZAZPIGARREN ATALBURUA

Komentu-bizikereari buruz

1. Besteakaz bakean eta alkartasunean bizi nai badozu, gai askotan zure eretxi ta borondatea austen ikasi bear dozu.
2. Ez da gutxi / komentu ta alkarteetan bizi, areitan asarre-berba bagarik jarraitu eta eriotzararte zintzo irautea. Zorionsua / an ondo bizi ta ondo ilten dana!
3. Bear dan eraz bizi eta espiritu-bizikieran aurreratu nai badozu, lur-gaiñean erbesteko ta erromes bat zareala izan egizu aurrean.
4. Erlejioso-bizikerea eroan nai badozu, Kristogaitik zoro lez egin bear dozu zure burua.
5. Erlejioso-jantziak eta ule-mozteak gutxi egiten dabe; bizikera-aldakuntzak eta bere griñak guztiz ezita eukiteak egiten dabe benetako erlejiosoa.
6. Jaungoikoa ta norbere arimearen salbamena bagarik beste zerbait billatzen dauanak, naibagea ta neke-miña baiño ez dauz aurkitzen.
7. Txikiena ta guztien menpeko izaten aalegintzen ez danak, ezin irauñ daike baketan luzaro.
8. Zerbitzera etorri zintzazan, eta ez agintzera. Jakin egizu / lan egiteko ta nekeak eroateko jaso zenduala Jaungoikoaren deia, eta ez alperkeritan eta jolasean jarduteko.
9. Izan be, gizonak emen urrea laban lez aztertzen dira. Emen ezin irauñ daike iñok, Jaungoikoagaitik biotz-biotzez apala izatea erabagiten ez badau.

AMAZORTZIGARREN ATALBURUA

Eliz-Guraso santuen jarraibideak

1. Benetako santutasun eta Jainko-onoinemaz argi egin eben Eliz-Guraso santuen jarraibide biziak begiratu egizuz, eta guk egiten doguna gutxi edo ia ezertxo be ez dala ikusiko dozu.
2. *¿Zer da gure bizikerea arein bizikerearen ondoan?*
3. Santu areik, Kristoren biotz-biotzeko adiskideak, Jaunaren zerbitzari izan ziran gosez eta egarritz, otzez eta billoizik, lan eta nekeetan, lo gutxiz eta barauetan, otoitzez eta gogaketaz, eta ori ainbat craso ta iraiñen artean.

4. Apostoluak, martiriak, autorleak, birjiñak eta Kristoren lorratzai jarraitu nai izan eutseen guztiak bai eroan ebezala naibage asko ta astunak!
5. Izan be, mundu onetan euren arimai gorroto izan eutseen, gero betiko bizitzan arein jabe izateko.

Basamortuko Gurasoak

6. Guraso santuak basamortuan eroan eben bizikerea bai zala bizitza estu ta buru-ukatzaz bete! Arein tentaldiak bai tentaldi luze ta astunak! Areik bai iraindu ebazala arerioak sarritan!
7. Areik ziran Jaungoikoari jaso eutsoezan otoitz ugari ta sutsuak! Arein jan-arin gogorak! Arein ardura ta gurari biziak euren arimetako espiritu-bidean aurrera egiteko!
8. Arein burrukaldi latzak euren griñak eziteko! Areik bai baebela, gero, Jaungoikoaganako asmo garbi ta arteza!
9. Egunez lanari ta gabez otoitzari ekiten eutsoen luzaro; eta, lanean ziarden artean be, ez eben gogozko otoitza izten.
10. Aldi guztia arazo egokietan egiten eben, eta orduai laburrak eritzen / Jaungoikoaren gaietan jarduteko.
11. Eta, Jaungoikoari buruzko gaiak ausnartzen izaten eben gozotasun aundiaz, gorputzari jaten emotea be aaztu egiten yaken.
12. Ondasunai, nagusitasunai, deduai, senideai eta adiskideai uko egiten eutseen; mundu onetako ezer be ez eben gura izaten.
13. Bizi izateko lain ozta-ozta artzen eben, eta gorputzaren ardurea izatea be nekegarri egiten yaken, euren burua bearrianak estututa ikusiarren.
14. Orrela, lureko gauzetan beartsuak ziran, baiña oso aberatsak graziz eta onoinemenez. Azalez ezer be ez eben, baiña barruz graziaz eta jaungoikoaz atsegiñaz janaritzen ziran.
15. Munduarentzat arrotzak ziran; Jaungoikoarentzat, barriz, etxeko ta adiskide mamintsuak. Euren burua ezeretzat eben, eta gizonak inguarritzat ebezan; baiña Jaunaren aurrean maitatuak eta oso kutunak.
16. Benetako apaltasunean irauten eben eta menpetasun lauan bizi ziran, eroapenaren eta maita-

sunaren bide-zidorretan zear ibilirik; orregaitik, espirituaren bideetan aurrera egiten eben egunean-egunean, eta Jaungoikoagandik mesedeak ugari jaristen ebezan.

17. Erlejiioso guztien eredutzat izan dira jarriak, eta, epel pilloak nasaikeriarako baiño / onoinenean aurreratzeke geiago eragin bear leuskigue.

Erlejiioso-bizikerea

18. Anaidi-sortze santuaren asieran erlejiiosoen gogoai bai zala gartsua!

19. A zan oneraspena otoitzean!, a zan alkar-gogoai onoinenerako!, areik bai zorrotzak arauak beteten!, areik guztiak bai izan eutsoela begirunea ta menpetasuna sortzaillearen araudiari!

20. Burrukan ain gogor eginda eta mundua azpiraturik / euren bizikereaz itzi euskuezan lorratzak / benetako santu ta bikaiñak izan zirala agertzen daukue gaur be.

21. Orain, barriz, araua austen ez dauanak eta egun baten onartu eban buztarria eroapenez eroan daikeanak / ontzat artzen dau bere burua.

22. Aundiak dira gure izakerearen epelkeria ta alperkeria; izan be, laster be laster aazten yaku leengo berotasuna, eta gure nasaikeria ta epelkeria aundiagaitik bizitza gogaikarri egiten yaku.

23. Gizon santuen ainbeste jarraibide sarritan ikusi dozuzan ori: ez al-da zugan lozorroan egongo onoinenean aurreratzeke gogoai!

EMERETZIGARREN ATALBURUA

Erlejiioso onaren jardunaldiak

1. Erlejiioso onaren bizikerea guztietariko onoinenetan nabarmendu bear da, agiriz dan lakoa barrutik be izan daiten;

2. eta azalez agertzen dan baiño askozaz ohea izan bear dau barruz; izan be, edonon gagozala, Jaungoikoa da ikusten gaituana; Berari zor dauzagu begirunerik aundiarena, eta aingeruen antzeko garbitasunaz ibili bear dogu Aren aurrean.

3. Egungo oro barriztu bear dogu gure asmoa eta barruko berotasuna bizkortu, leenengoz egungo orre-

tan onbideratu bai-gintzazan, eta auxe esan bear dogu:

4. "Zatoz, ene Jaun eta Jainkoa, niri laguntza ekartera, nire asmo onak burutzeke eta zeure zerbitzari-tza santuan jarduteke; emon egidazu / gaur barrero bizikera santua asteko grazia, orain arte egin dodana ezer be ez da-ta."

5. Gure asmoa dan aiñako sendoa izan bear leuke gure aurrerakuntzak; onoinenean aurreratu gura dauanak, ardua aundia bear dau.

6. Asmo sendoa artzen dauana be sarritan koldartzen bada, ¿zer egingo ete-dau noizean-beingo asmoak edo sendotasunik ez daben erabagiak artzen dauzanak?

Gizonak ekin eta Jaungoikoak egin

7. Era askotara izten doguz alde batera gure erabagiak; eta oneraspen-jardunik txikiena iztea / ia geienetan geure arimearen kalterako izaten da.

8. Zintzoen artean, euren asmoa burutzea / euren jakintzari bagarrik, Jaungoikoaren graziari eutsita dago; orregaitik, zerbaiti ekin bear dautsoenean, ustea Jaungoikoagan jarten dabe.

9. Izan be, asmoa artu, baiña Jaungoikoak erabagi, eta ez dago gizonaren eskuetan bere bidea.

10. Maitasunagaitik naiz lagun-urkoaren onerako / batzuetan oiturazko jardunaldiren bat izten dada, gero barrero be erraz eskuratu aal izango dogu zgeite ori.

11. Baiña jardunaldi ori gogaikarri yakulako naiz zabarkeriagaitik erraz izten bada, egitada errudun egiten da, eta gero geure kaltegarri biurtzen da.

12. Aal dagigun aiña aalegindu gaitzean, eta, onela ta guzti be, erraz jausiko gara uts askotan.

Asmoak zeatzak izan bear dabe

13. Baiña beti be, elburu zeatzen bat artu bear dogu, eta, batez bere, gure aurrekuntzarako eragozpenik geien jarten dabenai buruz.

14. Gure egitadak, azaletikoak naiz barrukoak, aztertu eta erabidez jarri bear doguz, batzuk eta besteak geure espiritu-aurrerapenera begira dagoz-ta.

15. Zeure barruan batuta beti ezin iraun badaikezu,

besterik ezean noizean bein batu zaitez, edo gutxienez egunean bein, goizean naiz gabeen.

16. Goizean asmoak egizuz, eta gabeen zeure egitadak aztertu: egun orretan berbaz, egiñez eta bururapenez zelakoa izan dan zure jokabidea; izan be, orrean bidez Jaungoikoa ta zure anaiak sarritan iraindu dozuz.

17. Gertatu zaitez gizonezko indartsu lez deabruaren erasoai aurka egiteko; ezi egizu jan-gura larregia, eta aragiaren edozein makurkeri errazago eziko dozu.

18. Iñoiz be ez zaitez alperkeri utsetan egon; irakurten, idazten, otoitz egiten, ausnartzen naiz lagunartean onerako dan zerbait egiten jardun egizu.

19. Gorputz-jardunai buruz, zuur jokatu bear da, guztiak bardin artzea ez da egoki-ta. Lagunartearnak ez diran egikizunak ez dira agirian egin bear, norberarenak isillean zurrago beteten dira-ta.

20. Alan be, guztiak buruzko ekitaldietan ez zaitez ardurabagea izan, ezta zeuretzakoetan lar arduratsua bere.

21. Baiña, agindutako guztia naiz izentatu dautsuena osoro ta zintzoro beteta gero be, astirik badozu, batu zaitez zeure barruan eta zeure oneraspenaren bultzakadai jarraitu egiezu.

22. Ezin egin daikeez guztiak egikizun bardiñak, bati au eta besteari ori onurakorrago yako-ta.

23. Alan bere, egikizunak aldatzea gura izaten dogu, egunak zeintzuk diran; izan be, batzuk egokiagoak jaiegunetarako eta beste batzuk astegunetarako egokiagoak dirala dirudie.

24. Batzuk bearrezko yakuz tentaldian, eta beste batzuk onurakorrak bake ta barealdian. Izan be, itunaldiak (*tristuraldiak*) estutzen gaituanean, gauza batzuk gura izaten doguz gogoan erabiltea, eta beste batzuk Jaunagan pozik gagozanean.

25. Jaiegun nagusietan, gure berotasuna Jainko-egikizunetan biztu eta santuen bitartekotasuna gogotsuago eskatu bear dogu.

26. Jai baten eta bestearen artean, aparteko zerbait egiteko erabagia artu bear geuke, mundu onetatik orduantxe urtenda betiko jaitara eltzeke bai-gengozan.

27. Orregaitik, jai osasungarri oneitan gure barrua arduraz atondu bear geuke, oneraspen geiagoz bizi izanik eta gure eginbearrak zintzoago beterik, gure

neke-saria Jaungoikoagandik laster artzeke baingengozan.

28. Eta sari ori atzeratu badadi, ondo gertatu bagarik gagozala eta izentatutako aldian gudan agertuko dan aintza ederrera oraindiño duin ez gareala uste izan bear dogu, eta, beraz, ara joateko gure burua obeto gertatzeko aalegiñak egin dagiguzan.

29. "Zorionsua — diño San Lukas ebanjelariak — ugazabak, etortean, iratzaririk aurkitu dagian morroial Benetan dirautsuet: bere ondasun guztien buru jarriko dau" (Lk 12, 37 eta 44).

OGEIGARREN ATALBURUA

Batasunerako eta isiltasunerako maitasuna

1. Zure buruagaz bakarrean egoteko asti egokia aurkitzeke aalegiñak egizuz, eta Jaungoikoaren onegiñak gogoan erabili egizuz sarritan.

2. Itzi egizuz alde batera jakingurea bakarrik biztuten dabezan gaiak, eta garrantzirik ez daukan egikizuna baiño geiago / darnua dakarren gaiak irakurri egizuz.

3. Alperreko berbetak eta batetik bestera alperrik ibilteak eta zure inguruko albista eta zurrumuruak entzutetik urrintzen bazara, ausnartze onurakorra ekiteko astia naikoa ta egokia aurkituko dozu.

4. Santurik aundiaren gizonen artean aal eben aiña urrintzen ziran, eta Jaungoikoa otseintzea bakarrean eta isillean egitea naiago eben.

5. Norbaitek auxe esan eban: "Gizonen artean egon nintzan bakotxean, gizon-ezago eginda biurtu nintzan" (Seneka-k, 7-garren Idazkia). Orixe da, ain zuzen be, larregi berba egiten dogunean geienetan somatzen doguna gudan.

6. Berbetan lar egitea baiño guztiz isilik egotea obe da.

7. Norberaren burua kanpoan bear dan aiña gordetea baiño etxean ezkutuan geratzea errazago da.

8. Orregaitik, barruko ta espiru-bizikerara eltzeke aalegintzen danari / bearrezko yako Jesusegaz gizataldetik urrintzea.

Gizon espiritu-zalearen sendotasuna

9. Ezkutuan pozik egoten danak baiño iñok be ez dau

bere burua sendotasun aundiagoaz agertzen.

10. Isilik pozik egoten danak baiño inok be ez dau zuertasun ziurragoaz berba egiten.

11. Menpeko izaten pozik egoten danak baiño inok be ez dau aginpide aundiagoaz agintzen.

12. Esana egiten iguñik egin bagarik ikasi dauanak baiño inok be ez dau ondoren on ziurragoaz agintzen.

13. Barru onaren autorpena daukana baiño inor be ez dau sendoago poztzen.

14. Alan be, santuen sendotasuna beti egon zan Jaungoikoaganako bildurrak guztiz eratuta; eta, onoiemen sendotan eta Jaungoikoaren grazitan argi egiñarren, euren biotzean ez yakezan euren ardurea ta apaltasuna gutxitzen.

15. Gaiztoen sendotasuna, barriz, arrokeri ta aundi-keriatik datoz, eta, azkenean, aundi-uste ori euren iruzur biurtzen da.

16. Bein be ez egizu uste izan / bizitza onetan sendotasunik dozunik, praille ona ta bakarzale sutsua zareala baderitzazu be.

17. Sarritan, gizonen eretxiz onenak zirudienak, eurakan ezarten eben uste larregiagaitik / arrisku aundiagoetan jarri ziran.

18. Orregaitik, euren burua sendoegi ikusi ez dagien, arrotu ez daitez, eta azaletiko pozbideak billatzera makurtu ez daitez, orrelakoai obe yake tentaldi bagarik ez izatea eta sarritan zirikatua izatea.

19. Norbaitek lurreko alaitasun igeskorak gura izan ez eta mundu onetako gauzen ardurarik izango ez baleu, orrelakoak bai izango leukela barru ona!

20. Norbaitek norberagandik ardura utsalak jaurti eta bere bururapenak gai onuragarri ta jaungoiko-koetan bakarrik ezarriko baleuz, bere itxaropen osoa Jaungoikoagan ezarriko, orrelakoak bai izango leukezala baika ta baretasuna!

21. Leenen damu santuari arduraz ekin ez dautsana, ezin izan daiteke zeruko atsegiñen duin.

22. Biotzaren benetako damu izatea nai badozu, zure barru-gelan sartu zaitez, munduko zaratotsetik urrin, idatzita dagoenez: "Damutu zaitez zuen ogeetan" (Sal 4, 5). Gelan aurkituko dozu / andik kanpo geienetan galduko dozuna.

23. Geleak, an etenbagarik egon ezkerro, gozotasuna sortzen dau; gelea bertan-beera sarritan izten bada, barriz, gogaikarri biurtzen da.

24. Zure onbideratzearen asieran an egoten bazara eta gelea bear danez zaiñtzen badozu, aurrerantzean zure adiskide maitea izango da, eta atsegiñik pozgarriena eskuratuko dautsu.

25. Arima Jainkozaleak aurrerakuntzak egiten dauz isillaldi ta bakealdian, eta Liburu santuetako ezku-tuetan sartzen da.

26. An, gau oro bere burua ikuzi ta garbitzeko negar-malkoak eurrez aurkitzen dauz, lurreko zaratetatik urrinduta irauten dauan aña bere Egillearentzat kutunagoa egin daiten.

*Mundua igaro egiten da,
baita aren zalekeriak be*

27. Beraz, adiskide ta ezagun artetik urrintzen danak, Jaungoikoa bere aingeru santuakaz urreratu egiten yakola somatuko dau. Izan be, norberaren buruaz aaztuta / miragarriak egitea baiño bere burua ostendu ta zaintzea obe da.

28. Kanpora gutxitan urteeta, ikustetik eta ikusia zatetik iges egitea, gizon erlejiosoagan txalogarri da. Eukitea bidezko ez yatzuna, ¿zetarako nai dozu ikusi? "Mundua igaro egiten da, baita aren zalekeriak be" (Jn 1ª, 11, 17).

29. Gorputzeko gurariak alperkeritara ta astia galtzera egiten dabe bultzaz; baiña ordu ori igaroaz batera, ¿zer geratzen yatzu / barruan naibagea eta biotzean nasaikeria baiño besterik?

30. Urteera pozgarriak biurtze ituna (*tristea*) dakar sarritan, eta gabeko lo-gutxi alaiak iratzartze ituna dakar. Orrela, aragiaren edozein atsegin bigun-bigun sartzen da gugan; baiña azkenean atsegin arek zau-ritu eta il egiten dau.

*Geroago ta geiago ikusi nai dauanaren
lillurakeria*

31. ¿Inon ikusi ete-daikezu / emen ikusten ez dozunik? Emen dagoz zeru-lurrak eta izaki guztiak, eta orrexetatik izan ziran egiñak gauza guztiak.

32. Esan egidazu: gu argitzen gaituan eguzki onen azpian luzaro iraun aal dagianik, ¿non ikusi daikezu? Zure burua ase daikezula uste dozu bearbada, baiña ori inoiz be ezin lortu izango dozu.

33. Gauza guztiak zeure begien aurrean batuta ikusiko bazeuz (*bazenduz*), ¿ez litzake irudipen utsa izango? Begiak Jaungoikoagana jaso egizuz, eta zure pekatu ta alperkeriakaitik parka eskatu egiozu.

34. Itzi egiezu utsa dana buru-eretxiai, eta zu adi egon zakioz Jaungoikoak agindu dautsunari. Itxi egizu atea zure ostean eta dei egiozu Jesusi, zure maite bakarrari. Zagoz Beragaz gelan, orrenbeste bake inon be ez dozu aurkituko-ta.

35. Urteten ez bazara eta munduko zurrumurrui jaramonik egiten ez badautsezu, aldatu-eziñezko baketan iraungo dozu. Baiña, noizean bein albistak entzutea atsegin dozun ezkerro, nai ta nai ezkoa da zuk gero biotzean artegatasunak sufritzea.

OGETABATGARREN ATALBURUA

Biotzeko damua

1. Espiritu-bizikera aurrerakuntzaren bat egitea gura badozu benetan, Jaungoikoaganako bildurretan iraun egizu, eta ez zaitez nasaiegia izan; ezi egizuz, barriz, zure zentzunak araubide zorrotz baten buztar-pean, eta ez emon zure burua baikortasun zoroai.

2. Biotz-damuari ekin egiozu, eta oneraspena aurkituko dozu.

3. Ondasun askoren atea zabaltzen dauan giltza da damua, nasaikeriak ain arin galdu-azoten dauzan ondasunen atea.

4. Gizonak bera bizi dan erbestaldia ta bere ari-mearen inguruko ainbat arrisku gogoratu ta ausnartu ezkerro, arrigarria da benetan bizitza onetan gizona osoro poztu daitekela ikustea.

5. Gure biotz ariñagaitik eta gure akatsak zuzentzeko ardura-ezagaitik, ez doguz somatzen arimea naibagetzen daben miñaldiak, eta orregaitik sarritan zorakeriz barre egiten dogu, benetan negar egin bear geukenean.

6. Ez dago benetako askatasunik, ez poz beterik barru garbiaz batera Jaungoikoaganako bildurretan izan ezik.

7. Zoriontsua, damu santuaren bidez, sakabanatze-gai danetik aldendu eta Jaungoikoagazko alkar-tasunean batu daitekena!

8. Zoriontsua, bere barrua loitu naiz astundu daike

edozeri uko egiten dautsana.

9 Gogor egizu gizonkiro, oiturea oitureaz garaitzen da-ta.

10. Gizonakandik aldentzen badakizu, eurak be zure eginbearrak beteten gogo onez itziko dautsue.

11. Aldendu zaitez inoren arazoetatik, eta ez zaitez nagusien egikizunetan sartu.

12. Leenen, zeure burua begiratu egizu, eta, maite dozuzanai burubideak emon baiño leen, batez be zeure buruari emon egiozuz.

13. Gizonen laguntzarik ez badozu be, ez jarri biotz-minduta orregaitik; baiña Jaungoikoaren morroiari ta erlejioso Jainkozaleari dagokionez zintzo ta ardu-ratsu bizi ez zarealako, bai, orregaitik atsekabetu zaitez.

*Pozkariak egokitsuak eta eragozpenitsuak
izaten dira*

14. Bizitza onetan pozkari asko ez eukitea —batez be zentzunen somagarri badira—, gizonari egokiago ta ziurrago yako.

15. Alan be, Jaungoikoakozko pozkaririk inoiz be ez edo noizean bein baiño ez badoguz, geu gara errudun, biotzeko damu-billa ez diardugulako, eta azaletiko gauza igarokorra uko egiten ez dautsegulako.

16. Jaungoikoakozko pozkaria artzeko bagarik, naibage asko artzeko duin zareala autortu bear dozu.

17. Gizona guztiz damututa dagoanean, mundu osoa ari nekegarri ta garratz egiten yako.

18. Gizon onak / damutzeko ta negar egiteko gairik naikoa aurkitzen dau beti: bere burua naiz bere lagun-urkoa begiratu, naibage bagarik emen inor be bizi ez dana ondotox daki-ta. Eta bere burua zeatzago aztertzen dauanean, sakonagoa izaten da bere samaña.

¿Zer dala-ta biotz-damua?

19. Gure griña txarrak eta pekatuak samiñerako ta biotz-damurako gai dira; izan be, areitan sartuta gagozan ezkerro, ia ez gara zeruko gauzak begiratzeko gauza.

20. Bizitza luzearen orde, eriotza gogoan sarriago erabiliko bazeu (*bazendu*), obetzeko ardura geiago

izango zeuke, ezpai bagarik.

21. Eta gaiñera, inperuko edo garbitokiko geroko oiñazeak ausnartuko bazeuz (*bazenduz*), neke ta samintasanak pozik eroango zeukezala uste dot, eta laztasanari be ez zeuskiola bildurrik izango.

22. Baiña, egia oneik gure biotzeko sakonerañño sartzen ez diran ezkerero, eta oraindiño be bigun-keriak maite doguzan ezkerero, otz eta nagi geratzen gara.

23. Espiritua utsik izaten dogun ezkerero, gure guzputz gaisoa sarritan erraz-erraz dabil aieneka.

24. Eskatu egiozu, ba, Jaunari damu-espirtua, eta profetagaz batera auxe esan egizu: "Emon egidazu, Jauna, janarizat negar-malkoen ogia, eta edarizat negar-mpuluak eurrez" (Sal 80, 6).

OGETABIGARREN ATALBURUA

Giza-zoritxarra ausnartzea

1. Edonon egon naiz edonora joan, Jaungoikoagana biurtzen ez bazara, zoritxarrekoa izango zara.

2. Zeuk nai ta gura dozuna jazoten ez bayatzu, ¿zegaitik artegatzen zara? Izan be, ¿nok dauko guztia bere gurariaren neguriz? Ez nik, ez zuk, ez lur-gaiñeko iñok be.

3. Sartu egizu au buruan: atsekabe ta larritasan bagarik iñor be ez dago lurrean, erregea naiz Aita Santua bera izan.

4. Beraz, ¿nor da ondoen dagoana? Benetan, Jaungoikoaganako maitasunagaitik nekeren bat ondo eroateko gauza dana.

5. Txepel eta argibage askok auxe diño: "Begira, gizon arek bai daroala bizikera ona! A bai aberatsa, a bai aundia, a bai aaltsua, arena bai giza-mailla!"

6. Baiña zuk zeruko ondasunak begiratu egizuz, eta bizitza onetako gauzak ezer ez dirala ikusiko dozu; bestetara bai: oso aldakorrek eta aspergarriak dira, ardura ta bildur bagarik iñoiz be ez dira eukiten-eta.

"Zoritxarra da lur-gaiñean bizi izatea"

7. Gizonaren zoriona ez datza bizitza onetako ondasunak ugari eukitean; bearrezkoakaz naikoa dauko.

8. Benetan, zoritxarra da lur-gaiñean bizi izatea.

9. Gizona ezpiritu-zaleago dan neguriz, ari bizitza au garratzagoa egiten yakoko, giza-ustelkeriaren akatsak obeto ezagutu ta argiroago ikusten dauz-ta.

10. Izan be, jan, edan, iratzarrik egon, lo egin, atsedean artu, lan egin, eta, azkenez, izateak ezarten dautsazan enparadu bearrizanen azpian egotea, bere burua guzti onetatik eta erru guztitik askatuta gogo onez ikusi nai leuken gizon Jainkozalearentzat ezbear eta atsekabe aundia da benetan.

11. Izan be, barruko bizikerea daroan gizonak / mundu onetan gorputzak eskatzen dautsan sortaz oso estututa dagoala somatzen dau bere burua. Orregaitik, profetak bere burua areitatik askatuta ikustea eskatzen eban biotzez: "Atara nagizu, Jauna, nire bearrizanetatik" (Sal 25, 17).

Zorakeria da gure ezereza maite izatea

12. Baiña, errukarriak euren ezereza ezagutzen ez dabenak, eta errukarriagoak, ezerez ori ezagutu bagarik, bizitza ustelkor eta igarokor au maite dabena!

13. Izan be, batzuk bizitza oni guztiz lotuta dagoz, eta, lanean naiz eskean jardunda, bear-bearezkoak oso nekez lortuarren be, emen beean beti bizi aal balitzaz, ez leukee Jaungoikoaren erreñuaren ardurarik izango.

14. Burubage ta biotz-gogorrek benetan, aragiari dagokiozanak baiño atsegin ez izateraño lurrekoetan ondatuta dagozanak! Baiña, azkenean, errukarri orreik, euren zoritxarrerako, euren bizitzan maite izan ebena zearo uskeria ta txatxarra zala ikusiko dabe.

15. Jaungoikoaren santuak eta Kristoren adiskide zintzoak, ostera, aragiari atsegin yakona eta lurrean areik atsegiña emongo leuskien guztia iguindu egiten eben. Euren itxaropen osoa ta asmoak betiko ondasunetara zuzentzen ebezan etenbagarik.

16. Euren gurari guztia gorantz zuzentzen zan, iraunkor eta ikusi-eziñetarantz, ikusten diranetarako maitasunak bekoetara eta txatxarretara bultzatu ez egizan.

Suta ur artetik igarotea

17. Espirituaren gaietan aurrera egiteko itxaropena ez egizu galdu, anai orrek: oraindiño astia ta abagunea dozuz orretarako.

18. Zure asmoa, ¿zegaitik nai dozu atzeratu biarko? Tira, ba, jagi, berealaxe asi zaitez eta auxe esan egizu: "Oraintxe da ekiteko aldia, oraintxe burrukan egiteko aldia, oraintxe obakuntzarako une egokia."

20. Su ta ur artetik igaro-bearra dozu, gura dan atsedena aurkitu baiño leen. Zure buruari gogor egiten ez badautsazu, ez dozu griña txarrik garaituko.

21. Gorputz makal onetan bizi garean artean, ezin egon gaitekez pekatutatik askatuta, ezta iguiñaldi ta min bagarik bizi be.

22. Ezetariko zoritxar bagarik, pozik atsedenduko gintzakez bizitza onetan. Baiña, errubagetasuna pekatuaz galdu genduan ezkerero, beragaz galdu genduan gure benetako zoriona be.

23. Orregaitik, eroapena izan eta gure itxaropena Jaungoikoaren errukian jarri bear dogu, oraingo gaitakeria igaro arte, eta ilkor dana biziak beragandu arte.

Giza-makaltasuna

24. Beti gaitakeriara makurtuta dagoan giza-makaltasuna sakona da benetan! Zure pekatuak gaur autortzen dozuz, eta autortu dozuzanetan jausten zara barriro biar.

25. Orain arduraz bizi izateko asmoa dozu, eta, ordubete geroago, asmorik artu ez bazenduan lez jokutzen dozu.

26. Onen makalak eta aldakorrek garean ezkerero, gure burua benetan beeratu daikegu, baita gure buruatzaz eretxi txarra izan be.

27. Neke gogorren ostean graziaren bidez lortu aal izan genduana, gure ardura-ezaz beingo baten galdu daikegu.

28. Onen goizetik onen epelak agertzen bagara, ¿zer izango ete-da gutzaz bizitzako arratsaldean?

29. Gure bizikeran oraindiño benetako santutasun-lorrazik be agiri ez dala, bakea ta ziurtasuna daukagulakotan atsedenera eldu gura badogu, ondo

errukarriak gara!

30. Asibarri onak lez oitura santuetan barriro irakatsiak izatea ondo etorriko litzakigu, bearbada geroko obakuntzaren eta espiritu-aurrerakuntzaren itxaropenik balego.

OGETAIRUGARREN ATALBURUA

Eriotzari buruzko ausnarketa

1. Laster be laster egongo zara egia gogor onen aurrean. Begira, ba, zure egoerea. Gaur bada gizona, eta biar ez da agiri. Eta begien aurretik kenduaz batera, gomutapenetik be laster doa.

2. Gero etorriko dana begiratu bagarik, begien aurrean oraingoa baiño ez daukan gizona, orixe bai dala tentela ta biotz-gogorra!

3. Edozein ekintza ta bururapenetan, gaur ilgo zarealakotan lez jokatu bear zeuke.

4. Zure barrua bare balego, eriotzari ez zeuskio bildur aundirik izango. Eriotzatik iges egitea baiño pekatuetatik alde egitea obe izango litzakizu.

5. Gaur gertu ez bazagoz, ¿zelan egongo zara biar? Biarko eguna bada-ezpadakoa da, eta, ¿nok daki / biar ori zeure eskuetan egongo dan ala ez?

Bizi-luzea izanarren, eriotza nai ta nai ezkoa da

6. Onen gutxi ontzen garean ezkerero, ¿zer lortzen dogu luzaro bizi izateaz? Bizitza luzeak ez gaitu beti obeagoak egiten, sarritan geure erruak geitu baiño.

7. Mundu onetan egun bat bakarrik bear danez bizi izan bagintzaz!

8. Euren onbideratzea urteka zenbatzen dabe askok. Baiña euren obakuntzaren frutuak urri dira sarritan.

9. Iltea bildurgarria bada, luzaro bizi izatea arriskutsuago izan daiteke bearbada.

10. Zorionsua / bere eriotz-ordua beti begien aurrean jarteko egun oro gertatzen dana!

11. Iñoiz gizonik ilten ikusi badozu, zeu be larrialdi berean izango zareala gogoratu egizu.

12. Goizean, ez egizu gabera eltzeko usterik izan; eta gabean, biaramonera elduko zareala esaten ez azartu.

13. Beraz, beti zoli egoten aalegindu zaitez, eta

eriotzak zu uste-bagarik artzeko lez inoiz be ez zaitez bizi.

14. Askori eriotza bat-batean eta ez-ustez etorten yake gairera, "gutxien uste dagizuen orduan etorriko da Gizasemea-ta" (Mt 24, 44).

15. Azken-ordua etorri daitenean, ordurarteko zure bizikerea oso beste era batera irudiko yatzu, eta biziro damutuko zara orren alperra ta nagia izan zarealako.

16. Eriotz-orduan aurkitua izatea gura dauan lez orain bizi izaten diarduana, bai dala zoriontsua ta zuurra!

17. Izan be, mundua iguintzeak, onoimenean aurrera egiteko gurari gartsuak, arau-gordetea maite izateak, gorputz-nekean jarduteak, menpetasunerako bizkortasunak, norbere burua ukatzeak eta edozein ezbear Jasukristoganako maitasunagaitik eroaten jakiteak, zoriontsu ilteko uste aundia emongo dautsoe alakoari.

18. Osasunez zanean artean, egintza onik asko egin daikezu; baiña, geisotuta gero, ez dakit orduan zer egin aal izango dozun. Izan be, geisoaldiaz obeak egiten diranak gutxi izaten dira.

19. Batera ta bestera dabizanak be gutxitan santutzen dira.

Damutzea baiño aurretiaz arduratzea obe

20. Ez egizu ezarri zure ustea senide ta adiskideakan, eta zure salbamen-ardurea be ez egizu geroagotu, gizonak zutzaz zeuk uste dozun baiño ariñago aaztuko dira-ta.

21. Zure itxaropena enparaduen ala-olako laguntzan jartea baiño / obe dozu orain adonez arduratzea eta egintza on batzuk aurretiaz egitea.

22. Orain zure buruaz arduratsu ez bazara, gero ¿nor arduratuko da zutzaz? Une onetan aldi oso ederra dozu eskuetan: "Oneixek dira salbamen-egunak; auxe da aldi egokia" (Kor 2^a, 6, 2).

23. Baiña, ai ene!: oraingo aldi onen bidez zuk zure burua betiko bizitzaren duin egin aal izanarren, aldi au ez dozu zure onerako orren egoki erabilten.

24. Etorriko da obea izateko egun bat edo ordu bat gura izango dozun aldia, baiña ez dakit obakuntza orri lortuko dozun.

25. Ene, adiskide maite ori! Ordu guztietan eriotzari bildur bazeutso eta eriotza gairan dozulakotan bazengoz, orduan bai urrindu aal izango zintzakezala arrisku aunditik, baita bildur ikaragarritik aldendu be!

Oraintxe il, gero Kristogaz bizi izateko

26. Eriotz-orduan bildurtzeko bagarik poztu aal izateko erara bizi izateko aalegiñak egizuz orain.

27. Munduarentzat ilten oraintxe ikasi bear zeuke, orduan Kristogaz bizi izaten aal izateko.

28. Orain guztia baztartzan jardun egizu, gero Jaunagana nasai-nasai aurkeztu aal zaitez.

29. Zigortu egizu orain zure gorputza gorputz-nekeen bidez, gero sendotasun eta uste onez beterik izan aal zaitez.

30. Burubaga ori! ¿Zelan uste daikezu urte askotan bizi izango zareala, benetan egun ziurrik bat bera be ez dozula? Amaikatxo ameskoi geratu ziran atzipetuta orrezaz, lurretik uste bagarik kenduak izanik!

31. Ainbat bidar entzungo zenduan urlia ezpataz il zala; berendiak bere burua urkatu egin ebala; sandiari, goitik jausita, burua apurtu yakola; bestea, jaten egoala, ber-bertan il zala, eta beste bati jolasean ziarduala etorri yakola bere azkena.

32. Bat suaz inguratuta il zan, beste bat aitzoz, beste bat izurritean, beste bat lapurren eskuetan; eta onela, guztien azkena eriotza da, eta gizonaren bizitza / gerizea baizen arin igaroten da.

Astiaren bidez, irabazi betirauna

33. Zu ilda gero, ¿nor gomutatuko da zutzaz? Eta, ¿nok egingo dau otoitz zure alde? Egizu oraintxe, ene maite orrek, aal dagizun guztia; egizu oraintxe, noiz ilgo zanean ez dakizu-ta, eriotz-ostean jazoko yatzuna be ez dakizu-ta.

34. Astia dozun artean, betiko ondasunak batu egizuz. Zeure salbamena baiño ez egizu gogoan erabili eta Jaungoikoaren gaietaz bakarrik arduratu zaitez.

35. "Egizuz adiskideak orain", Jaungoikoaren santuai begirunea erakutsirik eta arein egintzak eredutatzat arturik, "bizitza onetatik urten zaitezanean,

betiko bizitokian artu zagiezan" (Lk 16, 9).

36. Munduko arazoan ardurarik ez dauan arrotz eta bidaztiaren antzera bizi zaitez lurrean. Zure biotza askatuta gorde egizu, beti Jaungoikoagana jasota, "emen uri iraunkorrik ez daukazu-ta" (Eb 13, 14).

37. Zure erreguak, otoitz eta negar-malkoakaz batera, egun oro zerura zuzendu egizuz, zure espirituak eriotz-ostean zorionez beterik Jaunagana igarotzea merezi dagian. Amen.

OGETAL AUGARREN ATALBURUA

Pekatarien auzia ta oiñazeak

1. Gauza guztietan beti elburua begiratu egizu, eta egunen baten ezer estaltzen ez yakon Epaille zorrotzaren aurrean zelan aurkeztuko zanean gogoratu egizu; Epaille a ez da emoitzakaz biguntzen, Arek ez dau atxakirik onartzen; Arek zuzen epaituko dau.

2. Pekatari errukarri ta zoritzarreko ori! Zure gaiztakeri guztiak ezagutzen dauzan Jaungoikoari, ¿zer erantzungo dautsazu zuk, batzuetan gizon asarratuen aurpegiari bildur dautsazun orrek?

3. ¿Zegaitik ez dozuz negurriak artzen Auzi-egunerako? Orduan ez dau inok be inoren alde zuribiderik agertuko, baktotzak bere sortea eroateko arazorik naikoa izango dau-ta.

4. Orain zure nekea onuragarria da, zure negar-malkoak Jaungoikoari gogoko yakoz, zure zotiñak entzungarriak dira, eta zure damua ordaingarri yako Jaunari eta garbigarria da zure arimearentzat.

5. Irainak artzean, artu dauan irain baiño irain egin dautsanaren asmo gaiztoa mingarriago yakonak, eta bere arerioen alde Jaungoikoari otoitz gogo onez egin eta irainak biotzez parkatzen dauzanak, eta enparaduai parka eskatzea luzatzen ez dauanak eta asarratu baiño errukitu errazago egiten danak, eta bere buruari sarritan indar egiten dautsanak eta bere aragia espirituari menperatzeko aalegiñak egiten dauzanak, garbitoki aundia ta onuragarria dauko.

Pekatua,ugarria

6. Griña txarrak zuzarretik ebagirik, egin diran pekatuetatik garbitzea / beste bizitzarako iztea baiño

oraintxe garbitzea obe da.

7. Geure aragiari dautsagun maitakeriaz, geure buruari egiten dautsagu iruzur.

8. Su arek zeure pekatuak baiño ¿zer iruntsiko dau besterik?

9. Orain zure buruari geiago parkatu ta aragiari jarraitu, gero gogorrigo izango zara zigortua, zeure burua erreteko sugei geiago batuko dozu-ta. Gizonak pekatu egiten dauanean, orrexetan izango dau zigor gogorrigoa.

10. An, nagiai suzko eztenak sartuko dautseez, eta mizkeri-zaleak gose ase-eziñaz izango dira oiñazetuak.

11. An, lizunkerri ta atseginkeri-zaleak ur irakin atsitutan izango dira ondoratuak, eta bekaiztiak, txakur amorratuak lez, oiñazeen artean orro egingo dabe.

12. Griña txar bat bera be ez da berari dagokion oiñaze bagarik izango. An, arroak lotsaz beterik geratuko dira, eta zekenak txirotasun (*bearrian*) gorrianean.

Zintzoen eta gaiztoen zori ezbaridña

13. Emen eun urte gorputz-neke latzanean bizi izatea baiño / an ordu bat nekegarriagoa izango da.

14. An ez da galduentzat atsedetik ez pozkaririk izango; emen, barriz, miñak gelditu egiten dira batzuetan, eta adiskideakaz pozaldiak artzen dira.

15. Izan egizu orain zure pekatuen damua ta miña, Auzi-egunean zoriontsuakaz batera sendo egon zaitez. Orduan, izan be, "zintzoak sendo egongo dira leen eurak larritu ta estututa erabili ebezanen aurrean" (Jak 5, 1).

16. Orain gizonen epaiari burua apal-apal menperatzen dautsana, orduan zutik jarriko da auzia egiteko.

17. Orduan, beartsu ta apalak uste aundia izango dau; arroa, barriz, bildur-ikaraz beterik geratuko da. Orduan, Kristogaitik burubagea ta iguindua izaten ikasi ebana, mundu onetan jakituna axe izan zala ikusiko da.

18. Orduan, eroapenez eroaniko edozein atsekabek atsegiña sortuko dau, eta "edozein gaiztakeriari agoa itxi-azo egingo yako" (Sal 106, 42).

19. Orduan, jainkozale guztiak poztu, eta dongak atsekabetu egingo dira. Orduan, aragia, nekeak

eroan izan ebazalako, beti atsegin artean bizi izan balitz baiño geiago poztuko da.

Benetako balioak betiraunean

20. Orduan, jantzi iguindak dizdiz egingo dau, eta jantzi bikaiña izan zanak galdu egingo dauz bere diztira ta dirdira. Orduan, jauregi arroa baiño etxetxo apala geiago goratuko da.

21. Orduan, mundu onetako indar guztiak baiño eroapen iraunkorak onurakorragoa izango da. Orduan, gizonen maltzurkeria guztia baiño menpetasun apala geiago izango da goratua.

22. Filosofia jakintsuak baiño barru on eta garbiak geiago poztuko dau. Orduan, lurreko aberatsen dirutza guztiak baiño aberastasanak iguintzeak geiago balio izango dau.

23. Orduan, bazkari atsegingarriak baiño oneraspenaz egindako otoitzak poz aundiagoa emongo dautsu.

24. Orduan, barriketa luzeak baiño isilik ego-teagaitik geiago poztuko zara. Orduan, berba asko ta ederrak baiño egintza santuak geiago balio izango dabe.

25. Orduan, lurreko atsegin guztiak baiño bizikera estua ta gorputz-neke latza atsegingarriagoak izango yatzuz.

26. Ikasi egizu, ba, orain neke apur bat eroaten, orduan oiñaze gogoragoetatik askatuta egon aal zaitzezan. Ikusi egizu leenen emen / gero eroan aal izango dozuna jakiteko.

Atsegin bi alkartu-eziñak

27. Orain neke apur bat eroateko indarrak ez badozu, gero betiko oiñazeak zelan eroan aal izango dozuz? Orain atsekabe txiki batek orren artega jarten bazaitu, zer egingo ete-dabe zukan inperuko oiñazeak?

28. Benetan, ezin izan daikezuz atsegin bi: mundu onetan atsegin artzea eta gero zeruan Kristogaz errege izatea.

29. Esan egidazu: orain arte ospe ta atsegiñez inguratuta bizi izanik, oraintxe berton ilgo bazintzaz, zetarako litzakizu igarotako guztia?

30. Beraz, guztia uskeria da, Jaungoikoa maite izan eta Bera bakarrik zerbitzea izan ezik.

31. Izan be, Jaungoikoa biotz-biotzez maite dabenak, ez eriotzari, ez oiñazeari, ez auziari, ez inperuari dautse bildurrik, maitasun bikaiñak Jaungoikoagana eltzeo sarbide ziuerra dauko-ta.

32. Pekatua atsegin dauanak, ostera, eriotzari ta auziari bildur izatea ez da arritzekoa.

33. Alan be, gaizteriatik urrintzeko / maitasuna naikoa ez badozu, gutxienez inperura joateko bildurrik lotu zagizala.

34. Baiña, Jaungoikoaganako bildurra baztarten dauanak / ezin iraun izango dau onbidean luzaro, eta laster be laster jausiko da alakoa Gaiztoaren sareetan.

OGETABOSGARREN ATALBURUA

Gure bizikerearen obakuntza gartsua

1. Zoli ta arduratsu izan zaitetz Jaungoikoaganako zerbitzaritzan, eta egiozu sarritan zure buruari itaun au: "Zetara etorri zara eta zetarako itzi dozu mundua?" Ez ete-zan izan / Jaungoikoarentzat bizi izateko eta espiritu-gizona izatera eltzeo?

2. Beraz, bizitu egizuz zure berotasuna ta zaletasuna bikaintasunerako, zure neke-saria laster artuko dozu-ta; arrezkero zure muga-barruetan ez dozu bildurrik ez miñik izango zure zorian.

3. Orain, jakiña, nekatu egingo zara zerbait, baiña gero atsedean aundia aurkituko dozu; geiago be bai: betiko poza lortuko dozu. Ekintzan zintzo ta gartsu irauten badozu, Jaungoikoa, ezpai bagarik, zintzoa ta eskuzabala izango dozu saria emotean.

4. Saria lortzeko itxaropen sendoa izan egizu benetan, baiña ez yatzu egoki ziurtasun osorik, nagitu ta arrotu ez zaitzezan.

Il bear dana lez bizi zaitetz

5. Larrituta egoan gizon bat / bildurraren eta itxaropenaren artean koloka ebillen sarritan. Bein, tristureak jota, eliza baten sartu zan, eta, altaraurrean belaunikotuta, otoitz egin eta auxe iñoan berekautan: "Azkenerarte iraungo dodan baneki!"

Eta bereala bere barruan Jaungoikoaren erantzun au entzun eban: "Zer egingo zeuke ori bazeki? Egizu oraintxe orduan egin nai izango zeukena, eta ziur egongo zara."

6. Eta bat-batean poztu ta sendotuta jagi zan, bere burua Jaungoikoaren naipean jarri eban, eta bere artegasun guztia baretu egin yakon.

7. Arrezkero berari zer jazoko yakon ez eban jakin gura, ez aztertu gura, edozein egintza on asi ta burutzeko / Jaungoikoaren nairik atsegingarriena ta bikaiñena zein izango litzakean ezagutzeko aalegiñak egin baiño.

8. Auxe diño profetak: "Izan ustea Jaunagan eta egizu ona dana; bizi zaitetz zeure lurrean, eta bertoko aberastasunez janarituko zara" (Sal 37, 3).

9. Auxe da espiritu-arloan eta obakuntza gartsuan aurrera egiteko askori atzeruntz eragiten dautsena: eragozpenai dautseen bildur-ikarea, edo bardin dana, burrukeak beronegaz daroan nekea.

10. Izan be, eurai aurka egiten dautseen eragozpenak garaitzeari adoretuago ta erabagi beroagoaz ekiten dautsoenak dira onoinemetan aurreratzen diranak.

Oiturazkoari gogor egin

11. Gizonak bere burua geiago garaitu eta espirituan eziten dauanean, espiritu-aurrerakada aundiagoa egin eta grazi aundiagoa lortzen dau.

12. Baiña guztiak ez dauke garaitzeko ta norbere burua eziteko adore bardiña.

13. Alan be, barru-bizikeran aurrera egiteko gertaera ohea izango dau — eziteko griña asko eukiarren be — izakera obeagoa izan eta onoinemetarako epelagoa danak baiño bere burua ontzen zoli ta arduratsu diarduanak.

14. Gauza bik laguntzen dabe, batez be, bizikerearen obakuntza eraginkorrerako: izatearen zalekerietatik gogo beroz baztartzekak eta bearrezkoen dan onoinena lortzeko aalegiñak egiteak.

15. Inguratzen zaituekan geien iguintzen dozuzan gauzak zuk garaitzen eta ez egiten arduratu zaitetz.

16. Artu egizu edozein abagune / andik spiritu-futua atarateko; eta jarraibide onak ikusten edo entzuten badozuz, euron antzera egiteko berotu zaitetz.

17. Eta besteakan agirakagarririk ikusten badozu,

orrelakorik ez egin; baiña, orrelakorik egin badozu, ainbat lasterren ontzeko aalegiñak egizuz.

18. Zuk besteak begiratzen dozuzanez, besteak be zeu begiratzen zaitue.

Jarraibidearen indar aundia

19. Atsegingarria ta gozoa da benetan / anai eraspentsu ta gartsuak ekandu onez eta araupean jarduten ikustea!

20. Eta negargarria ta samingarria da benetan / bizikera nasaitua daroela ikustea, artu eben deiarri jarraitzen ez dautsoela!

21. Kaltegarria benetan / norbere dei-asmoan nagitzea, eta agindu ez yakuzanetan jardutea!

22. Artutako asmoa gogoratu egizu, eta eredutzat Gurutzeratua artu.

23. Lotsatu egin bear zeuke Jesukristoren bizitza begiratuaz; izan be, Jaungoikoaren bidean aspaldian zabizanarren, Jesukristorena izateko aalegin gutxi egin dozu oraindiño.

24. Jaunaren Bizitza ta Nekaldi santuan gartsu ta eraspentsu diarduan gizon Jainkozaleak / eurrez aurkituko dau an berari egoki ta bearrezko yakona, eta, Jesus izan ezik, ez dau izango beste gauza obearen billa ibili bearrik.

25. Gure biotzera Jesus gurutzeratua etorriko balitz, orduan bai egingo gintzakezala jakitun beingoan eta bear danez!

Gorde erabidea,

eta erabideak gorde egingo zaitu

26. Erlejioso berotsuak / agintzen yakon guztia eroaten eta onartzen dau ondo.

27. Erlejioso alper eta epelari, barriz, barruko atsegiñak izan ez eta azalekoen billa ibiltea bidezko ez yakon ezkerro, atsekabeen gaiñera atsekabeak eta alde guztietatik larritasunak datorkioz.

28. Araupean bizi ez dan erlejioso / jausteko arrisku aunditan dago.

29. Bide zabalago ta nasaiagoaren billa diarduan, larri egongo da beti, onegaitik edo orregaitik naibage ta artegasun egingo yako edozer-eta.

30. Zelan jarduten ete-dabe bakartetxeetan arau-

pean naikoa estu bizi diran ainbeste erlejiosok?

31. Gutxitan urteten dira, bakarti bizi dira, janari oso eskasak dabez, soñeko latzaz jazten dira, asko egiten dabe lan, gutxi egiten dabe berba, gutxiago lo, goiz jagiten dira, otoitz luzeak egiten dabez, sarritan irakurten dabe eta arauak zintzoro beteten dabez.
32. Begira Kartusiarrak, Zisterkoak eta osterantzeko Lekaidietako praille ta monjak: Jauna goratzeko, gau guztietan jagiten dira.
33. Orregaitik, ainbeste erlejioso Jaungoikoa goratzen asten diran egintza ain santuan zu nagitzea / lotsagarria izango litzake benetan.

Bearrizana onoiemen biurtu dagigun

34. Gure Jaun eta Jainkoa biotz-biotzez eta agoz goratzea baiño beste egikizunik izango ez bagendu! Jan, edan eta lo egin bearrik iñoiz be izango ez bazendu, eta beti Jaungoikoa goratu eta espiritu-gaietan jardungo aal ba zendu!
36. Orain aragiaren bearrizanak zaintzen dozuzala baiño askozaz zoriontsuagoa izango zintzakez orduan.
37. Oneitariko bearrizanak izango ez bagenduz, eta, zoritxarrez, onen gutxitan mustatzen doguzan espirtu-janariak baiño izango ez bagenduz!
38. Gizonak bere atsegin berekoirik izaki bategan be ez billatzera eltzen danean, orduantxe asten da osoro Jaungoikoanako gozotasuna eukiten, eta orduantxe dago pozik gaiñera etorri leitekion edozein jazopenen aurrean be.
39. Orduan, ez da ugaritasunaz poztuko, ezta urritasunaz be itun (*triste*) jarriko. Gauza guztietan guztia yakon Jaungoikoaren eskuetan itziko dau bere burua uste osoz; izan be, Jaungoikoarentzat ez da ezer galtzen ez ilten, eta gauza guztiak bizi dira eta guztiak egiten dautsoe esana Aren izenari.
40. Izan egizu beti gogoan danaren azkena, edo bardin dana, eriotza. Eta galdutako aldia ez dala barriro etorriko.
41. Ardura ta aalegin bagarik iñoiz be ez dozuz onoiemenak eskuratuko. Epela izaten asten bazara, txarto izaten somatuko dozu zure burua.
42. Zure burua beroaldira biztuten badozu, oster, bake aundia aurkituko dozu, eta Jaungoikoaren gra-

zia ta onoiemen maite izateak zure arazoak eragiten dautsun nekea arindu egiten dautsula somatuko dozu.

43. Gizon adoretu ta arduratsuak edozetarako ta edonoiz dago gertu. Gorputz-lanetan izerditzea baiño arazo gogorragoa da zalekeri ta griña txaren aurka jardutea.
44. Uts txikietatik aldentzen ez dana, astiro-astiro aundietan jausiko da.
45. Eguneko arazoa onuratsu egin badozu, poztu egingo zara beti gabeen.
46. Izan egizu zoli zure burua, iratzartu zaitez, zure buruari agiraka egiozu; eta, iñori jaramonik egin bagarik, zeure buruaren ardurea izan egizu beti.
47. Azkenez, zure buruari indar geiago egin dagiozun aiñean egingo dozu aurrera obakuntzan.

BIGARREN LIBURUA

BARRU-BIZIKERARAKO BURUBIDEAK

LEENENGO ATALBURUA

Barru-bizikerea

1. "Jaungoikoaren erregetza zeuen barruan dago", diño Jaunak (Lk 17, 21). Biotz-biotzez Jaunagana biurtu zaitez: mundu errukarri au bertan-beera itzi egizu, eta zure arimeak atsedena aurkituko dau.
2. Azaleko gaiak iguintzen eta barrukoai ekiten ikasi egizu, eta Jaungoikoaren erregetza zeugana datorrela ikusiko dozu. Izan be, "Jaungoikoaren erregetza / bakea ta poza da Espiritu Santuagan" (Erm 14, 15), eta ez yake gaiztoai emoten.
3. Zure ariman Kristorentzako lain dan bizitokia atontzen badozu, Bera etorriko da zugana eta Berak agertuko dautsu bere pozkaria. Aren aintza ta edertasun guztia barrukoak dira. Orrexegaitik dauko an bere atsegiña.
4. Kristok sarritan egiten dautso ikustaldia barruzaleari, eta orrelakoagaz izaten dauz berbeta gozoak, eta poz atsegingarria, bake aundia eta barrukotasun miragarria emoten dautsaz.
5. Ea, ba, kristau-arima ori: atondu egiozu zure biotza Senar maitetsu oni, zeugana etorri eta zeugan bizi izan daiten.
6. Izan be, Arek auxe esan eban: "Norbaitek maite banau, neure berbea beteko dau, eta etorri egingo gakioz eta aregan bizi izango gara" (Jn 14, 23). Kristori tokia emon egiozu, ba, eta itxi egiezu atea beste guztiari.

Naikoa da Kristo:

jari Aregan bakarrik zure ustea

7. Kristo euki ezkerro, aberatsa izango zara, eta naikoa yatzu. Berak zaindu eta oniduko zaitu bear dagizun edozetan, eta ez dozu gizonakandik itxaron bearrik izango.
8. Gizonak beingoan aldatu eta laster makaltzen dira; Kristok, barriz, betiko irauten dau, eta gertu dago beti

Bera /guri lagun egiteko.

9. Ez dozu gizonagan uste aundirik ezarri bear, onuragarri ta maitagarri izanarren be, berez makala ta ilkorra da-ta. Batzuetan zeure aurka jarten bada edo jaramonik egiten ez badautsu be, ez dozu tamal aundirik izan bear.
10. Gaur zeure alde dagozanak, biar zeure aurka egon daitezke; eta okerretara be bai, sarritan, aizea lez, aldakorrek dira-ta.
11. Zure uste guztia Jaungoikoagan ezarri egizu, eta Bera izan bedi zure maitasun bakarra, zure bildur bakarra. Bera egongo da zure alde eta Berak beteko zaitu ondasunez, zuri egokien izan dakizunez.

Emen bidez zagoz, erromes lez

12. Ez dozu emen bizitoki iraunkorrik; edonora joan bazaitez be, beti izango zara arrotz eta erromes, eta, Kristogaz bat-bat eginda egon ez bazadiz, iñoiz be ez dozu atsedenek izango.
13. ¿Zegaitik ibili emen alde guztietara begira, zure atsedentokia au ez dan ezkerro? Zeruan izan bear dau zure bizitokiak; orregaitik, lurreko gauza guztiak bidez doanak lez begiratu bear dozuz.
14. Gauza guztiak igaro egiten dira, eta zeu be bai arekaz batera.
15. Mundu onetako ezertxori be ez zakioz itsasi, areitan lotu ta galdu ez zaitez. Ezarri beti zure bururapena Gorengoagan, eta zuzendu etenbagarik zure eskariak Kristori.
16. Goiko ta zeruko gaiak ausnartzen ez badakizu, atsedendu zaitez Kristoren Nekaldian, eta bere zauri santuetan pozik bizi izan zaitez.
17. Izan be, Jesusen zauri ederretara eraspentsu biurtzen bazara, naibage-aldian sendotasun aundia somatuko dozu; gizonen destaiñai ez dautsezu jaramon andirik egingo, eta zure aurkako esamesak erraz eroango dozuz.
18. Mundu onetan gizonak Kristo bera be iguindu egin eben, eta, bearrizan aundienean, bere adiskide ta ezagunak irain artean bertan-beera itzi eben.
19. Kristok nekeak eroatea eta iguingarri izatea nai izan eban; eta zu, edozegaitik, ¿erostak joten asiko zara, ba? Kristok arerioak eta marmartzaleak izan ebazan; ¿eta zuk guztiak zeure adiskide ta ongille

izan daitezala nai dozu?

20. Ezetariko atsekaberik ez badatorkizu, ¿zelan sarituko yatzu zure eroapena? Zoritxarrik eroan nai ez badozu, ¿zelan izango zara Kristoren adiskide?

21. Kristogaz errege izan nai badozu, Kristogaz eta Kristogaitik nekeak ondo eroan egizuz.

22. Jesusen barruan bein ondo sartuko bazintzaz, eta Aren maitasun gartsua apurtxo bat miaztuko bazendu, zure onura edo kalteaz ez zeuke ardurarik izango, bestetara bai: egiten dautsuezan iraiñakaz poztu egingo zintzakez, Jesusenganako maitasunak norbere burua iguintzeraiño daroa-ta.

23. Jesus maite dauanak eta egiaren adiskide danak, benetan gizon barru-zaleak eta zalekerietatik askatuta dagoanak, erraz jo daike Jaungoikoagana, alakoa gogoz norbere gaiñera igo eta gozo-gozo atsedendu daiteke.

Barru-zalea da benetan jakituna

24. Gauzak, eurak esaten edo dirudienegaz bagarik, eurak diranez artzen dauzana, orixe da benetan jakituna, eta orri, gizonak baiño geiago, Jaungoikoak emoten dautso jakituria.

25. Barru-bizikera ibiltzen eta inguruko gauzai jaramonik gutxi egiten dakianak / ez diardu toki-billa, ezta aldi egokia zaintzen be, gogozko egikizunai ekiteko.

26. Gizon barru-zalea laster batzen da bere barruan, azaletiko gauzai iñoiz be ez yake guztiz zabaltzen-eta.

27. Azaletiko lanak ez dau alakoa lotzen, ezta noizean beingo eginbearrak be: gauzai, eurak dotozan erara eratzen yake alakoa.

28. Barruz ondo atonduta eta eratuta dagoanak, ez dau gizonen egintza entzutetsu ta gaiztoen ardurarik. 29. Azaletikoak beraganatzen dauzan negurriz / alantxe naasten da areitan gizona, baita Jaungoikoaren gauzetatik urrindu be.

30. Zuzena ta garbia bazintzaz, gauza guztiak onak eta onuragarriak izango litzakizuz.

31. Oraindiño zure buruarentzat guztiz il bagarik eta lurreko gauzetatik alde egin bagarik zagozan ezker, gauza askok atsekabetu ta artegatu egiten zaitue sarritan.

32. Gizonaren biotza gejen loitu ta naasten dauana / izakietarako zalekeri(a) zikiña da.

33. Azaletiko pozbideak iguintzen badozuz, zerutiko ezkutuak begiratu aal izango dozuz, eta zure barruan sarritan poztu aal izango zara.

BIGARREN ATALBURUA

Menpetasun apala

1. Zure alde naiz zure aurka nor dagoan jakiteak ez zaitu larregi arduratu bear, bestetara baiño: egiten dozun edozetan Jaungoikoa zeugaz egon daiten arduratu ta aalegindu zaitez.

2. Izan egizu barru ona, eta Jaungoikoa izango da zure laguntza ta babes. Izan be, Jaungoikoak lagundu nai dautsanari; gizonen gaiztakeriak ezin egin aal izango dautso kalterik.

3. Isilik egoten eta nekeak eroaten badakizu, benetan Jaungoikoaren laguntza zeugan somatuko dozu.

4. Berak daki noiz eta zelan askatu bear zaituan, eta orregaitik zure burua Aren eskuetan itzi bear dozu. Jaungoikoari dagokio laguntzea ta edozelako naastetik ataratea.

5. Besteak gure utsegiñak jakin eta euron aurka egitea, sarritan oso egoki yaku, apaltasun aundiagotan bizi izateko.

Obe da apala izatea

6. Gizonak, bere utsegiñakaitik bere burua beerraten dauanean, enparaduak erraz baretzen dauz, eta bere aurka asarre egozanak be erraz baketzen dauz.

7. Jaungoikoak apala zaindu ta gorde, maite ta poztu egiten dau; gizon apalaren aurrean makurtu egiten da, eta apalari graziak eurrez emoten dautsaz, eta, gizona beeratuta gero, [Jaunak] aintzara jasoten dau. 8. Apalari bere isilpekoak agertzen dautsaz, eta gozoro beraganatu ta deitzen dau.

12. Apala, iraiña artuta gero, bake-baketan geratzen da, munduan bagarik Jaungoikoagan dago-ta.

13. Ez uste izan aurrerakuntzarik egin dozunik / zure burua beste guztien menpeko dala ez baderitzazu.

IRUGARREN ATALBURUA

Gizon on eta baketsua

1. Leenen, zure buruaz baketan egon zaitez, eta gero baketu aal izango dozuz enparaduak. Gizon jakintsuak baiño baketsuak geiago balio dau.

2. Gizon griñatsuak ona be txar biurtzen dau, eta txarra erraz sinisten dau. Gizon on eta baketsuak gauzen alde ona ikusten dau beti.

3. Baketan bizi danak / ez dau iñori buruz susmo txarrik egiten. Artegatu ta maltzurra, barriz, susmo askok eraginda dabil; ez dauko alakoak atsedetik, eta bere ingurukoak be ez dauz baketan izten.

4. Esan bear ez leukena diño sarritan, eta egitea egokien litzakiona / egin bagarik izten dau. Enparaduen eginbearrak ikusten dauz, eta bere eginbearrak aaztu egiten yakoz.

5. Leenen, zeure buruaren ardurea izan egizu, ba, eta gero zure lagun-urkoari buruz ardura zuzena euki aal izango dozu.

6. Zuk ondo dakizu zeure utsak zuritzen eta eder jarten; baiña besteen zuribideak ez dozuz entzun nai. Zuzenago izango litzake zuk zure burua errudun artzea eta zure anaia zuritzea.

7. Besteak zu ondo eroatea nai badozu, zeuk be besteak ondo eroan egizuz.

8. Benetako maitasun eta apaltasunetik oraindiño urrin be urrin zagozala begiratu egizu; orreik [maitasunak eta apaltasunak] euren buruaren aurka baiño ez dakie asarratzen eta sumintzen.

9. Ez da gaitz onakaz eta otzanakaz artu-emonak izatea. Au, berez, atsegingarri yaku guztioi; izan be, bakea guztiok maite dogu eta gure eretxikoak geiago nai doguz.

10. Baiña gogorrekaz, burrukalariakaz, edo gizon maltzurkakaz, edo gure aurka berba egiten dauanagaz baketan bizi izatea / grazi aundia da, baita egitada adoretu ta goragarria be.

11. Badira norberagaz eta enparaduakaz baketan dagozanak. Eta bakerik eurentzat ez daukenak be badira, baita iñori baketan izten ez dautsoenak be. Gogaikarri dira besteentzat, baiña askozaz geiago euren buruarentzat.

12. Badira baketan bizi diranak, baita besteak bakea

izan dagien aalegiñak egiten dabezanak be.

13. Alan be, zoritxarreko bizieta onetan, gure bakea atsekabea izatean baiño nekea apalik eroatean jartea obe da.

14. Nekea ondoen eroaten dakianak, bake geiago izango dau. Auxe da bere buruaren garaitzaille eta munduaren jabe, Kristoren adiskide eta zeruaren jabe.

LAUGARREN ATALBURUA.

Biotz garbia eta asmo laua

1. Gizona ego biaz igoten da lurreko gauzetatik gora: lautasunaz eta garbitasunaz.

2. Lautasunak asmoan egon bear dau; garbitasunak, barriz, zaletasunean. Edo bardin dana: gure asmoak laua, eta gure garbitasunak garbia izan bear dau.

3. Garbitasunaren bidez, arimea Jaungoikoaganantz zuzentzen da, eta garbitasunaz arimeak, Jaungoikoagana eldurik, Aregan poza artzen dau.

4. Zure biotza zalekeria guztitik askatuta badago, egintza on bat be ez da zuretzat eragozpide izango. Elburu bakar lez, Jaungoikoaren naia eta lagun-urkoaganako zerbitzua baiño artzen ez badozuz, barruko askatasunaz poztu egingo zara.

5. Zure biotza laua ta zuzena balitz, izate guztia bizikera-izpillu ta irakaspen santuen liburu izango litzakizuz. Izan be, Jaungoikoaren ontasuna itxuratzen ez dauan txatxar eta iguingarririk ez dago.

6. Zure barruan ona ta garbia bazintzaz, gauza guztietan dagoan ona eragozpen bagarik ikusi ta ulertu aal izango zeuke.

Gizonak/ bera danez izaten dau gauzen eretxia

7. Biotz garbia zeru ta inperurairiño sartzen da. Bakotxak bere barruan danez epaitzen dau kanpokoa. Munduan poztasunik bada, biotz garbiko gizonak daukan poza da.

8. Eta iñon atsekabe ta larritasunik bada, barru orbantsuak baiño biziago ez dau iñok ezagutzen.

9. Sutan sartutako burdiña, ugarra galduta, gori

biurtzen denez, Jaungoikoagana oso-osorik biurtzen dan gizona be, bere epeltasuna erantzirik, gizon barri biurtzen da.

10. Arimea epeltzen asten danean, edozein neke txarrari be bildur dautso, eta orduan atsegiñez artzen dauz azaletiko pozkariak.

11. Baiña, bere burua danetan eziten eta Jaungoikoaren bideetan adoretu ibiltzen asten danean, leen sorta astuna eritzonari / orain ariña deritzo.

BOSGARREN ATALBURUA

Norbere buruatzaz

1. Geure buruagan ezin ezarri daikegu ustea larregi, sarritan grazirik eta zentzun onik ez dogu izaten-eta. Izan be, gudan argi txiki bat baiño ez dago, eta argi apur au be, geure ardura-ezaz, bein-goan galtzen dogu.

2. Geiago be bai: sarritan, ez gara konturatzen barruz garean itsuak. Sarritan, txarto jokutzen dogu, eta, txarrago dana, txartoago zuritzen dogu gure burua.

3. Batzuetan, griña txar batek erabilten gaitu, eta eragiten daskuna ardurea dala uste izaten dogu. Besteai, utsegin txikiakaitik, agiraka egiten dautsegu, eta geure utsegiñak, askozaz aundiagoak izanarren be, ez doguz somatzen.

4. Besteakandik artzen doguzan nekeak berealaxe somatu eta aundi egiten doguz; baiña besteak geugaitik eroaten dabezana nekeai ez dautsegu antzik be emoten.

5. Norbere egitadak ondo ta zuzen aztertu dagizanak, ez dauz besteak zorrotz epaitu bear izango.

6. Barruko bizikerea daroan gizonak, besteakanako ardurea baiño bere buruaren ardura geiago izaten dau; eta norbere buruaren benetako ardurea daukanak, besteak erraz gordeten dauz isilik.

¿Non zagoz zeugaz ez zagozanean?

7. Besteen gauzak isilik gordeten ez badozuz, eta zeure buruaren aparteko ardura ez badozu, iñoiz be ez zara bizikera onoimentsu ta sakonekoa izango.

8. Jaungoikoaz eta zeure buruaz bakarrik arduratzen bazara, zeure inguruan somatu dagizunari jaramonik

gutxi egingo dautsazu.

9. ¿Non zagoz zeure buruaz ez zagozanean? Eta alde guztietan zear ibilita gero, ¿zer irabazi dozu, zeure buruaren ardurarik izan ez badozu?

10. Bakea ta Jaungoikoagaz benetako batasuna lortu nai badozu, gauza guztiak bazturtuta, begien aurrean zeure burua bakarrik euki bear dozu.

11. Orregaitik, lurreko arduetatik askatuta irauten badozu, aurrerakuntza aundia egingo dozu. Lurreko gauzarik maite badozu, barriz, asko galduko dozu.

12. Jaungoikoa ta Beroni dagokiona baiño ez egizu izan ezer be aundizat, ez goragarrizat, ez atsegin-garrizat, ez gogokotzat. Izakiren batetik datorren edozein atsegin, uskeritzat jo bear dozu. Jaungoikoa maite dauan arimeak, Aren azpian dagozan gauza guztiak iguindu egiten dauz.

13. Jaungoikoa bakarrik da betikoa ta neurribagea, Berak bakarrik beteten dau dana, Bera bakarrik da arimearen atsegiña eta biotzaren benetako poza.

SEIGARREN ATALBURUA

Barru onak emoten dauan poza

1. Barru onak agertzen dau gizon onaren aintza.

2. Izan egizu barru zuzena, eta poza izango dozu beti. Barru onak nekerik asko eroan daike, eta alakoa zoritxarren artean be pozik egon daiteke.

3. Barru gaiztoa, barriz, beti bildurrez eta artega dago. Zure biotzak agiraka egiten ez badautsu, leunkiro atsedenduko zara.

4. Ona egin dagizunean baiño ez zaitez poztu. Gaiztoak iñoiz be ez dabe benetako pozik, barruko bakerik be ez dabe somatzen; izan be, Jaunak diñoanez, "Gaiztoentzat ez dago bakerik" (Is 48, 22).

5. Eta, "Baketan gagoz, ez da gure gaiñera okerrik etorriko, ¿nor azartuko da guri kalterik egiten?" esan badagie be, ez egiezu sinistu; izan be, Jaungoikoaren sumiñak, bat-batean iziotutik, arein egintzak eze-reztu egingo dauz, eta arein asmoak ondatuta geratuko dira.

6. Maite dauanari ez yako gaitz egiten naibageetan arrotzea. Orrela arrotzea, Jaunaren gurutzean norbere burua arro agertzea da-ta.

7. Gizonak emoten daben eta gizonakandik datorren

lur onetako aintza / laburra da. Izan be, mundu onetako aintzak beti dau lagun tristurea.

Benetako aintza ta poza

8. Onak diranen aintza ez dago gizonen agoan, euren barruan baiño. Zuzenen poza Jaungoikoagandik dator eta Jaungoikoagana eltzen da, eta arein atsegiña egiatik jaioten da.

9. Benetako ta betiko aintza gura dauanak, ez dauko aldiko gauzen ardurarik. Eta argi dago au: lurreko aintzaren billa dabillenak, edo aintza ori biotzez iguintzen ez dauanak, ez dau zeruko maite.

10. Gorapenen eta iraiñen ardurarik ez daukanak, biotz-baretasun aunditan irauten dau.

11. Barrua garbi daukana, erraz egongo da pozik eta baketan.

12. Ez zara santuago izango goratu bazagiez, ezta txarragoa be iguindu bazagiez. Zareana, orixe zara, eta Jaungoikoaren aurrean zarean baiño aundiago zareanik ezin uste daikezu.

13. Zure barruan zareana begiratzen badozu, gizonak zutzaz diñoenari jaramonik be ez dautsazu egingo. "Gizonak gorputza ikusten dau; Jaungoikoak, barriz, arimea." Gizonak egintzak begiratzen dauz; Jaungoikoak, barriz, asmoak.

14. Beti ona egitea eta norbere burua gutxitzat izatea, arima apalaren ezaugarria da. Izaki bategandik be poztasunik artu gura ez izatea, garbitasun aundiaren eta barruko itxaropenaren ezaugarria da.

15. Norberetzat gizonakan pozbide-billa ez dabilenak, bere burua oso-osorik Jaungoikoari eskiñi dautsala agertzen dau argiro. Izan be, San Paulok diñoanez, "ez da ontzat artzekoa bere buruaren ardura-eske diarduana, Jaungoikoak goratzen dauana baiño" (Kor 2^a, 10, 18).

16. Barruz Jaungoikoagaz ibiltea eta lurreko edozein zalekeriatik askatuta egotea / barru-bizikerea daroan gizonaren izakerea da.



ZAZPIGARREN ATALBURUA

Jesuseganako maitasuna gauza guztien gaiñetik

1. Zorionsua, Jesus maite izatea eta bere burua Jesusegaitik iguintzea ulertzen dauana!

2. Egoki da maite bat beste maite bategaitik itzea; izan be, gauza guztien gaiñetik Bera bakarrik maite izatea eskatzen dau Jesusek. Izakien maitasuna guzurrezkoa ta aldakorra da; Jesusen maitasuna, barriz, zintzoa ta iraunkorra.

3. Izakiari lotzen yakona, aregaz jausiko da, jauskorra da-ta; Jesusi besarkatzen yakonak, sendo iraungo dau betiko.

4. Jesus maitatu eta adiskidetzat izan egizu; beste guztiak zu bertan-beera itziarren be, Arek ez zaitu itziko, eta zu betiko galtzea be ez dau laketuko.

5. Nai ta nai ez, noizbait banandua izango zara guztiakandik. Bizitzan eta eriotzan Jesusi alkartu ta iraun eta zure ustea bere zintzotasunean ezarri egizu: guztiak itzi zagiezanean, Berak bakarrik lagundu zaitez-ta.

6. Zure Maiteak zuk beste bat maite izatea ez dau nai; zure biotzaren jabe bakarra izatea eta antxe, erregea bere errege-aulkian lez, jesartea nai dau.

7. Zure biotza edozein izakitik utsitzen bazeki, Jesus pozik bizi izango litzake zagan. Jesusegan bagarik, gizonakan jarri dagizun eraspén guztia / guztiz galdutzat artu egizu.

8. Kaiñabera arroan ez egizu usterik ez eskurik ezarri; izan be, "edozein aragi bedar-antzekoa da, eta aren gorapén guztia bedar-lorea lez jausiko da" (P 1^a, 1, 24).

9. Gizonen azalezko itxurea baiño begiratzen ez badozu, erraz egingo dautsazu iruzur zure buruari. Izan be, zure poza ta irabazia besteakan aurkitze uste badozu, geienetan zeure kaltea baiño ez dozu idoroko.

10. Gauza guztietan Jesus billatzen badozu, Jesus aurkituko dozu benetan. Zeure buruaren billa badiarduzu, barriz, zeure burua aurkituko dozu, bai, baiña zeure kalterako.

11. Izan be, gizonak, Jesus billatzen ez badau, mundu guztiak eta arerio guztiak baiño kalte geiago egiten

dautso bere buruari.

ZORTZIGARREN ATALBURUA

Barru-barruko adiskidetasuna Jesusegaz

1. Jesus aurrean dagoanean, dana da ona, eta ezek be ez dirudi gaitz; Jesus kanpoan dagoanean, barriz, dana egiten yaku gogor.
2. Jesusek barruan berba egiten ez daukunean, utsa da edozein atsegin; baiña, Jesusek berba bakar bat badirausku, atsegin aundia somatzen dogu.
3. Mari Madalen, negarrez egoan tokitik, ¿ez ete-zan, ba, bereala jagi, Martak ari "Irakaslea ortxe dago, eta dei egiten dautsu" esan eutsanean? (Jn 11, 28). Ordu zorientzua, Jesusek negar-malkoetatik espiritu-atseginetara deitzen dauan ordua!
4. Jesus bagarik bai zareala legorra ta gogorra! Zu bai zentzunbagea ta arroputza, Jesus bagarik zerbait gura izaten dozunean! ¿Au ez ete-yatzu mundu osoa galtzea baiño zoritxar aundiagoa?
5. Jesus bagarik, lurrak ¿zer emon daiketzu? Jesus bagarik bizi izatea inpernu ikarragarria da; Jesusegaz egotea, zeru gozoa. Jesus zeugaz badago, arerio batek be ez dautsu kalterik gutxienik egingo.
6. Jesus aurkitzen dauanak ondasuntegi aberatsa aurkitzen dau; geiago be bai: mundu onetako ondasun guztiak garaitzen dauzan Onik bearrezkoena aurkitzen dau. Eta Jesus galtzen dauanak, ondasun negurtu-eziña galtzen dau, mundu osoa galduko baleu baiño geiago.
7. Oso beartsua da Jesus bagarik bizi dana, eta aberatsa be aberatsa beragaz Jesus daukana.

*¿Zetarako yatzu dana eukitea
Jaungoikoaren adiskide ez bazara?*

8. Trebetasunik ederreana da Jesusegaz bizi ta berba egiten jakitea, eta jakituria aundia Jesus eukitea. Izan zaitez apala ta baketsua, eta Jesus zeugaz izango da. Izan zaitez Jainkozalea ta baretsua, eta Jesusek zeugaz iraungo dau.
9. Jesus laster urrindu daikezu zugandik, baita Aren grazia galdu be, kanpoko gauzetara makurtzen bazara. Eta Jesus uxatu ta galtzen badozu, ¿nogana

joko dozu? ¿Nor izango dozu adiskidetzat?

10. Adiskide bagarik ezin izan zaitez zorientzua; eta guztien artean adiskiderik maiteena Jesus ez bada, oso itun (*triste*) eta atsekabetuta bizi izango zara. Izan be, zure ustea ta poza beste bategan jarten badozuz, zentzunbageak lez jokutzen dozu.
11. Jesus irainduta eukitea baiño mundu guztia zeure aurka eukitea gurago izan bear dozu. Beraz, zure adiskide guztien gainetik, izan daitela Jesus zure adiskiderik kutunena.
12. Guztiak Jesusegaitik maite bear dira; Jesus, barriz, Bera danagaitik. Jesukristo bakarrik izan bear da maite berarizko maitasunaz, ona ta zintzoa Bera bakarrik da-ta, adiskide guztiak baiño geiago.
13. Guztiak, adiskideak naiz arerioak izan, Beragaitik eta Beragan maite izan egizuz, eta guztien alde otoitz egizu, guztiak Bera ezagutu ta maitatu dagien.
14. Zu berariz goratua ta maitatua izatea iñoiz be ez egizu gura, ori antzekorik ez dauan Jaungoikoari bakarrik dagokio-ta.
15. Zure eraspenaren bidez norbaiten biotza zugaratzerik ez egizu nai izan, ezta zure biotza norbaiten maitasunak beraganatu dagian be ez laketu, bestetara baiño: zure eta edozein gizon onaren jabe Jesus egin daitela.
16. Barruz garbi ta zeure jabe izan zaitez, iñongo izakik zeure jabe egin bagarik. Jauna dan gozoa somatu ta ikusi nai badozu, bearrezko yatzu gauza guztiak buruz billoizik egotea eta Jaungoikoari biotz garbia aurkeztea.
17. Eta benetan, ori ez dozu lortuko, Jaungoikoak bere graziaz aurretiaz gertatu ta beraganatzen ez bazaitu; orrela, zure biotzetik gauza guztiak kendu ta kanpora jaurtirik, Beragaz bakarrik alkartu zaitez.
18. Izan be, gizona, Jaungoikoaren grazia isurten yakonean, aaltsu egiten da eta edozetarako gai be bada; grazia ostentzen danean, barriz, gizona, makal eta gauza-ez biurtuta, zoritxar guztien menpean bertan-beera itzita geratzen da.
19. Baiña ez zara orregaitik kikildu bear, ez dozu itxaropena galdu bear, bestetara baiño: Jaungoikoaren naitara jarri bear zara baretsu, gainera etorri dakizun guztia Jesukristoren aintzarako ondo eronik.
20. Izan be, neguaren ostean udea eltzen da, gabaren

ostean eguna argitzen da, eta ekatxaren ostean barealdia sortzen da.

BEDERATZIGARREN ATALBURUA

Pozkaririk-eza

1. Jaungoikoaren pozkariak doguzanean, ez da gaitz gizonenak iguintzea.
2. Baiña, Jaungoikoaganako maitasunagaitik, pozkaririk ez izatea, biotzaren erbestaldi ori gogo onez eroatea, norbere burua ezetan ez billatzea, eta norbere merezimentuak ez begiratzea, gauza aundia be aundia da.
3. ¿Miragarri ete-da, ba, graziaren eragin-pean norbere burua pozik eta eraspentsu somatzea? Ordu ori guztiak gura dabe. Jaungoikoaren graziak bultza egiten dautsana/erraz dabil.
4. ¿Zer dala-ta arritu, Guztiaaldunak daroanak eta Zuzendari guztiz bikaiñagaz doanak, bere bear gorriaren sortea somatzen ez badau?
5. Pozik onartzen dogu edozein atsegingarri, baiña nekez erazten dau gizonak bere burua.
6. Munduan atsegingarri eritzan guztia iguindu ebalako azpiratu eban Lorentzo martiri santuak mundua ta bere gotzaiñari eutsan eraspenna; eta maite-maite eban Sixtok be, Jaungoikoaren abade nagusiak, Kristoganako maitasunagaitik, beragandik kentzea eroapenez artu eban.
7. Arela, Lorentzok, Egilleaganako maitasunagaitik, gizakianako maitasuna garaitu egin eban, eta gizonagandiko pozaren orde z Jaungoikoaren onespenna naiago izan eban.
8. Orrela, zeuk be, Jaungoikoaganako maitasunagaitik, senide edo adiskide maiteren bat alde batera izten ikasi egizu. Eta ez egizu txartzat artu zure adiskideak bertan-beera izten bazaitu, azkenean guztiok batzuk besteakandik banandu egin bear gareala jakiñik.

Doai geiago, eta apaltasun aundiagoa

9. Egoki da gizonak bere buruaren aurka gogor eta luzaro burrukan egitea, bere burua ezitea lortu eta bere eraspen guztia Jaungoikoagana zuzentzen ikasi

baiño leen.

10. Gizona, bere buruagan sendotzen danean, giza-pozbideen billa erraz doa.
11. Baiña, Kristo benetan maite dauanak eta onoiemenen jarraitzaile arduratsuak, ez dau pozbideetara jotzen eta gorputzaren pozkariok be ez dauz gura izaten, bestetara baiño: jarduketa aundiak egin eta Kristogaitik neke gogorak eroatea gura dau.
12. Orrela, ba, Jaungoikoak espiritu-pozkaria emon dagitzunean, eskerrak emonez onartu egizu; baiña jakin egizu, ori Jaungoikoak zuk merezi izan bagarik egiten dautsun doaia dana.
13. Ez zaitez arrotu, ez larregi berotu, ezta arropuztu be, artu dozun doaiagaitik apala izan baiño; eta zure egitada guztietan arduratsua goa ta bildurtagoa izan zaitez, ordu ori igaro eta tentaldia elduko da-ta.
14. Zure burua pozkari bagarik dagoala somatu dagitzunean, ez galdu bereala itxaropena; apaltasun eta eroapenez zerutiko ikustaldia itxaron egizu, Jaungoikoa zuri barrero pozkari aundiagoa emoteko be aaltsua da-ta.

Espiritua etorri ta joan egiten da

15. Au ez da barria ta ezjakiña Jaungoikoaren bideak ezagutzen dabezanentzat. Santu aundiak eta antxiñako profetak gorabeerok sarritan ezagutu ebezan.
16. Orregaitik, areitariko batek, grazia aurrean ebanean, auxe iñoan: "Nik ugari neukanean, auxe esan neban: Iñoiz be ez dot ikararik egingo" (Sal 30, 7). Baiña gero, grazia urrindu yakonean, beragan somatu ebana jakiñerazoten dau, eta auxe diño: "Zure aurpegia gorde egin zenduan, Jauna, eta larrituta geratu nintzan" (Sal 30, 8).
17. Baiña, orrela be, itxaropena galdu bagarik, Jaungoikoari gartsuago egiten dautso erreku, eta auxe diño: "Zeuri egin neutsun dei, Jauna, neure Jaungoikoari egin neutsun erreku" (Sal 30, 9). Eta azkenean bere otoitzaren frutua lorturik, entzuna izan dala autortzen dau, auxe esanez: "Jaunak entzun egin nenduan, Jauna erruki izan eta laguntza ekartera etorri yatan" (Sal 30, 11).
18. Baiña, ¿zelan? Eta auxe diño: "Nire negarra atsegin biurtu zenduan, eta pozez bete nenduzun"

(Sal 30, 12).

19. Eta santu aundiai ori jazo bayaken, guk, beartsu ta ezeukiok, batzuetan bero aundiaz eta beste batzuetan epel eta otzez egonarren, ez dogu itxaropena galdu bear: Espiritua, bere gogoaren naitara, etorri ta joan egiten da-ta.

20. Orregaitik, Job zoriotsuak auxe diño: "Goizean ikustaldia egiten dautsazu, eta bat-batean aztertu egiten dozu" (Job 7, 18).

21. Orregaitik, ba, ¿nogan ezarri daiket itxaropena / Jaungoikoaren erruki aundian bakarrik izan ezik?, ¿eta nogan jarri daiket ustea / zerutiko graziaren itxaropenean bakarrik izan ezik?

22. Izan be, gizon onak, naiz anai eraspentsuak, naiz adiskide zintzoak niri euren laguntza emonarren be, edo liburu santuak naiz idazlan ederrak irakurteak, edo gorapen-kantu bigunak eta abesti gozoak entzuteak lagun egin badaiste be, guzti orrek ez daust askorik balio eta ez dauko niretzat ezer gozorik / grazi bagarik eta neure ezeukitasunean bertan-beera itzita geratzen banaz.

*Osagarrikirir eragilleena:
Jaunaren naipean egotea*

23. Orduan osagarrikirir onena eroapena da, eta, neure burua ukaturik, Jaungoikoaren naipean jarrea.

24. Noizbait pozkari bagarik izan ez dan gizonik edo barruko beroa urritzerik izan ez dauan Jainkozale ta eraspentsurik iñoiz be ez dot aurkitu.

25. Leenago edo geroago tentaldirik izan ez dauan santurik ez da izan, oso gora jaso ta zerutiko argiz beterik egonarren be.

26. Izan be, Jaungoikoagaitik atsekaberen baten oitu ez dana, ez da Jaungoikoaren gai gorengoak begiratzeko duin. Izan be, aurreko tentaldia / laster etorriko dan pozkariaren ezaugarria izaten da.

27. Ain zuzen be, tentaldian aztertuak izan diranai zerutiko pozkaria eskintzen yake, Biblian irakurten danez: "Irabazi dagianari, bizitzako zugatzetik emongo dautsat jaten" (Ag 2, 7).

28. Zerutiko pozkaria / gizona bizitzako zoritxarrak eroateko indartsuagoa izan daiten be emoten da. Baiña gero tentaldia datorrio, burutu dauan egitادا onaz arrotu ez daiten.

29. Deabruak ez dau lorik egiten eta aragia ez dago oraindiño ilda. Orregaitik, gudarako gertatzeari etenbagarik ekin egiozu, ezker-eskuman atsendenik iñoiz be artzen ez dabñ arerioak dagoz-ta.

AMARGARREN ATALBURUA

Jaungoikoaren graziari zor yakon eskerrona

1. Lanerako jaio zearan ezker, ¿zegaitik billatzen dozu atsedena?

2. Pozkarietarako baiño geiago nekeak eroapenez eroateko gertatu zaitez, eta poztasunerako baiño gurutzea eroateko be bai.

3. Izan be, pozkaria ta gogozko alaitasuna, ¿zein mundu-zalek ez leukez pozik artuko, bere eskuetan balegoz?

4. Mundu onetako poztasun guztiak eta zentzuetako atsegiñak baiño espirituaren atsegiñak askozaz aundiagoak dira.

5. Izan be, lurreko atsegin guztiak utsak edo lotsagarriak dira. Espirituarenak, barriz, atsegingarri ta garbi bakarrik dira; euren sorburua onoinenean dabe eta Jaungoikoak isurten dauz arimarik garbi-enetan.

6. Baiña Jaungoikoak poztaldiok ezin erabili daitez iñok norberak nai dauanez, tentaldiak orretarako asti laburra izten dau-ta.

7. Guzurrezko espiritu-askatasuna eta norbere buruaganako uste arropuzta eragozpen aundiak dira Jaungoikoak ikustaldiarentzat.

8. Jaungoikoak ondo jokaten dau benetan / gizonari pozkari-grazia emoten dautsanean; baiña gizonak txarto jokaten dau / dana Jaungoikoari eskerrak emonik ezarten ez dautsanean.

9. Eta orregaitik, ezin isuri daitezke ugariago jaungoikoak graziaren doaiak: euren Egilleari esker-txarrekoak gakiok-ta, eta ez dautsagu dana sorburu-iturriari ezarten.

10. Izan be, eskerrak bear danez emoten dauzana / beti grazi barrin duin egiten da; eta, gaiñera, Jaungoikoak apalari emoten dautsana / arroari kendu egiten dautso.

Gura izan bear doguzan pozkariak

11. Biotz-damua kendu daistan pozkaririk ez dot nai, ezta arrokeriara eroan aal nagian goi-ikuspenik be ez dot gura.

12. Izan be, goiko edozer ez da santua, ezta edozein gozo be ona, ezta edozein gurari be garbia, ezta maite dogun guztia be ez yako gogoko Jaungoikoari.

13. Pozik onartzen dot apalago ta bildurtiago eta neure burua ukatzeko gaiago biurtzen nauan grazia.

14. Graziaren doaia somatu eta grazi bagariko samñaldia ezagutu dauana, ez da bere buruari onik ezarten azartuko, bestetara baiño: alakoak bere burua txiro (*beartsu*) ta billoizik dagoala autortuko dau.

15. Emon egiozu Jaungoikoari Jaungoikoarena dana, eta zeure buruari ezarri zeurea dana; edo bardin dana: emon egiozuz eskerrak Jaungoikoari graziagaitik, eta pekatua zeurea bakarrik dala eta pekatuagaitik zigor egokia irabazi dozula autortu egizu.

16. Beti azkenengo lekuan jarri zaitez, eta gorengo emongo yatzu: gaiñean dagoanak oiñazpi bagarik ezin iraun daike-ta.

17. Jaungoikoaren aurrean santurik aundienak diranak, euren eretxian txikiak dira, eta, aintzatsuagoak diran negurriz, apalagotzat artzen dabe euren burua.

18. Zeruko egiaz eta aintzaz beterik, ez dabe munduko aintza utsalaren goserik; eta, Jaungoikoagan oiñarritu ta sendotuta dagozan ezker, ezetara be ezin arropuztu daitezke.

19. Artutako on guztia Jaungoikoari ezarten dautsoe; orregaitik, ez dabe alkarreganako gorapenik billatzen, Jaungoikoagandik bakarrik datorrena baiño. Arein ardura bakarra / Jaungoikoa Beronegan eta santu guztiak goralteza da, eta orixe da euren gauza guztietan artzen daben elburua.

20. Txikienean be eskerronekoa izan zaitez, ba, eta grazi aundiagoak artzeko duin izango zara. Doairik txikiena aundiena lakotzat, eta grazirik txikiena doai berarizkotzat artu egizu.

21. Emoillearen bikaintasuna begiratzen badozu, doai bati be ez dautsazu txikia edo txatxarra danik eretxiko, Jaungoiko bikaiñagandik datorrena iñoiz

be ez da balio gutxikoa izaten-eta.

22. Nekeak eta zigorrak bialtzen badauskuz be, eskerrak emon bear dautsaguz: Berak laketuta guri jazo dakigun guztia / beti geure salbamenerako izaten da-ta.

23. Jaungoikoaren grazia gorde gura dauanak, emon dautsanagaitik eskerronekoa, eta kendu dagionean eroapentsua izan bedi. Otoitz egin begi grazia barrin artu dagian, eta arduratsua ta apala izan bedi grazia galdu ez dagian.

AMAIKAGARREN ATALBURUA

Gutxi dira Jesusen gurutze-zaleak

1. Jesusek orain zeruko bere erreñuaren maitatzaille asko daukaz, baiña gutxi bere gurutzea eroateko gertu egon daitezkanak. Pozkari-zale asko daukaz, baiña atsekabe-zale gutxi.

2. Beragaz maian jarteko lagun asko aurkitzen dauz, baiña gutxi barau egiteko. Jesusegaz guztiak poztu gura dabe, baiña Aregaitik zerbait sufritzeko gertu dagozanak gutxi dira.

3. Ogia zaitu arte askok jarraitzen dautsoe Jesusi, baiña gutxi Nekaldiko ontziko edan arte. Askok goratzen dabez Aren mirariak, baiña gutxi jarraitzen dautsoe gurutzeko lotsakizunean.

4. Askok maite dabe Jesus zoritxarrak ez dagoan artean. Baita goratu ta bedeinkatu be egiten dabe, Aregandik pozkariren batzuk artzen dabezan artean. Baiña Jesus ostentzen bayake eta Arek aldi baterako izten badauz, erostaka asi eta lur-jota geratzen dira.

Gutxi dira eurekoiak ez diranak

5. Baiña, norbere pozkariren batek erakarri bagarik, Jesus Jesusegaitik beragaitik maite dabenak / bitzeko edozein atsekabe ta larrialditan pozaldirik gozoenetan lez bedeinkatzen dabe.

6. Eta, iñoiz be pozkaririk emon nai ez baleuskie be, Jesus beti goratuko leukee eta Ari etenbagarik eskerrak emoteko gertu egongo litzakez. Oi, Jesuseganako maitasun egin aal izango leukena, maitasun ori garbia ta norberakeria edo norberaganako maitakeri bagarik izango balitz!

7. Beti pozkari-billa diardenak ez ete-dira benetan alogerekoak? Beti euren onura ta irabazien atzean diardenak, ¿Kristo baiño euren burua maiteago dabela ez ete-dabe erakusten?

8. ¿Non aurkitu daikegu / Jaungoikoa utsean (*doan*) otseindu nai dauanik? Gutxitan aurkitzen da gauza guztietatik erantzita egon daiten gizon espiritu-zale-rik.

9. Izan be, ¿non aurkituko da, benetan gogoz txiroa [*beartsua*] izan eta izaki guztietatik erantzita egon daitenik? Balio aundiko ondasuna da ori, lurreko azkenengo mugetatik etoria.

Biotza garbi izateak dauan balioa

10. Gizonak bere ondasun guztiak beartsuai emongo baleuskiez, ez litzake ori be ezer izango. Eta obeneke aundia egin balegi be, ori be oso gutxi izango litzake. Eta jakintza guztia berak bakarrik eukiarren be, orduan be elburutik urrin egongo litzake.

11. Eta onoinen aundia eta oneraspen gartsua izan balegiz be, orduan be elburutik urrin egongo litzake, edo bardin dana: beretzat bear-bearrezkoa dan gauza bakarra ez leuke eukiko.

12. ¿Zein da gauza ori? Gauza guztiak alde batera itzita gero, norbere burua be alde batera itzi eta norberagandik guztiz urteeta, norbere buruaganako maitakeriarik ezertxo be ez izateraiño.

13. Eta eginbearreko guztia ezagutu dauanez eginda gero, berak oraindiño ezertxo be ez dauala egin sinistu dagiala.

14. Enparaduak bera oso aintzat artzea ez begi aundizat izan, bestetara baiño: benetan bera ezetarako ez dan morroia dala autortu begi, Egiak [Jesukristok] diñoanez: "Agindutako guztia egin dagizuenean, auxe esan egizue: 'Morroi gauza-ekak gara'" (Lk 17, 10).

15. Orduantxe aal izango zara benetan gogoz txiroa (*beartsua*) ta askatua, eta orduantxe esan aal izango dozu profetagáz batera: "Soillik eta saminduta nago" (Sal 24, 16).

16. Eta, alan be, bere burua ta gauza guztiak alde batera itzita, azkenengo lekuan jarten dakiana baiño aberatsagorik, aaltsuagorik eta askatuagorik iñor be ez da.

AMABIGARREN ATALBURUA

Gurutze santuaren bide ederra

1. Askok gogorra deritzoe berbakera oni: "Zure burua ukatu, zure gurutzea artu, eta Jesusi jarraitu egiozu" (Mt 16, 24).

2. Baiña askozaz be gogorragoa izango yake azkenengo egunean Jaunaren berbok entzutea: "Alde nigandik, madarikatuok, betiko sutara!" (Mt 25, 41).

3. Izan be, orain gurutzearen agindua ta ikasbidea gogo onez entzunik, euroi jarraitzen dautseenak / ez dabe orduan bildurrik izango, betiko zigor-epaia entzutean.

4. Izan be, Jauna mundua epaitzera etorri daitenean, gurutzeko ezaugarri au zeruan agertuko da.

5. Orduan, Gurutzearen morroi lez, euren bizitzan gurutzea eroanik, Jesus Gurutzetuaren antzera bizi izan ziranak / Kristo epailleagana uste aundiz urrera-tuko dira.

6. Gurutzearen bidez erreñura joaten dan ezker, ¿zegaitik zara bildur zure sorbalda-gaiñean gurutzea artzen?

7. Gurutzean dago salbamena, gurutzeana bizia, gurutzean aurkitzen doguz laguntza ta estalpea gure arerioen aurka, eta gurutzearen bidez isurten da gure biotzetara zerutiko samurtasuna.

8. Gurutzean dagoz arimearen sendotasuna ta adorea, gurutzean espirituaren poza, gurutzean onoinen laburpena, gurutzean santutasun bikaiña.

Jesus Jauna eredu

9. Arimearen salbamena ta betiko bizitzaren itxaropena gurutzean baiño ez dagoz. Artu, ba, gurutzea eta jarraitu egiozu Jesusi, eta orrela betiko bizitzara elduko zara.

10. Berak artu euskun aurrea, bere gurutzea sorbal-dan eroanik, eta gurutzean il zan zeugaitik, zeuk be zeure gurutzea eroan eta gurutzean iltea gura izan dagizun.

11. Izan be, Kristogaz batera ilten bazara, bizi be Aregaz batera bizi izango zara, Aren aintza-lagun be izango zara.

12. Izan be, gurutzean dago dana, eta dana gurutzean iltean datza; eta bizitzara ta barruko egiazko bakea eroateko, Gurutze santuaren eta egun oroko ezinekeke baiño beste biderik ez dago.

13. Zoaz nai dagizun tokira, billatu nai dagizuna; eta Gurutze santuaren bidea baiño bide bikaiñagorik goian, ez ziurragorik beean, ez dozu aurkituko.

14. Gauza guztiak zeure gurariz eta eretxiz eratu ta atondu egizuz, eta, nai ta nai ez, nekeren bat beti eroan bear izango dozula konturatuko zara.

15. Eta orrela, gurutzea aurkituko dozu beti; izan be, edo gozputzean izango dozu min, edo ariman atsekabea.

16. Batzuetan Jaungoikoak bertan-beera itziko zaitu, beste batzuetan lagun-urkoak aurrean erabiliko zaitu, eta, ori baiño txarrago dana: sarritan ez dozu jakingo zeure burua onartzen, zuretzat sorta astuna be astuna izanik.

17. Eta ez da izango zure atsekabetik askatu aal zagizan osagaririk, ezta zure miña arindu dagian pozkaririk be; bearrezkoa izango yatzu Jaungoikoak gura izan dagian arte nekeak eroatea.

18. Izan be, atsekabea pozkari bagarik eroaten ikasi dagizula nai dau Jaungoikoak, eta ori Aren menpean oso-osorik jarri eta atsekabearen bidez apalagoa egin zaitez.

Norbera da bere buruarentzat bere gurutzea, eta norberak daroa gurutzea edonora

19. Kristoren antzeko nekeak eroaten dauzanak baiño biziago iñok be ez dau Kristoren nekaldia biotzean somatzen. Beraz, gurutzea beti gertu dago, toki guztietan zeure zain.

20. Zure burua gordetara edonora joanda be, ezin egin izango dozu iges aregandik; izan be, zu edonora joanda be, zure burua zeugaz daroazu, eta zure burua aurkituko dozu beti.

21. Zoaz goruntz, zoaz beeruntz, zoaz kanporuntz, zoaz barruruntz, eta edonon gurutzea aurkituko dozu. Eta bearrezkoa yatzu edonon eroapena izatea, barruko bakea izan eta betiko koroea irabazi nai badozu.

22. Gurutzea gogo onez badaroazu, berak eroan eta zeuk opa dozun elburura zuzenduko zaitu, eta antxe

amaituko da nekea eroatea, nekeak emen ez dau amairik-eta.

23. Gurutzea gogoaz kontra badaroazu, aren sortea astunagoa egingo dozu, eta larriagoa zure miña; edozela be, eroan egin bear izango dozu gurutzea.

24. Gurutze bat baztarten badozu, beste bat aurkituko dozu, aurki, eta astunagoa be bai bearbada. Ilkorretarik batek be ezin iges egin izan dauanetik, ¿zuk iges egin aal izatea uste dozu? ¿Nor izan da lurtean santuen artean gurutze edo lor bagarik?

25. Izan be, Jesukristo gure Jauna be, mundu onetan bizi izan zan artean, ordu baten be ez zan nekemin bagarik egon. Izan be, ebanjelariak diñoenez, "bearrezko yakon Kristori nekeok eroatea ta illen artetik biztutea, eta olan bere aintzan sartzea" (Lk 24, 26).

26. Gurutzearen bide ederra billatu bagarik, ¿zelan diarduzu beste bide baten billa?

27. Kristoren bizitza guztia gurutzea ta neke-miña izan zan; ¿eta zuk atsedan eta atsegin-billa diarduzu?

28. Oker zagoz. Oso oker zagoz lorrak sufritzea bagarik beste zerbaiten billa badiarduzu. Izan be, bizitzaldi ilkor au, asieratik azkenerarte, zoritxarrez beterik eta alde guztietatik gurutzez inguratuta dago.

29. Eta espiritu-bizikeran gizona gorago igoten dan bestean, sarritan gurutze geiago ta astunagoak aurkituko dauz: maitasuna geitzean, erbesteko miña be geitu egiten da-ta.

30. Baiña onela atsekabetuta dagoan au, pozkariren batek arindu bagarik ez da egoten; bere gurutzea eroanez, bere eroapenaren frutua eurrez geitzen yakola somatzen dau bere ariman-eta.

31. Izan be, gurutzearen menpean gogo onez jarten danari, lorraren sorta guztia Jaungoikoaren atsegiñaren uste on biurtzen yako.

32. Eta aragia lorrax geiago ausi, espiritua be geiago indartzen da, barruz artzen dauan graziari esker.

33. Eta batzuetan, Kristo gurutzeratuari dautsan maitasun eta bat-egiteagaitik atsekabe ta zoritxarretan sendotuta somatzen dau bere burua, eta geitu egiten yako Kristo gurutzetuagaz bat egiteko guraria, neke ta ezbear bagarik egotea gura ez izateraiño geitu be: Jaungoikoagaitik neke geiago ta astunagoak eroanez, Jaungoikoari gogokoagoa izango yakola uste dau-ta.

*Nekeak eroateko gauza izatea
Jaungoikoagandik datorrigu*

34. Baiña ori ez dator gizonaren indarretik, aragi makalean orrelako miragarriak egin aal dauzan eta egiten dauzan Kristoren grazitik baiño; izan be, gizonak berez beti iguintzen eta baztarten dauana / graziak espiritu-adoreaz azierazo ta maiteazoteraiño eroaten dau.

35. Ez yako berezko gizonari gurutzea eroan eta maite izatea, gorputza zigortu ta menperatzea, aundikerietatik iges egitea, iraiñak gogo onez eroatea, norbere burua iguindu eta besteak iguindu dagiela gura izatea, edozetariko biotz-miñak eroatea, norbere kalterako izanda be, eta mundu onetan goraldirik ez gura izatea.

36. Zeure indarrak begiratzen badozuz, zeurez ezin izango zara orrelakorik egiteko gauza. Baiña ustea Jaungoikoagan badozu, Berak emongo dautsu sendotasuna zerutik, eta mundua ta aragia zeure menpean jarriko dira.

37. Eta iskillotzat [*armatzat*] sinismena badozu eta ezaugarritzat Kristoren gurutzea badaroazu, zure arerioa dan deabruari be ez dautsazu bildurrik izango.

38. Beraz, Kristoren morroi zintzo lez, zure Jaunaren gurutzea adoretu eroateko gertu egon zaitez, zeuganako maitasunagaitik izan zan gurutzetua-ta.

39. Zoritxarreko bizitza onetan neke asko ta edozetariko atsekabeak eroateko gertu egon zaitez; orrelaxe izango da zu edonon egonarren be, eta gorde zaitez edonon aurkituko zaitue aurkitu be.

40. Orrelaxe izan bear. Eta miñetik eta gatxen lorretik iges egiteko norbere buruaz eroapena izatea eta gatxok ondo eroatea baiño beste biderik ez dago.

*Kristogaz adiskidetasuna izateko,
Beronen ontzikoa edan egizu*

41. Jaunaren ontzikoa gogotsu edan egizu, Aren adiskide benetan nai izatea eta Aregaz batera zeruan eskuartzea gura badozu.

42. Jaungoikoaren eskuetan itzi egizu zure burua pozaldia dagokienez, eta eurokaz Berak gura dagianez egin dagiala.

43. Zuri buruz, barniz, lorrak eroateko gertu egon zaitez eta oso pozkaritzat jo egizuz; izan be, bizitza onetako nekeak ezer ez dira geroko aintzaren aldean, eta neke orreik ezin irabazi daik ee aintza ori, neke guztiok zeuk bakarrik eroan aal bazenduz be.

44. Kristogaitik atsekabea zuretzat gozo ta atsegin-garri izateraiño eldu zaitezanean, orduan zorionsu zareala uste egizu, lurtean benetan paradisia aurkitu dozu-ta

45. Nekea astun izan dakizun artean eta aregandik igesi ibili zaitez artean, zoritxarreko izango zara eta txarto etorriko yatzu, eta, zuk edonora iges egiñarren be, atsekabeak jarraitu egingo dautsu.

46. Baiña bear dana egiteko gertu bazagoz, edo bardin dana: nekea eroateko ta ibilteko gertu bazagoz, bereala zure burua obeto somatu eta bakea aurkituko dozu.

47. Paulo santua lez irugarren zeruraiño eroana izango bazintzaz be, ez zeuke orduantxe be zoritxarren bat ez eroateko ziurtasunik izango. "Neuk irakatsiko dautsadaz —diño Jesusek— neure ize-nagaitik eroan bear dauzan nekeak" (Ap Eg 9, 16).

48. Beraz, Kristo benetan maitatu eta Aren zerbitzari betiko izan nai badozu, nekeak eroan bear dozuz.

49. Jesusen izenagaitik nekeren bat eroateko duin izango al zara! Orixe bai izango litzakela zuretzat aintza aundia, orixe bai santu guztientzat poza, orixe bai zure lagun-urkoarentzat jarraibidea!

50. Izan be, eroapena guztiak goratzen dabe, baiña gutxi nai dabe nekeak eroatea.

51. Bidezko izango litzakizu Kristogaitik neke apur bat gogo onez eroatea, munduaganako maitasunagaitik askok neke astunagoak be eroaten dabez-ta.

52. Zure bizitzak ilte etenbagea izan bear dauala uste izan egizu. Eta norberarentzat illago, eta Jaungoikoarentzat geiago asten da norbera bizi izaten.

53. Kristogaitik zoritxarrak eroateko gauza ez dana, zeruko gaiak ulertzeko be ez da gauza. Mundu onetan Jesusegaitik nekeak pozik eroatea baiño, Jaungoikoarentzat gogokoagorik eta zuretzat osasungarriagorik ez dago.

54. Eta, aukeratzea zeure eskuan badago, pozaldi askoaz atseginua izatea baiño Kristogaitik zoritxarrak eroatea gurago izan bear zeuke, orduan Kristoren antzekoagoa eta santuak itzi euskuezan jarrai-

bideen erakoagoa izango zintzakez-ta.

55. Izan be, gure merezimentu ta gure bizitzaren zindokuntza atsegin eta pozkarietan bagarik, neke ta atsekabe aundiak eroaten jakitean dago.

56. Izan be, gizonen salbamenerako nekeak eroatea baiño beste zerbait obeagoa ta onurakorragoa egon balitz, Kristok benetan bere berbeaz eta jarraibideaz irakatsiko euskun.

57. Baiña bere ikasleai eta jarraitu gura eutsoen guztiak, gurutzea eroan dagiela eskatzen dautse argiro, esanez: "Norbaitek neure ikasle izan nai badau, bere buruaz aazturik, bere gurutzea artuta, jarraitu egin bear izango daust" (Mt 16, 24).

58. Beraz, gauza guztiok irakurri ta ausnartuta gero, azken-erabagia aux e izan bedi: "Jaungoikoaren erreinuan neke asko eroanez sartu bear dala" (Ap Eg 14, 22).

IRUGARREN LIBURUA

BARRUKO POZKARIA

LEENENGO ATALBURUA

Arima zintzoari Kristok barruan dirautsana

- Arimeak.*— 1. “Nire Jainko Jaunak neugan diñoana entzungo dot” (Sal 85, 9).
2. Zorionekoa / Jaunak berba egiten dautsana adi-adi entzun eta Aren agotik berba pozgarriak artzen dauzan arimeak!
3. Zorionekoak / Jaungoikoagandiko argitasunen zurrumurrak entzun, eta zurrumuru lurkoiai jaramonik egiten ez dautseen belarriak!
4. Zorionekoak / kanpotik eltzen dan berbotsa entzun bagarik, biotzari berba egin eta irakasten dautsan egia adi-adi entzuten dabenak!
5. Zorionekoak / kanpoko gaietarako itxita, arimakoetarako beti adi-adi dagozan begiak!
6. Zorionekoak / barruko gaietan sartzen diranak, eta, zerutiko ezkutuak jakiten geroago ta geiago gertatzeko, egun oro ekin eta ekin diarduenak!
7. Zorionekoak / Jaungoikoarentzat guztiz bizi izateko pozten diranak, euren bizitzan lurkoiaren eragozpenetatik urrindurik!
8. Izan egizu gogoan guzti ori, ene arima orrek, eta itxi egizuz zure zentzuetako ateak, orrela zure Jainko Jaunak zure barruan berba egiten dauana entzun aal izango dozu.

Jaunak.— 9. Auxe diño zure Maiteak: Neu naz zure salbamena, zure bakea eta zure bizia. Iraun egizu neugan eta bakea aurkituko dozu. Gauza igarokorrak alde batera itzi eta betikoak billatu egizuz.

10. ¿Zer dira, ba, aldikoak, lillurakeri utsak baiño? ¿Eta ze[r] laguntza emon daiketzue izaki guztiak, arcin Egilleak bertan-beera izten bazaitu?
11. Orregaitik, gauza guztiai uko egiñik, zure Egilleari gogoko ta zintzo izan zakioz, benetako zoriona jadetsi aal dagizun.

BIGARREN ATALBURUA

Egiak arima-barruan berbots bagarik egiten dau berba

- Arimeak.*— 1. “Berba egizu, Jauna, zure morroi onek entzuten diardu-ta” (Sam 1^a, 3, 10). “Zeure morroi naz; argitu egidazu adimena, zeure aginduak ulertu dagidazan” (Sal 119, 125). Makurtu nire biotza zure agoko berbetara. Zure berbea iruntza lez jatsi bedi.
2. Aldi aretan, Israelgo semeak Moisesi auxe zirautsoen: “Zeuk egiguzu berba, eta entzun egingo dautsugu; ez beigu Jaunak berba egin, il ez gaitzezan” (Ur 20, 19).
3. Baiña nik ez dautsut orrela erregutzen, Jauna, bestetara baiño: Samuel profetak lez, zeu(ri) entzuteko gogo bizia dot, eta apalik eskatzen dautsut: “Berba egizu, Jauna, zure morroi onek entzuten diardu-ta” (Sam 1^a, 3, 10).
4. Ez beist Moisesek berba egin, ezta beste profetak be; zeuk egidazu berba, nire Jainko Jaun orrek, profeta guztien berba-eragille ta argitzaille zeu izan zintzazan-eta. Izan be, areik bagarik, zeuk bakarrik irakatsi naikezu ondo be ondo; baiña areik, zu bagarik, ezetarako be ez litzakez izango.
5. Areik berbotsa atara daikete, bai, baiña espiriturik ez dabe emoten. Berba ederrak esaten dabez; baiña, zu isildu ezkerro, ez dabe biotza iziotzen. Letrea irakasten dabe, baiña zeuk argitu dozu esanaia.
6. Ezkutuak iragarten dabez, bai, baiña zeuk agertzen dozu adimena. Zeure aginduak iragarten dabez, baiña zeuk egiten dauskuzu lagun aginduok beteten. Areik bidea erakusten dabe; baiña, bide orretan ibilteko, zeuk emoten dauskuz indarrak.
7. Areik kanpokaldetik ekiten dautsoe, baiña zeuk irakatsi eta argitzen dozuz biotzak. Areik azala bustiten dabe, baiña zeuk emoten dozu arimearen ugartasuna. Areik berben bidez egiten dabe deadar, baiña zeuk zabaltzen dozu adimenaren entzumena.
8. Beraz, ez beist Moisesek berba egin, zeuk baiño, neure Jainko Jaun orrek, betiko egia zorean orrek; zure suak nire arimea kiskaldu bagarik / kanpotik baiño irakasten ez banabe, bearbada il eta frutu bagarik geratu ez naiten;
9. berba entzuna ta gordebagea, ulertua ta maitatu

bagea, sinistua ta bete bagea neure auzigarri ta ondamentirako izan ez daiten.

10. Berba egizu, ba, Jauna, zure morroi onek entzuten diardu-ta" (Sam 1^a, 3, 10), "zure berbak betiko bizia emoten daben berbak dira-ta" (Jn 6, 69). Berba egidazu edozela izanda be, nire arimearen pozkarirako ta nire bizikerea ontzeko. Eta guzti ori zeure betiko gorapen, aintza ta osperako izan daitela.

IRUGARREN ATALBURUA

Jaungoikoaren berbak apaltasunez entzun bear dira, eta askok ez dabez onartzen

Jaunak.— 1. Entzun, ene seme, nire berbak, berba samur-samurrak, mundu onetako filosofu ta jakitunen jakintza guztia baiño gorago dagoz-ta

2. "Nik esan dautsuedazan berbak espiritu ta bizia dira" (Jn 6, 64), eta giza-erexipenaz ezin negurtu daitekez.

3. Ez dira norbere atsegiña beteteko erabili bear, isilik entzuteko baiño, eta apaltasunez eta biotzeko gurari aundiz onartu bear dira.

Arimeak.— 4. Dabidek auxa esan eban: "Zori-onekoa, Jauna, zeuk irakasten dozun gizona, eta zeure legea agertzen dautsazuna, alakoa egun txarretatik atarateko" (Sal 94, 12), emen lurrean bertan-beera itzita bizi ez daiten.

5. Neuk emon dautset irakatsia profetai antxiña danik —diño Jaunak—, eta gaur arte be neuk egiten dautset berba guztiai; baiña nire berbea entzuteko gortu eta gogortu egiten dira euren biotzean.

6. Geienak Jaungoikoak diñoana baiño munduak diñoana pozago entzuten dabe, eta Jaungoikoaren gurariai baiño aragiaren griñai errazago jarraitzen dautsee.

7. Munduak gauza aldikorak eta txikiak eskintzen dauz, eta, alan be, adoretu izaten dira munduaren zerbitzari. Nik sari bikain eta betikoak eskintzen dodaz, eta gizonen biotzak nagi-nagi geratzen dira.

8. Munduari ta beronen ugazabai otseintzen yaken aiñako ardureaz, ¿nok otseintzen nau ni eta nok egiten daust esana? "Lotsatu zaitetz, Sion, diño

itsasoak" (Is 23, 4); eta zegaitik itauntzen badozu, entzun:

9. Sari urria lortzearen, gizonak bide luzea egiten dabe; betiko bizitza jaristeko, barriz, askok oiña lurretik baten be nekez jasoten dabe.

10. Irabazi apur baten billa adoretu dabiz, eta, diru txatxar bat dala-ta, batzuetan lotsagarritzko auziak izaten dabez; gauza galkorraitik eta uskeriazko agintzariategaitik ez dabe gizonak gau ta egun nekatuta ibilteko bildurrik.

11. Baiña, au lotsagarria!, aldatzen ez dan ondasunagaitik, bardiñik ez dauan sariagaitik, gorengo ospeagaitik eta azkenik ez dauan aintzagaitik, euren buruak zertxobait nekatzeko be nagi dira.

Jesus da sari-emoille bakarra

12. Lotsatu zaitetz, ba, morroi alper eta negarti ori: zu bizitarako baiño areik ondamentirako arduratsua-goak diralako. Zu egiaz baiño areik uskeriaz pozago dagoz.

13. Izan be, euren itxaropenak batzuetan uts egiten dautse; nire agintzariak, barriz, ez dautso iñori iruzurrik egiten, eta ustea neugan jarten dauana be ez dau arek ezer bagarik izten.

14. Nire morroiak azkenerarte zintzo irauten badau, aginduta daukadana emongo dot nik, beteko dot esan dodana.

15. On guztien ordaintzaillea eta Jainkozale guztien aztertzaile zeatza naz ni.

16. Nire berbak zure biotzean idatzi eta ardua aundiz ausnartu egizuz, tentaldian bear-bearrezkoak izango yatzuz-ta.

17. Irakurtean ulertu ez dagizuna, neure ikustaldiegunean ezagutuko dozu. Izan be, era bitara egiten dautset ikustaldia nire aukeratuai: tentaldiaz eta pozaldiaz.

18. Eta ikaskizun bi emoten dautsedaz egun oro: bata, arein griña txarrakaitik arei agiraka egiñaz, eta bestea, arei onoinemetan aurrera egin dagiela eskatuaz.

19. "Nire berbak baztatu ta onartzen ez dauzarentzat, auzi epaille bat dago: neure mandatuak berak galduko dau alakoa azken-egunean" (Jn 12, 48).

Oneraspen-grazia eskatzeko
otoitza

20. Neure Jainko Jauna, zeu zara nire on guztia. Eta, ¿nor naz ni zuri berba egiten azartzeko?

21. Zure norroietarik beartsuena naz ni, kokotxo iguingarria, neuk dakidan eta esaten azartzem nazan baiño be ezeukiago ta iguingarriagoa.

22. Baiña gomuta zaitetz, Jauna, ezer be ez nazana, ezer be ez daukadana, eta ezetarako be ez nazana. Zeu bakarrik zara ona, zuzena ta santua; zeuk aal dozu dana, dana emoten dozu, dana beteten dozu, eta pekataria bakarrik izten dozu utsik.

23. Gogoratu egizuz zure errukiak, eta bete egizu nire biotza zure graziaz: zure egintzak alperrekoak izaterik ez dozu nai-ta.

24. Bizitza negargarri onetan, ¿zelan eroan aal izango dot nire burua, zure errukiak eta grazia sendotzen ez banabe?

25. "Ez egizu zure aurpegia nigandik aldendu" (Sal 143, 7), ez berandutu zure ikustaldia, ez egidazu kendu zure pozkaria, nire arimea zuretzat ur bagariko lurra lez biurtu ez daiten. Irakatsi egidazu, Jauna, zeure naia egiten; irakatsi egidazu zure aurrean egoki ta apalkiro bizi izaten.

26. Izan be, zeu zara nire jakituria, zeu zara benetan ni ezagutzen nozuna, eta mundua izan baiño leen eta ni lur onetan jaio baiño leen ezagutu nenduzuna.

LAUGARREN ATALBURUA

Jaungoikoaren aurrean egiaz eta apaltasunez bizi bear dogu

Jaunak.— 1. Ene seme, nire aurrean egiaz ibili zaitetz, eta ordu guztietan biotz lauaz billatu nagizu.

2. Nire aurrean egiaz dabillena, gaiztoaren erasoetatik gordeta egongo da; eta egiak askatuko dau okerbidera eroan nai dabenakandik, eta gaiztoen txarto-esanetatik onik urtengo da.

3. Egiak askatu bazagiz, benetan askatuta geratuko zara, eta orduan ez dautsezu gizonen berba utsai jaramonik egingo.

Arimeak.— 4. Egia da zuk diñoazuna, Jauna; eta

nitzaz zeuk gura dozunez egin daitela eskatzen dautsut. Zeure egiak irakatsi, gorde eta neure salbamena dan elburua lortu arte iraunerazo nagiala.

5. Berak askatu nagiala edozein zalekeri ta maitakeriatik, eta onela zugaz biotz-askatasun aundiaz ibiliko naz.

Jaunak.— 6. Neuk irakatsiko dautsut —diño Egiak— nire aurrean zuzen eta gogoko dana. Gogoratu egizuz zure pekatuak gorroto ta damu aundiz, eta zure egintza onakaitik ezer zareanik ez egizu iñoiz be uste izan.

7. Izan be, pekatari zara eta griña askoren menpean eta eurokaz naastuta zagoz. Zuk zeurez beti eze-rezera jotzen dozu; laster egiten dozu larrapast, erraz jausten zara, bereala arategatu ta kikiltzen zara.

8. Zure burua goratu aal dagizunik ezer be ez daukazu, baiña bai zeure burua beeratzeko naikoa, zeuk ulertu daikezun baiño askozaz malakagoa zara-ta. Beraz, egiten dozuzanetarik bat bera be ez egizu aundizat artu.

9. Beti-betikoa izan ezik, ezer be ez egizu aundizat izan, ez edertzat, ez ikusgarritzat, ez ontzat, ez bikaintzat, ez benetan goragarritzat, ez opagarritzat.

10. Gauza guztien gaiñetik, betiko Egia atsegin izan egizu; eta, zuri buruz, iguindu egizu beti zure doillor-keri oso aundia.

11. Zure griña txarrai ta pekatuak baiño bildur geiago ezeri be ez izan, areik baiño geiago ezer be ez egizu iguindu, ezta arekandik baiño geiago ezetatik be ez zaitetz urrindu. Lur onetako gauzak egin aal dagitzuen edozein kaltek baiño naibage aundiagoa egin bear dautsue areik.

¿Zegaitik tentaldiak arimetan?

12. Batzuek ez dabiz asmo garbiz nire aurrean; jakingureak eta arrokeriak eraginda, neure isilpekoak jakin erta Jaungoikoaren ezkutu ulertu-eziñak ulertu gura dabez, euren buruaz eta euren salbamena arduratu bagarik.

13. Oneik, ni euron aurka egonik, euren arrokeri ta jakingura utsalagaitik, sarritan tentaldi ta pekau astunetan jausten dira. Bildur izan egiezu Jaungoikoaren epaiari, Guztiaaldunaren sumiñari bildur-

ikarea izan egiozu.

14. Gorengoaren egintzak ez egizuz eztabaidatu edo arakatu nai; zeure gaiztakeriak, bai, aztertu egizuz, zenbat gaietan egin dozun pekatu eta zenbat egintza on alperkeriz egin bagarik itzi dozuzan.

15. Batzuek euren oneraspen guztia liburuetan dabe; beste batzuek irudi batzuetan, beste batzuek ezaugarri ta egiera agirietan. "Batzuek ezpanetan nakarre, bai, baiña gutxik biotzean" (Is 29, 13).

16. Beste batzuek, euren adimenean argituta eta biotzean garbituta, betiko ondasunak gura izaten dabez etenbagarik, eta lurreko gaiak entzutea nekegarri yake, eta izateak beragaz daroan bearrizanen ardurea samintasunez artzen dabe.

17. Orreik, Egi-Espirituak biotzean dirautsena somatzen dabe; izan be, lurrekoak baztatu eta zerukoak maite izaten, mundua aazten eta gau ta egun zerua gura izaten irakasten dautse.

BOSGARREN ATALBURUA

Jaungoikozko maitasunaren ondoren miragarriak

Arimeak.— 1. Bedeinkatu egiten zaitut, zeruko Aita, Jesukristo nire Jaunaren Aita, deika dagokizun izaki gizagaiso onetzaz gomutatzea gura izan dozulako.

2. "Errukien Aita eta Jaungoiko guztiz poz-emoille ori!" (Kor 2^a, 1, 3). Eskerrak emoten dautsudaz, pozkarien duin ez nazanarren, batzuetan zure pozaldiakaz alaitzen nozulako.

3. Zure Seme bakarragaz eta Espiritu Santu Poz-emoilleagaz mendeen mendeetan beti bedeinkatu ta goratzen zaitut. Jaun santu, nire Jaungoikoa, nire arimearen maitasuna! Nire biotzera etorri zaitezanean, nire barru guztia poztu egingo da.

4. Zeu zara nire aintza ta nire biotzaren poza. Zeu nire itxaropena ta nire aterpea larrialdian.

5. Baiña, oraindiño maitasunean makala eta onoinean akastuna nazan ezker, zeuk sendotu ta poztu bear nozu. Orregaitik, emon egidazu sarriago zure ikustaldia somatzeko grazia eta irakatsi egidazuz zure agindu onak.

6. Askatu nagizu nire griña gaiztoetatik eta osatu nire arimea edozein zelekeriatik: barruz osatuta, biotz

garbiz zu maite izateko gauza izan naiten, sufritzeko adoretuagoa eta irateko sendoagoa.

Jaunak.— 7. Gauza aundia da maitasuna: ondasun neurribagea benetan; neketsua dana berak bakarrik arintzen dau, eta goi-beera guztiak bardin daroaz. Izan be, berak somatu bagarik daroa sortea, eta garratza dana gozo ta atsegingarri biurtzen dau.

8. Jesuseganako maitasun bikaiñak egintza aundiak burutzer eginen dausku bultza eta beti bikaiñena dana gura izatera eragiten dausku. Maitasunak — berez oldartsua da— goietara jotzen dau, eta ez dau laketzen gauza txatxarrak emen beean bera geldierazo dagien.

9. Maitasunak / askatuta eta lurreko zalekeria guztietatik urrin egon gura dau, bere barruko begirunea lausotu bagarik; izan be, ez dau nai onura aldikorretan naastua izaterik edo ezbearren batz jausterik.

10. Ezer be ez dago maitasuna baiño gozoagorik, ez indartsuagorik, ez goragorik eta bikaiñagorik, ez zabalagorik, ez atsegingarriagorik, ez beteagorik; ezer be ez dago obeagorik zeru-lurretan. Izan be, maitasuna Jaungoikoagandik jaijo zan, eta orregaitik Jaungoikoagan baiño ezin atsedendu daiteke, izaki guztien gaiñetik igoten dala.

11. Maitatzaille arin eta egaz doa eta pozez beterik dago; askatuta dago, eta iñok ez ezek ez dau aren ariñeketan geldierazoten.

12. Maitasunak guztia guztiaren orde emoten dau eta guztia gauza guztietatik dauko; izan be, gauza guztien gaiñetik, Onik gorengoan eta bakarrean atsedentzen da; egindako ondasun guztiai On orrexe-gandik datorkie euren izatea

13. Maitasuna ez da doaietan gelditzen, eta, ondasun guztien Emoilleagana igorik, maitasunak bere begirunea ondasunen Emoilleaganagiño jasoten dau. Sarritan, maitasunak ez dau negurririk ezagutzen, eta sua lez jarten da irakiten.

14. Maitasunak ez dau lanaren pisurik somatzen, ari ez dautso ezer nekeak; egin aal daiken baiño geiago egin gura dau; ez dau eziñezkorik aitatzen, guztia aal daikela eta bidezko yakola uste dau-ta.

15. Maitasunak edozetarako ataraten dauz bere indarrak, eta, maite ez dauana kikildu ta jausi egiten dan artean, maitasunak gauza asko asi ta burutu

egiten dauz.

16. Maitasuna iratzaririk dago, eta lotan be ez dau lorik egiten; nekatuta, ez da nekatzen; atsekabetuta, ez da larritzen; ikaratuta, ez da artegatzen; gar biziaren antzera, zuzi iziotuaren antzera, gora igo eta ziur igaroten da. Benetan maite dauanak ondo ulertzen dau berba orrein balioa.

17. Jaungoikoaren belarrietan deadar aundi bat lakoa da arimearen onerexi gartsu au: Ene Jaungoikoa, ene maitasun ori, zu osorik neuretzat, eta ni osorik zeuretzat.

Jaungoikoanako maitasuna eskatzeko otoitza

Arimeak.— 18. Zabaldu nagizu, Jauna, maitasunean, biotz-barruko agoz maite izatea dan samurra miatzten ikasi dagidan, eta maitasunean murgildu ta urtu naiten.

19. Maitasunak eroan nagiala, barruko bero ta argitasunaz neure gaiñetik igoten nazala.

20. Kanta dagidazala maitasun-abestiak eta igo naitela gorantz zeure atzetik, ene Maitea; nire arimea zu goratzen nekatuta geratu bedi, maitasunaren indarrak pozez beterik.

21. Nire burua baiño zeu maiteago izan zagidazala, nire burua zeugaitik baiño ez dagidala maite izan, eta zu benetan maite zaituenak zeugan maite izan dagidazala, zure argiaren ditzira lez zeugandik datorren maitasun-legeak agintzen dauanez.

22. Maitasuna / bizkorra, egizalea eta adoretua da; alaia ta atsegingarria, sendoa ta eroankorra, zintzoa ta zuurra, esku-zabala ta kementsua; maitasunak ez dau iñoiz be bere burua billatzen. Izan be, norbait norbere buruaren billa asten danean, bereala jausten da maitasun-tontoretik.

23. Maitasuna arduratsua da, apala, zuzena, ez da bigunegia, ez ariña, ezta uskeriak billatzen dauzana be. Eratsua, garbia, iraunkorra ta bakezalea da; maitasunak bere zentzun guztiak eratsu zaintzen dauz.

24. Nagusiaren menpeko ta esaneko da maitasuna; bere buruarentzat doillor eta iguingarri; Jaungoikoarentzat oneraspensu ta eskerroneko; maitasunak Jaungoikoagan jarten dauz beti bere ustea ta itxa-

ropena, Jaunak bere pozkariak emoten ez dautsazanean be.

25. Ain zuzen be, neke bagarik ez da maitasunean iñor bizi izaten.

26. Edozer eroateko eta Maitearen gogoa egiteko gertu ez dagoana, ez da "maitatzaille"-izena irabazteko duin.

27. Maitatzailleak / Maiteagaitik gauza gogor eta latz guztiak gogo onez eroan bear dauz, eta, aurkako zerbaiz jazoarren be, ez dau Maiteagandik urrindu bear.

SEIGARREN ATALBURUA

Benetako maitatzaillearen ezaupidea

Jaunak.— 1. Ene seme, ez zara oraindiño maitasunean sendoa ta zuurra.

Arimeak.— ¿Zegaitik, Jauna?

Jaunak.— 2. Ezbear txiki baten aurrean be zure asmoetan uts egi n eta pozkaria ardura larregiz billatzen dozulako.

3. Biotz-biotzez maite dauanak / tentaldietan gogor irauten dau eta ez dauz sinisten arerioaren maltzurkeriak. Zorion-aldian neugan pozten danez, zoritxar-aldian be neugan daukaz bere atsegiñak.

4. Maitatzaille zuurrak / Maitatzaillearen doaiak baiño emoillearen maitasuna geiago begiratzen dau. Egiten dautsan mesedea baiño borondatea geiago begiratzen dau, eta emon dautsazan obari guztien gaiñetik jarten dau Maitea.

5. Maitatzaille oparotsua ez da nire doaietan atsedentzen, neugan baiño, doai guztien gaiñetik.

Benetako maitasunaren ezaugarria

6. Orregaitik, niri buruz edo nire santuai buruz zeuk nai zeuken aiña eraspen somatzen ez badozu be, ez uste izan orregaitik dana galduta dagoanik.

7. Batzuetan somatzen dozun eraspen samur eta gozo ori, zeugan dagoan graziaren frutua da, eta zeruko aberriaren gozotasunaren aurretiko mustadea lez da. Baiña ez dozu orretan larregi oiñarritu bear, etorri ta

joan egiten dan eraspen igarokorra da-ta.

8. Baiña biotzeko zirkin eta bultzakada gaiztoen aurka burrukan egitea eta deabruaren lillurakeriak baztartzea / onoinenaren eta merezimentu aundia-
ren ezaugarria da.

9. Beraz, kanpotik etorri dakizuzan irudipenak, edozelakoak izanda be, ez zagiezala artegatu. Iraun sendo zeure asmoetan, eta zure asmoa beti Jaungoikoaganantz begira egon daitela.

10. Inoiz bat-batean gora jasoa izanda, andik biotzaren oizko txatxarkerietara biurtzen bazara be, ez uste izan ori ames utsa danik.

11. Izan be, orrelakoen egillea baiño eroankorra geiago zara; eta, naibagetzen zaituen artean eta gogor egiten dautsezun artean, ez dozu galtzen, irabazi baiño.

12. Jakin egizu / antxiñako arerioak aalegin guztiak egiten dauzana / zure gurari onai eragozpenak jarteko eta oneraspen-egikizunetatik zuri aldearagiteko; eta orrela, santuakanako eraspina, Nekaldiaren gomuta gartsua, pekatuen damu onurakorra, biotza zaintzea eta onoinenaren aurrera egiteko asmo sendoa kendu egin gura dautsuz.

13. Zu aspertu ta bildurtu zaitzean, bururapen txar asko ekarten dautsuz; eta ori, zu otoitzetik eta gogorakurgetatik aldentzeko.

14. Iguin aundia be aundia dautso pekatuen autortza apalari, eta, aal baleu, Jaunartzea izteraiño eroango zendukez. Ez egiozu sinistu, ezta jaramonik egin be, zu lilluratzeko / sarritan sareak jarten badautsuz be.

15. Bururapen txar eta loiak ekarri dagitzuzanean, berari ezarri errua, eta auxe esan egiozu: "Urrindu zakidaz, espiritu loi ori, lotsatu zaitetz, zoritxarreko ori; zikiña zara benetan, nire irudimenera orrelako gauza inguarriak dakazuzan ezkeru.

16. Alde emendik, iruzurgille gaizto ori; ez dozu nigaz artu-emonik izango; nigaz Jesus egongo da gudari indartsua lez, eta zu lotsatuta geratuko zara. Zure gaiztakeriari baietza emotea baiño naiago dot iltea eta edozein oiñaze eroatea.

17. Isildu ta mututu zaitetz, ez dautsut inoiz be jaramonik egingo, ziri ta ziri gogait eragiten badaustazu be.

18. "Jauna da nire argi ta osasun: ¿nori nik bildurrik?" (Sal 27, 3). "Nire aurka gudarozte bat jarten

bada be, nire biotza ez da ikaratuko" (Sal 27, 3). "Jauna de nire laguntza ta eroslea" (Sal 19, 15).

19. "Burrukan egizu gudari onari dagokionez" (Tim 2^a, 2, 3). Eta, batzuetan makaltasunez jausten bazara, jagiteko eta leenengoak baiño indar aundiagoak artzeko aalegiñak egizuz, ustea neure grazi aundiagoan ezarririk. Eta bitartean, arrokeria ta alperreko atsegiñetik gorde be gorde zaitetz.

20. Orregaitik, askok uts egiten dabe eta batzuetan ia osatu ezin daiteken itsukeritan jausten dira.

21. Euren burua zorokiro aundizat daben arro orren ondamedia / betiko apaltasun eta ardura geiagorako izan dakizula.

ZAZPIGARREN ATALBURUA

Grazia apaltasunaren zainpean estaldu bear da

Jaunak.— 1. Ene seme, oneraspen-grazia estaltzea, eta zure burua ez goratzea ta grazi orri buruz berba askorik ez egitea, ezta grazi ori lar goratzea be, obe ta ziurrago yatzu; zeure burua iguindu egizu, ostera, eta grazia irabazi bagarik emon yatzulako bildur izan zaitetz.

2. Oneraspen-biozkada onei ez zakiez (*zaiakez*) larregi lotu bear, beste okerrekora be arin aldatu daitezke-ta. Grazi orretan egotean, izan egizu gogoan / grazi bagarik zagozanean oso gaiso ta ezeukia izaten zareala.

3. Espiritu-bizikeraren aurrerakuntza ez datza pozkarien grazia izatean bakarrik, pozkariok kentzea apaltasunez, burua ukatzeaz eta eroapenez eroatean be badago; eta, pozkariok ez dozuzala-ta, zure otoitzardurea ez daitela otzitu, eta egin oi dozuzan enparadu egintzak be ez dagizuzala guztiz itzi.

4. Bestetara bai: zuk jakin eta ulertu aal dagizuna gogorik onenaz egizu; eta, orduan zure espirituaren legortasuna ta larritasuna somatuarren, ez zaitetz epeldu.

Jaungoikoak guk baiño obeto daki guri on yakuna

5. Askok dira / gauzak euren gogoan negurrira jazoten

ez diranean beingoan artegatzen eta nagitzen diranak.

6. Gizonak ez dauko beti bere bidea bere eskuetan; Jaungoikoari dagokio Berak gura dauanean, nai dauan negurrira eta nai dauanari emotea, baita poza emotea be, eta ori Berak nai dagian eraz, eta besterik ez.

7. Zentzunbaga batzuk, ain zuzen be, oneraspen-grazi ori dala-ta galdu ziran; izan be, euren txikitasuna begiratu bagarik eta adimenaren esanari baiño biotzaren gurariari jarraiturik, eurak aal eben baiño geiago egin nai izan eben.

8. Eta, Jaungoikoak arekandik nai eban baiño aundiagoetarako azartu ziran ezkeru, laster galdu eben grazia.

9. Orrela, euren abia zeruan jarri ebenak / esku-utsik eta ezereztuta geratu ziran: becratu ta txirotuta, euren egoakaz egaz egin bagarik, aurrerantzean neure egapean itxaroten ikasi egien.

10. Jaunaren bidean oraindiño asibarriak eta ezjakiñak diranak, zuurren burubideaz zuzentzen ez badira, uts eginda eta ondatuta geratu daitezke.

11. Askok-ikiak dirautseena sinistu baiño euren eretxiari jarraitzea gurago badabe eta euren eretxia alde batera iztea nai ez badabe, azken oso arriskutsua izango dabe.

12. Euren buruak jakituntzat dabenak / euren zuzendari beste norbait izatea gutxitan onartzen dabe apaltasunez. Alan be, arropuzkeriaz jakintza aundia eukitea baiño apaltasunaz gutxi jakitea eta adimen urria eukitea obe da.

13. Arrotuko zendukezan asko baiño gutxi eukitea obe da zuretzat.

14. Leengo ezeukitasuna ta lortutako grazia galtzeko / Jaungoikoaganako bildur santuaz aaztuta, bere burua oso-osorik poztasunari emoten dautsanak / ez diardu bear dan senaz.

15. Edozein ezbear eta neke-aldian larregi kikilduta, bear dan usteaz bere itxaropena neugan jarten ez dauanak be, ez dau sendotasun aundirik agertzen.

16. Sarritan, bake-aldian, ziurregi egon nai dagiana, gudaldian lur-jota eta bildurtuta ikusiko dau bere burua.

17. Zure burua beti apal eta txikitat eukiten, eta zure espiritua ondo ezi ta zuzentzen bazeki, arrisku ta

pekatuetan ez zintzakez orren erraz jausiko.

18. Zure burua espiritu-beroaldiak beteta somatzen dozunean, argi a bagarik jazo daitekizuna gogoratzea / burubide ona da.

19. Eta, ori jazo dakizunean, aldendu izan zan argia barrira be etorri daitekizula gogoratu egizu, eta argi ori neuk kendu neutsula aldi baterako: leenen, zeure ardurea bizkortzeko, eta gero, zeure aintzarako.

20. Beroaldi-eraren zirikaldirori / guztia beti zeure gogotara bazendu baiño onurakorragoa yatzu sarritan.

21. Izan be, merezimentuak ez dira negurtu bear ikusketa edo espiritu-pozaldi asko eukiteaz, edo Bibliari buruz trebea izateaz, ezta goragoko mailan egoteaz be.

22. Bestetara baiño: egiazko apaltasunean oiñarrituta eta Jaungoikoak maitasunez beteta egotean, beti garbi ta danetan Jaungoikoaren aintza billatzean, norbere burua ezereztat eukitean, eta gizonen aldetik goratua izatea baiño azpiratua eta beeratua izatea gurago izatean dira merezimentuak.

ZORTZIGARREN ATALBURUA

Jaungoikoaren aurrean norbere burua aintzagarriztat ez arteaz

Arimeak.— 1. "Auts eta errauts nazan onek, ¿berba egingo ete-dautsat nire Jaunari?" (As 18, 27).

2. Ori baiño zerbait geiago nazalakotan banengo, zu neure aurka biurtuko zintzakez. Izan be, orretzaz neure gaiztakeriak egiten dabe egiazko testigantza; ori ezetara be ezin ukatu daiket.

3. Baiña nire burua beeratu eta nire ezereza ausnartuko baneu, nire buruaren aintzagarririk danetik iges egiñik eta, autsa nazan ezkeru, nire burua autsetara biurtuko baneu, zure grazia neure alde izan eta zure argia neure biotzera isuriko litzake; eta nire buruzalekeria guztia, oso txikia izanarren be, nire ezereztasunaren lezan ondatu eta betiko galduko litzake.

4. Antxe ezaguerazoten daustazu zer nazan, zer izan nintzan eta nora eldu nazan; izan be, ezereza bera naz, eta ez naz onetzaz konturatu.

5. Nire burua neure indarretan bertan-beera itzita ikusten dodanean, ezin daiket ezer neurez eta makal-

tasun utsa naz. Baiña, zeuk begiraten nozun unean, indartsu egiten naz eta nire izate guztia poz barriak beteten dau.

6. Eta ni, neurre astuntasunaz beti gero ta beerago ondoratzen nazan au, zuk bat-batean zeugana jasotea eta orren samur zeure besoetan estutzea / oso arrigarrria da.

7. Zeure maitasunak egiten dau au, nire ekintzari esker utsez aurea artu, bearrian askotan lagundu, arrisku ain aundietan zaindu eta zenbatu-ezin alako gatxetatik ataraten naua.

8. Izan be, nire burua edozelan maite izanik, galdu egin nintzan. Baiña zeu bakarrik billaturik eta zu garbiro maite izanik, neure burua ta zeu aurkitu nebazan batera, eta, zeure maitasunak eraginda, oraindiño be geiago murgildu nintzan nire ezerezen utsunean.

9. Izan be, zuk, Jaun bigun-bigun orrek, nik merezi dodan baiño askozaz geiago eta itxaron edo eskatzen azartzen nazan baiño geiago egiten daustazu.

10. Bedeinkatua izan zaitezala, nire Jaungoiko ori, ni ezer onik artzeko duin ez nazanarren, zure esku-zabal neurribageak eta ontasun azkenbageak / eskertxarrekoai ta zugandik urrin dagozanai be, eten-bagarik mesedeak egiten dautseez-ta.

12. Biurtu gagizuz zeugana, Jauna, eskerroneko, apal eta Jainkozaleak izan gaitez: gure salbamen bakarra, gure indarra ta gure sendotasuna zeu zara-ta.

BEDERATZIGARREN ATALBURUA

Gauza guztiak, elburura lez,
Jaungoikoagana zuzendu bear doguz

Jaunak.— 1. Ene seme ori, benetan zorionekoa izan gura badozu, neuk izan bear dot zure elburu nagusi ta azkenengoa.

2. Asmo onean geratuko dira garbituta / sarriegi zeuganantz eta izakietarantz erruz makurtzen diran zure eraspenak.

3. Izan be, zerbaitetan zeure burua billatzen badozu, beingoan kikildu ta legortzen zara. Orregaitik, bearezkoa da zuk dana neugana zuzentzea, gauza guztiak emon dodazana neu naz-ta.

4. Eta orrela, gauza baxotxa Onik onenagandik da-

torrela ausnartu egizu, eta orregaitik gauza guztiak, euren jatorria neu nazan ezkeru, neuri ezarri bear yataz.

5. Txikiak eta auhdiak, aberatsak eta txiroak (*beartsuak*), ur biziko iturburutik lez, bizitza-ura neugandik edaten dabe; eta, gogo onez eta askatasunez otseindu nagianak, graziak artuko dabez erreskadan.

6. Baiña, neugan bagarik, norbere burua goratu, edo norberaren ondasunen baten atsegin-artu nai dagian, ezin sendotu izango da benetako poztasunean, ezta nasaituko be bere biotzean, bestetara baiño: eragozpen eta larritasunak eroango dauz.

7. Orregaitik, ez uste izan ezer onik daukazunik, eta gizon bati be ez egiozu onoiemenik ezarri, bestetara bai: dana Jaungoikoari ezarri egiozu, Bera bagarik gizonak ezer be ez dauko-ta.

8. Dan-dana neuk emon neban, eta dan-dana biurtu dakidala agintzen dot. Auxe da egi-egia, eta auxe da arropuzkeria uxatzen dauana.

9. Eta, zeruko grazia eta benetako maitasuna ariman sartzen diranean, ez da ikusi-eziñik ez biotz-samintasunik izaten, norberekeria be ez da gizonagan nagusitzen.

10. Izan be, Jaungoikoaganako maitasunak guztia garaitzen dau, eta arimearen indarrak zabaldu ta geitu egiten dauz.

11. Ondo ulertzen badozu, neugan bakarrik poztuko zara, neugan bakarrik jarriko dozu itxaropena; izan be, "Iñor be ez da ona, Jaungoikoa bakarrik baiño" (Lk 18, 19). Bera da gauza guztien gaiñetik goratu ta bedeinkatu bear dana.

AMARGARREN ATALBURUA

Mundua iguinduta gero,
gozoa da Jaungoikoa otseintzea

Arimeak.— 1. Barriro egingo dot berba, Jauna; ezin egon naiteke isilik. Zeruan dagoan nire Jaungoikoaren, nire Jaunaren eta nire Erregearen belarrietara auxe esango dot:

2. Zuri bildur dautsuentzat gordeta daukazun gozotasuna, bai dala aundia, Jauna! Eta, ¿zer izango ete-zara maite zaituentzat?

3. Esan-eziña da zu maite zaituenai emoten dautsezun zure goi-ikuspen gozoa.

4. Onetantxe, batez be, erakutsi daustazu zure maitasun gozoa: neu egitean, ezerez utsa nintzala; eta, zugandik urrin ara-ona nenbillela, zeugana biurtu nenduzun, zeu otseindu zengizan, niri zeu maite izateko agindurik.

*Guk Bera maite izan baiño leen
maite izan genduzan Berak gu*

5. Oi, betiko maitasun iturri! ¿Zer esango dot zutzaz? ¿Zelan aaztu aal izango naz zutzaz, ia galdu ta ondatu nintzanean be / nitzaz gomutatu zintzazan ezkeru?

6. Uste baiño ontasun geiago erabili dozu zure morroi onentzat, eta nik merezi dodanetik gora eskiñi daustazuz zure grazia ta adiskidetasuna.

7. ¿Zer biurtu daiketzut orrenbeste grazien orde? Izan be, ez yakez guztiai emoten gauza guztiak bertan-beera iztea, mundua ukatzea eta bakartade-bizikerea artzea.

8. ¿Gauza aundia ete-da, ba, Jauna, zeu otseintzea, izaki guztiak zeu zerbitzera beartuta dagozan ezkeru?

9. Zu otseindu-bearra ez yat larregi izan bear, bestetara baiño: oso aundi ta miragarri deritzat onen beartsu ta duin-ez nazan au zuk otseintzat artu eta zure zerbitzari maiteakaz batzeari.

10. Zeurea da dana, Jauna: nik dodan guztia, baita zu otseintzeko darabildan guztia be. Eta, olan be, nik zeu baiño zeuk ni geiago otseintzen nozu.

11. Zuk gizonaren zerbitzurako egin zenduzan zerulurrak / zure esana egiteko gertu dagoz, eta zeuk agintzen dautsezun guztia egiten dabe egun oro.

12. Baiña guzti ori gutxi da, aingeruak eurak be gizonen zerbitzurako jarri zenduzan-eta.

13. Baiña guzti ori baiño geiago da, zuk gizonaren zerbitzari zeu izatea gura izatea, baita zeu zareana berari emongo zeutsala agintzea be.

14. ¿Zer esango ete-dautsut, Jauna, zenbatu-ezin alako ondasun orrean ordaintzat? Nire bizitzako egun guztietan zeu otseindu aal bazengidaz! Egun baten gutxienez zeuk merezi dozunez otseindu aal bazengidaz!

*Jauna otseintzea
Beragandik bizi ta errege izatea da*

15. Benetan, zeuri zor yatzuz zerbitzu guztiak, ospe guztiak eta betiko gorapenak.

16. Zeu zara benetan nire Jauna; ni, barriz, nire indar guztiaz zeu zerbitzera beartuta dagoan morroia naz, eta iñoiz be ez naz aspertu bear zeu goratzen.

17. Auxe bakarrik nai dot, auxe da nire gurari bakarra; baiña, niri falta yatana, zeuk ormidu egizu, arren, Jauna, zure graziaz.

18. Ospe ta aintza aundia da, ain zuzen be, zeu otseintzea eta gauza guztiak zeugaitik iguintzea. Izan be, euren buruak gogo onez zeure otseintzaren buztarpe bigunean jarri dagiezanak / ugari izango dabe grazia.

19. Zure maitasunagaitik aragiaren atseginkeri guztiai uko egin dagitseenak / zeure Espiritu Santuaren pozkari samur-samurra aurkituko dabe.

20. Zure maitasunagaitik bidezidor estutik sartu daitezana eta lurreko gauzen ardura guztia baztatu dagienak / biotz-askatasun aundia jadetsiko dabe. Bai dala atsegingarri eutsua Jaungoikoaren buztarria, onek benetan gizona askatu ta santu egiten dau-ta!

21. Bai dala joputza santua erlejiosoen bizikera ederra, arek gizona aingeruen antzeko, Jaungoikoaren parkamenaren duin, deabruarentzat ikaragarri eta zintzo guztientzat eredugarri egiten dau-ta!

22. Oi, joputza santua, laztangarri ta opagarria, onen bidez Gorengo Ondasuna irabazi eta betiko iraungo dauan poza lortzen da-ta!

AMAIKAGARREN ATALBURUA

Biotzeko gurariak aztertu
eta ezi egin bear dirala

Jaunak.— 1. Ene seme, ondo ulertu ez dozuzan gauza asko ikasi bear dozuz oraindiño.

Arimeak.— ¿Zer zuzuk dira, Jauna?

Jaunak.— 2. Zure gurariak oso-osorik neure borondatean jarri dagizuzala, eta, zeurekoia izan bagarik,

neure borondarearen arduradun maratzat izan zaitezala.

3. Gurariak sarritan berotu egiten zaitue eta indartsu eroaten; baiña begiratu egizu / gurari orreitan neure gorapenagaitik ala onureagaitik igitzen zanean.

4. Neuk eraginda badiarduzu, nik edozetara aginduta be, zu pozik egongo zara. Baiña, zure biotzean oraindiño be zeure buruaganako maitakeriarik gordeten bada, orixe da zu galerazo ta astuntzen zaituana.

Negurritasuna ta galgea gure jokeretan

5. Begira, ba: aurretiaz neuri itandu bagarik, etorri yatzun gurarian uste larregi ez ezarri, leenengotan atsegin emon eutsunaz eta ohea zalakotan gura izan zenduanaz gero damutu eta atsekabetu ez zaitez.

6. Izan be, ona dirudian edozein gurariri ez yako beingoan jarraitu bear; eta gurariaren aurkakoa dirudianetik be ez da beingoan eta beste bagarik iges egin bear.

7. Egoki da batzuetan, asmo ta gurari onetan be, adorea ezitea, egokitasun-ezagaitik adimenaren zabarkerian jausi ez zaitez, edo zure zentzunbagekeriaz beste batzuk okerbidera eroan ez dagizuzan, edo enparaduak aurka egiten dautsuelako bereala artagatu eta jausi ez zaitez.

8. Beste batzuetan, aragi-zalekeriari gogor egin bear yako, baita aurka be, aragiak gura dauanari edo gura ez dauanari jaramonik egin bagarik; baiña, batez be, berak gura ez da be, espirituaren menpean egon daiten / ardura geiago artu bear dozu.

9. Eta, bitartean, aragia zigortu eta menpera ekarri bear da, edozein onerako gertu egon daiten eta guztiaz ase eta gauza lauakaz pozik egoten ikasi dagian arte, samiña danaren aurka berbarik egin bagarik.

AMABIGARREN ATALBURUA

**Eroapena zelan lortzen dan,
eta zalekeriaren aurkako burrukea**

Arimeak.— 1. Ene Jaun eta Jainkoa, eroapena bearbearrezkoa yatala ikusten dot, bizitza onetan zori-

txarrrik asko jazoten da-ta.

2. Izan be, baketan bizi izateko edozetara jardunarren be, nire bizitza ezin egon daiteke burruka ta min bagarik.

Jaunak.— 3. Orrelaxe da, ene seme; baiña ez dot nai tentaldi edo atsekabe bagariko bizitzarik billatu dagizun.

4. Bestetara bai: askotariko naibageetan erabilia eta zoritxar askotan aztertua izanda gero, bakea orduantxe aurkitu dozula uste egizu.

5. Eta ainbeste gauza batera ezin eroan daitezuzala badiraustazu, ¿zelan eroango dozu gero garbitokiko sua?

6. Gaitz biren artean, beti txikiena aukeratu bear da. Orregaitik, betiko oiñazeetatik iges egin dagizun, oraingo nekeak eroapenez Jaungoikogaitik eroaten ikasi egizu.

7. ¿Zer uste dozu, ba, mundu onetako gizonak gutxi edo ezer be ez dabela sufritzen? Ez uste izan orrelakorik; atsegiñik aundienetan bizi diranen artean be, ez dozu orrelako bat bera be aurkituko.

8. Baiña zuk auxe diñozu, urrean: atsegin asko daukez eta euren zalekeriari jarraitzen dautsee, eta orregaitik, eurak daukezan ezbearrai ez dautsee jaramon aundirik egiten.

9. Jo dagigun orrela dala; euki dagiela eurak gura ta nai dagiena; esan egidazu: ¿noiz arte iraungo dautsela uste dozu?

10. Begira: gizarteko ondasunetan bizi diranak kea lez ezereztuko dira, eta igarotako pozaldien gomutarik be ez da geratuko. Izan be, bizi diran artean be ez dira pozaldi orreitan bizi izaten samintasun, iguintasun eta bildur bagarik.

11. Eta areintzat atsegin-iturri dan bertatik, sarritan min-nekea artzen dabe. Eta bidezko da orrela izatea; izan be, atsegin-billa era bagarik diarduen ezkerro, jakiña da atsegiñok samintasunez eta artegasunez eukitea.

Giza-atsegiña dan utsa ta erabagea

12. Atseginkeri guzti orreik bai dirala laburrak, guzurrezkoak, erabageak eta zatarrak!

13 Baiña, moskortuta eta itsututa dagozan ezkerro, ez

dabe orrela ulertzen. Eta, abere zentzunbageen antzera, bizitza igarokor onetako atsegin apurragaitik, arimearen eriotzan jausten dira.

14. Orregaitik zuk, "ene seme, ez jarraitu zure kas-ketaldiai, eta ezi zure gurariak" (Sirak 18, 30). "Jauna izan bedi zure atsegiña, eta Berak emongo dautsu zure biotzak eskatzen dauana" (Sal 37, 4).

15. Izan be, benetako atsegiña eta nire pozkariak artu gura badozuz, auxe jakin egizu: zure bedein-kapena mundu onetako gauza guztiak iguintzean eta zimeltzen diran atseginkeri guztiak ukatzean oiñarritzen dala; eta, orren orde, pozkariak ugari emongo yatzuz.

16. Eta izakiak emon aal dagitzuezan atsegin guztietatik aldendu zaitez negurriz, nigan atsegin samurragoak eta indartsuagoak aurkituko dozuz.

17. Baiña atsegiñok ez dozuz leenengotan jadetsi aal izango atsekabe bagarik eta burrukeak beragaz daroan aalegin bagarik. Izan be, oiturea aurka jarriko yatzu, baiña oitura obeaz azpiratu aal izango dozu. Aragia aurka asiko da, baiña espirtu gartsuaz eziko dozu.

18. Antxiñako sugeak zirikatu ta kiñatu egingo zaitu, baiña oitotzaz iges eragingo dautsazu, eta lan onurakorraz zearo itxiko dautsazu zure atea.

AMAIRUGARREN ATALBURUA

**Menpeko apalak, Kristoren antzera,
mena izan bear dau**

Jaunak.— 1. Ene seme, menpetasunetik aldentzeko aalegiñak egiten dauzana / grazitik be aldendu egiten da; eta bere gauzak gorde gura dauzanak / guztienak diranak galdu egiten dauz.

2. Norbere burua bere nagusiaren menpean jarten ez dauanak, bere aragia oraindiño guztiz azpiratu bagarik daukala erakusten dau, eta arek sarritan aurka eta mormoxetan diarduala.

3. Zure burua zure nagusiari bereala menperatzen ikasi egizu, ba, zure aragia menpean eukitea gura badozu. Izan be, barruko gizona bere espirtu-indarretan makalduta ez badago, kanpoko arerioa errazago garaitzen da.

4. Zure espirtuagaz baketan eta ondo alkartuta ez

bazagoz, zure arimearentzat zeure burua baiño arerio txarragorik eta kaltegarriagorik ez dago. Orregaitik, aragia ta odola azpiratu gura badozuz, guztiz bearrezkoa yatzu zure burua benetan iguintzea.

5. Zure burua oraindiño orrenbeste eta okerbidez maite dozun ezkerro, iñoren agindupean jarteko be bildur zara.

Jauna ereduztat

6. Baiña, ¿miragarri ete-da, zu autsa ta ezereza izanik, Jaungoikogaitik gizonaren menpean jartea, nik, gauza guztiak ezerezetik egin nebazan guztiaaldun eta gorengo Jaun onek, nire burua apal-apalik zugaitik gizonari menperatzea?

7. Gizonetarik apalena ta txikiena egin nintzan, zure arrokeria neure apaltasunaz azpiratu zengian.

8. Esana egiten ikasi egizu, auts orrek; apala izaten eta zure burua guztien oinpean makurtzen ikasi egizu, lur eta lokatza orrek. Zeure zalekeriak austen eta zure burua edonoren agindupean jarten ikasi egizu.

9. Asarratu zaitez zeure buruaren aurka, eta ez egiozu laketu zure arropuzkeriari zeugan bizi izaten, bestetara baiño: guztiak zeure gaiñean ibili eta bideetako lokatzea lez zapaldu aal zagiezala, iñoren menpeko ta txiki agertu zaitez.

10. ¿Zer dozu, gizon ezerez orrek, aienaka jarteko? Jaungoikoa orrenbeste aldiz iraindu eta inpernua merezi izan dozun pekatari lizun orrek, ¿zer erantzun daikeoezu zu iraintzen zaituenai?

11. Baiña, nire aurrean zure arimea ederra zan ezkerro, nire begiak parkatu egin zaitue, eta orrela zueganako nire maitasuna ezagutu aal zengian eta nire on-egiteai eskerroneko izan aal zenkiezan; eta benetako menpetasunari ta apaltasunari beti ekiñik, zure burua iguintzen eroapenez eroan zengian.

AMALUGARREN ATALBURUA

**Goraldietan arropuztu ez gaitez,
Jaungoikoaren epai ezkutua
ausnartu bear doguz**

Arimeak.— 1. Jauna, zure epaiak trumoi dardaratsu

lez diardue danbadaka nire gainean; nire azur guztiak bildurrez eta dardaraka jarten dira, eta nire arimea bildur-ikaraz beterik geratzen da.

2. Zure aurrean zeruak be garbiak ez dirala ausnartzean, arrituta geratzen naz. Eta, aingeruakan be gaiztakeria aurkitu bazenduan eta zure parkamenaren duin izan ez baziran, ¿zer izango ete-da nitzaz?

3. Zerutik izarrak jausi egin ziran, eta ni, autsa izanik, ¿zer ete-nazala uste dot? Euren egifetan gorapendu duin zirudienak / oben-zurrubillotan jausi ziran; eta aingeruen ogia jaten ebenak / abere zikiñen ezkurrez atsegintzen zirala ikusi neban.

4. Ez dago, ba, gizonagan santutasunik, Jauna, zeure eskuaren laguntza aldentzen badozu. Jakituriak ez dau onik egiten, zeuk zaintzen ez badozu.

5. Sendotasunak ez dau laguntzen, zeuk eusten ez badautsazu. Ez dago kastitate ziurrik, zeuk zaintzen ez badozu. Norbere burua ondo zaintzea ezetarako be ez da, zeure ardura santuak jagoten ez badau.

6. Izan be, zuk bertan-beera izten bagaituzu, ondoratu eta ondatu egiten gara; zuk ikustaldia egiten badauskuzu, barriz, jagi eta bizi izaten gara.

7. Aldakorrak gara benetan; baiña, zeuri eskerrak, sendotasuna lortzen dogu; epelak gara, baiña zuk gartu egiten gaituzu barrero. Nik bai nire burua zatar eta apaltzat artu bear dodala! Nigan ezer onik daukadala uste badot be / ezertzat artu bear dot benetan!

8. Ezereza eta ezereza baiño besterik ez nazala ikusten dodan zure epai barrendu-eziñen aurrean, ni begirunez menperatu bear nintzake bai, Jauna!

9. Oi, sorta neurribagea! Oi, itsaso igaro-eziña, nitzaz edozetan ezerez utsa baiño besterik ikusten ez dodana!

10. ¿Non ezkututzen da, ba, nire gorapen utsala? ¿Non dago nire onoiñean sortu dodan ustea? Edozein arropuzkeri nitzazko zure epaien sakontasunean ito da.

11. ¿Zer da edozein aragi zure aurrean? ¿Eratzaillearen aurka arrotu aal izango ete-da lokatzea? Biotza bene-benetan Jaungoikoaren menpean jarri dauana, ¿zelan arrotu daiteke berba utsalez?

12. Egiak menperazo ebana ez dau mundu osoak arrotuko; bere uste guztia Jaungoikoagan jarri dauanari / gizon guztien gorapenak be ez dau so zirkiñik eragingo.

13. Goratzen dabenak eñrak be ez dira ezer, eta euren berben zaratotsaz igaroko dira. "Jaunaren egiak, barriz, beti irauten dau" (Sal 16, 2).

AMABOSGARREN ATALBURUA

Zerbait lortu gura dogunean,
zelan jardun eta zelan egin bear dogun otoitz

Jaunak.— 1. Ene seme, olantxe egidazu berba edozetan: "Jauna, zuri atsegin bayatzu, au olantxe egin bedi." "Jauna, au zeure aintzarako bada, zeure izenean egin bedi."

2. "Jauna, au egoki yatala ikusten badozu, eta onuragarri yatala baderitzazu, jadetsi egidazu, zeure aintzarako erabili dagidan. Baiña, niretzat kaltegarri eta nire arimearen salbamenerako ona ez dala ezagutzen badozu, nire guraria ezereztu daitela egizu."

3. Izan be, edozein gurari, gizonak zuzena ta ona dala uste izanarren be, ez da beti Espiritu Santuagandik sortzen.

*Berak dakian lez garabilguz Jaunak,
eta guri egoki yakunez*

4. Au edo ori gura izatea / espiritu onak ala gaiztoak, ala zeure spirituak zarošana ebaztea / gatxa da benetan.

5. Leenengotan espiritu onak eragiñak zirudien asko, azkenean iruzur eginda geratu ziran.

6. Orregaitik, adimenari datorkion edozein gurari / Jaungoikoaganako bildurrez eta biotz apalez gura ta eskatu bear da; eta, batez be, norbere buruari ukatuta, dana neure eskuetan itzi bear da, esanez:

7. "Jauna, zeuk dakizu niretzat ondoen dana; au edo a, zeuk nai dagizunez egin bedi. Emon egidazu zeuk nai dagizuna, zeuk dagizun beste eta zeuk nai dagizunean. Egizu nitzaz zeuk dakizunez eta atsegin-garrien izan dakizunez, zeure aintzarik aundien-erako."

8. "Jarri nagizu zeuk nai dagizun tokian eta nitzaz edozetan zeuk gura dagizunez egizu."

9. Emen dozu zure morroia; gertu nago edozetarako. Izan be, ez dot neuretzat bizi nai, zeuretzat baiño; egoki ta bete-betean bizi izango al-naz!

Jaungoikoaren naia beteteko
otoitza

Arimeak.— 10. Zeure grazia emon egidazu, Jesus guztiz biozpera orrek, neugaz egon, neugaz lan egin eta eriotzararte neugan iraun dagian. Nire bizitzako gora-beera guztietan zuri gogokoen eta atsegingarrien izan dakizuna nai eta gura izan dagidala egidazu.

11. Zure naia neurea izan bedi, eta nire naiak beti zeureari jarraitu dagiola; nire naia edozetan zeure-agaz gogo bereko izan daitela. Nire naia ta nai-eza zeureakaz bat izan daitezala; eta egizu, zeuk nai dagizuna edo nai ez dagizuna bakarrik nai aal dagidala edo nai aal ez dagidala.

12. Emon egidazu, munduan dagoan edozetarako ilda egon naitela, eta, zeure maitasunagaitik, mundu onetan iguindua eta aaztua izateko guraria.

13. Emon egidazu, batez be, gura izan daitekena: atsedena zeugan artu dagidala, eta nire biotzak bakea zeugan bakarrik aurkitu dagiala. Izan be, zeu zara biotzaren benetako bakea eta atsedena bakarra; zeu izan ezik, dana da erretasuna ta artegatasuna.

14. Bake orretan, edo bardin dana, zeugan, ondasun bakar, gorengo ta betiko Orregan, egingo dot lo eta artuko dot atsedena. Amen.

AMASEIGARREN ATALBURUA

Jaungoikoagan bakarrik billatu bear da
benetako pozaldia

Arimeak.— 1. Nire pozkarirako edo aukerarako gura edo asmatu daikedan edozer, ez dot emen itxaroten, beste bizitzan baiño.

2. Izan be, mundu onetako pozkari guztiak neuk bakarrik baneukaz eta atsegin guztien jabe neu aal banintz be, jakiña da ez leukeena orreik luzaro iraungo.

3. Beraz, ene arima orrek, ezin aurkitu daikezu pozkari beterik ez atsegin osorik, beartsuak poztan eta apalak artzen dauzan Jaungoikoagan izan ezik.

4. Itxaron zerbait, ene arima orrek, itxaron Jaungoikoaren agintzaria, eta ondasun guztien ugartasuna izango dozu zeruan.

5. Oraingo ondasunak erabagez gura badozuz, betikoak eta zerukoak galdu egingo dozuz. Oraingo ondasunak erabilteko izan bediz, bai; betikoak, barriz, gura izateko.

6. Mundu onetako ondasunak ezin ase izango zaitue, orrean jabe izateko ez zara egiña izan-eta.

7. Lurreko ondasun guztiak zeure eskuan bazeukaz be, ezin izango zeintekoz zorioneko ta doatsu; izan be, zure zoriontasun eta atsegin bete gaiza guztiak egin ebazan Jaungoikoagan dagoz.

Gure bizitokia zeruan dago

8. Atsegin eta zoriontasun ori, barriz, ez da mundu au maite daben tentelak uste eta goratzen daben antzekoa, Kristoren jarraitzaile zintzoak eta euren bizitokia zeruan dauken espiritu-zale ta biotz garbiak noizean bein oraindik miazten daben antzekoa baiño.

9. Utsala ta laburra da benetan edozein giza-pozaldi; sendoa ta benetako, barriz, arima-sakonean Egiak somarazoten daukun pozkaria.

10. Gizon Jainkozaleak bere pozkille dan Jesus daroa édonora, eta auxe dirauto: "Lagun izan zakidaz, Jesus Jauna, edonon eta beti."

11. Auxe izan dadilla beti nire pozkaria: giza-pozkaririk ez izatea gogo onez nai izatea. Eta zure pozaldiak uts egin badagist, aren ordeze zeure naia betetea eta gainean jarten daustazun azterraldi egokia eroatea izan beite nire atsegiñik aundiena.

12. Izan be, ez dau zure asarreak betiko iraungo, eta beti zemaika be ez zakidaz [zaiataz] egongo.

AMAZAZPIGARREN ATALBURUA

Gure ardura guztiak
Jaungoikoagan itzi bear doguz

Jaunak.— 1. Ene seme, zutzaz neuk nai dodana egiten itzi egidazu: neuk dakit zuri egoki yatzuna. Zuk gizona zarcanez asmatzen dozu eta giza-gureak bururatzen dautsuzan lakoak dira sarritan zure cretxiak.

Arimeak.— 2. Egia da zuk diñozuna, Jauna. Nik

neure buruaren alde izan daikedan ardurarik aundi-ena baiño aundiagoa da zuk neure alde dozun ardurea.

3. Bere ardura guztiak zeugan jarten ez dauzanak, jausteko arrisku aunditan dago. Jauna, nire naime-nak sendo ta zuzen zeugan iraun dagian artean, egizu nitzaz zeuk nai dagizuna. Nire bizitzaz zeuk erabagi dagizuna, ona baiño ezin izan daiteke-ta.

4. Ni illunpeak ingurutzera nai badozu, bedeinkatua zeu; ni argitan egotea nai badozu be, bedeinkatua zeu. Ni poztutea ontzat badozu, bedeinkatua zeu; eta ni atsekabeen sartuta egotea nai badozu be, bedeinkatua zeu betiko.

Jaunak.— 5. Ene seme, neugaz ibili gura badozu, [aitaturiko] egoera orretan iraun bear dozu. Gertu egon bear dozu pozaldirako lez atsekaberako be, eta bardin egon bear dozu gertu ase ta aberats izateko lez ez-euki ta beartsu izateko be.

Arimeak.— 6. Jauna, gogoz eroango dot zugaitik gaiñera etorri dakidan edozer. Zure eskutik ona ta txarra, gozoa ta garratza, alaia ta ituna gogo bardiñaz onartu gura dodaz; niri jazo dakidan edozeigaitik eskerrak emon nai dautsudaz.

7. Gorde nagizu edozein pekatutik, eta ez dot eriotzaren ez inperuaren bildurrik izango. Zugandik ni betiko ez jaurtitekotan eta ni bizitzako liburutik ez kentzekotan, gaiñera etorri dakidazan lorrak ez dauste kalterik egingo.

AMAZORTZIGARREN ATALBURUA

**Bizitza onetako zoritxarrak,
Kristoren antzera,
gogo baretsuz eroan bear doguz**

Jaunak.— 1. Ene seme, ni zerutik zeu zalbatzearen jatsi nintzan; neuk artu nebazan zure zoritxarrak, noraezean ez gero, maitasunak eraginda baiño; eroapena izaten eta bizitza onetako zoritxarrak asarre bagarik eroaten ikasi zengian.

2. Izan be, jaiio nintzan unetik gurutzean il arte, neke-min bagarik iñoiz be ez nintzan izan.

3. Lurreko gauzen bearrizan aundia izan neban; sa-

rritan nire aurka arrenkura aundiak entzun nebazan; iraiñak eta lotsak etsi onean eroan nebazan. On-egiñen ordezkertxarra, mirarien ordezkiraoak, eta, nire irakatsiaren ordezk, agirakak artu nebazan.

Arimeak.— 4. Jauna, zu zure bizitzan orren eroapentsu ta eroankor izan zintzazan ezkerorretan batez be Aitaren agindua beteten zenduala, ondo da nik, pekatari errukarri onek, zeure borondatea danez, eroapenez sufritzea, eta, zeuk erabagi dagizun arte, neure burua salbatzeko, bizitza ustelkor onetako sortea eroatea.

5. Izan be, oraingo bizitza au astuna dala somatzen dogunarren, zure graziaren bitartez oso irabazkorra egin da, eta, zure irakasbideari eta zure santuen lortzai jarraiturik, makalenzat eroankorragoa ta baretsuagoa egiten da.

6. Baiña, gaiñera, antxiñako legepean zeruko atea itxita egoanean, eta zerurako bideak illunago zirudiane-an, eta zeruetako erreñua billatzeko ardurea ain gutxik artzen ebenean baiño askozaz pozgarriagoa da [oraingo bizitza au].

7. Baiña, zure nekaldi ta eriotza askatzaillea baiño leen, orduan zintzoak eta salbatzeko ziranak be ezin sartu zeitekezan zeruko erreñuan.

Zure bizikerea geure bizitza da

8. Nik bai emon bear dautsudazala eskerrak ugari, niri ta zintzo guztiai zure betiko erreñura daroan bide arteza ta ziurra erakutsi dauskuzulako!

9. Izan be, zure bizikerea geure bidea da, eta eroapen santuaren bidean zear geure koroea zanean Orregana goaz.

10. Bidea aurretiaz zeuk irakatsi ez bazeusku, ¿nok artuko eban zure atzean bide orri jarraitzeko ardurea? Amaikatxo geratuko litzakez atzeratuta eta zure lorratzetatik urrin, begien aurrean zeure ikasbide bikaiñak ez balebez!

11. Izan be, orrenbeste miragarri ta irakatsi entzunda gero, oraindiño be epel geratzen bagara, ¿zer egingo ete-geuke zuri jarraitzeko orrenbeste argi ez bageuko?

EMERETZIGARREN ATALBURUA

**Iraiñak ondo eroanbearra
eta benetako eroapentsuaren ezaugarriak**

Jaunak.— 1. ¿Zer diñozu, ene seme? Itzi alde batera arrenkurak nire nekaldia ta santuen oiñazeak ausnartzean. Odola emoteraiño ez dozu oraindiño gogor egin.

2. Gutxi da zuk sufritzen dozuna, beste askok sufritu eben ondoan: ain gogor zirikatua, ain astun atsekabetuak, ainbeste neke ta oiñazez aztertu ta eragiñak izan ziranen ondoan.

3. Bearrezkoa da, ba, besteen neke gogorrek gogoratzea, zure neke txikiak errazago eroan dagizuzan.

4. Eta txikiak dirala ez baderitzazu, zeure eroapenezagaitik ete-dan ikusi egizu. Baiña zoritxarrak aundiak naiz txikiak izan, guztiak eroapenez eroateko aalegiñak egizuz.

5. Sufritzeko gertuago egon, eta zuurrago diarduzu eta geiago irabaziko dozu; eta orretarako zure espiritua, zoritxarrerako oituzorik, arduraz gertatzen badozu, oiñazearen sortea errazago egingo yatzu.

6. Eta ez egizu esan: “Urli edo berendiagandik ezin eroan daiket onelako nekerik, eta onelako nekerik ez dot eroan bear nik; egin be, kalte aundia egin daust eta irudipenera iñoiz be etorri ez yatazan gauzak jaurtiten daustaz aurpegira; beste batzukandik, ostera, eroan bear dodala deritzadan edozein neke, gogo onez eroango dot.”

7. Tentelkeria da pentsakera ori, eroapen-onoimena guttiz alde batera izten dozu-ta; saria nok emongo dauan be ez dozu begiratzen; zure eretxiz, personak eta egiten dautsuezan iraiñak bakarrik balio dabe.

8. Norberak deritzana eta gura dauanagandik baiño sufritu nai ez dauana, ez da benetako eroapentsua.

9. Benetako eroapena daukanak ez dau begiratzen bera nok iraintzen dauan: alako nagusia, ala bardiña, ala menpekoea dan; ala gizon on eta santua ala gaiztoa ta duin-eza dan.

10. Bestetara bai: edozein izakigandik etorri dakion edozein naibage, Jaungoikoaren eskutik baletorkio lez, gogo onez eta eskerrak emenez artzen dau, eta, orrelakorik jazo dakionean, irabazi joritzat jotzen dau; izan be, gauzarik txikarrena izanarren be, mai-

tasunagaitik sufritzen bada, Jaungoikoaren aurrean ez da merezimentu bagarik geratuko.

11. Burrukarako gertu egon zaitez, ba, garaipena lortu nai badozu. Burruka bagarik ezin lortu daikezu eroapen-saria.

12. Izan be, nekeari uko egitean, nekeak dakarren sariari be uko egiten dautsazu. Saria lortu gura badozu, barriz, ekin erime burrukeari eta eroan nekeak eroapenez eroapenez.

13. Ez da neke bagarik atsedenera eltzen, eta ez da burruka bagarik garaipena lortzen.

Arimeak.— 14. Jauna, nire izateari eziña yakona, eginkor egizu zure graziaz!

15. Badakizu zuk zer gutxi dan nik sufritu daikedana; badakizu zuk, ezbearrik txikiena jafoten danean, bereala makaltzen nazana. Egizu, edozein eroapenekitaldi, zeure izenagaitik, maitagarri ta guragarri izan dakidala: neke ta atsekabeak zeure maitasunagaitik eroatea / nire arimeari oso osasungarri yakota.

OGEIGARREN ATALBURUA

**Norbere makaltasuna autortzea
eta bizitza onetako zoritxarrak**

Arimeak.— 1. Nire gaitakeria, Jauna, neure buruaren aurka autortuko dot; autoruko dot, bai, nire makaltasuna.

2. Sarritan gauza txatxar bat da ni kikildu ta tristuraz estutzen nauana. Gogor ekiteko asmoa artzen dot; baiña tentaldi txiki bat sortuta batera, larritasuna egiten da nire arimearen jabe.

3. Batzuetan, ezerezkeri bat da tentaldi aundia dakarstana. Eta, inguratzen nauan arriskua somatzean, zerbait sendoago nagoala aste dodanarren, laster putz arin batek ia lur-jota izten nau.

4. Begiratu, ba, Jauna, nire bearraldia ta makaltasuna, ondo be ondo ezagutzen dozuz-ta. Erruki izan zakidaz, eta atara nagizu lokatzatatik, ondoratu eta bertan betiko sartuta geratu ez naiten.

5. Onen jauskorra izatea eta zirikatzen naberen griñai gogor egiteko onen makala izatea da ni sarritan kikildu eta zure aurrean lotsatzen nauana.

6. Eta, eurai baiezkoa emoteraino guztiz eroaten ez banabe be, nekegarri ta astun egiten yat areik ezitea, eta egun oro olan etenbagarik burrukan jardutea oso iguingarri egiten yat.

7. Eta ementxe ezagutzen dot argiro nire makaltasuna; izan be, irudipen iguingarri oneik euren erasoak gutxitzera baiño nitzaz jabetzera errazago datoz.

¿Zelan maitatu daiteke bizitza?

8. Arima zintzozen zaintzaille zarean Israel-en Jaungoiko guztiz indartsua! Biurto egizuz zure begiak nigana eta begiratu zure morroi onen neke ta miñak. Lagun izan zakioz zeure graziaz egikizun guztietan.

9. Sendotu egizu nire espiritua zeure sendotasun bikaiñaz: gizon zaar onek, espirituari oraindiño guztiz ezita ez dagoan aragi errukarri onek, irabazi ta azpiratu ez nagian. Mundu negargarri onetan, bizi-arnasa bat izan dagidan artean, aragiaren aurka burrukan jardun bear izango dot.

10. Au bai bizitza! Ezin bizi atsekabe ta larritasun bagarik, dana tentaldiz eta arerioz beterik dago-ta. Izan be, azteraldi naiz tentaldi batek oiñazetzen ez gaituanean, berealaxe dator beste bat. Eta, arteetan leenengo burrukaldiak dirauala, beste asko datoz gaiñera bat-batean.

11. Eta au onela izanik, Jauna, onenbeste samin-tasunez beterik eta onenbeste zoritxar eta atsekabez josita dagoan bizitza, ¿zelan maite izan daiteke?

12. Eta, ¿zelan esan daitekio bizitza, onenbeste eriotza ta izurrite sortzen dauzanari? Eta onela ta guzti be, maite dabe, bai, gizonak bizitza eta askok diardue bizitza onetako atsegin-billa.

¿Zegaitik maitatzen dogu mundua?

13. Sarritan salatzen dogu mundua ain iruzurti ta utsala dalako; baiña, orrela be, ez dausagu errazerraz uko egiten, aragi- griñak guban lar agintzen dau-ta. Eta onela, zerbaitzuek mundua maite izatera egiten dauskue bultza, eta beste zerbaitzuek a iguintzera.

14. "Aragi-griñak, ikusmiña eta bizitzako arroke-ria" (Jn 1^a, 2, 16) dira mundua maite izatera bultza

egiten dauskuenak. Baiña onein inguruan dagozan miñak eta zoritxarrak, arekaz batera datozen ezkerro, guban munduaganako gorrotoa ta bizitzaganako iguiña sortzen dabe.

15. Baiña, au samiña!, munduari emonda dagoan arimearen atsegin gaitzok geiago aal daike. Izan be, alakoak arantzapean batuta bizi izatea atsegin dau, Jaungoikoaren gozotasuna ta onoimenak sortzen dauan barruko poztasuna iñoiz be ez dau ikusi ez miaztu-ta.

16. Baiña munduari osoro uko egiten dautsoenak eta, arau-zaintze santuaren buztarpean, Jaungoikoarentzat bakarrik bizi izaten aalegiñak egiten dabezanak, mundua benetan bertan-beera izten dabena eskiniñtako Jaungoikozko gozotasuna ezagutzen dabe, eta gizarte onen utsegin astunak be argiro ikusten dabez, eta gizarte au iruzur negargarrietan bizi dala.

OGETA BATGARREN ATALBURUA

Doai eta grazi guztien gaiñetik, Jaungoikoagan atsedendu bear dala

Arimeak.— 1. Edozetan eta edozeren gaiñetik, beti Jaunagan atsedendu zaitez, ene arima ori, santuen atsedend bakar eta betikoa Bera da-ta.

2. Emon egidazu, Jesus guztiz gozo ta maitagarri orrek, izaki guztien gaiñetik zeugan atsedentzea, edo bardin dana, osasun eta edertasun guztien gaiñetik, aintza ta gorapen guztien gaiñetik, aal-izate ta nagusitza guztien gaiñetik, jakintza ta zolitasun guztien gaiñetik;

3. aberastasun eta ederti guztien gaiñetik, pozaldi ta alaitasun guztien gaiñetik, izen-on eta gorapen guztien gaiñetik, samurtasun eta pozkari guztien gaiñetik, agintzari ta itxaropen guztien gaiñetik;

4. merezimentu ta gurari guztien gaiñetik, emon eta isuri daikedazuzan doai ta grazi guztien gaiñetik, nire espirituak miaztu ta somatu daikezan atsegin eta gozotasun guztien gaiñetik;

5. aingeru ta goaingeru guztien gaiñetik eta zeruko gudarozte guztien gaiñetik, ikusten diran eta ikusten ez diran guztien gaiñetik, eta, azkenez, zeu ez zarean guztien gaiñetik, ene Jaungoikoa!

6. Izan be, zu, Jauna, ona zara gauza guztien gaiñetik; zeu bakarrik zara goi-goikoa, zeu bakarrik guztiz aaltsua; zeu bakarrik guztiz naikoa; zeu bakarrik bete-betea, zeu bakarrik guztiz ezitsua ta guztiz pozkaria.

7. Zeu bakarrik zara guztiz ederra ta guztiz maitagarria; zeu bakarrik guztiz aundikia ta guztiz goragarria gauza guztien gaiñetik; zukan ondasun guztiak — diranak eta izan daitekezanak—batera ta bete-betean dagoz, egon ziran eta egongo dira.

Zeue ez zareana, ezereza da

8. Orregaitik, gutxi ta urri dala deritzat emoten dautazun edozeri, zeu izan ezik; urri dala deritzat zeugandik agertu naiz agintzaritzat eskiñi daitazunari be, zeu ikusi edo bete-betean jadesi zagidazan artean.

9. Izan be, benetan, nire biotza ezin atsedendu daiteke nasai, ezta guztiz ase be, doai ta izaki guztiak goiturik, zeugan atsedentzen ez bada.

10. Jesukristo, ene ezkontide laztan-lasztana, maitatzaille guztiz garbia eta izaki guztien Jauna! ¿Nok emongo daustaz benetako askatasun-egoak egaz egiteko eta zeugan atsedentzeko?

11. ¿Nok lortuko daust bete-betean ni zeuretzat bakarrik bizi izatea eta zu zarean biguna somatzea, Jainko Jaun ori?

12. ¿Noiz batuko naz oso-osorik zeugan, zukanako maitasunagaitik nire buruaren ardura bagarik, zentzun eta negurri guztien gaiñetik, eta arima gutxi baiño ez dakien eraz zeu bakarrik somatu zagidazan?

13. Orain, barriz, sarritan zotinka nago, nire zoritxarra samurkiro daroadala.

Erromesaren aienak lurtean

14. Izan be, zoritxar-aran onetan sarritan larritu, biotz-mindu eta illuntzen naben gaitz asko jazoten dira; beste batzuetan, inguratu ta oarkabetu, lilluratu ta eurakanatu egiten nabe, zukanako sarbidea zabalik euki ez dagidan eta espiritu zoriontsuak beti aukeran daukezan zure laztan gozoz poztu ez naiten.

15. Nire antziak eta lur onetan daroadan ondandendiak bigundu zagiezala, ene Jesus, betiko

aintzaren argi eta mundu onetan erromes dabillen arimearen poz ori! Zure aurrean mutututa dago nire agoa, eta neure isiltasunak egiten dautsu berba.

16. ¿Noiz arte luzatuko ete-dozu, Jauna, zure etorre-rea? Zatoz zoritxarreko gizagaiso onegana eta pozez bete egizu. Ezarri egizu zeure eskua nire gaiñean, eta zoritxarreko au larrialdi guztietatik atara egingo dozu.

17. Zatoz, Jauna, zatoz, zu bagarik ez egun ez ordu alairik ezin izan daiteke-ta. Izan be, zeu zara nire poza, eta, zeu bagarik, nire maia utsik dago.

18. Errukarri naz, eta espeteratua oin-estunez lotuta bez somatzen dot nire burua. Eta olantxe izango da, zeure aurpegiaren argiaz bizkortu ta askatu nagizun artean, niri zeure adiskide-aurpegia erakutsirik.

19. Besteak, zure orde, nai dabena billatu begie; baiña nik neuk ez dot atsegin ezta iñoiz atsegin izango be zeu baiño besterik, neure itxaropen eta betiko osasun zarean Jaungoiko ori.

20. Zure grazia neugana biurto arte eta zuk biotzera berba egin dagidazun arte, ez naz isilduko, ezta zuri erregutzen be ez naz geratuko.

Jaunaren aurrean

21. "Emen nozu; emen nago, dei egin daustazu-ta" (Sam 1^a, 3, 9). Zure negar-malkoak eta zure arimearen antziak, zure apaltasunak eta biotz damutuak, zeugana makurtu ta ekarri nabe.

22. Orduan, nik auxe esan neban: "Jauna, zeugan poztu gura nebalako egin neutsun dei; zukanako maitasunagaitik, edozeri uko egiteko gertu nago. Izan be, zeu izan zintzazan leenen / ni zeure billa joateko niri bultza egin zeustana."

23. Bedeinkatua, ba, zeu, Jauna, zure erruki aundiari dagokionez, zure morroi oni on-egin au egin dautsazulako. ¿Zer esan aal izango dau geiago zure morroi onek zure aurrean? ¿Zer egin daike besterik / bere burua zure aurrean apal-apal makurtu baiño, bere gaiztakeri ta zatarkeriak beti gogoan dauzala?

24. Izan be, zeru-lurretako arrigarrien artean ez dago zure antzekorik ezer be. Zure egintzak on-onak dira, bikaiñak; zure epaiak egi-egiazkoak, eta gauza guztiak zeure ardurapean zuzentzen dozuz.

25. Zeuri, ba, Aitaren jakituria orri, aintza ta gora-

pena! Nire ezpanak, nire arimeak eta egindako gauza guztiak zeu goratu ta bedeinkatu zagiezala beti ta beti.

OGETA BIGARREN ATALBURUA

Jaungoikoagandik artutako doai ugarien gomutea

Arimeak.— 1. Zabaldu, Jauna, nire biotza, zeure legea ulertu dagidan; irakatsi egidazu zeure aginduen bidean ibiltzen.

2. Jadetsi egidazu, nire Jaungoiko orrek, ezagutu dagidala zure naia zein dan, eta, begirune ta ardura aundiz, ekarri dagidazala burura zure mesedeak, bai guztien onerakoak bai neure onerakoak: banan-banan gogoraturik, aurrerantzean egoki eskerrak emon aal dagitzudazan.

3. Ondo dakit, eta zabal-zabal autortzen dot, zeure mesederik kaskarrenagaitik be zuri bear aiñako eskerrak eta gorapenak egiteko gauza ez nazana.

4. Egin daustazuzan mesede guztiak baiño txikiagoa naz ni. Eta, zure eskuzabaltasuna ausnartzean, nire espiritua indar bagarik geratzen da orren aundia dala ikusirik.

5. Ariman eta gorputzean daukagun guztia, eta, geurez naiz graziazko maillan gugandik barru naiz kanpo daukagun guztia, zeure graziaren doaiak dira. Eta doai orreik Jaun biozpera ta ona zareala autortzen dabe etenbagarik goraka, ondasun guztiak zeugandik artzen doguz-ta.

6. Eta, batzuek geiago eta beste batzuek gutxiago artzen dabezanarren be, dana da zeurea, eta, zeu bagarik, gauzarik txikienik be ezin lortu daiteke.

Batzuek asko eta beste batzuek gutxiago artzen dabe

7. Geiago artzen dauanak / bere burua ezin arrotu daike berak merezi izan dauala-ta; ezta bere burua besteak baiño gorago jaso be, ezta gutxiago artu dauana aintzat ez artu be; izan be, norbere buruari gutxiago ezarri eta eskerrak emotean apalago ta arduratsugoa dana, orixe da guztietarik aundiena ta onena.

8. Norbere burua, beste iñor baiño zatarragotzat dauana eta doillorrena dala deritzana, doai aundi-agoak artzeko aukera obean dago.

9. Baiña gutxiago artu dauana / ez da biotz-minduta jarri bear, ez da asarratu bear orregaitik; alakoak ez dau geiago daukanaganako ikusi-ezifirik izan bear, bestetara baiño: nor nor dan begiratu bagarik, zure ondasunak ugari, utsean (*doan*) eta esku-zabalez emoten dozuzalako, zeugana biurtu eta zure ontasuna aal daiken aiña goratu bear dau.

11. Zeuk dakizu bakotxari zer emon bear yakon, eta onek zer dala-ta gutxiago eta arek geiago daukan ebatzea ez da gure arazoa, zeurea baiño, bakotxaren merezimentuak zeatz-meatz dakizuz-ta.

12. Orregaitik, ene Jaun eta Jainkoa, itxuraz eta gizonen eretxiz aintzagari ta goragarri izan dakidazan gauza asko ez eukiteari / mesede aundia dala deritzat.

13. Eta onela, gizonak, norbere bear-izatea ta kaskartasuna ikustean, atsekabetu, biotz-mindu eta kikilduta geratu bagarik, pozkari ta alaitasun aundia artu dagian.

Beartsu ta apalentzat da erreñua

14. Izan be, zuk, ene Jaungoiko orrek, beartsuak eta apalak eta mundu onetako ez-eukiak / zeure adiskide ta etxeko izateko aukeratu zenduzan. Lur guztiaren gaiñean nagusi izateko jarri zenduzan zeure Apostoluak eurak dira orren testigu.

15. Eta, orrela be, mundu onetan arrenkura bagarik egiten eben berba; apalak eta lauak ziran, maltzurkeria ta marrokeria bagarik bizi ziran, zure izenagaitik iraiñak eroatea be atsegin izaten ebela; geiago be bai: munduak iguintzen dauana, areik adore aundiz laztantzen eben.

16. Orregaitik, zu maite zaituana eta zure mesedeak autortzen dauzana, beraganako zure naia eta zure betiko erabagia beteteak poztu bear dau geien.

17. Beste norbaitek aundiena izatea gura leuken aiñean, bera txikiena izan gurez ase ta poztu bear dau borondate orrek; eta azkenengo lekuan leenengoan lez baketsu ta pozik iraun bear dau; eta, entzutetsu ta izen-on bagarik, iguindua ta baztartua izanik, mundu onetako ospatsuena ta aundiena balitz

lez ikusi gura izan bear dau bere burua.

18. Izan be, arentzat zure naiak eta zure aintzarako ardureak gauza guztien gaiñetik egon bear dabe; eta zure eskutik artu dauzan edo oraindiño artu daikezan mesede guztiak baiño geiago atsegindu ta poztu bear da orregaz.

OGETA IRUGARREN ATALBURUA

Biotzari bake aundia emoten dautsoen lau gauza

Jaunak.— 1. Ene seme, oraintxe erakutsiko dautsut bakearen eta benetako askatasunaren bidea.

Arimeak.— Egizu diñozun ori, Jauna, ori entzutea atsegin aundia yat-eta.

Jaunak.— 2. Ene seme, zeure naia baiño iñorena egiteko aalegindu zaitetz. Ugari eukitea bagarik urri eukitea aukeratu egizu beti.

3. Gero, zuretzat beti azkenengo lekua ta guztien menpean egotea billatu egizu. Azkenez, Jaungoikoaren naia zugar beti osoro betetea gura izan eta eskatu egizu.

4. Benetan dirautsut: aituriko lau gauzok / egiñez beteten dauzana, bakearen eta atsedenen mugetan sartzen da.

Arimeak.— 5. Laburrak dira zure berba orreik, Jauna, baiña bikaiñak benetan euren barruan! Esakera laburrak, baiña zentzunez eta frutuz beteak.

6. Berbok nik zintzoro betetea neure eskuan balego, ez nintzake onen laster artegatu bear. Izan be, nire burua bake bagarik eta tristureak estututa dagoala somatzen dodan bakotxean, irakatsi orreitatik urtin-egin nazala konturatzen naz.

7. Baiña zuk, dana aal dozun eta beti arimearen aurrerakuntza gura dozun Orrek, geitu egizu nigan graziaren negurria, zure berbak egiñez bete dagidazan eta orrela neure salbamenerako dana egin aal dagidan.

Bururapen gaitoen aurkako otoitza

8. “Nire Jaun eta Jainkoa, ez zaitetz nigandik urtin-egin; zatorkidaz laguntza ekartera, ene Jaungoiko ori” (Sal 71, 12). Izan be, bururapen utsalak eta bildurikara aundiak jagi dira, eta nire arimea atsekabez beteten dabe.

9. ¿Zelan igaroko ete-naz kalterik artu bagarik? ¿Zelan zapalduko ete-dodaz? Eta zuk auxe dirautstazu: “Neu joango naz zure aurrean, eta beerratu egingo dodaz nik lurreko arroak. Espetxeko ateak zabaldu egingo dodaz eta isilpekorik ezkutuenak agertuko dautsudaz” (Is 45, 2-3).

10. Egizu, Jauna, zeuk diñozunez, eta iges egin begie zure aurretik ni zirikatzen naben bururapen guztiak.

11. Nire itxaropena ta pozkari bakarra auxe da: atsekabe guztietan zeure magalpera joatea, nire ustea zeugan jarrea, biotz-biotzez zeuri egitea dei, eta eroapenez zeure pozaldiaren zain egotea.

Adimeneko argia eskatzeko otoitza

12. Argitu nagizu, Jesus on orrek, zure barruko argiaren argitasunaz, eta nire biotzeko bizitokia inguratzen daben illunpe guztiak uxatu egizuz. Al-
dendu egizuz nire adimenetik berau sarritan ar-
tegatzen daben zabarkeriak, eta azpiratu nire aurka gogor diarduen tentaldiak.

13. Egizu burrukan nire alde zure beso indartsuaz, eta uxatu egizuz pizti ankerrak, edo bardin dana, zelekeri iruzurtiak: zure gazteluan bakea egin daiten eta jauregi santu dan barru garbian zure gorapen-
durundia sarritan entzun daiten.

14. Agindu aize ta ekatxai. Esan egiozu itsasoari: “Baretu zaitetz”; eta ipar-aizeari: “Ez egizu putzik egin”; eta bereala baretasun aundia izango da. Bialdu zeure argia ta egia, mundu-gaiñean argi egin dagien: ni, zeuk argitu arte, lur soil eta utsa naz-ta.

15. Isuri goitik zeure grazia, buzti nire biotza zeruko iruntzaz, emon egidazu eraspenu-ura, lur-azala ondu eta onela frutu onak eta ugari ekarri dagizan.

16. Pekatu pilloak estututa dauken nire espiritua gora jaso egizu; zuzendu nire gogo ta gurari guztiak zeruko gauzetarantz: zeruko zure zoriontasunaren gozotasuna miaztuta gero, lurreko gauzak iguindu

dagidazan.

17. Kendu ta atara nagizu izakien pozkari igeskoretatik: zaganako nire gurariak guztiz ase eta poztu daikezan izakirik ez dago-ta.

18. Zeuri lotu nagizu, ba, maitasunaren korapillo askatu-eziñaz: izan be, naikoa zara zeu bakarrik zu maite zaituanarentzat, eta gauza guztiak, zeu bagarik, iguingarriak dira.

OGETA LAUGARREN ATALBURUA

Iñoren bizitzako barriak jaginguratik iges egin bear dogu

Jaunak.— 1. Ez zaitetz begi-luze izan, ene seme; ez erabili alperreko ardurarik. Au naiz ori dala-ta, ¿zuri zer? Zuk neuri jarraitu egidazu.

2. Izan be, urlia onelakoa naiz arelakoa izan, edo onela naiz arela bizi dala edo arelakoak aretara egiten dauala berba-ta, ¿zer dau orrek ikustekorik zutzaz? Zuk ez dozu enparaduai buruz erantzuteko bearrizanik; zeure buruari buruz, bai, erantzun bear izango dozu. ¿Zegaitik sartzen zara, ba, iñoren bizitzan?

3. Begira: nik guztiak ezagutzen dodaz, eta eguzkipean jazoten dan dana ikusten dot, eta badakit bakotxa nor dan. Badakit gizonak buruan dabilena, areik gura dabena eta arein asmoen elburua zein dan.

4. Orregaitik, dana neure eskuetan itzi bear dozu. Eta, zeuri buruz, bake santutan iraun egizu, eta artegatzailleari berak nai dagian aña artegatzen itzi egiozu.

5. Berak egin eta esan dagianagaitiko zigorra jausiko yako egunen baten, niri ezin sartu daisket ziririk-eta.

6. Ez joan gizon aundiaren geriza igeskorren atzean; ez izan adiskide asko irabazteko ardurarik, ezta gizonen aparteko maitasunik izateko ardurarik be. Izan be, guzti orrek zabarkeria sortu eta biotza illuntasun aundiz beteten dabe.

7. Iraupenez nire etorrerearen zain egoteko gauza bazintzaz, eta zure arimako ateak zabalduko ba-zeuskidaz, nire berbea pozik esango neuskizu, eta nire biotzeko isilpeko ezkututsuak be pozik agertuko neuskizuz.

8. Zoli egon, eta ekin otoitzari, eta beeratu egizu zure

burua gauza guztietan.

OGETA BOSGARREN ATALBURUA

Biotzeko bake sendoa eta arimako benetako aurrerakuntza zetan dagoan

Jaunak.— 1. Ene seme, nik auxe esan neban: "Bakea izten dautsuet, neure bakea damotsuet; munduak emoten dauan bakea ez dana" (Jn 14, 27). Guztiak nai dabe bakea, bai, baiña benetako bakeari dagokion ardurarik ez dabe guztiak.

3. Nire bakea biotzez apalak eta otzanak diranakaz dago. Zure bakea eroopen aunditan aurkituko dozu. Nire berbai adi-adi bazakiez eta nire deiari jarraitzen badautsazu, bake aunditan bizi aal izango zara.

Arimeak.— ¿Zer egingo dot, ba, Jauna?

Jaunak.— 3. Begira gauza guztietan zer egiten eta esaten dozun, eta zuzendu zure asmo guztia neuri bakarrik atsegin izatera, eta, neu izan ezik, ezer ez billatza ta gura ez izatera.

4. Baiña, gaiñera, besteen egiñak eta esanak ez dozuz ariñegi epaitu bear, eta zure ardurapekoak ez diranetan ez zara sartu bear; orrela, gutxitan edo ia iñoiz be ez zara artegatuko.

5. Izan be, artegatasunik iñoiz be ez somatzea, ez biotzeko ez gorputzeko nekerik ez eroatea / ez da bizitza oni dagokiona, betiko atsedinari dagokiona baiño.

6. Ez uste izan / atsekaberik somatzen ez dozulako / benetako bakea aurkitu dozunik; eta, zure asmoai aurka egiteko areririk ez dozunean, ez egizu edozer ontzat izan; ezta dana zeure naiaren negurrira urtetzen yatzulako be / ez uste izan bikaiña zareanik.

7. Batzuetan zagan eraspen eta biotz-gozotasun aundia somatuarren, ez uste izan aundia zareanik edo Jaungoikoaren maitasunaren duin zareanik.

8. Izan be, onoiemenaren benetako maitatzaillea ez da orretan ezagutzen, eta gizonaren espiritu-aurrera-kuntza ta bikaintasuna be ez dagoz orrelakoetan.

Arimeak.— ¿Zetan dago, ba, Jauna?

Jaunak.— 9. Zuri egoki yatzuna ez gutxian ez askoan, ez aldian ez betikotasunean billatu bagarik, zure burua biotz-biotzez Jaungoikoaren naiari eskintzean:

10. guztia pisu bardiñaz pisaturik, naiz zorionaldian naiz zoritxaraldian, Jaungoikoari eskerrak aurpegi bardiñaz emoten dautsazuala;

11. barruko pozaldia kenduarren, atsekabe aundi-agoak eroateko zure biotza itxaropenean sendo ta adoretua bazara;

12. orrenbesteko zirikaldir indartsu ta neketsuak eroan bear dozuzala-ta, zeure burua zuritu bagarik, nire erabagi guztietan ni zuzentzat izan eta santutzat goratzen banozu.

13. Guzti ori egiten badozu, orduantxe zabiz bakearen bide egiazko ta zuzenean, eta barriri aurpegia pozaldi-artean ikusteko uste ziurra euki aal izango dozu.

14. Eta, zure burua guztiz iguintzeraiño altzen bazara, jakin egizu atzerri onetan izan daiteken aiñako bake aundia izango dozuna.

OGETA SEIGARREN ATALBURUA

Irakurteaz baiño otoitz apalaz obeto irabazten dau adimenak bere askatasuna, eta askatasun onen bikaintasuna

Arimeak.— 1. Jauna, auxe da gizon bikaiñaren egikizuna: bere adimena zeruko gaietan otzitzen ez iztea, eta ardura askoren artean ia ardura bagarik igarotea.

2. Baiña ori ez dau nagikeriaz eta alperkeriaz egiten, borondate askatuaren eskubideaz baiño, eta au onetantxe dago: bere burua izaki bati be zalekeriaz ez lotzean.

3. Auxe eskatzen dautsut, ene Jaungoiko guztiz samur orri: bizitza onetako arduetatik aldendu nagizula, areitan larregi naastu ez naiten; gorputzaren bearrizanetan zaindu nagizula, atsegineriaren katigu egin ez naiten, ezta nire arimeak aurkitzen dauzan eragozpenen katigu be: ainbeste atsekabez makalduta, adore-eraz ondatu ez naiten.

4. Ez dirautsut giza-uskeriak biotz-goseaz gura

dauzan gauzetatik ni atarateko, beste au baiño: arimea espirituaren askatasunean noiznai ezin sartu aal daiten, pekatuaren erruz ilkor garean guztion mardikapenagaitik zure morroiaren arima au, neketsu estututa, zeugana joatea atzeratzen dautsoen zoritxarretatik askatu dagizula.

Neure buruagandik eta edozetatik askatu-bearra

5. Ene Jaungoikoa, ezin-esan alako gozotasun Ori! Aragi-pozaldi guztiak samintasun biurtu egidazuz; izan be, betiko pozaldien maitasunetik urrindu eta lurreko ondasun atsegingarrien ameskeriaz lilluratu egiten nabe-ta.

6. Ez nagicela azpiratu, ene Jaungoikoa, ez nagicela aragiak eta odolak azpiratu; ez nagicela munduak zorabiatu bere lillurapen eta aintza laburrak; ez nagicela deabruak oinperatu, betiko ondoratu ez naiten.

7. Emon egidazu, arren, gogor egiteko sendotasuna, nekeak ondo eroateko eroapena, irauteko iraupena.

8. Mundu onetako pozaldi guztien orde, emon egidazu zeure Espirituaren igurtzi guztiz leuna, eta, aragi-maitakeriaren orde, isuri nigan zeure izenagako maitasuna.

9. Sorta neketsua benetan arima gartsuarentzat janaria, edaria, jantzia eta gorputz ilkor au iraunderazoteko bear dan edozer lortzea! Egizu, Jauna, bearezko diranak negurriz erabili dagidazala, eta nire ardura ez dagidala areitan gurari larregiz ezarri.

10. Ez da bidezko gauza guztiak alde batera iztea, bizitza zaindu egin bear da-ta; baiña gaiñerakoa eta atsegingarriena billatzea debekatu egiten dauku zure lege santuak; bestela, aragia espirituaren aurka jagiko litzake.

11. Onelako guztietan, Jauna, zure eskuak erdiko negurrria erakutsi daistala eta zuzendu nagiala beti, ezetan be geiegikeriarik egin ez dagidan.



OGETA ZAZPIGARREN ATALBURUA

Norberaganako maitakeria
ondasunik gorengoenera eltzeko
eragozpenik aundiena

- Jaunak.*— 1. Ene seme, bearrezkoa yatzu Danagaitik dana emotea, eta zure buruarena ezer be ez izatea.
2. Jakin egizu / zure buruaganako maitakeriak munduko edozer baiño kalte geiago egiten dautsuna. Zure inguruko gauzai dautsezun maitasun eta zale-tasunaren negurriz, eurai geiago edo gutxiago lotuta egongo zara.
3. Zure maitasuna garbia, laua eta ondo zuzendua balitz, ez zintzakez ezereen jopu izango. Ez egizu gura / eukitea bidezko ez yatzunik. Ez egizu gura zure arimeari jarri daiketon oztoporik eta barruko askatasuna kendu daikenik.
4. Arritzekoa da / biotz-biotzez eta gura edo euki daikezunaz zure burua neuri ez emotea.
5. ¿Zegaitik artegatzen zara alperreko tristuraz? ¿Zegaitik nekatzen zara ardura utsalez? Egizu edozetan neure naiaren eratara, eta ez dozu kalterik izango.

Norbere naia bazartu egin bear da

6. Zeure gurariai ta naiari jarraitzearren, onen edo aren billa bazabiz, naiz emen edo an egon nai badozu, baketan eta ardura bagarik iñoiz be ez zara egongo.
7. Izan be, utsen bat gauza guztietan ezkututzen da, eta toki guztietan eta edonon beti izango da zure gurariai aurka egin dagitsenen bat.
8. Orregaitik, arimearen gelditasuna ta baretasuna ez dagoz gurari bat edo geiago lortzean, biotzeko gurariok iguintzean eta zuzarretik ataratean baiño.
9. Eta ori diru ta ondasunai buruz bakarrik ez, baita aundi-gura ta gorapen utsalai buruz be ulertu bear dozu; izateaz ezerezen da guzti ori.
10. Espiritu beroak adoretzen ez bazaitu, toki-inguruak ez zaitu zainduko. Benetako oiñarria ta biotzeko onoinena izan ezik, kanpoan billatutako bakeak ez dau luzaro iraungo.
11. Edo bardin dana: neugan atsedentzen ez bazara, aldatu zaitezke bai, baiña ezin obetu zaitezke. Izan

be, abagunea eldu eta artu ezkerro, iges egin zeutsana ta geiago aurkitu dozu.

Biotz-garbitasuna ta zeruko jakituria
eraskatzeko otoitza

- Arimeak.*— 12. Sendotu nagizu, ene Jaungoiko orrek, Espiritu Santuaren graziaz. Emon egidazu indarra nigan barruko gizona sendotzeko eta nire biotza alperreko ardura ta larrialdietatik utsitzeko.
13. Ez nagiala eroan mundu onetako edozetariko gurari utsalek, iguingarri naiz ederra izanarren, betetara baiño: guztiok igarokorrak dirala ikusi dagidala, eta neu be eurakaz batera igaroko nazala.
14. Izan be, eguzkipean ez dago ezer iraunkorrik, eta guztia da uskeria ta espiritu-atsekabea. Jakint-sua benetan gauzak orrela negurtzen dakiana!
15. Emon egidazu, Jauna, zeruko jakituria, gauza guztien gaiñetik zeu billatzen eta maite izaten ikasi dagidan, eta enparaduak zeure jakituria amaibagean diran lez ezagutzen.
16. Emon egidazu, Jauna, labankeriaz datorkidan koipatsuaeren berbak bazartzen jakiteko zuertasuna, baita inguratzen nauan kontrakoa ondo eroaten be jakin dagidala.
17. Izan be, jakituria aundia da edozein berba-aizetan zirkiñik ez egitea, baita koipatsu maltzurari belarrik ez ezartea be; onelaxe bakarrik ibiltzen da ziur zeruko bidean zear.

OGETA ZORTZIGARREN ATALBURUA

Miin txarto-esaleen aurka

- Jaunak.*— 1. Ene seme, ez egizu txartzat artu norbaitzuek zutzaz eretxi txarra badabe, ezta entzun gura izango ez zeukena badiño be.
2. Zuk zure buruatzaz txarragoak sinistu bear dozuz eta zure burua beste iñor baiño makalagotzat artu bear dozu.
3. Barru-bizikerea badarozu, egaz doazan berbai ez dautsezu jaramon aundirik egingo. Txarraldian isilik egotea eta neure biotzera biurtzea eta gizonen eretxiak gora-beera ez atsekabetzea, ez da zuertasun txikia.

4. Zure bakea ez bedi egon inguratzen zaitueneren esanetan; izan be, zutzaz ondo naiz txarto berba egiñarren, ez zara orregaitik beste gizon bat izango.
5. ¿Non aurkitu, ba, benetako bakea ta egiazko aintza? ¿Neugan ez ete? Gizonai atsegin emotea gura ez dauana, eta arei atsekabea emoteko bildur ez dana, bake aunditan bizi izango da.
9. Adimenaren artegatasun eta zentzunen nasaikeria guztiak / asmo okerretatik eta biotzaren alperreko bildurretatik sortzen dira.

OGETA BEDERATZIGARREN
ATALBURUA

Atsekabe-aldian Jaungoikoa deitu
eta bedeinkatu bear dogu

- Arimeak.*— 1. Goratua izan bedi zure izena, Jauna, tentaldi ta atsekabe au neure gaiñera etortea erabagi dozu-ta.
2. Ezin daikeot iges egin, eta, ain zuzen be, orrexegaitik jo bear dot zugana, niri lagun egin dagidazun eta itxurazko txar au nire arimearentzat on biurtu dagizun.
3. Jauna, atsekabepean nago orain, eta nire espiritua larri daukat; estu-estu narabil griña onek.
4. Eta orain, Aita laztana, ¿zer esango dot? Larrialdi aundiak lotu ta inguratu nabe; onik atara nagizu ordu onetan; nire burua oso beeratuta ikustean eta zeuk askatuta somatzean, zeu goratua izan zaitezcan eldu naz ni estualdi onetara.
5. Askatu nagizu, Jauna, zeure errukiz; izan be, nik, gizagaiso onek, ¿zer egin daiket zeu bagarik? ¿Nora joan naiteke ni? Emon egidazu eroapena barriro. Lagun izan zakidaz, ene Jaungoiko ori, eta, nire burua guztiz atsekabetuta ikusiarren be, ez dot bildurrik izango.
6. ¿Zer esango dot egoera onetan? Jauna, egin bedi zeure naia. Ondo merezi dodaz onelako naibage ta zoritxarrak. Egoki yat nekeak eroatea, eta eroapenez eroango al dodazi, ekatxa igarota, barriro barealdia sortu daiten arte.
7. Indartsua da zure esku guztiaalduna nire tentaldi onetatik atarateko edo aren eraso gutxiagotzeko, guztiz jausi ez naiten, orrenbeste aldiz egin daus-

tazunez, ene Jaungoiko errukitsu orrek.
8. Izan be, Gorengoaren eskumeari esker, nigan egiten dan aldakuntza au niri gatxago yatan aiñean, zuri errazago yatzu.

OGETA AMARGARREN
ATALBURUA

Jaungoikoaren laguntza eskatu
eta grazia barriro be eukiko dogula
uste izan bear dogu

- Jaunak.*— 1. Ene seme, neu naz larrialdi-egunean bizkortzen dauan Jauna. Zatoz neugana tristuraz beterik egon zaitezanean.
2. Auxe da zeruko pozaldia geien galerazoten dauana: otoitzera beranduegi biurtzen zarea. Izan be, niri adoretzu otoitz egin baiño leen, pozkarien billa diarduzu eta kanpoko gauzetan artzen dozu poza.
3. Orregaitik, nigan itxaroten dabenak zaintzen dodazana neu nazala, eta neu bagarik laguntza eraginkorrik, ez burubide onuratsurik, ez osagarri iraunkorrik be ez dagoala ezagutu arte, gauza guztiak zuri onik gutxi egiten dautsue.
4. Baiña ekaitz-ostean amasea artuta bereala, sendotu zaitez barriro nire errukiaren argitan; izan be, gertu nago —diño Jaunak— galdutako guztia leen-goratzeke, osorik bakarrik ez, baita gaiñezka eta negurri bagarik be.
5. ¿Ba ete-dago nirezat gatxa danik? Ala, ¿esan bai eta egiten ez dauanaren antzekoa ete-naz, ba, ni? ¿Non dago zure sinismena? Zagoz sendo eta iraun egizu. Iraun zutunik, gizonetzko sendo ta adoretzua lez. Eta begira: bere aldian elduko yatzu pozkaria. Itxaron egidazu, itxaron: neu joango naz zure billa eta neuk osatuko zaitut.

Oraingoa bizi

6. Tentaldia da larritzen zaituana; bildur utsala da artegatzen zaituana. ¿Zetarako yatzu jazo daitekenaren arduratan egotea, tristurearen gaiñera tristurea pillatzeko baiño? “Egun bakotxari naikoa yakoz bere arazoak” (Mt 6, 34).

7. Uskeria da, eta alperrekoa gaiñera, biarkoagaitik larritzea edo poztutea, biarkoa ez da bearbada iñoiz be jazoko-ta.

8. Baiña orrelako asmakerien bidez norbere burua atzipetzea / giza-makaltasunari dagokio; eta are-rioren labankerien menpean ain arin jartea be koldarkeri-ezaugarria da.

9. Izan be, ari ez dauto ardua egiaz ala guzurraz norbaiti irri edo iruzur egiten dautsan, ezta orain-goetarako maitasunaz edo gerokoetarako bildurrez lurrera jaurtiten gaituan be.

10. Beraz, ez bedi zure biotza artegatu, ezta kikildu be. Jarri neugan zure sinismena eta izan ustea neure errukian. Sarritan, nigandik urrin zagozala uste dozunean, orduantxe egoten naz zugandik urrago.

11. Eta zuk guztia galdutzat jotzen dozunean, sarritan orduantxe dozu irabazteko abagune aundiagoa. Ez dago dana galduta / zeuk uste zenduanez jazoten ez danean.

12. Orain deritzazunez ez dozu ebatzi bear, eta edonondik datorren ezbearren bat jazoten bayatzu be, ez dozu orregaitik estutu ez larritu bear, aren menpetik urteteko itxaropenik ez balego lez.

Jaungoikoak berea dana emon eta kendu egiten dausku

13. Aldi baterako atsekaberen bat bialdu edo gura izan dozun pozkaria kentzen badautsut be, ez uste izan bertan-beera itzita zaukadazanik: zeruko erreñura orrelaxe eltzen da.

14. Eta zuri ta nire morroi guztiai obe yatzue, benetan, dana zeuen gogotara jazotea baiño zoritxarrak eroaten oitutea.

15. Ezagutzen dodaz nik biotzeko ezkutiak; badakit, gaiñera, nik zu batzuetan espiritu-pozkari bagarik iztea / zure salbamenerako askozaz onuratsua gona, zorionaldian arrotu ez zaitez, eta ez zareana zarealaketan zure burua atsegingarritzat artu ez dagizun.

16. Nik emon dautsudana kendu, eta atsegin yata- nean barriro emon daike(t)zut. Emoten badautsut, neurea da; kentzen badautsut, ez dot zurerik artzen: "sari on guztiak eta ondasun bikain guztiak neureak dira-ta" (Sant 1, 17).

17. Neke edo ezbearren bat bialtzen badautsut, ez artegatu orregaitik, ez bedi zure biotza kikildu: izan be, nik bereala jaso zaikedaz eta zure edozein ardua poz biurtu daiket. Eta, olan be, zutzaz orretara diardudanean, zuzena ta oso goragarria naz.

18. Zuzen ulertu egiak egia argitan begiratzan badozuz, ez zagizala zoritxarragaitik tristureak iñoiz be kikildu, bestetara baiño: poztuteko ta niri eskerrak emoteko bide izango yatzuz.

19. Geiago be bai: zure poz bakarra auxe izan daitela: samien bidez mintzen zaitudanean, ez naz zugana begira egoten, eta aztertu egiten zaitut etenbagarik. "Aitak ni maite nauanez maite zaituet neuk be zuek" (Jn 15,9), esan neutsen nire ikasle maiteai.

20. Areik, pozaldi aldikorretara bagarik, benetan burruka gogorretara bialdu nebazan; gorapeneta- ra bagarik, destañetara; bizikera nasaira bagarik, lanera; atsedenera bagarik, eroapenez frutua ugari ekar- tera.

Izan gogoan berbok, ene seme.

OGETA AMAIKAGARREN ATALBURUA

*Izaki guztiak igundu bear dira,
Egillea aurkitu aal izateko*

Arimeak.— 1. Jauna, oso bearrezko yat oraindiño grazi eraginkorra gona, ez gizonek ez izakik ezin gal- erazoteko aiña, zeugaz bat egitera eldu bear badot.

2. Izan be, zerbaitek lotzen banau, ezin egaz egin daiket zugana aukeran. Aukeran gura eban zugana egaz egin urrengo au iñoan arek: "¿Nok emongo daustaz usoaren antzeko egoak, egaz egin dagidan eta atsedendu naiten?" (Sal 55, 7).

3. ¿Zer asmo garbia baiño garbiagorik? Eta, ¿nor lurrean ezer gura ez dauana baiño askatuagorik?

4. Orregaitik, bearrezkoa da izaki guztien gaiñera igotea, eta norbere buruaz guztiz aaztutea, eta, sorgortuta, goian irautea eta zugana, gauza guztien Egille orregana, begira-begira egotea, izakien antzik ez daukazu-ta.

Goi-ikusketarako aurre-baldintzak

5. Bere burua izaki guztietatik ustuta ez daukanak, ezin jardun daike aukeran Jaungoikoarenak diran gaitan. Orregaitik, izaki ta galkor danetik alde egiten dakianak gutxi diran ezker, goi-ikusketarako be gutxi aurkitzen dira.

6. Orretarako, arimea jaso eta bere gaiñeraño eroa- teko, grazi aundia bear da.

7. Eta gizona espirituz gora jasota, eta izaki guztietatik askatuta, eta Jaungoikoari guztiz batuta ez badago, gutxi da arek dakiana, eta daukan guztia be ez da aundizat artzekoa.

8. Ondasun bakarra, neurribagea ta betikoa bagarik, beste zerbaitek aundizat badauko, luzaro txiki geratu eta lur-azalean ibiliko da. Izan be, Jaungoikoa ez dana, ezer be ez da eta ezeretzat artu bear da.

9. Jaungoikoak argitutako gizon espiritu-zalearen jakituriaren artean eta idazle jakintsu dan eliz-gizo- naren jakintzaren artean alde aundia dago.

10. Ekiñez-ekiñez gizonak bere indarrez lortzen dauan jakintza baiño askozaz bikaiñagoa da Jaun- goikoaren eragiñez goitik datorren jakituria.

11. Asko dira goi-ikusketara gura dabenak, baiña a lortzeko bear diranetan jarduteko aalegiñik ez dabe egiten.

*Kanpoko gauzak eta Jaungoikoaganako
adiskidetasun mamintsua ez datoz bat*

12. Benetako laztasuna baztartuta, kanpoko gauze- tan eta agirikoetan geratzea / eragozpen aundia da.

13. Ez dakit zegaitik izango dan edo zein espirituk garoazan, edo zer gura dogun espiritu-zaleak gareala diñogunok.

14. Eta, au bai samiañal, zertxobait barruratu orduko, berealaxe urtetan gara gugandik kanpora, eta ez doguz gure egintzak zeatz arakatzen.

15. Ez dogu begiratzan gure zaletasunak norantz doazan, eta gure egintza guztiak onen loituta da- gozalako be ez dogu tamalik artzen. Emendik are- lako a: "Bizidun guztiak euren jokabidean usteldu egin ziran" (As 6, 12), eta orrexegaitik etorri zan uriola aundi a.

Biotz-garbitasuna / goi-ikusketaren asiera

16. Izan be, gure biotzeko zaletasunak onen ustelduta dagozan ezker, barruko indar-ezaren ezaugarri diran egintzak be ustelduta egon bear.

17. Biotz garbitik dator bizikera santuaren frutua. Bakotxak zenbat egiten dauan aztertzen dogu, baiña ez dogu ardua bardiñaz begiratzan onoinenaz egin ete-dauan.

18. Indartsua, aberatsa, trebea, itxura onekoa, idazle ona, abeslari ona edo langille bizkorra dan aztertzen dogu; baiña gogo laua, eroapentsua, otzana, oneras- pentsua ta barruzalea ba-ete-dan ez dabe askok aitatu gura.

19. Izan be, gizatasunak gizonaren kanpokaldeko gauzak begiratzan dauz; grazi, barriz, barru- koetara biurtzen da. Gizatasunak sarritan iruzur egiten dauto bere buruari; graziak, oster, Jaun- goikoagan jarten dau bere itxaropena, atzipetu ez daiten.

OGETA AMABIGARREN ATALBURUA

*Norbere burua ukatzea
eta zalekeria guztiak alde batera iztea*

Jaunak.— 1. Ene seme, zure buruari guztiz uko egin ezik, ezin izan daikezu askatasun bikaiñik.

2. Asko-zaleak, norbere buruzaleak, diruzaleak, alperrak eta nagiak, eta beti bigunkerien billa eta ez Jesukristoren gaien billa dabizan guztiak / lotuta dagoz.

3. Aitaturiko orreik iraungo dauana asmatzen eta eratzen diardue beti euren irudimenean. Izan be, Jaungoikoagandik ez datorren edozer, ondatu egingo da.

4. Josi egizu zure adimenean esakera labor eta bikain au: "Dana alde batera itzi egizu eta dana aurkituko dozu"; itzi egizu zalekeria eta atsedena aurkituko dozu. Erabili egizu au gogoan, eta, egiñez bete da- gizunean, dana ulertuko dozu.

Arimeak.— 5. Jauna, au ez da egun bateko lana, ezta ume-jolasa be; esakera labor orretan erlejiño-bizike- ra bikain guztia batzen da.

Jaunak.— 6. Ene seme, bikaiñen bidea zein dan entzunda bereala ez zara atzeratu bear, ezta kikildu be, bestetara baiño: goragoetarako aalegindu edo, gutxienez be, gogoz euretara jo bear dozu.

7. Zeure buruaren maitatzaille ez bazintzaz, eta osoro neure gurarira ta neuk emon dautsudan nagusiaren naitara bazengoz, orduan, bai, biziro atseginduko nendukezu eta zure bizitza osoa pozetan eta baketan igaroko litzake.

8. Oraindiño be ukatzekorik asko dozu; guztiok zearo izten ez badozuz, ez dozu eskatzen dozuna lortuko.

9. Aberats izatea nai badozu, sutan garbitutako neure urrea erosi dagizula dirautsut burubidez, edo bardin dana, lurrekoi guztiak zapaltzen dauzan zeruko jakituria erosi egizu.

10. Lurreko jakituria eta gizarteko ta zure atsegin-garri guztiak baztatu egizuz jakituriagaitik. Gizonen eretxiz gauza baliotsuak eta bikaiñak diranen bidez, gauzarik zatarrak erosi bear dirala esan dautsut.

11. Izan be, zerutiko benetako jakituriak oso zatarrak ta iguingarria dala dirudi, eta gizonen artean ia guztiz aaztuta dagoala. Jakituria au ez da arropuzten, eta onek ez dau gura lurrean goratu dagien.

12. Asko be asko dira jakituria au berbaz bakarrik ospatzen dabena, baiña onegandik urrin be urrin dago arein bizitza. Jakituria au da, alan be, bitxi ederra, askorentzat ostenduta egonarren be.

OGETA AMAIRUGARREN ATALBURUA

Biotzaren aldakortasuna.

Gure azken-asmoa Jaungoikoagana zuzendu bear dogu

Jaunak.— 1. Ene seme, ez sinistu zure gurariai, orain dozuzanak laster aldatuko yatzuz beste batzuetarata. Bizi zaitez artean, nai ezarren be, aldakorra izango zara.

2. Izan be, batzuetan pozik, beste batzuetan itun (*triste*) egongo zara; batean baretsu, bestean artega; orain bero, gero epel; orain langille, geroago alper; orain astun, gero bizkor.

3. Baiña espiritu-gaictan jakintsua ta ikasia danak,

gorabeera orrean egonarren be, sendo irauten dau, bere barruan somatzen dauanari eta aldakortasun-aizeak nondik egiten dauan putz jaramonik egin bagarik; eta beré asmo osoa berak gura ta bear dauan elburura zuzentzen dau.

4. Izan be, ainbeste gorabeeren artean asmo lauaz, aspertu bagarik neugana begira egoten danak / beti bat eta zirkiñik egin bagarik iraungo dau.

5. Eta asmoaren begia garbiago izan, ekaitz askoren artean sendoago iraungo dau arek. Baiña, etorten dan atsegingarria erraz begirutzen dan ezker, askogan asmo garbi orren begiak lausotu egiten dira.

6. Eta norberekoitasunez orbanduta ez dagozanak be gutxitan aurkitzen dira. Orrela, bein judarrak Betania-ko Marta ta Mariren etxera joan ziran, Jesukristogaitik bakarrik ez, baita Lazaro ikustearren be.

7. Bearrezkoa da, ba, asmoaren begiak garbitzea, asmoa laua ta zuzena izan eta neugana zuzendu daiten, bidean jarten diran eragozpen guztiak garaiturik.

OGETA AMALUGARREN ATALBURUA

**Maitatzaillearentzat,
gauza guztiak baiño geiago eta gauza guztietan,
Jaungoikoa da atsegin bakarra**

Arimeak.— 1. Ona emen neure Jaungoikoa ta neure guztia! *¿Zer gura daiket geiago? ¿Zer gura daiket zoriontsuagorik?*

2. Auxe bai benetan berba eztsu ta samurra!, baiña Berba betikorra dan Berbea [Jesurkristo] maite dauarentzat; ez, ostera, mundua ta munduko gauzak maite dauzarentzat.

3. Ene Jaungoikoa ta gauza guztiak! Au ulertzen dauanari naikoa yako esandakoa, eta maitatzaillearen atsegiña da ori sarritan esatea.

4. Izan be, zu aurrean bazagoz, Jauna, dana da atsegingarri; zu urrintzen zareanean, barriz, dana da gogaikarri. Zuk biotz baretsua, bake aundia eta poz alaitsua sortzen dozuz.

5. Zuk gauza guztiak eurak balio dabenez aintzat artzera eta guztiakaitik zeu goratzera eroaten gai-

nuzu, zu bagarik ezek be ezin atsegindu gaikez luzaro-ta.

6. Baiña, zerbait atsegingarri ta goragarri izateko, zeure graziak lagundu eta zeure jakituriak eztitu bear dau.

7. Zu gozo zaiakezanai, *¿zer ez yake gozo izango?* Eta zu gozo ez zaiakezanai, *¿zek emongo dautse atsegiñik?*

8. Mundu onetako jakitunak, baita aragizaleak be, zeure jakituria mugabagean galtzen dira: arekan arropuzkeria aundia eta onekan eriotza aurkitzen danta.

Egiatzko jakituria: Jaungoikoa miatztea

9. Baiña, mundua iguindu eta euren aragia ezita gero, zeure lorratzai jarraitzen dautseenak, orreixek dira benetako jakitunak, uskeriatik egiara eta aragitik espiritura igaroten dira-ta.

10. Onei Jaungoikoa gozo yake; eta izakietan somatzen dabena guztia Egillearen aintzarako artzen dabe.

11. Baiña oso bestelakoa da Egillearen eta izakiaren gozotasuna, betiraunarena ta aldiarena, egin bagariko argiarena eta egindako argiarena.

12. Egin diran argi guztiaren gaitetik zagozan betiko argi ori! Bialdu egizu goitik / nire biotzeko ezkutu guztiak aztertu dagizan argi diztiratsua.

14. *¿Noiz etorriko ete-da ordu zoriontsu ta guragarri ori, zeure aurpegiaz ase nagizun eta zu gauza guztietan Guztia izan zakidazan?*

15. Ori emon ez dagidazun artean, ez dot poz osorik izango. Baiña, au nire samia!, gizon zaarra oraindiño nigan bizirik dago; ez dago oraindiño gurutzean guztiz josita, ez dago guztiz ilda.

16. Oraindiño espirituaren aurka gogor jagiten da, arek barruko burrukak sortzen dauz, eta arimearen aginpideari ez dautso baketan bizi izaten laketzen.

17. Baiña zu, itsasoaren indarra menperatu eta olatu arrotuak baretzen dozuzan Ori, jagi ta lagun izan zakidaz. Erri gudazaleak ondatu ta ausi egizuz zeure indarrak.

18. Erakutsi, arren, zure egintza miragarriak, zure eskumea goratua izan daiten: zeugan, neure Jaun eta Jainko orregan izan ezik, niretzat itxaropenik ez

gordelekurik ez dago-ta.

OGETA AMABOSGARREN ATALBURUA

**Bizitza onetan ez dago tentaldiak
ez eukiteko ziurtasunik**

Jaunak.— 1. Ene seme, ezin egon zaitezke ziu; izan be, bizi zaitez artean, beti bear izango dozuz espiritu-iskilloak (*armak*).

2. Aterio-artean zabiz, eta ezker-eskumatik eraso egiten dautsue. Orregaitik, eroapenaren babezkiña ganoraz ez badarabizu, ez zara luzaro zauri bagarik egongo.

3. Onetzaz gaitera, guztia egiatzko asmoz neuganako maitasunagaitik sufritzeko, zure biotza neugan jarten ez badozu, burruka gogor orri ezin eutsi izango dautsazu, eta zoriontsuen garaipen-abarra be ezin lortu aal izango dozu.

4. Bearrezkoa yatzu, ba, azteraldi guztietatik adore aundiz igarotea eta gaitera etorri dakizunaren aurka burrukan jardutea gogor be gogor. Izan be, irabazleari mana emoten yako jateko; alperrentzat, barriz, zoritxar aundia geratzen da.

5. Bizitza onetan atsedena bakarrik billatzen badozu, *¿zelan elduko zara gero betiko atsedenera? Atsedena aundi bagarik, eroapen aundia eukiteko aalegiñak egizuz.*

6. Benetako bakea zeruetan billatu egizu eta ez lurrean; gizonen artean ez, ezta enparadu izakietan be, Jaungoikoagan baiño.

7. Edozer eroan bear dozu gogo onez Jaungoikoaganako maitasunagaitik: nekeak eta miñak, tentaldiak eta lanak, larrialdiak eta zoritxarrak, gatxaldiak eta iraiñak, esamesak eta txarkeriak, beeratzeak eta lotsaldiak, agirakak eta destaiñak.

8. Guzti orreik biziro laguntzen dabe onoiñena garbitzeko; izan be, orreik Kristoren ikasle barria negurtu eta zeruko koroea lantzen dabe.

9. Nik, neke laburraren orde, betiko saria, eta, beeratze igeskorren orde, amaibagako aintza emongo dot.

10. *¿Espirituzko poskariak beti zeure guraritara izango dozuzala uste dozu? Neure santuak be ez*

ebezan beti izaten, eta bai larritasun asko, askotariko tentaldiak eta atsekabe aundiak.

11. Baiña guztietan eroapen aunditan iraun eben, eta euren buruagan baiño Jaungoikoagan uste aundiagoa izan eben, aldi onetako nekeen bidez irabaziko dogun eta "geugan agertuko dan geroko aintzaren aldean ezer be ez dirala" jakiñik (Erm 8, 18).

12. Izan be, beste askok negarren negarrez eta lan gogorren ostean ozta-ozta lortu ebena, ¿zuk be-realaxe gura dozu euki?

13. Izan ustea Jaunagan eta ekin gogor lanari; izan adorea, eta, ustea galdu bagarik eta iges egin bagarik, gorputza ta arimea beti iraupen aundiz Jaungoikoaren aintzarako eskiñi egizuz. Nik bete-betean ordainduko dautsut; estualdi guztietan ni zeugaz egongo naz.

OGETA AMASEIGARREN ATALBURUA

Gizonen eretxi utsalen aurka

Jaunak.— 1. Ene seme, zure biotza ezarri egizu sendo Jaunagan, eta zure barruak zuzena ta errubagea zareala agertu zagizan artean, ez izan bildurrik gizonen eretxiari.

2. Orrela sufritzea on eta atsegingarria da; izan be, biotz apalari eta ustea norberagan baiño geiago Jaungoikoagan dauanari / ez yako ori astun egiten.

3. Askok larregi egiten dabe berba, eta orregaitik, gutxi sinistu bear yake alakoai. Eta, gaiñera, guztiok gogoko izatea be eziña da. Paulo santuak Jaunagan guztiak atsegintzeko eta bere burua guztientzat guztia izateko aalegiñak egin ebazanarren, ez eban ardurarik bera munduak epaitzea.

4. Besteen onbiderako ta salbamenerako beragan egoana ta aal eban guztia egin eban; baiña, alan be, bera epaitzetik eta noizean bein iguintzetik be ezin aal izan zan aldendu.

5. Orregaitik, dana ezagutzen dauan Jaungoikoaren eskuetan itzi eban guztia; eta miin zitelen aurka, baita uskeriak eta guzurrak asmatu ta gura-aiña esaten ebezanen aurka, apaltasunez eta eroapenez zaintzen eban bere burua.

6. Batzuetan erantzun be egiten eutsen bere esame-

salariari, bere isiltasuna zala-ta makalak galbideratu ez zeitezan.

7. ¿Nor zara zu, albitza lez zimelduko dan gizon ilkorri orrenbeste bildur izateko? Bada gaur, eta biar ez da izango.

8. Zuk Jaungoikoari izan egiozu bildur, eta ez zaitue gizonen zemaik ikaratu. ¿Zer egin daike gizonak zure aurka, berbaz eta iraiñez? Zuri baiño bere buruari egiten dautso kalte geiago. Eta, nornai izanda be, alakoak Jaungoikoaren epaitik ezin izango dau igesik egin.

9. Zuk Jaungoikoa izan egizu begien aurrean, eta ez jardun eztabaidan berba mingarri. Eta orain, itxuraz, zure burua beeratu eta merezi ez dozun lotsakizumen bat eroan bear badozu, ez zaituz orregaitik asarratu, eroapen-eraz zeruko zure saria gutxitu ez dagizun.

10. Jaso zure begiak zerura eta neugana begiratu egizu, zu lotsakizun eta irain guztien artetik atarateko eta baktoxari bere egiñai dagokienez emoteko aaltsua naz-ta.

OGETA AMAZAZPIGARREN ATALBURUA

**Biotz-askatasuna lortzeko,
norbere burua ukatzeak benetakoa ta osoa izan bear dau**

Jaunak.— 1. Ene seme, itzi egizu alde batera zure burua, eta neu aurkituko nozu. Ezer eta ezereen jabe izatea gura bagarik bizi zaituz, eta beti irabaziko dozu.

2. Izan be, zure burua zearo ukatzen badozu eta orren ordez ezer billatzen ez badozu, grazi aundiagoa emongo yatzu.

Arimeak.— 3. Jauna, ¿zenbatetan eta zeintzuetan ukatu bear dot nire burua?

Jaunak.— 4. Beti ta ordu guztietan, txikietan lez aundietan be. Ezer be ez dot baztarten: gauza guztietan erantzita aurkitu nai zaituz.

5. Osterantzean, zure naimen guztia, barru ta kanpo, erazten ez badozu, ni zurea ta zu nirea ¿zelan izan

gaitekez?

6 Ori aalbait lasterren egiten badozu, obeto zuretzat; eta zure burua garbiroago ta zintzoago eskintzen badozu, niri atsegingarriagoa izango zakidaz (*zaiataz*) eta zure saria beteagoa izango da.

7. Batzuek euren buruari uko egiten dautsoe, bai, baiña ez gauza guztietan; izan be, ez dabe uste osorik Jaungoikoagan, eta, orregaitik, euren buruaz arduratzen dira.

8. Beste batzuek, barriz, leenengotan, dana batera eskintzen dabe; baiña gero, tentaldiak eraginda, alde batera itzi izan ebena barriro batzeko aalegiñak egiten dabez, eta, jakiña, onbidean ezin egin daikee aurrerapenik.

9. Orreik, euren burua guztiz ukatu eta egun oro eskintzen ez badabe, ez dabe benetako biotz-askatasuna lortuko, ezta nire adiskidetasun mamintsu ta gozoa be. Ori bagarik, neugaz izaten dan batasun mamintsu ezin izan daiteke iraunkorra.

Jaungoikoagazko batasuna

10. Sarritan esan dautsut eta orain be barriro dirautsut au: zure burua alde batera itzi eta ukatu egizu, eta barruko bake aundia izango dozu.

11. Guztiaren ordez guztia emon egizu; ez egizu ezer billatu, ez egizu gura ezer barriro eskuratu. Atsendu zaituz neugan zintzoro ta ezbai bagarik, eta bete-betean eukiko nozu. Orrela, biotza gauza guztietatik askatuta izango dozu, eta ez zaitue illunpeak inguratuko.

12. Zeurea dan guztia erazteko gauza izatea gura egizu biotz-biotzez: billoizik, Jesus billoiztuari jarraitu dagiozun, eta, zeure buruarentzat ilda, betiko neuretzat bizi zaituzan. Zuzendu elburu onetara zure indar guztiak eta erregutu asmo onen alde.

13. Orduantxe ondatuko dira benetan irudipen utsal, kezka gaizto eta alperreko ardura guztiak.



OGETA AMAZORTZIGARREN ATALBURUA

**Kanpoko gauzetan
norbere burua ondo zaindu eta
arriskueta Jaungoikoagana jo bear dogu**

Jaunak.— 1. Ene seme, edonon eta kanpoko edozein arazotan, zeure buruaren jabe izanik, gauza guztiak zeure azpian euki bear dozuz, eta ez eurak zu euren azpian;

2. orrela, zure egiñen jaun eta zuzentzaille izan zaituzan, eta ez arein morroi ta jopu salkor. Obeto esateko, Jaungoikoaren semeen zorianera ta askatasunera igaroten dan Israeldar jatorra ta askatua izateko aalegiñak egin bear dozuz.

3. Oneik, oraingo gauzen gaiñean jarririk, betikoetara adi-adi dagoz; oneik gauza igeskorrek ezkerreko begiaz, eta zerukoak eskumakoaz begiratzen dabez.

4. Oneik ez dautsee gauza aldikorrai jarraitzen, areitan lotuta geratu ez daitezan, bestetara baiño: eurak erakarten dabez aldikorrek, Jaungoikoak erabagiatako eraz eta Egille gorengoak eratu ebazanez erabiltako. Izan be, Jaungoikoak ez eban izakietan naaskeriarik laketu.

Gure begiak ikuspegi zabalagoa artu bear dabe

5. Edozein jazoeran be, kanpoko itxuretan geratu bagarik, eta, zentzunak emoten dabenez ikusi ta entzun bagarik, edozetan Jaunari burubide-eske, Moises lez, altarara bazoaz, batzuetan Jaungoikoaren erantzuna entzungo dozu, eta oraingo ta gero-ko gai askori buruz jakintsu eginda urtengo zara.

6. Izan be, Moisesek beti altarara jotzen eban, ezbai ta auzi guztiak ebazteko; eta, gizonen arrisku ta gaiztakerietatik alde egiteko, bere igeslekua eukan.

7. Zeuk be orrelaxe egin bear dozu iges zure biotz-barrura, Jaungoikoaren laguntza biotz-biotzez eskatzen dozula.

8. Izan be, Gabaondarrak Josue-ri ta Israeldarrai ziria sartu eutseela irakurten dogu Biblian, eta onexegaitik izan zan: leenen Jaungoikoaren burubidea eskatu bearrean, Gabaondarren berba labanak ari-

ñegi sinisturik, gero ondasun maltzurak iruzur egin eutsen.

OGETA EMERETZIGARREN ATALBURUA

**Gizonak bere arazoetan
ez dau arduratsuegia izan bear**

Jaunak.— 1. Ene seme, itzi egizuz beti neure ardurapean zure egikizunak, eta neuk burutuko dodaz aldi egokian. Neure erabagiaren zain egon zaitez, eta onuratsu izango yatzu orrela jokatzeara.

Arimeak.— 2. Jauna, pozik izten dodaz zure eskue-tan nire egikizun guztiak, nire asmaketak gutxi egin daikee-ta. Obe litzakit, bai, etorri daitekezan jazoerai buruz onenbeste arduratuko ez banintz, eta, ez bai bagarik, nire burua zeure naiari eskiñiko baneuskio!

Jaunak.— 3. Ene seme, gizona, berak daukanaz, larregi arduratzen da sarritan; baiña ori lortuta gero, beste era batetara ereisten asten da; izan be, zerbaiti buruzko zaletasunak ez dira iraunkorrak izaten, bestetara baiño: sarri be sarri aldatzen dira, guri batetik bestera bultza egiñik.

4. Orregaitik, ez da gutxi gauza txikitian gure buruari uko egitea.

5. Gizonaren benetako espiritu-aurrerakuntza norbere burua ukatzean datza; eta, bere buruari uko egin dautsana, oso askatuta eta sendo be sendo dago.

6. Baiña antxiñako arerioa, arima onen arerioa, ez da zirikatzen aspertzen; arei gau ta egun tentaldi astunak jarten dautsez, bada-epada senbagarikoren bat bere sareetan artu aal izateko. Orregaitik, Jaunak auxe diño: "Egon zaitez iratzarrik eta otoitz egizue, ur dagoan tentaldian jausi ez zaitez" (Mt 26, 41).

BERROGEIGARREN ATALBURUA

**Gizonak, berenez, ezer be ez dauko,
ezta arrotzekorik ezertxo be**

Arimeak.— 1. "Jauna, ¿zer da gizona, zu aretzaz

gomutatzeke? Zer gizakia, zuk ari ikustaldia egiteke?" (Sal 8, 6). ¿Zer merezimentu irabazi dau, zuk ari zeure grazia emoteko?

2. Jauna, alde batera izten banozu be, ¿zer dala-ta jo daikedaz erostak? Eta eskatzen dodana emoten ez badaustazu be, ¿niri dagokidan eskubiderik eskatu daike(t)zut?

3. Auxe bakarrik pentsatu ta esan daike, Jauna: ezer be ez nazala, ezin egin daikedala ezertxo be; neurez ez daukat ezer onik; gauza guztietan utsik aurkitzen dot nire burua, eta beti ezerezer a noa.

4. Eta, zeuk lagun egin eta barruz zeure amasea isurten ez badaustazu, epel eta nabarkoi biurtzen naz. Baiña zu, Jauna, beti bat zara eta zuk beti irauten dozu; gauza guztiak biotz onez, zuzen eta santutasunez egiten eta jakituriaz atontzen dozuz.

5. Ni, ostera, aurreratzeke baiño atzeratzeke makurrago nazan au, ez naz beti gogaldi berean egoteko gauza, egunean zazpitan aldatzen naz-ta.

Ez dot nire buruagan usterik izan bear

6. Baiña, zeure esku laguntzaillea luzatzen dautazunean, obeto nagoala somatzen dot. Izan be, gizonakandiko laguntza bagarik, zeu bakarrik zara naikoa ni lagundu ta sendotzeke, nire aurpegia barriro aldatu ez daiten, eta nire biotzak, zeugana bakarrik biurturik, atsedena zeugan bakarrik aurkitu dagian.

7. Beraz, oneraspena jaristeko naiz gizonen artean poztu naikenik ez dodalako, zeugana joateko daukadan bearrizanaz giza-pozkaria iguintzen bear danez baneki, orduan bai, orduan zeure grazian jarri aal izango neuke nire ustea, eta pozkari barri baten doaia artzean poztu aal izango nintzake.

8. Eskerrak zeuri, Jauna, on guztiak zeugandik datoz-ta; onik jazoten yatan bakotxean, zeugandik bakarrik datorkit. Izan be, ni, zure aurrean, uskeria ta ezerez utsa naz, gizon aldakorra ta makala.

9. Beraz, ¿zer dala-ta arrotu naiteke?, edo ¿zer dala-ta gura dot ospatsua izatea? Au, uskeria utsa izango litzake.

10. Benetan, arropuzkeria izurrite negargarria eta uskerietarik barrengarria da; izan be, benetako aintzatik aldendu egiten gaitu eta zeruko grazia kendu egiten dausku. Gizonak bere burua atsegin

dauanean, gizona zuri iguingarri yatzu, eta, giza-gorapenen gose danean, kendu egiten yakoz gizonari benetako onoinenak.

Aintza jator eta bakarra

11. Benetako aintza ta poz santua, norberagan bagarik, zeugan goratzean datza, eta, izakietan bagarik, zeugan atsegin tzean.

12. Bedeinkatua zeure izena, Jauna, eta ez nirea; goratuak zeure egintzak, eta ez nireak; bedeinkatua zeure izen santua, eta gizonen gorapenatariko bat bera be ez daistela niri ezarri.

13. Zeu zara nire aintza ta nire biotzaren poza. Zeugan arrotu ta poztuko naz nire bizitzako egun guztietan; niri buruz, barriz, neure makaltasunetan baiño ez naz arrotuko.

14. Billatu begie judarrak alkarregandiko aintza; nik Jaungoikoagandik datorren aintza bakarrik nai dot. Izan be, giza-aintzak, oraingo gorapenak eta gizonen aundi-naiak, zure betiko aintzaren ondoan, uskeria ta zorakeria baiño ez dira.

15. Neure egia ta errukia, ene Jaungoikoa, Irutasun zoriontsu ori! Zeuri bakarrik gorapena, dedua, onoinena ta aintza beti ta beti!

BERROGETA BATGARREN ATALBURUA

Oraingo ospe guztiak igundu-bearra

Jaunak.— 1. Ene seme, zure lagun-urkoa txalotua eta goratua izaten eta zu igundua ta baztartua izaten ikusiarren, ez zaitez mindu.

2. Jaso zure biotza zerura, neugan ezarri egizu, eta lurtean gizonen destaiñak ez dautsue ikuturik egingo.

Arimeak.— 3. Itsututa gagoz, Jauna, eta uskeriak berealaxe atzipetzen gaitu. Nire burua adi-adi aztertzen badot, izaki batek be ez daust iraiñik egin, eta onegaitik, Jauna, ez dot zure aurka erostak joteko erazoirik.

4. Baiña nik onenbestetan eta onen astunkiro zure aurka pekatu egin dodan ezkerro, bidezko da gizaki

guztiak orain neure aurka jagitea. Zuzen zor-yataz, ba, lotsea ta destaiña; zuri, barriz, gorapena, ospea ta aintza.

5. Eta, edozein gizakik ni igundu ta ezerretzat eukitea pozik gura izateraiño gertu egon ez naiten artean, barruz ezin baketu ta sendotu naiteke, ezta espirituz argitua izan be, ezta zugaz guztiz batu be.

BERROGETA BIGARREN ATALBURUA

Ez dogu bakea gizonakan jarri bear

Jaunak.— 1. Ene seme, zure bakea zeure gogoko edo zuri egoki datorkizunen personen bategan jarten badozu, bake ori aldakorra izango da eta zure biotza ez da askatuta egongo.

2. Baiña beti bizi dan eta irauten dauan Egiagana jotzen badozu, ez zara alde batera itzi zagizan adiskideagaitik minduko, ezta eriotzak eroan dagianagaitik be.

3. Neugan ezarri bear da adiskideakanako maitasuna, eta, bizitza onetan on eta oso maitagarri deritazuna, neugaitik izan bear dozu maite.

4. Ni bagarik, adiskidetasuna ez da sendoa ta iraunkorra; eta nire ardurapean ez dagoan maitasuna ez da maitasun garbia ta egiazkoa.

5. Zure adiskideakanako zaletasunetan —zeuri dagokizunez beintzat—, iñogaz artu-emonetatik urrin bizi izatea gura izateraiño egon bear dozu ilda.

6. Gizona gizonen pozkarietatik urrintzen dan aiña urreratzen da Jaungoikoagana. Eta gizona beragan sakonago jatsi ta beeratzen dan aiña igoten da gorago Jaungoikoagana.

7. Norbere buruari ezer onik ezarten dautsanak, galerazo egiten dau Jaungoikoaren grazia beragana etortea: Espiritu Santuaren graziak beti biotz apalaren billa dabil-eta.

8. Zure burua guztiz beeratzen eta egindakoetarako maitasun guztitik aldentzen bazeki, orduan nik grazi ugariz beteko zendukedaz.

9. Zuk, izakietara begiratzen gelditzen zareanean, aldendu egiten dozu ikusmena Egilleagandik. Gauza guztietan zure burua Egilleagaitik azpiratzen ikasi egizu, eta orduan bai, orduan zeruko gaiak eza-

gutxera eldu aal izango zara.

10. Mundu onetako edozer, guztiz txatxarra izanaren be, maitakeriz begiratzek badogu, gauza orrek gorengo Ondasunagana joateko eragozpenak jarten dauskuz eta kalte egiten dautso gaiñera biotzari.

BERROGETA IRUGARREN ATALBURUA

Munduaren jakintza utsalaren aurka

Jaunak— 1. Ene seme, gizonen berbaldi eder eta zorrotzak ez begitzue zirkiñik eragin, Jaungoikoaren erreñua berbetan ez dago-ta, onoinenean baiño.

2. Biotza iziotu, adimena argitu, damua biztu eta pozkari asko dakazan nire berbai adi-adi egon zakie.

3. Ez egizu ezer iñoiz be irakurri zure burua ikasiago edo jakintsuago agertzearen. Ikasi egizu zure griñak lotzen, ònek gai gaitz asko jakiteak baiño on geiago egingo dautsu-ta.

4. Gai asko irakurri ta ezagutuarren, beti sorburu bakarragana jo bear dozu. Sorburu ori neu naz. Neu naz, izan be, gizonari jakintza irakasten dautsadana, eta gizonak irakatsi daikena baiño umeai adimen argiagora emoten dautsedana.

5. Nik berba egiten dautsadana berealaxe izango da jakintsu, eta espiritu-gaietan aurrerakuntza aundiak egingo dauz. Errukarriak benetan, nire zerbitzari izateko oso gutxi arduratu eta gizonen barrikeriak jakin gura dabezanak!

6. Egunen baten, irakasleen Irakaslea ta aingeruen Jauna dan Kristo agertuko da, guztion irakaspének entzuteru, edo bardin dana, guztion barrua aztertzeru. Orduan, Jerusalem argizuziz aztertuko dau eta illunpeko ezkutuak agirian jarriko dira eta gizonen errazoiak isillerazo egingo dauz.

Jesukristo da bizitzako Irakasle bakarra

8. Neu naz apalen adimena jasoten dodana, jakintsuak eskoletan amar urte eginda baiño betiko egiaren bideak areik obeto ulertu dagiezan.

9. Nik berba-zarata bagarik, eretxi-naaste bagarik, ospe-nabarkeri bagarik, errazoi-aldatze bagarik al-

datzen dot.

10. Neu naz lurreko gauzak destaiñaz begiratzek irakasten dodana; oraingoak iguindu, betikoak bi-llatu eta miatzu, deduetatik iges egin, eragozpenak ondo eroan, itxaropen osoa neugan jarri, nigandik kanpo ezer be gura ez izan, eta gauza guztien gaiñetik eta gartsu neu maite izaten irakasten dodana.

11. Eta onela, norbaitek, ni biotz-biotzez maite izanik, Jaungoikozko gaiak ikasi eta miragarriak irakasten ebazan. Gai zorrotzak ikastea baiño guztia bertan-beera iztea onuragarriagoa izan yakon.

12. Batzui guztietariko gaiak irakasten dautsedaz, beste batzui gai bereziak; batzui ezaugarri ta irudipenen bidez astiro-astiro agertzen nakie (*naiake*), beste batzui oso argiro agertzen dautsedaz nire ezkutuak.

13. Liburu santuen berbakerea beti bat da guztientzat, baiña ez dautse guztiai irakaspén bardina edo era berean emoten. Izan be, neu naz egiaren barruko irakasle, biotz-arakatzaille, bururapen-ezagutzaille eta egintzen eragille, eta nire eskuak bakotxari berak merezi dauanez emoten dautso.

BERROGETA LAUGARREN ATALBURUA

Ez dogu kanpoko gauzarik billatu bear

Jaunak— 1. Bearrezko yatzu, ene seme, gai batzuetan ezjakiña lez izatea, eta zure burua munduarentzat iltzat eukitea eta mundu guztia zuretzat gurutzetuta balego lez artea.

2. Gai askorentzat gor izatea be egoki yatzu, zure bakerako geiago dagokizuna begiraturik.

3. Eztabaidaka jardutea baiño iguin yatzunetik begiak aldendu eta bakotxa bere eretxian iztea onuragarriagoa yatzu. Jaungoikoagan ondo bazagoz eta Aren epaia adi-adi, zu garaitua izatea errazago eroango dozu.

Arimeak— 4. Jauna, noraiño eldu garean! Oraingo kalteren bategaitik min artzen dogu, eta irabazi apurragaitik nekatu egiten gara eta arin gabiz; arimearen kalteak, barriz, aaztuta daukaguz, eta nekez eta berandu etorten dira gogora.

5. Gutxi edo ezetarako be ez danaz arduratu egiten gara, eta oso bearrezkoa danari ez dautsagu jaramonik egiten; izan be, gizona / bera inguratzen dabenetara joaten da, eta, bereala garbatzen ez bada, arek bera ondo dagoala uste izaten dau eta bere burua kanpokoetan izten dau.

BERROGETA BOSGARREN ATALBURUA

Ez yake guztiai sinistu bear,
eta berbetan erraz egin daiteke laban

Arimeak— 1. “Jauna, emon egidazu laguntza atsekabealdian, giza-laguntza alperrekoa da-ta” (Sal 60, 13). *¿Zenbatetan jazo yat, zintzotasuna egoan tokian zintzotasunik ez aurkitzea? Sarri be sarri aurkitu dot gutxien uste neban tokian.*

2. Utsala da, ba, gizonakan jarten dan itxaropena; zintzoak, osteru, zeugan jarri dabe, Jauna, euren salbamea. Bedeinkatua zeu, Jauna, guri jazoten yakun edozetan.

3. Makalak eta aldakorrek gara: erraz egiten dogu uts eta aldatu egiten gara. Bizitzako gora-beera guztien artean iruzur edo zalantzaren baten ez jausteko bestean, *¿bere burua arduraz eta zuur zaindu dagian gizonik ba-ete-dago?*

4. Baiña, zeugan itxaronda, biotz lauaz zeure billa dabillenak, Jauna, ez da onen erraz jausten. Eta atsekaberen batek artzen badau, eta bere burua larri be larri egonarren be, zuk alakoa berealaxe askatzen eta pozten dozu: bere ustea zeugan jarten dauana zuk ez dozu betiko bertan-beera izten-eta.

5. Adiskidearen estualdi guztietan zintzo irauten daben adiskideak / banakak izaten dira. Zeu bakarrik zara, Jauna, edozetan guztiz zintzoa, eta ez dago zu lako adiskiderik.

Badak it ustea nogan jarri dodan

6. Aundia, benetan, urrengo au esan eban arako arima santuaren jakituria: “Nire arimea Kristogan dago sendotuta eta zuzartuta!” Neuk be beste orrenbeste esan aal banegi, gizonakandiko bildurrak ez nenduke onen erraz ikaratuko, eta berba iraingar-

riak be ez leuskide zirkiñik eragingo.

7. *¿Nok ikusi daike dana aurretiaz? Eta, ¿nor da etorteko diran gaitz guztiak galerazoteko gauza? Aurretiaz somatutako gaitzak be sarritan kalte egiten badauskue, ¿zelan ez gaitu zaurituko, ba, bat-batean artzen gaituan gaitzak?*

8. Beraz, ni, errukarri au, *¿zegaitik ez nintzan aurretiaz gertu egon? Eta, ¿zegaitik jarri neban sinistea besteakan onen erraz? Baiña gizonak gara, gizon makal eta auskorrek baiño ez gara, askoren eretxiz eta esanez aingeruak bagara be.*

9. *¿Nogan jarriko dot, Jauna, nire sinistea? ¿Nogan, zeugan izan ezik? Iñor ezin atzipetu daikezun egia zara zu, baita ezin atzipetu zaitezkan egia be. Gizona, barriz, guztia da, makala, aldakorra ta labana, berbetan batez be; orregaitik, begiratu batean zuzena dirudiana be nekez sinistu bear da.*

10. Ederto irakatsi zeuskun, benetan, gizonakandik alde egiteko; eta, gizonaren arerioak bere etxeoak diran ezkeru, norbaitek “Ona emen” edo “Ara an” esan egigunean, guk ez gengiala sinistu. Neure lepotek ikasi dot ori; zentzunbagea izan bagarik, zuurrago jarduteko izango al yat!

11. “Kontuz —diraust urliak—, kontuz! Isilik gorde egizu esango dautsudan isilpeko au.” Eta, nik ori isilik daukadala eta guztia isilpean dagoalakotan, arek niri isilik eukiteko eskatu eustanak berak isilpean euki ezinda, bai ni, bai bere burua salduta gero, aldendu egin zan, ni bertan-beera izten nenduala.

Jaungoikoa bakarrik sinistuko dot

12. Atara nagizu, Jauna, orrelako isilpeko utsaletatik eta gizon sen-bageakandik. Ez naitela orrekin eskue-tan iñoiz be jausi, ezta orrelako tentelkerietan be.

13. Jarri nire agoan berba zintzo ta egiazkoak, eta urrindu nigandik miin maltzurra ta zorrotza. Besteakandik sufritu nai ez dodana, ez dot nigan ezetara be egin bear.

14. Berbak negurtzeak eta enparaduai buruz isilik egoteak, itsumustuan edozer ez sinistea eta gero bereala ori iñori ez zabaltzeak, barrua gutxiri agertzeak, eta beti zeu, biotz-barrua ikusten dozun Ori, billatzeak,

15. edonondiko berba-aizez batera ta bestera ez ibilteak, eta gure barruko ta kanpoko gauza guztiak zeure borondatea danez egin daitezala gura izateak, sendotasun aundia ta bakea iraunerazoteko egundoko laguntza emoten daskuz.

16. Zeruko grazia iraunerazoteko bide ziuerra da, benetan, giza-itxuretatik iges egitea, eta, azaletik arrigarri dirudienak gura izan bagarik, barru beroa emoteko eta bizikerea ontzeko diranetan ardura guztiaz jardutea.

17. Amaikatxori kalte egin dautso onoiemena lasterregi agertzeak eta goratua izateak! Eta tentaldia ta burrukea baiño ez dan bizitza auskor onetan, amaika on egin dautse beste batzui grazia isilpean gorde-teak!

BERROGETA SEIGARREN ATALBURUA

**Berba iraingarriak dirauskuezanen,
ustea Jaungoikoagan jarri bear dogu**

Jaunak.— Zagoz sendo, ene seme, eta neugan itxaron. Izan be, ¿berbak zer dira, ba, berbak baiño? Egaz doaz aidean zear, baiña ez dabe atxa arakaltzen.

2. Errudun bazara, ontzeko asmo sendoa artu egizu; zugan errurik aurkitzen ez badozu, iraiñoak Jaungoikoagaitik sufritzeko erabagia artu egizu.

3. Oraindiño zigorkada gogorrik ezin artu daikezun ezkerro, noizean bein gutxienez berba iraingarriak ondo eroan daikezuz.

4. Baiña, ¿zegaitik sartzen yatzuz biotzean eze-rezkeriok, oraindiño aragikoi zerealako eta gizonai jaramon larregi egiten dautsezulako baiño?

5. Izan be, destaiñari bildur dautsazun ezkerro, ez dozu nai zure utsegiñakaitik agirakarik egin dagituen, eta atxakien gerizpe-billa zabiz.

6. Zure barrua obeto aztertu egizu, eta oraindiño zugan munduaganako maitasuna ta gizonai gogoko izateko gurari utsala bizi dirala ikusiko dozu.

Zure ule bakotxa be Jaungoikoaren ardurapean

7. Izan be, zure obenakaitik zure burua beeratzetik

eta lotsatzetik iges egiten dozun ezkerro, argiro ikusten da benetako apala ez zareana eta munduarentzat ilda ez zagozana, eta mundua zuretzat gurutzetuta ez dagoana.

8. Entzun egizu neure berbea, eta gizonak esan aal dagituezan amay milla berbai ez dautsezu jaramonik egingo.

9. Begira: giza-gaiztakeriak zure aurka asmatu daikenik ikaragarriena esango balebe, eta zuk jaramonik egingo ez bazeuskio eta aizeak daroan galtsua baiño geiagotzat izango ez bazendu, ¿arek zer kalte egingo leuskizu?

10. ¿Zure buruko ule bakar bat be atara aal eteleuskizue? Baiña, nire biotzaren jabe ez dana eta begien aurrean neu ez naukana, berba iraingarri batek laster mintzen dau.

11. Ustea neugan daukanak eta eretxia bere buruan jartea gura ez dauanak, ez dautse gizonai bildurrik izango.

12. Izan be, neu naz Epaillea, eta nik ezkutu guztiak ezagutzen dodaz. Nik badakit gauza bat zelan jazo dan. Ezagutzen dodaz nik iraintzaillea ta irain-artzaillea.

13. Neugandik urten da berba a; neuk laketuta jazoten da au, biotz askoren bururapenak agertu daitezana. Ezagutzen dodaz nik erruduna ta errubagea; baiña leenen, epai isillez, bata ta bestea aztertzea nai izan dodaz.

14. Gizonen testigantza sarritan guztia da. Neure epaia da egiazkoa; nire epaiak betiko irauten dau eta ezegaitik be ez dau atzeruntz egingo.

15. Sarritan estalduta dago, eta ondo-ondo gutxik somatzen dabe. Baiña ez dau iñoiz be utsik egiten eta ezin daike utsik egin, burubageentzat zuzenbagea izanarren be. Bearrezkoa da, ba, ustea norbere jakiturian jarri bagarik, edozein eretxian neugana jotea.

16. Izan be, Jaungoikoak bialdu dagion ezegaitik be ez da zintzoa artegatuko; eta, bere aurka bidebagekeriaren bat esan badagie be, ez dau orregaitik jaramon aundirik egingo.

17. Eta beste batzuek bere alde zuzen egin badagie be, ez da arropuztuko: biotzak eta bururapenak arakatzen dauzana neu nazana badaki-ta, baita gizonen aurpegi ta itxuren eratara epaitzen ez dodana be.

18. Izan be, gizonen eretxiz goragarri dana, sarritan niretzat errudun da.

Arimeak.— 19. Gizonen makaltasuna ta gaiztakeria ezagutzen dozuzan Jainko Jauna, epaille zuzena, aaltsua ta eroapentsua: izan nire sendotasuna ta nire itxaropen osoa, nire barrua bakarrik ez yat naikoa-ta.

20. Nik ez dakidana zuk badakizu; beraz, agirakaldi guztietan nire burua beeratu eta agirakok otzan-otzan eroan bear nebazan. Parkatu, Jaun biozpera orrek, onela egin ez dodalako, eta aurrerantzerako eroapen geiago izateko grazia emon egidazu.

21. Izan be, parkamena jaristeko, nire barruko ezkutuaren alde egiteko, obe yat nire usteko zuzentasuna baiño zeure erruki ugaria.

22. Nire barruak ezetan salatu ez banagi be, au gora-beera nire burua ezin artu daike zuzentzat: zure erruki bagarik, errubage dan gizon bizirik ez da zure aurrean agertu aal izango-ta.

BERROGETA ZAZPIGARREN ATALBURUA

**Neke astun guztiak
betiko bizitzagaitik eroan bear dira**

Jaunak.— 1. Ene seme, nire maitasunagaitik leporatu dozuzan nekeak ez zagiezala ausi, atsekabeak be ez zagiezala larregi makaldu; bizitza onetako gora-beera guztietan nire agintzariak pozkaria ta sendotasuna isuri bear dautsuz. Neu naz naikoa era ta negurri guztien gaiñetik zuri saria emoteko.

2. Zure lanak ez dabe emen luzaro iraungo, eta ez zara beti minpean egongo. Itxaron oraindiño zertxobait, eta zure zoritxarren amaia laster ikusiko dozu. Elduko da, bai, neke ta kezka guztiak geldituko diraneko eguna. Aldiaz igaroten dan guztia gutxi ta laburra da.

3. Ondo egizu egiten dozuna, nire maastian zintzoro egizu lan; neu izango naz zure saria. Idatzi egizu, irakurri, abestu, negar egin, isildu zaitez, otoitz egin, zoritxarrak adoretzu eroan: betiko bizitza orrelako ta burruka aundiagoen duin bada-ta.

4. Bakea Jaunak dakian eguncan elduko da; orduan

ez da izango, orain lez, egunik ez gaurik, betiko argitasuna, bake sendoa eta atsedean ziuerra baiño.

5. Ez dozu orduan onelakorik esango: “¿Nok askatuko nau gorputz ilkor onetatik?” (Erm 7, 24). Beste au be ez dozu deadarka esango: “Nire zoritxarra!, nire erbestaldia luzatu egin da-ta.”

Eriotza garaipenak iruntsiko dau

6. Izan be, eriotza lezara jaurtiko dabe eta salbamena nai ta nai ezkoa izango da; ez da kezkarik izango, poztasun zorionsua baiño, lagundi gozo ta atsegingarria. Oi, Santuak zeruan koroe zimeldu-eziñaz apainduta ikusiko bazenduz!

7. Emen munduarentzat iguingarri ta bizi izateko duin be ez zirala zirudienak, orain bai pozten dirala aintzaz beterik! Benetan, zure burua lurrerañño beeratuko zeuke eta bat bakarraren nagusi izatea baiño gizon guztien menpean egotea gurago izango zeuke.

8. Bizitza onetako egun atsegingarriak be ez zeukez gura izango, bestetara baiño: Jaungoikoaganako maitasunagaitik, atsekabeak sufritzeaz poztu egingo zintzakez, eta gizonak zu ezertzat artzea irabazi neurribagetzat izango zeuke.

9. Oi, guzti ori miaztuko bazendu eta biotzaren barru-barrurañño sartuko balitzakizu! Bein be ez zintzakez arrenkuraka asten azartuko. ¿Ez deritzazu bidezko /betiko bizitzagaitik orain edozetariko nekeak sufritzea? Izan be, ez da, ez, gauza txikia Jaungoikoaren erreiñua galdu ala irabaztea!

15. Jaso egizuz, ba, zure begiak zerura. Ona emen ni eta nire santu guztiak neugaz batera. Oneik lurrean burrukaldi gorriak eroan bear izan ebezan, eta orain poz-pozik, nasai eta ziur dagoz. Orain atsedean dagoz, eta nire Aitaren erreiñuan neugaz iraungo dabe beti-betiko.

BERROGETA ZORTZIGARREN ATALBURUA

**Betirauneko eguna
eta bizitza onetako larrialdia**

Arimeak.—1. Goi-goiko [zeruko] bizitoki guztiz zorionsua! Betirauneko egun guztiz argia, gabak

inoiz illundu ez eta Egia oso-osoak argitzen dauana!
 2. Beti egun pozgarria, beti egun ziurra eta inoiz be aldatzen ez dana! Egun orrek onezkero argi egin baleu eta mundu onetako gauza guztiak amaitu balitaz!
 3. Egun orrek Santuai betiko argi biziarekin egiten dautse argi. Baiña oraindiño lur onetan erromes bizi diranak argi ori urriñetik eta izpillutik lez somatzen dabe.
 4. Zeruko bizilagunak dakie egun ori dan pozgarria; Eba-ren ume erbesteratuak, barriz, zotinka dagoz, egun au garratza ta gogaikarria dala somatzean.

Mundu onetan erbestean gagoz

5. Bizitza onetako egunak gutxi ta txarrak dira, min eta larrialdiz beteak.
 6. Egun onetan gizonak bere burua pekatu askoaz loituta eta griña askoaz inguratuta ikusten dau; bildur askoaz larrituta eta ardura askoaz arduratuta; barrikeri askoaz oarkabetuta eta uskeri askoaz lotuta.
 7. Errakuntza askok inguratu eta lan askok ausi egiten dabe; tentaldiak astundu, atseginkeriak makaldu eta txirotasunak oiñazetu egiten dau.
 8. Oi! ¿Noiz amaituko ete-dira gaitz oneik? ¿Noiz ikusiko ete-dot nire burua griña gaitzoen menpetik askatuta? ¿Noiz gomutatuko ete-naz zeutzaz bakarrik, Jauna? ¿Noiz poztuko ete-naz osoro zeugan?
 9. ¿Noiz izango ete-naz, eragozpen bagarik, benetan askatasunaren jabe, eta gorputz-arimen gaitzean dagozan neke bagarik? ¿Noiz izango ete-dot bake sendoa, bake aldatu-eziña ta ziurra, barruko ta kanpoko bake guttiz iraunkorra?
 10. Jesus ona! ¿Noiz izango ete-dot zu ikusteko zoriona? ¿Noiz ikusiko ete-dot zure erreñuko aintza? ¿Noiz izango ete-zara niretzat gauza guztietan Dana?
 11. Oi! ¿Noiz egongo ete-naz zugaz zure erreñuan, zu maite zaituenai betiraunetik (*beti danik*) atondu zeutsen erreñu orretan?
 12. Egun oroko burrukak zoritxar aundiak dagozan arerio-errian beartsu ta erbesteratuta itzi nabe.

Munduaganako iguiña, eta erreñu-miña

13. Nire erbestealdi au poztu eta nire erreñu-min au

arindu egizu, nire arima guztiak zeu gura zaitu-ta. Munduak eskintzen daustan atsegin guztia sorta astun egiten yat. Zeugaz gura dot poza artzea biotz-biotzez, baiña ezin dot lortu.

14. Zeruko gaiak lotuta egotea nai neuke, baiña emengo gauzak eta nire griña ezibageak atzeratu egiten nabe eta agirikoetara egiten dauste bultza.

15. Adimenaz gauza guztien gaitzera igotea nai dot; baiña aragiak, nik nai ez da be, arein menpean bizi izatera beartzen nau.

16. Onela, ni, zoritxarreko au!, nire buruak burrukan narabil eta nire buruarentzat sorta nekegarri egiten naz: espirituak goian bizi izatea gura dauan artean, aragiak lurreruntz naroa-ta.

17. Ene Jauna, zeruko gaiak ausnartzean, otioztaldian bat-batean bururapen lizun pilloak erasoten nabenean, nik barruz sufritzen dodana! Ez zaitez nigandik urrindu, Jauna, ez egizu itzi bertan-beera zure morroi au! Argi egin begi zure argiaren tximisteak eta ezereztu begiz illunpeok; jaurti zure geziak eta arerioak nire gaitzera pillatzen dauzan asmakeri guztiak ezereztu egizuz.

19. Nire zentzun guztiak zeugan batu egizuz; lurreko gauza guztiak aaztuaz egidazuz; griñen lillurakeriak nigandik ainbat lasterren iguintzeko ta kentzeko indarra emon egidazu.

Oarkabetzeak

21. Otoitzean zeu bagarik beste zerbait gogoan darabildan bakotxean, parkatu ta errukiz begiratu nagizu: an oso oarkabetuta egoten nazala autortzen dot benetan-eta.

22. Gorputza zutunik edo jesarrita daukadan tokian bagarik, sarritan irudimenak naroon tokian nago.

23. Nire bururapena dagoan tokian, antxe nago neu be; eta nire bururapena, sarritan, neure maite-gaia dagoan tokian dago. Berez atsegintzen dauana edo pozten nauana datorkit leenen gogora.

Zure aberastasunak eta zure biotza

24. Orregaitik, zuk, betiko Egia zarean orrek, argiro esan zenduan: "Zure aberastasunak euki dagizuzan lekuan, biotza be antxe izango dozu" (Mt 6, 21).

Zerua maite badot, zeruko gaiak pozik ausnartzen dodaz. Mundua maite badot, munduaren zorionaz poztu eta aren zoritxarrakaitik biotz-mindu egiten naz.

25. Aragia maite badot, aragiari dagokiozan gaiak darabildaz buruan. Espiritua maite badot, espirituari dagokiozan gaiak darabildaz buruan.

26. Izan be, maite dodan edozeri buruz pozik egiten dot berba, eta orrelakoari adi-adi egoten nakio (*naiako*), eta arcin gomutea gogo onez neugaz batera daroat etxera.

27. Baiña zorionekoa, Jauna, zeuganako maitasunagaitik egindako guztiai uko egiten dautsana, eta aragiaren zalekeriak espiritu beroz gurutzean josten dauzana!

28. Eta orrela, barru baretuaz, zure otioitz garbia eskiñi daiketzu, eta, lurreko gauza guztiak bere barru ta kanpotik uxatuta, aingeru-talde artean egoteko duin egin daiteke.

BERROGETA BEDERATZIGARREN ATALBURUA

**Betiko bizitza gura izatea
eta lurrean burrukalarientzat
aginduta dagozan ondasunak**

Jaunak.— 1. Ene seme, goitik betiko zorionaren guraria isurten yatzula somatu dagizunean, eta nire argitasuna gerizpe bagarik ikusteko gorputz-barrutik urten gura dagizunean, zure biotza zabaldu eta goiargi santu ori biotz-biotzez onartu egizu.

2. Zure astuntasunaz lurreko gauzetarantz larrapast egin ez dagizun, zutzaz orren biozperatsu jarduten daualako, orren errukitsu ikustaldia egiten dautsulako, orren maitatsu adoretzen zaitualako, eta orren indartsu eusten dautsulako, Ontasun gorenari emon egiozuz biotzez eskerrak.

3. Izan be, ori ez da zure bururapenaren frutua edo aalegiña, zeruko graziaren eta Jaungoikoaren ontasunaren naia baiño;

4. eta ori, onoinmengan eta apaltasunean geiago aurretatu zaitez, gero burrukaldietarako gertu egon zaitez, niri biotz-biotzez batu zakidazan eta nire zerbitzaritzan gogo sutsuz jardun dagizun.

Jaungoikoaganako gurari arduratsua

5. Ene seme, sarritan sua garretan dago, baiña garra ez da ke bagarik igoten. Orrela, batzuen gurariak zeruko gaitetan iziotzen dira; baiña arteetan ez dagoz aragiaren zalekerien tentaldietatik askatuta.

6. Orregaitik, ain gogotsu eskatzen dabena gura izateko bultza egiten dautsena be ez da niganako maitasuna.

7. Orrelakoa izaten da sarritan / orren era bagarik agertzen dozun zure guraria. Eta agirian dago, norbere irabaziaz lotuta dagoana / garbia ta bikaiña ez dana.

8. Ez eskatu zuretzat atsegingarri ta egoki dana, niri gogoko ta ospagarri yatana baiño.

9. Izan be, bear danez epaitzen badozu, bidezko yatzu neure naiari jarraitzea, eta nire borondatea / zeure naia ta zuk gura dozun edozer baiño naiago izatea. Nik ondo be ondo dakit zein dan zure guraria, eta entzun dodaz zure zizpuru etenbageak.

10. Orrezkero Jaungoikoaren semeen aintzako askatasunean bizi izatea gura izango zeuke; betiko etxeak eta atseginez beteriko zeruko aberriak poztu egiten zaitu. Baiña ez da eldu oraindiño ordu ori. Zuretzat oraindiño beste aldi bat geratzen da: burrukaldia, lanaldia eta ekiñaldia.

11. Ondasun gorena danaz asetea gura dozu, baiña oraindiño ezin lortu daikezu. Neu naz Ondasun gorena, diño Jaunak: itxaron egidazu Jaungoikoaren erreñua eldu arte. Oraindiño lurrean negurtu egin bear zaitue eta neke askotan jardun bear dozu.

Gizon barriz jantzi bear dozu zure burua

12. Noizean bein pozkaria emongo yatzu, baiña ez aseteke aiña. Egizuz aalegiñak, ba, eta izan adorea, izateari aurkakoak yakozanak egiteko naiz sufritzeko.

13. Egoki yatzu zure burua gizon barriz jaztea eta beste gizon bat izatera biurtzea.

14. Sarritan nai ez dozuna egin eta egin nai dozuna alde batera itzi bear dozu. Besteai atsegin yakena ondo joango da; zuk nai dozunak ez dau bearbada abegi onik izango.

15. Besteak diñoena ondo entzungo dabe; zuk diñozunari ez dautsoe jaramonik egingo. Beste batzuek eskatu eta artu egingo dabe; zuk eskatu eta ez dozu ezer be lortuko.

16. Beste batzuk aundiak izango dira gizonen agotan; zutzaz ez da ezer esango. Beste batzui arazo au edo bestea emongo yake; zu, barriz, ez zaitue ezetarako be onartuko.

17. Orregaitik, batzuetan izatea suminduta geratuko yatzu, eta ez da gutxi izango zuk ori isilik eroaten badozu. Onelako ta antzekoetan aztertzen dabe Jaungoikoaren morroia, bere burua ukatzen eta nekatzen noraiño eltzen dan jakiteko.

18. Beste gaitan baiño zeure borondatearen aurkakoak ikusi ta sufritzean bear dozu il zure burua, batez be bidebageak eta egoki ez diranak agintzen yatzuzala deritzazunean.

19. Eta zuk, nagusiaren menpean egonik, aren borondatearen aurka egiten azartzen ez zarean ezkerro, iñoren naitara ibiltari eta zure eretxia ezerezteari gogorra deritzazu.

20. Baiña, ene seme, neke onein frutua, neke oneik laster amaituko dirala eta geroko sari aundia ausnartzen badozuz, ez yatzuz astun egingo, bestetara baiño: zure eroapenaren pozkaririk sendoenak izango dira.

21. Izan be, orain gogoz izten dozun gurari apur onen orde, gero zeruan beti zeure naia egin aal izango dozu.

22. An, zalantza bagarik, zeuk nai dagizun guztia eta gura daikezun guztia aurkituko dozu. An edozerariko ondasunak zeure eskuetan izango dozuz, iñoiz be galtzeko bildur bagarik. An zure borondatea nire-agaz bat izango da, eta neu baiño besterik naiz berarenik ez dau zure borondateak gura izango.

23. An ez dautsu iñok be gogor egingo, zutzaz iñor ez da arrenkuraka ibiliko, ez dautsu iñok be trabarik egingo, ez dautsu ezek be eragozpenik jarriko, bestetara baiño: gura dozuzan gauza guztiak eukiko dozuz, eta zeure gurari guztiak bete ta aseko dabez.

24. An, ondo eroandako iraiñen orde aintzaz esalduko zaitut, atsekabearen orde gorapenezko soiñekoaz jantziko zaitut, eta lurrean izan zenduan beerengo tokiaren orde erreñuko aulkia emongo dautsut betiko.

25. An, esaneko izatearen frutuak agertuko dira, gorputz-nekea poz biurtuko da, eta menpetasun apalari aintzazko koroea ezarriko dautsoe.

*Bizitzan naiz eriotzan,
Jaungoikoaren aintza batez be*

26. Orain, ba, guztien eskupean apal-apalik makurtu zaitez, eta zerbait nok esan edo agindu dauan jakiteko ardurarik ez egizu artu.

27. Beste au bai: nagusiak, naiz kideak, naiz azpi-koak zerbait eskatu edo agintzen badautsu, guztia ontzat artuta, gogo zintzoz beteteko aalegiñak egizuz.

28. Billatu begi bakotzak berak nai dagiana; urlia onetan, berendia aretan arrotu bedi, eta milla bidar goratu dagiezala. Zu, barriz, ez onetan, ez aretan, ez zaitez poztu, zure burua iguintzen eta neure izenaren deduan baiño.

29. Gauza bat gura bear dozu, gauza bat bakarra, eta auxe da: bizitzan naiz eriotzan, zukan beti Jaungoikoa izan daitela goratua.

BERROGETA AMARGARREN ATALBURUA

**Gizon atsekabetua
Jaungoikoaren eskuetan jarteko erea**

Arimeak.— 1. Jainko Jauna, Aita santu, bedeinkatua zeu orain eta betiraun guztian; izan be, zeuk nai dozunez jazo da au, eta zuk egiten dozuna ondo eginda dago.

2. Zure morroi au zeugan poztu bedi eta ez bere buruagan, ez beste iñogan. Izan be, zeu bakarrik zara, Jauna, benetako poztasuna, zeu nire itxaropena eta nire koroea, zeu nire pozkaria ta aintza.

3. ¿Zer dauko zure morroi onek zugandik artu dauana baiño? Eta auxe be berak merezi bagarik. Zeurea da, benetan, emon eta egin daustazun guztia.

4. Beartsu naz eta neke-artean bizi naz gaztetarik, eta batzuetan nire arimea negar egiteraiño beteten da tristuraz; eta beste batzuetan, erasoten daben griñakaitik, artaga dago.

5. Bakearen poza gura dot; zure argi pozgarriaz

janaritzen dozuzan zeure semeen bakea eskatzen dot.

6. Bake ori emoten badaustazu, zeure bake santua isurten badaustazu, zure morroiaren arimea pozez beterik geratuko da, zure gorapenak adoretu abesteko.

7. Baiña, sarritan egin dozunez, aregandik aldentzen bazara, Jauna, ezin ibili izango da arin zure aginduen bidean, eta orduan belauniko jarri bear izango da, bere bularra joteko.

8. Izan be, zure morroiak ez dau atzo ta araiñegun lez sentitzen, bere buru-gaiñean zure argiak dizdiz egiten ebanean eta tentaldien erasoan aurka bere burua zeure egoen gerizpean gordeten ebanean lez.

Jaunaren eguna, baita arimearena be

9. Aita zuzen eta beti goragarria! Eldu da zure morroia aztertua izateko ordua. Aita maitagarria, bidezko da zure morroiak ordu onetan zugandik zerbait sufritzea.

10. Aita beti gurgarria, eldu da zuk betiraunetik bazekian ordua; bazekian, bai, zure morroia, aldi labur baten, agiriz beintzat, jausi egingo zana, baiña ori barruz beti zeure ondoan bizi daiten;

11. eldu da gizonen aurrean zerbait iguinduta, lotsatuta eta beeratuta geratzeko aldia, baita griñak eta geisoak makalduta itzi dagieneko aldia be, argi bariaren egunsentian barriro zeugaz biztu eta zeruko aukeratuen artean goratua izan daiten.

12. Aita santu! Olantxe erabagi zenduan zuk, olantxe izan zenduan nai; eta zeuk erabagi zenduana jazo da.

13. Auxe da, ba, zure adiskideari emoten dautsazun grazia: mundu onetan zure maitasunagaitik nekeak eta atsekabeak eroatea, eta au zeuk laketu dagizun bakotxean eta edonogandik. Zeure burubide ta ardura bagarik, ezta zio(*errazoi*) bagarik be, lurrean ez da ezertxo be jazoten.

14. Ondo datorkit, Jauna, zuk ni beeratzea, zeure aginduak ikasi eta nire biotzetik arrokeri ta ustleria guztiak urrindu dagidazan.

15. Egoki yat nire aurpegia lotseak estaltzea: ni pozteko, gizonen billa ibili bagarik, zeu billatu zagidazan.

16. Zure epai ulergatxai bildur izaten be ikasi neban

onetan; izan be, zintzoa gaiztoagaz batera zigortzen dozu, zuzentasuna ta egokitasuna ausi bagarik baiña.

Geroko zigorra baiño oraingoa obea

17. Eskerrak zeuri, Jauna, nire pekatuak zigor bagarik itzi ez dozuzalako, bestetara baiño: zigorkada latzez zauritu nozu, niri gorputz-armako min eta atsekabeak bialdurik.

18. Zerupean bizi dan iñok be ezin poztu naike ni, zeuk izan ezik, nire Jainko Jaun orrek, zauritu ta osatu, illobira eratsi ta andik barriro ataraten gaituzun arimen zeruko osagille orrek izan ezik.

19. Jausi bedi nire gaiñera zure zuzentzea eta zeure makilleak berak emongo daust irakatsia. Ene Aita maitea, zeure eskuetan naukazu; zeure zigorraren makillapean makurtzen naz. Zauritu nire sorbalda ta lepo au, nire zalekeri okerrak zeure naitara zuzendu dagidazan.

20. Zuk egin oi dozunez, ikasle eraspentsu ta apala egin nagizu, beti zeure naiari menperatuta ibili naiten. Nazan au eta daukadazan guztiak zeuri damotsudaz, arteztu nagizun. Zigorkadak gero baiño orain artzea obe da.

21. Ezagutzen dozuz zuk gauza guztiak eta bakotxa; giza-barruan ez yatuz ezertxo be ezkututzen. Jazo baiño leen ezagutzen dozu etorkizuna, eta munduan jazoten dan guztia iñok agertu edo aitatu-bearrik ez dozu.

22. Zuk badakizu nire espiritu-aurrerakuntzarako egoki yatana, eta griña txarren ugarrak kentzeko atsekabeak zenbat balio dauan.

23. Egizu nigan zeuk nai dagizuna; ez egizu iguindu pekatuzko nire bizikera au, zuk iñok baiño obeto ta argiago ezagutzen dozu-ta.

24. Jadetsi egidazu, Jauna, jakin bear dana jakitea, maite izan bear dana maitatzea, zuk atsegiñen dozuna goratzea, zuri eder yatzuna aintzat artzea, eta zure begiai zatarrak yakena iguintzea.

25. Ez egidazu laketu itxuretatik epaitzen, ezta gizon tentelai entzun dautsedanetik ebazten be, bestetara baiño: jakin dagidala ikusten diranak eta espiritu-gaiak epai zuzenez banantzen(*bereizten*), eta, batez be, zeure nai bikaiña billatzen. 26. Epaitzean, gizonen zentzunak sarritan uts egiten dabe, mun-

dukoiak be eurak ikusten dabena bakarrik maitatzean uts egiten dabenez.

27. ¿Obea izango ete-da gizona, beste batek a dan baiño obeagotzat artzen badau? Maltzurak maltzurari, arroak arroari, itsuak itsuari, makalak makalari iruzur egiten dautso a goratzen dauanean. Izan be, zentzun bagariko gorapen ori lotsagarria da artzen dauanarentzat, au goratu baiño beeratu geiago egiten dau-ta.

28. Izan be, "bakotxak zeure begien aurrean balio dauana balio dau, eta geiago ez", diño Prantzisko santu ta apalak.

BERROGETA AMAIKAGARREN ATALBURUA

Egikizun apalai ekin bear dautsegu, egintza garaituagoak ezin burutu daikeguzanean

Jaunak.— 1. Ene seme, beti ez zara onoimena gartsu gura izateko gauza, ezta ikusketako goi-maillan irau-teko be,

2. bestetara baiño: jatorrizko pekatuagaitik, noizean bein gai apalagoetara jatsi eta bizitza ustelkor onetako sortea eroan bear dozu, ori nai ta nai ezkoa ta iguingarri izan badakizu be.

3. Gorputz ilkorra eroan dagizun artean, gogaitaldiak eta biotz-nekeak izango dozuz.

4. Aragian bizi zarean artean, aragiaren sortapean sarritan negar egin bear izango dozu, espirituaren egikizunetan eta Jainko-ikusketan etenbagarik jarduteko ez zara gauza-ta.

5. Orduan, egoki yatzu arazo apaletara ta kanpokoetara jotea, egintza onak egiñik biotza eztiitza, nire etorrerea ta goiiko ikustaldia uste sendoz itxarotzea, eta zure erbestaldia ta espiritu-legortea sufritzea, nik zuri barriro ikustaldia egin eta zu larrialdi guztietatik askatuta geratu zaitezcan arte.

6. Izan be, nik aaztuazo egingo dautsudaz nekeak, eta barruko bakea emongo dautsut. Zure begien aurrean "Liburu santuetako landak" jarriko dautsudaz, biotz nasaiz neure aginduen bidean arin ibiltan asi zaitezcan.

7. Eta auxe esango dozu: "Bizitza onetako nekeak

ezer ez dira gero gudan agertuko dan edertasunaren aldean" (Erm 8, 18).

BERROGETA AMABIGARREN ATALBURUA

Pozkariaren duin bagarik, bere burua zigorraren duin dala sinistu bear dau gizonak

Arimeak.— 1. Jauna, ni ez naz zure pozkarirako duin, ezta espiritu-ikustaldirako be; eta, orregaitik, ni beartsu ta atsekabetuta izten nozunean, zuzen jokatzan dozu nitzaz. Izan be, nik itsasoa beteteko aiña negar-malko isuriko baneu be, oraindiño be ez nintzake zure pozkarirako duin izango.

2. Onegaitik, sarritan astunkiro iraindu eta gai askotan pekatu egin dodan ezkerro, atsekabeak eta zigorkadak baiño ez dodaz merezi. Beraz, zu ondo begiratu ezkerro, zure pozkaririk txikarreneko be ez naz duin.

3. Baiña, zure egintzarik ondatu nai ez dozun Jaungoiko biozpera ta errukitsu orrek, errukizko ontzietan zeure ontasunaren aberastasunak erakusteko, zure morroia —beronek ezer merezi ezarren be— edozein giza-negurriz gaiñetik poztu gura dozu.

4. Izan be, zure pozkariak ez dira gizonen berbaldi utsalak lakoak. ¿Zer egin dot nik, Jauna, niri zeruko pozkariren bat emoteko?

5. Ez dot gogoan ezer onik egin dodanik; ni beti griña txarretara makurtua eta ontzeko nagia izan naz. Olantxe da eta ori ezin ukatu daiket. Besterik esango baneu, zu neure aurka jagiko zintzakez, eta ez litzake nire alde egingo leukenik iñor izango.

¿Zer da gizona, zu aretzaz gomuta zaitezcan?

6. ¿Zer merezi izan dot nire pekatuakaitik, inpernua ta betiko sua baiño besterik? Irri ta destaiña guztiak zor yatazala, eta zure aukeratuen artean egoteko duin ez nazala autortzen dot benetan.

7. Eta, berba onek min egiten daustenarren be, nire pekatuak neure buruaren aurka eta egieren alde autortuko dodaz, zure errukia errazago jadetsi dagidan.

8. ¿Zer esango dau errudun eta lotsaz beterik nagoan

onk? Ahoa berba bakar au esateko baiño ez daukat: Pekatu egin dot, Jauna; erruki izan zakidaz eta partatu nagizu (*egidazu*).

9. Itzi nagizu alditxo baten, eriotz-illuntasunaz estaldutako lurralde illun aretara joan baiño leen, nire miñagaitik negar egin dagidan.

10. Errudun eta pekatari errukarriari, bere biotzean damututa, bere gaiztakeriakaitik bere burua beeratu dagiala baiño, ¿zer eskatzen dautsazu besterik?

11. Benetako damutik eta biotz-apaltasun orretatik parkamen-itxaropena jaioten da, barru artegatua baketu egiten da, galdutako grazia barriztu egiten da, etorteko asarretik gizonak bere burua gorde egiten dau, eta Jaungoikoa ta arima damutua bake santuz alkartzen dira.

12. Pekatuai buruzko damu apala opari gogoko yatzu, Jauna, zure aurrean intzentsuak baiño askozaz usain gozoagoa emoten dau-ta.

13. Auxe da zure oiñen gaiñera isurtea gura izan zenduan arako miritza atsegingarria, biotz damutua ta beeratua ez dozu iñoiz be baztarten-eta.

14. Damu onetantxe dago arerioaren asarretik iges egiteko aterpea. Pekatuaren bideetan txarto egin eta loitu zana, antxe ondu ta garbitzen da.

BERROGETA AMAIRUGARREN ATALBURUA

Jaungoikoaren grazia ez da lurreko gai atsegingarriakaz naasten

Jaunak.— 1. Ene seme, nire grazia bikaiña da; nire graziak iñoren gaiakaz edo lurreko pozaldiakaz ez dau naasterik onartzen.

2. Beraz, zuri grazia isurtea nai badozu, graziari aurka egiten dautsoen eragozpen guztiak baztatu egin bear dozuz.

3. Toki ezkutu bat billatu egizu, zeure buruagaz bakarrik egotea gura egizu, itzi alde batera alkarrizketak eta Jaungoikoari otoitz gogotsua egiozu, biotz damutua ta barru garbia emon dagitzuzan.

4. Mundu guzti au ezerctzat izan egizu. Kanpoko arazo guztiak baiño Jaungoikoaganako ardurea geiago gura izan egizu. Izan be, neugan jardun eta

igarokorretan atsegindu / ezin egin aal izango dozu batera.

5. Zure burua ezagun eta adiskideakandik urindu egin bear dozu, zure espiritua atsegin aldikor guztietatik askatua irauera aal dagizun. Orregaitik, mundu onetan arrotz eta erromes lez jokatu dagiela eskatzen dautse Paulo santuak kristauai.

6. Mundu onetako gurariak lotzen ez dauanak, ilzorian uste aundia izango dau benetan!

7. Baiña biotza gauza guztietatik askatuta eukiteak zer adierazoten dauan / ezin ulertu daike geisorik dagoan arimeak, ezta gizon aragikoiak be ez dau ezagutzen barruko bizikerea daroan gizonaren askatasuna.

8. Baiña, ezpirtu-zalea benetan izan gura dauanak, uringoai ta urkoai uko egin bear dautse, eta iñogandik baiño geiago bere buruagandik gorde egin bear da.

Gizon espiritu-zalea

9. Zure burua ondo menperatzen badozu, beste guztia errazago lotuko dozu. Norbere burua menperatzea / garaipenatarik bikaiñena da.

10. Izan be, zentzunak men adimenari eta adimenak neuri egin daistan, norbere burua menpean daukana / orixe da benetan bere buruaren garaille ta munduaren jabe.

11. Tontor onetara igo gura badozu, adoretzu asita, aizkorea zustrari ezarri bear dautsazu: zeuganako, zeuretzat eta lurkorrentzat dozun zalekeri ezkutu ta makurra zustrarretik atara eta ondatu dagizun.

12. Gizonak bere burua okerregei ta griñatsu maite izatean dago zearo azpiratu bear dana. Arerio au azpiratu ta menperatu ezkerro, berealaxe izaten da bakea eta baretasun aundia

13. Baiña, norbere buruarentzat ilten eta euren naitakeritik guztiz urtetan gutxik jarduten daben ezkerro, geienak euren buruzalekeri-barruan lotuta geratzen dira eta ezin igo daitezkez spirituz euren gaiñetik gora.

14. Baiña, neugaz batera askatuta ibili gura dauanak, bere zalekeri guztiak ezi egin bear dauz, eta izaki bati be ez dautso maitakeriz oratu bear.

BERROGETA AMALAU GARREN ATALBURUA

Izatearen eta graziaren eragikera batzuk

- Jaunak.*— 1. Ene seme, izatearen eta graziaren bultzakadak arduraz begiratu egizuz; izan be, alkarran aurka dagozanarren, zorrozkiro diardue euren artean, eta, orregaitik, gizon espiritu-zale ta barruz argituak be nekez ezagutzen dabez bultzakadak.
2. Guztiak dira on-zaleak, eta euren esan eta egiñetan onaren billa dabiz; baiña orrexegaitik, ain zuzen be, on-itxuraz, askok atzipetzen dabe euren burua.
3. Izatea maltzurra da, eta arek asko beragandu, atzipetu eta bere sareetan artzen dauz, eta gauza guztien elburutzat berbera jarten da.
4. Graziak, barriz, lau-lau eta azpikeria bagarik jarduten dau, edozein txar-itxuratik alde egiten dau, ez dau maltzurkeriarik gura, eta egiten dauan guztia Jaungoikoagaitik bakarrik egiten dau, Jaungoikoa artzen dau bere elburutzat eta Aregan atsedentzen da.
5. Izateak ez dau nai gogo onez bere burua ezi, ez makurtu, ez azpiratu, ez iñoren menpean egon.
6. Grazia, barriz, norbere burua eziten arduratzen da; lizunkeriari gogor egiten dautso, menpean egotea billatzen dau, azpiratua izatea gura dau, ez dau bere aukeran bizi nai, lege gogorpean bizi gura dau, ez dau iñoren nagusi izaterik nai, beti Jaungoikoaren menpean bizi, iraun eta egotea baiño; eta Jaungoikoagaitik edozein gizakiri apal-apalik esana egiteko gertu dago.
- Graziaren biotz zabala eta izatearen berekoieria*
7. Izateak bere irabazirako diardu, eta enpara-duakandik obaririk ete-datorkion begiratzen dau. Graziak, barriz, ez dau berari onuratsu yakonik begiratzen, askori onuratsu yakona baiño.
8. Izateak dedua ta begirunea pozik onartzen dauz. Graziak, barriz, gizonak emon daiketon dedu ta aintza guztia Jaungoikoari bakarrik ezarten dautso zintzo-zintzo.
9. Izateak bildur dautse lotseari ta destaiñari. Grazia,

ostera, Jesusen izenagaitik iraiñak eroateaz poztu egiten da.

10. Izateak, berez, opor eta gorputz-atsedena maite dauz; grazia, barriz, ezin egon daiteke alperkeritan, eta arek lana gogo onez artzen dau.
11. Izateak gauza txukun eta ederrak gura dauz, eta zatar eta zakarrak iguindu egiten dauz. Graziak, ostera, gauza apal eta lauetau poztan da; gauza latzak ez dauz iguintzen, eta soiñeko zaarrakaz jazteko be ez dau ezetzik esaten.
12. Izateak aldikorra begiratzen dau, lurreko irabaziaz poztu eta kalteaz biotz-mindu egiten da, eta edozein berba iraingarri ariñek asarre jarten dau.
13. Graziak, barriz, betikoak begiratzen dauz, grazia ez yake gauza aldakorrai lotzen; gauza aldakorrik galduarren be, ez da artegatzen, eta berba iraingarriakaitik be ez da asarratzen. Izan be, bere ondasuna ta poza ezer galtzen ez dan zeruan jarten dauz.
14. Izatea zekena da, eta emon baiño artu pozago egiten dau; berekoia da, eta berea ta beretzakoa maite dauz. Grazia, barriz, guztientzat da, eta arek guztien ona maite dau; gutxi azeten da, eta "artzea baiño emotea zori obatzat dau" (Ap Eg 20, 35).

Graziaren erabidea eta izatearen nabarkeria

15. Izateak izakietara, norbere aragira, uskerietara eta zear-mearka ibiltera makurtzen gaitu. Graziak, barriz, Jaungoikoagana ta onoiñenetara garoaz, izakiai uko egiten dautse, gizartetik iges egiten dau, aragiaren gurariak iguindu eta ibilte utsalak mugatu egiten dauz; grazia agirian agertzeko be lotsa da.
16. Izateak bere zentzunak atsegintzen dauzan edozelako poza gogo onez artzen dau. Graziak, ostera, Jaungoikoagan bakarrik poztu eta, ikusten dauan guztia alde batera itzirik, On gorengoagan atsegindu gura dau.
17. Izateak egiten dauana / bere irabazi ta aukerarako egiten dau; ezin egin daike ezer utsean (*doan*); berak egin dauanaren orde, beste orrenbeste edo geiago, edo, gutxienez, gorapena ta laguntza artzeko ustea dau; eta bere egintzak eta mesedeak asko goratu dagiezala gura dau.
18. Graziak, barriz, ez dau lurrekorik ezer be billatzen, eta ordaingarritzat Jaungoikoa baiño beste

- saririk ez dau eskatzen. Eta bearrezko aldikorretatik betikoak lortzeko naikoa diranak baiño ez dauz gura.
19. Izatea adiskide ta senide askogaz poztu eta bere jaioterri ta jatorri argitsuaz arropuztu egiten da. Aaltsuentzat labana, aberatsentzat koipatsua da; izateak bera lakoak diranai txaloak joten dautsez.
20. Graziak, ostera, arerioak be maite egiten dauz; grazia ez da adiskide askogaitik arrotzen, ez da jaioterri ta jatorriagaitik arropuzten, tartean ori eskatu dagian onoiñen aundiagorik ez badago beintzat.
21. Aberatsaren alde baiño beartsuaren alde geiago egiten dau, aaltsuari baiño errubageari erruki geiago dautso; egia diñoagaz poztan da grazia eta ez maltzurkeria ta guzurrta maite dauzanagaz.
22. Onai beti goi-doirik onenak nai izan dagiezala eta onoiñen bidez Jainko-Semearen antza artu dagiela eskatzen dautse graziak.

Graziak dana Jaungoikoagana biurtzen dau, eta izateak beragana

23. Izatea, bearrian eta nekearen aurrean, berealaxe asten da erostaka. Graziak, barriz, bearriana gogo onez daroa.
24. Izateak dana beraganatu egiten dau, eta bere alde burrukan eta eztabaidan diardu. Graziak, ostera, gauza on guztien iturburu dan Jaungoikoagana biurtzen dau dana. Bere buruari ez dautso onik ezertxo be ezarten, ez da artoa edo aundiputza.
25. Graziak ez diardu eztabaidan, okerretara baiño; grazia bere eretxi ta erabagi guztietan betiko jakituriaren eta Jaungoikoaren epaiaren menpean jarten da.
26. Izateak ezkutukoak jakin eta barriak entzun gura dauz; besteen aurrean agertzea eta zentzunen bidez gauza asko arakatzea nai dau. Ezaguna izatea eta ospea ta gorapena irabazi daikoezan guztia egitea gura dau.
27. Graziak, barriz, ez dabil albista eta barrikeriak entzun gurarik, ardura guzti au antxiñako ustelkeriatik sortzen da-ta; lur-gaiñean, barriz, ez dago ezer barririk, ez iraunkorrik.

Grazia oso laua da

28. Graziak zentzunak batzen irakasten dau, arropuzkeriatik eta agiritik iges egiten, goragarri ta arrigarria dana apal-apalik ezkututzen, eta edozetan eta edozein jakintzan benetan egokia izan daitekena eta, batez be, Jaungoikoaren gorapena ta aintza billatzen irakasten dau.
29. Graziak bera ez bererik deadarka iragarterik ez dau gura, bestetara baiño: bere gurari bakarria bere doaietan Jaungoikoa goratua izan daitela gura dau.
30. Grazi au izatearen gaiñetik dagoan argia da, Jaungoikoaren aparteko doaia; benetan, aukeratuakoen ezaugarria da, betiko salbamenaren kutuna. Arexek jasoten dau arimea lurreko gaietatik zerukoak maite izatera, eta arexek biurtzen dau gizona aragi-zale izatetik espiritu-zale izatera.
31. Beraz, izatea geiago menperatu ta azpiratzen danean, gizonari grazi geiago isurten yako; bea egunean-egunean barruko gizona, ikustaldi barriai esker, Jaungoikoaren irudiaren eraz barriztu egiten da.

BERROGETA AMABOS GARREN ATALBURUA

Izatearen usteltasuna eta Jaungoikoaren grazi eragillea

- Arimeak.*— 1. Zeure irudi ta antzera egin nenduzun, ene Jainko Jaun orrek! Salbamenarako onen aundi ta bearrezkoa dala esan zenduan grazi au emon egidazu, pekatuetara ta ondամendira naroon nire izate gaizto au menperatu dagidan.
2. Izan be, pekatuaren legeak nire arimearen legearen aurka burrukan diarduala eta askotan aragiari men egitera lotuta naroola somatzen dot nire aragian. Nire biotzera biziro isuritako zure zeru-grazia lagun ez badot, aragiaren griñai ezin gogor egin daikoeot.
3. Zeure grazia —grazi oso eraginkorra— bear da benetan, gaziatarik gaitzakerira beti makurtuta dagoan izatea azpiratzeko.
4. Adan leenengo gizonaren erruz, gizona jausita eta pekatuaz gaiztotuta dagoan ezker, orban onen zigorra gizaseme guztiakana igaroten da; eta olan, zuk

ona ta zuzena egindako izateak berak / orain izate ustelaren gatxa ta makaltasuna dala dirudi.

5. Izan be, geratu yakon indar apurra, errauspean estaldutako txingartxoak lakoxea da.

Onartzen dot ona, baiña gaiztakeriak naroa

6. Txingartxo ori berezko ezaguera da, illunpe aundiak inguratuta daukena; baiña ezaguera orrek ona ta txarra epaitu eta egia ta guzurra banandu daikez oraindiño.

7. Alan be, ona deritzan guztia beteteko ez dauko indarririk, egiaren argi osoa be ez dau erabilten, bere zaletasunak be ez daukaz sendo.

8. Ortik datorkit, ene Jaungoikoa, barruko gizonari dagokionez, zure legean nik atsegin izatea; izan be, badakit zure aginduak onak, zuzenak eta santuak dirana eta pekatu ta gaiztakeri guztietatik iges egin bear dodana.

9. Alan be, aragiaz pekatuaren legearen morroi naz, adimenari baiño zentzunai geiago menperatzen nakie-ta.

10. Ortik dator nik ona gura izatea, baiña ez naz on ori beteteko gauza. Orregaitik, sarritan asmo onak artzen dodaz; baiña, nire makaltasunari lagun egiteko grazia falta yatan ezkerro, eragozpenik txikienaren aurrean atzeruntz egiten dot eta kikilduta geratzen naz.

11. Orrexegaitik be ezagutzen dot bikain izateko bidea, baita naikoa argiro ikusi be zelan jokatu bear dodan; baiña, nire usteltasunaren sortiaz makurtuta, ez naz egoera bikaiñagora igoteko gauza.

12. Bear-bearrezkoa yat benetan, Jauna, zure grazia, ona dana asi, onari jarraitu eta on ori ondo burutzeko! Bera bagarik ezin egin daiket ezertxo be; zugar, barriz, graziak indartuta, guztia aal daiket.

13. Grazi bagarik, Jauna, ezer be ez dabe balio zure aurrean edertiak, ez aberastasunak, ez edertasunak, ez sendotasunak, ez adimen zorrotzak, ez berba-etorriak.

14. Izan be, izatearen doaiak onentzat eta gaizto-entzat dira; grazia, barriz —edo bardin dana, maitasuna—, aukeratuen doia da, eta beronegaz betiko bizitzaren duin egiten dira.

Maitasuna dan bikaiña

15. Grazi au bagarik ez da ezertzat artu bear ez igarteko doia, ez arrigarriak egitekoa, ez ikusketarik gorengoena. Bikaiña da, benetan, grazi au!

16. Ez sinismena, ez itxaropena, ez beste onoinenak be ez yatzuz gogok^o maitasun eta grazi bagarik.

17. Zu bai grazi bikaiña! Zuk gogoz beartsu dana onoinenez aberastu, eta ondasunetan aberats dana biotzez apal biurtzen dozu! Zatoz, jatsi zaitez nigana, bete nagizu leenbaileen zeure pozez, nire arimea biotzaren neke ta legortasunez koldartu ez daiten.

18. Zure begien aurrean grazia aurkitu dagidala eskatzen dautsut, Jauna: izateak gura dauan guztia nik euki ezarren be, zure graziaz naikoa dot-eta. Atsekabe askok zirikatatu ta oiñazetu banagie be, zure grazia neugaz izan dagian artean ez dautset kalteai bildurrik izango.

19. Bera da nire indarra, berak emoten daustaz buru-bidea ta adorea. Arerio guztiak baiño indartsuagoa eta jakitun guztiak baiño jakitunagoa da.

20. Arek egia irakatsi, jakintza emon, biotza argitu, estualdian poztu, tristurea uxatu, bildurra kendu, oneraspena indartu eta negar eragiten dau. Grazi bagarik, ¿zer naz ni, egur igarra eta ezetarako ez dan mukurra baiño?

21. Zure grazia beti neure aurrean joan daitela, Jauna, eta berak lagun egin daistala, ona egiteko beti gertu egon naiten. Jesukristo zure Semearen bitartez. Amen.

**BERROGETA AMASEIGARREN
ATALBURUA**

**Geure burua ukatu eta, gurutzearen bidez,
Kristoren antza artu bear dogu**

Jaunak.— 1. Ene seme, zugandik urten zaitekezan aiñean etorri zaitekez nigana. Kanpoko gauzak gura ez izateak barruko bakea dakarrenez, zeure burua barruz ukatzeak be Jaungoikoagazko batasuna sortzen dau.

2. Zeure burua benetan ukatzen eta neure borondateari emoten ikasi dagizula nai dot, eta ori arren-kura ta ezezko bagarik.

3. Jarraitu egidazu. “Neu naz bidea, egia ta bizia” (Jn 14, 6). Bide bagarik ez da ibiltzen; egia bagarik ezin ezagutu daiteke ezer; bizitza bagarik ezin bizi daiteke. Neu naz jarraitu bear dautsazun bidea, sinistu bear dozun egia, itxaron bear dozun bizitza.

4. Neu naz bide ziarra, egia uts-eziña, bizitza amaibagea. Neu naz bidezidorrik zuzenena, egiarik gorengoena, benetako bizitza: bizitza zoriontsu ta sortubagea da-ta.

Bizitzan sartzeko, egintzak bear dira

5. “Bizitzan sartu nai badozu, bete egizuz aginduak” (Mt 19, 17). Egia ezagutu nai badozu, jarri neugan zure sinistea. “Bikaiña izan nai badozu, daukazun guztia saldu egizu” (Mt 19, 21). Neure ikasle izan gura badozu, ukatu egizu zeure burua.

6. Betiko bizitza zoriontsuaren jabe egin nai badozu, igundu egizu oraingo bizitza au. Zeruan goratua izatea gura badozu, beeratu egizu zeure burua emen lurrean. Nigaz batera errege izan gura badozu, eroan egizu gurutzeara neugaz batera.

7. Izan be, gurutzearen morroiak bakarrik aurkitzen dabe zorionerako eta egiazko argirako bidea.

Arimeak.— 8. Jesus Jauna, zure bizitza neketsua ta munduaren aurrean iguindua izan zan ezkerro, mundu au iguintzen zeure antzekoa izan naitela egizu. Izan be, “morroia ez da bere ugazaba baiño geiago, ezta ikaslea be bere irakaslea baiño geiago” (Mt 10, 24).

9. Zure morroi onek zeure bizikereari jarraitzen jardun dagiala, nire salbamena ta benetako santutasuna ortxe dago-ta. Ortik kanpo entzuten edo irakurten dodan ezek be ez nau guztiz pozten, ez atsegintzen.

Jaunak.— 10. Ene seme, gai guztiok ezagutu ta irakurri dozuzan ezkerro, eurok egiñez beteten badozuz bakarrik izango zara zorioneko. “Nire aginduak onartzen eta beteten dauzana da ni benetan maite nauana, eta neuk be maite izango dot alakoa, eta ni agertu egingo nakio” (Jn 14, 21), eta nire Aitaren erreñuan neure ondoan jarrerazoko dot.

Arimeak.— 11. Jesus Jauna, egin bedi esan eta agindu dozunez, nik ori merezi dagidan. Zeure eskutik artu dot gurutzeara; sorbalda-gaiñean zeuk jarri dautsazun zeure erango dot eriotzararte.

12. Benetan, erlejioso onaren bizitza gurutzeara da, baiña paradisura daroan gurutzeara. Asi dogu bidea; ez yaku bidezko atzeruntz egitea, ezta artu dogun bidezidorra bertan-beera iztea be.

13. Ea, ba, anaiok, goazan guztiok batera! Jesus geugaz izango da. Jesusegaitik artzen dogu gurutze au, gurutzeara be Jesusegaitik iraun dagigun. Geure bide-erakusle ta aurrelari dana / geure laguntzaille izango da.

14. Begira gure aurrean doan Erregea: geure alde egingo dau burrukan. Adoretsu jarraitu daiogun; ez dagiala bildur-ikereak iñor kikilduta itzi; guda-ketan adoretsu ilteko gertu egon gaitazan, eta ez dagigula gure dedua loitu gurutzetik iges egiñik.

**BERROGETA AMAZAZPIGARREN
ATALBURUA**

**Uts batzuetan jausten dana
ez da larregi kikildu bear**

Jaunak.— 1. Ene seme, zorionaldian poztasun aundia ta oneraspena baiño / zoritxaraldian eroapena ta apaltasuna atsegiñago dodaz.

2. Zure aurka ezerezerki bat esateak, ¿zegaitik samintzen zaitu? Astunagoa balitz be, ez zintzakez artegatu bear. Aaztu zaitez orretzaz; ez da gauza barria, eta, gaiñera, ez da leenengoaz ez azkena be, oraindiño luzaro bizi bear bazara.

3. Izan be, zure aurka ezer jazoten ez danean, oso adoretsua izaten zara. Besteai burubide onak emoten dautsezuz; berbaz adorea emoten be badakizu. Baiña zure atera bat-batean atsekabea badator, burubide ta indar bagarik geratzen zara. Begira zure makaltasun aundi ori;

5. zeu zara orren testigu sarritan abagune txikietan. Baiña orreik eta orrekin antzekoak jazoten yatzuzanean, zeure salbamenerako izaten dira.

*Pozik izan ezarren be,
nekeak eroapenez eroan*

5. Kendu egizuz zoritxarrok ondoen jakin dagizunez, zure biotza arindurik. Eta, zerbaitek zauritu bazaitu, ez dozu kikilduta geratu bear, ezta kezka-artean luzaro iraun be. Pozik ezin sufritu badaikezu be, eroapenez beintzat eroan egizu.

6. Gura ez dozun zerbaitek entzuten badozu eta orrek asarratuta izten bazaitu, ezi egizu asarre ori, eta errubageentzat jauspidea izan leiteken barbarik ez egizu zure agotik atara. Sortutako asarrea laster baretuko yatzu, eta barruko samiañi graziaren biurtzeaz gozotuko da.

7. Bizi naz oraindiño —diño Jaunak—, eta zure ustea neugan jarten badozu eta biotzez dei egiten badaustazu, zu lagundu eta bestetan baiño geiago pozteko gertu nago.

8. Izan adore geiago eta ezbear aundiagoak sufritzeko gertu egon zaitez. Sarritan atsekabetuta bazagoz edo tentaldiak astunkiro estutzen bazaitu, ez dago orregaitik dana galduta.

9. Gizona zara, eta ez Jaungoikoa; aragia zara, eta ez aingerua. ¿Zelan iraun aal izango dozu zuk onoimen-egoera berean, zeruan aingeruak eta paradisuaren leenengo gizonak ez eben iraupen ori izan-eta?

10. Neu naz zapalduen adorea jasoten dodana, eta euren makaltasuna ezagutzen dabenak neure Jaungoikotasuneran jasoten dodaz.

Arimeak.— 1. Jauna, bedeinkatua zure berbea, nire agoarentzat ezti ta ezti-orrizia baiño gozoagoa. ¿Zer egingo neuke nik, onenbeste atsekabe ta larrialdi-artean, zuk ni zeure berba santuakaz indartu ezik? Egunen baten ni salbamen-portura eltzekotan, ¿zer daust niri zer eta zenbat sufritu dodan?

13. Azken ona emon egidazu, Jauna; mundu onetatik urteera zoriontsua emon egidazu. Gomuta zaitez nitzaz, Jauna, eta zeure erreñura daroan bide zuzenean joaten lagun egidazu. Amen.



BERROGETA AMAZORTZIGARREN ATALBURUA

Goiko gaiak eta Jaungoikoaren erabagiak ez doguz arakatu bear

Jaunak.— 1. Ene seme, goiko gaiak eta Jaungoikoaren erabagi ezkutuak ez egizuz arakatu; urlia zegaitik izan dan alde batera itzia eta berendiak ainbeste grazi zegaitik daukan; ezta au onenbeste atsekabetua eta bestea ain gora jasoa zegaitik izan dan be.

2. Gai oncik giza-adimena baiño askozaz gorago dagoz, eta ezetarako be ez dabe Jaungoikoaren erabagiak arakatzeko balio.

3. Orregaitik, arerioak orrelako bururakizunak ekarri dagitzuzanean, edo gizonen batzuek gaiok aitatu dagiezanean, profetak esan ebanez erantzun egizu: “Zuzena zara, Jauna, eta zure erabagiak artezak dira” (Sal 119, 137).

4. Baita beste onegaz be: “Jaunaren erabagiak egiazkoak dira, eta berez zuzenak” (Sal 19, 10). Nire erabagiak bildur izan bear yake; nire erabagiak ez dira eztabaidaka erabilteko, giza-adimenak ezin ulertu daikez-ta.

5. Ez zaitez asi santuen merezimentuak arakatzan eta eztabaidatzen, areitariko nor izan daiteken santu-agoa edo zeruko erreñuan aundiagoa. Eztabaida oneik sarritan alperreko eztabaidak eta burrukak sortzen dabez.

6. Arrokeria ta arropuzkeria bizten dabez, eta oneik ikusi-eziñak eta asarreak sorrerazoten: batek santu bat aundiagoa dala diñoan artean, besteak bere begikoa gorago dagoala egiazten aalegintzen da-ta.

Santuen jokabidea

7. Gaiok jakin eta arakatu gura izateak ez dakar irabazirik, eta alako gaiak santuai oso iguingarri egiten yakez; izan be, ni ez naz Jaungoiko eztabaidalaria, baketsua baiño, eta bake au norberaren gorapenean baiño benetako apaltsasunean geiago dago.

8. Batzuek, maitasun-ardureak ariñegi eraginda, santu batzuekanako baiño beste batzuekanako zale-

tasun geiago dabe; baiña orretarako jaungoikozko zaletasunak baiño giza-zaletasunak geiago eragiten dautse. Neu naz santu guztien egillea, neuk emon neutsen grazia, neuk emon dautset aintza.

9. Ezagutzen dodaz bakotxaren merezimentuak. Nire gozotasunaren bedeinkapenez aurrea artu neutsen. Nik nire maiteak mendeak baiño leenagotik ezagutu nebazan; neuk aukeratu nebazan mundutik, eta ez areik ni. Graziaren bidez deitu eta errukiz erakarri nebazan; neu izan nintzan atsekabe askoren artetik igarozaz nebazana.

10. Neuk isuri neutsezan pozkari aundiak, neuk emon neutsen iraupena, eta neuk saritu neban gero arein eroapena. Zearo ezagutzen dot areitariko leenengoa ta azkenengoa, eta maitasun mamintsuaz laztantzen dodaz guztiak batera.

11. Nire santu guztiakan neu goratu eta izaki guztien gaiñetik eta areitariko bakotxagan neu aintzatu bear nabe, euren aurretiko merezimentu bagarik neuk goratu ta aukeratu dodaz-ta.

12. Onegaitik, nire txikienetariko bat gutxitzat artu dagianak, ez dau aundia be goratzen, aundia ta txikia neuk egin nebazan-eta. Eta santuetariko baten aintza gutxitu nai dagianak, neurea be gutxitu egiten dau, baita zeruko erreñuan dagozan enparaduen aintza be.

Santuen alkartasuna

13. Santu guztiak bat dira, batzen dauzan maitasun-korapilloari esker; guztiak daukez eretxi bardiañak eta borondate bardiaña, eta guztiak maite dabe alkar.

14. Eta geiago oraindiño: euren burua ta merezimentuak baiño maiteago nabe ni. Izan be, euren gaiñera jagi ta euren buruaganako maitakeriatik askatuta, neure maitasunean ondoratzen dira guztiz, eta ementxe atsedendu ta pozten dira ezin-esan alako atsegiñetan.

15. Nigandik kendu edo arein zoriona gutxitu aal dagitsenik ezer be ez dago: betiko argiz beterik, iñoiz be atzamatzen ez dan maitasunaren sugarretan dagoz-ta.

16. Isildu beitez, ba, zorionsuen egoerari buruz eztabaidan diarduen gizon aragikoi ta lizunak, euren atsegiñak maite izaten baiño ez dakie-ta; santuai

buruz, barriz, [bakotxa] eurak deritzenez kendu ta ipinten dabe, eta ez betiko Egiak atsegin dauanez.

17. Askok ez-jakiteagaitik jarduten dabe orrela: espiritu-gaiak buruz gutxi argituta, norbait jaungoikozko maitasun bikaiñez gutxitan maite izan dabenak batez be.

18. Onelakook berezko zaletasunak eta giza-adiskidetasunak daroetz, eta orrela santu batzukana baiño beste batzukana geiago makurtzen dira, zeruko gaietan lurtekoetan lez jazoten dala ueste izanik.

19. Baiña alde aundia be aundia dago gizon akastun oneik pentsatzen daben artean eta jaungoikozko agerpenaz argitutako gizon espiritu-zaleak ikusten dabenaren artean. Arakatu bearrean, santuen antzera jokatu bear dogu.

20. Begira, ba, ene seme: ez zaitez ibili zure jakituria- ren gaiñetiko gaiak jakin gurarik; zeruko erreñuan, besterik ezean, azkenengo lekua lortzeko aalegiñak egizuz, ostera.

21. Baiña norbaitek santuagoa nor dan edo zeruko erreñuan aundiagoa nor dan baleki be, ¿zetarako litzakio ori jakitea, ezaguera orren bidez nire aurean bere burua beeratu eta nire izen santua geiago ta obeto goratuko ez baleu?

22. Santuen artean aundiagoa ala txikiagoa nor dan jakiteko eztabaidan diarduana baiño norbere pekatuen astuntasuna ta onoimen gutxi daukala, eta oraindiño santuen bikaintasunetik urrin dagoala pentsatzen dauana atsegiñago dau Jaungoikoak.

23. Santuen egoerearen ezkutuak alperreko jakin-guraz arakatzeta baiño obe da eurai otoitz sutsuz eta negarrez erregutzea eta euren bitartekotasun aaltsua biotz apalez eskatzea.

24. Izan be, areik, santuak, pozago ta aseago dagoz, gizonak eurak daukenaz naikoa izaten eta barrikeriak eziten jakin ezkeru.

25. Santuak ez dira euren merezimentuakaitik arrotzen, euren buruari onik bat be ez dautsoe ezarten-eta, guztia neuri baiño. Izan be, dauken guztia neuk emon neutsen nire maitasun neurribageaz.

Santuen zorion bete

26. Santuak Jaungoikoaganako maitasunez beterik

dagoz eta gaitzeka dauke zoriona; aintzaren uts apurrik be ez dauke, eta euren zoriona bete-betea izateko ezertxoren bearrizanik be ezin euki daikée.

27. Santuak euren aintzan goragoak izan / eta apalagoak dira eurentzat eta nigandik urrago dagoz, eta nik geiago maite dodaz.

28. Orregaitik, auxe dago idatzita: "euren koroeak Jaungoikoaren oiñetara jaurtiten ebezala, eta Bildotsaren aurrean auspazten zirala, eta mendez-mende bizi dan A gurtzen ebela" (Ag 4, 10, eta 5, 14).

29. Jaungoikoaren erreñuan aundiena nor dan itauntzen dabe askok, eurak txikiñen artean sartzeko duin izango ete-diran ez dakiela.

30. Aundia da zeruan txikiñena izatea be; an guztiak dira aundiak, eta an guztiak Jaungoikoaren seme esango dautsee eta izan be izango dira. Areitariko txikiñak millak aiña balio izango dau eta eun urteko pekataria ondatu egingo da.

Zeruko erreñuan aundiena

31. Ikasleak, ain zuzen be, Jaungoikoaren erreñuan nagusiena nor izango zan itandu ebenean, erantzun au emon yaken: "Zuen jokabidea aldatzen ez badozue eta umeak lakoak biurtzen ez bazaree, ez zaree Jaungoikoaren erreñuan sartuko.

32. Orregaitik, bere burua beeratzen dauana eta ume au lez biurtzeko gauza dana, axe da nagusiena Jaungoikoaren erreñuan" (Mt 18, 3 ta 4).

33. Errukariak, euren burua ume egin arte gogoz beeratzen ez dabenak!: zeruko erreñuko ate apal eta estuak ez dautse sartzen itziko-ta.

34. Errukariak, euren atsegiñak emen daukezanak!: beartsuak Jaungoikoaren erreñuan sartu daitezanean, areik kanpoan negar baten geratuko dira-ta.

35. Poztu zaitze, apalok, eta alaitu zaitze, beartsuok!: egiaren bidean bazoaze, Jaungoikoaren erreñua zeuena da-ta.



BERROGETA EMERETZIGARREN ATALBURUA

Gure uste ta itxaropen osoa Jaungoikoagan bakarrik jarri bear doguz

Arimeak— 1. Jauna, ¿zein da nire ustea bizitza onetan?, edo-ta, zerupean diranetarik, ¿zein da nire pokaririk aundiena? ¿Ez ete-zara zeu, errukia negurri bagarik daukazun neure Jaun eta Jainko ori?

2. Eta bestela, ¿non izan dot onik zeu bagarik? Edo-ta, ¿noiz aal izan dot okerrik zu aurrean izanik? Zure maitasun bagarik aberats izatea baiño zure maitasunagaitik beartsu izatea naiago dot.

3. Zu bagarik zeruaren jabe izatea baiño lurrean zugaz erbesteratuta irautea naiago dot. Zu non, antxe zerua, eta zu ez zagozan tokian, antxe dagoz inpernua ta eriotza.

4. Zeugana doa nire gurari guztia, Jauna; eta onegaitik, zuri otoitz, antzi ta eskari egiteko bearrizana dot, beti zeure atzean joanik.

5. Azkenez, nire bearrizanetan laguntza eraginkorra lortzeko, ezin jarri daiket iñogan be ustea osorik. Zeugan bakarrik, ene Jaungoiko orregan. Zeu zara nire itxaropena ta ustea; zeu nire pozkille ta adiskiderik zintzoena bizitzako gora-beera guztietan.

Jauna da benetako maitatzaille bakarra

6. Guztiak euren irabazia billatzen dabe. Zuk, barriz, neure aurrerakuntza ta salbamina baiño ez dozu barri, eta gauza guztiak neure onerako biurtzen dozuz.

7. Batzuetan tentaldi ta nekaldietan izten nozunarren be, guzti ori neure onerako zuzentzen dozu: zure aukeratuak era askotara aztertzen dozuz-ta. Azterketa orreitan, zeruko pozkariz beteko banenduzu lez maite izan eta goratu bear zaitut.

8. Zeugan, ba, Jainko Jaun orregan, jarten dot nire itxaropen osoa eta igeslekua. Zeure eskuetan izten dodaz nire atsekabe ta larritasun guztiak: zugandik kanpo dakusdan guztia auskorra ta aldakorra da-ta.

9. Adiskide asko eukiarren be ez dauste onik egin aal izango, ezta laguntzaille aaltsuak be lagun egin, ezta

izango, ezta laguntzaille aaltsuak be lagun egin, ezta onulari zuurrak be erantzun zuzenik emon, ezta jakintsuen liburuak be ez nabe poztu aal izango.

10. Dirutza aundiak be ez nau askatu aal izango, ezta leku ezkutuak be gordelekurik emon, zeuk jagon, lagundu, indartu, poztu, irakatsi ta zaintzen ez banozu.

Jaunanren azken-bedeinkapena bere morroiari

11. Izan be, bakea ta zoriona eukiteko dirudien gauzak ez dira ezer eta zorion apurrik be ezin emon daikegue, zu aurrean ez bazagoz.

12. Zeu zara, ba, ondasun guztien elburua, bizitza guztien betetasuna, irakatsi guztien iturri agortueziña; eta, gauza guztien gaitetik, itxaropena zeugan jarrea / zure morroientzat pozkaririk aundiena da.

13. Zeugana, Jauna, jasoten dodaz nire begiak: zeugan jarten dot nire ustea, errukien Aita. Bedeinkatu ta santutu egizu nire arimea zeruko bedeinkapenez, zeure bizitoki santu biurtu eta zure betiko aintzaren aulkiaren duin izan daiten; eta Errege orren begiak iraintzekorik ezer be ez daitela izan jauretze onetan.

14. Begiratu nagizu zure ontasun aundiari ta zure erruki ugariak dagokienez, eta entzun egizu eriotzgerizpeen lurraldean erbesteratuta dagoan zure morroi gizagaiso onen otoitza.

15. Zaindu ta iraunerazo egizu zure morroi onen arimea bizitza ustelkor onetako onenbeste arriskuren erdian; lagun egiozu zeure graziaz eta zuzendu egizu bake-bidean zear betiko argiaren aberrira. Amen.

LAUGARREN LIBURUA

ALTARAKO SAKRAMENTUA

Eukaristi santua artzeko dei eraspentsua

Jesukristoren berbotsa

1. "Zatoze neugana, nekatuta eta sortaz makurtuta zagozen guztiok, eta nik atsedena emongo dautsuet", diño Jaunak (Mt 11, 28).
2. "Nik emongo dodan ogia, neure aragia da munduaren bizirako" (Jn 6, 52).
3. "Artu ta jan egizue: au, neure gorputza da, zeuen alde emongo dana; au neure gomutaz egizue" (Mt 26, 26, eta Kor 1^a, 11, 24).
4. "Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauana, neugan bizi da eta ni aregan" (Jn 6, 56).
5. "Nik esan dautsuedazan berbak, espiritu ta bizia dira" (Jn 6, 63).

LEENENGO ATALBURUA

Jesukristo begirune aundiz artu bear dogu

Ikaslearen berbotsa

1. Berba oneik zeureak dira, ene Kristo, betiko Egia, aldi berean esanak eta toki berean idatziak ez badira be.
2. Eta, zeureak eta egiazkoak diran ezkerro, guztiak eskerronez eta sinismen beroz onartu bear dodaz.
3. Zeureak dira eta zeuk esan zenduzan; baiña neureak be badira, neure salbamenerako esan zenduzan-eta. Gogo onez artzen dodaz zure agotik, nire biotzaren barru-barruan idatzita geratu daitezcan.
4. Orrenbesteko berba samurrak, gozotasun eta maitasunez beteak, adoretu egiten nabe; baiña nire pekatuak bildur-ikaraz jarten nabe, eta orrelako misterio aundiak artzetik, nire barru loiak atzeratu egiten nau.
5. Alde batetik, zure berba ezitsuak dei egiten dauste; bestetik, nire gaizakeriak estutu egiten nabe. Zugaz batera eskuartu nai badot, zugana uste osoz

urreratu naitela agintzen daustazu, eta, betiko bizitza ta aintza jadetsi gura badodaz, janari illezkorra artu dagidala.

6. "Zatoze neugana, nekatuta eta sortaz makurtuta zagozen guztiok, eta nik atsedena emongo dautsuet", diñozu zuk (Mt 11, 28).
7. Gozoak eta maitasunez beteak berba orreik, benetan, pekatariaren belarrietan! Berba orrein bidez, zuk, ene Jaun eta Jainko orrek, beartsu ta ez-eukiari zeure gorputz guttiz santua jatera egiten dautsazu dei.
8. Baiña, ¿nor naz ni, Jauna, zugana urreratzeko aurpegia eukiteko? Zeru zabalak ezin zaitu artu, eta "Zatoze guztiok neugana" doñozu zuk.
9. ¿Zer esan gura dau onberatasun guttiz samur orrek, dei adiskidetsu orrek? ¿Zelan azartuko naz zugana joaten, nire ustea jarteko nigan ezer onik ez badakust?
10. ¿Zelan sartuko zaitut nire bizitokian, zure aurpegi guttiz bigun ori onenbestetan iraindu dodan ezkerro? Aingeruak eta goiaingeruak dardaraka dagoz, santuak eta zintzoak bildur dira, eta "Zatoze guztiok neugana" diñozu zuk.
11. Ori diñoana zeu ez bazintzaz, Jauna, ¿nok sinistuko leuke? Eta ori agintzen dauana zeu ez bazintzaz, ¿nor azartuko litzake zugana urreratzen?

Noe-k, Moises-ek eta Salomon-ek Jaunari eutsoen begirunea

12. Noe-k, gizon zintzoak, kutxa egiten eun urte egin ebazan, bertan persona gutxigaz batera bere bizia salbatzeko. Eta ni, ordu baten barruan bakarrik, ¿zelan gertatu aal izango naz mundua egin ebana begirunez artzeko?
13. Moises-ek, zure morroi aundi ta adiskide mamintsuak, zul usteldu-eziñezko kutxa bat egin eta gero urre utsez estaldu eban, an legeko Olak jarteko. Eta ni, izaki loi au, zu, legearen egille ta bizi-emoille ori, onen erraz artzen azartuko nakizu (*naiatzu*)?
14. Salomon-ek, Israel-ek izan eban erregerik jakintsuenak, zazpi urtetan jauretze oso ederra jaso eban zure izenaren aintzarako, eta Eskintza-jaiak zortzi egunez ospatu ebazan; milla bake-opari eskiñi ebazan eta Alkartasun-Kutxa beronentzat atonduta

egoan tokian jarri eban, turuta-otsez eta oi-ez lako pozez.

15. Eta nik, errukarri ta gizonetarik beartsuen onek, zure aurrean oneraspenez ordu erdi bat ozta-ozta egiten dodan onek, *¿zelan artuko zaitut nire etxean?* Eta ordu erdi be inoiz ondo egingo al dot!

16. Ene Jaungoikoa, areik bai egin ebezala aalegiñak zuri atsegin izateko! Gutxi da, benetan, nik egiten dodana! Laburra, benetan, jaunartzeko gertatzen egiten dodan aldial! Gutxitan egoten naz oso batuta nire barruan eta gutxiagotan oarkabetzetatik askatuta.

17. Zure Jaungoikozko aurpegi salbatzaillearen aurrean ez litzakit bururakizun ez-egokirik etorri bear, lurreko izakik be ez nenduke arazotu bear; izan be, nire etxean ez dot aingeruren bat artu bear, aingeruen Jauna bera baiño.

18. Onetzaz gaiñera, Alkartasun-Kutxa ta onen barukoen eta zure Gorputz guztiz garbi ta beroni dagokiozan onoiemen ezin-esan alakoen artean alde aundia be aundia dago; eta gerokoen iruditat jarritako lege-oparien eta antxiñako opari guztien betetasuna dan zure Gorputzaren benetako opariaren artean be alde aundia be aundia dago.

19. *¿Zegaitik ez naz geiago iziotzen, ba, zure aurpegi gurgariaren aurrean?* Antxiñako erri-guraso eta profeta santuak, erregeak eta nagusiak, erri guztiagaz batera Jaungoikoa gurtzen ainbeste ardura ta oneraspen agertu eben ezkerro, *¿zegaitik ez naz gertatzen ardura aundiagoz zu Sakramentuan artzeko?*

Dabid-en garra Kutxearen aurrean

20. Dabid errege jainkozale aundiak, bere asabai antxiña egindako mesedeak gogoratutik, Jaungoikoaren Kutxa-aurrean indar guztiaz dantzan egin eban.

21. Askotariko ereskiñak egin ebazan, eta, salmuak berak eraturik, alaitasunez abestu egiezala agindu eban, eta, Espiritu Santuaren graziak eraginda, berak be sarritan abestu ebazan, zitaraz lagunduta; eta Jaungoikoa biotz-biotzez goratzen eta egun oro ago batez bedcinkatzen eta ospatzen irakatsi eutsan Israel-erriari.

22. Orduan ainbeste oneraspen egoan ezkerro, eta Alkartasun-Kutxearen Jaungoikoa goratzeko ain-

besteko ardurea eben ezkerro,

23. *¿zelako begirunea ta oneraspena izan bear ete-* dodaz nik, baita kristau-erri guztiak be, Sakramentuan aurrean eta Kristoren Gorputz guztiz santua artzean?

Santu-Santua geyre artean dago

24. Asko dira, santuen gorpuzkiñak ikustearren, santutegi batzuetara erromes joaten diranak; eta, santuen eginza miragarriak entzunda, arrituta gertatzen dira; arein elizetako arrigintzaren aurrean mirarituta geratzen dira, eta zedazko ta urrezko oialez batuta dagozan azur santuai mun egiten dautsee.

25. Eta ona emen zu, Jauna, berton, altaran, neure ondoan, ene Jaungoiko ori, Santurik santuena, gizonen Egille ta aingeruen Jaun ori!

26. Inoiz ikusi ez dabezan gauzak ezagutzearen eta jakingureak eraginda egiten dabez sarritan gizonak ikustaldiok. Orregaitik, ez dabe onbierako asmo aundirik ataraten, batez be batera ta bestera arinkeriaz eta benetako damu bagarik ibiltzen diranean.

32. Emen, barriz, altarako Sakramentuan, aurrean zagoz, ene Jaungoiko ori, Jaungoiko ta gizon osoorik zareala, Jesukristo; eta zu bear dan aiñako gertakizun eta oneraspenaz artzen zaituan edonok, betiko salbamenaren fruturik ugari irabazten dau.

28. Eta Sakramentu onetara ez gakaz arinkeriak, ez jakin-zalekeriak, ez lizunkeriak, sinismen sendoak, itxaropen eraspentsuak eta maitasun garbiak baiño.

Jaungoikoaren gunganako samurtasuna

29. Ene Jaungoikoa, munduaren Egille ikusi-eziña, zuk bai egiten dozuzala arrigarriak gungan! Zu bai zareala maitatsua zure aukeratuentzat! Arcik mesede utsez erabilten dozuz, eta, Sakramentuan artu zagiengan, zeure Gorputza eskintzen dautsezu.

30. Au, benetan, giza-adimen guztien gaiñetik dago; auxe da Jainkozaleen biotzak erakarten dauzana eta arekan zeure maitasunaganako sua iziotzen dauana.

31. Izan be, euren bizitza osoa ontzen diarduen zure jarraitzaille zintzoak, Sakramentu guztiz guren onetatik onoiemen-maitasuna ta oneraspen-graziak ugari

be ugari artzen dabez.

32. Arrigarria ta ostendua da, benetan, Kristoren zintzoak baiño ezagutzen ez daben Sakramentuan onen grazia! Sinisbageak eta pekatuaren menpean dagozanak, barriz, ezela be ezin miaztu daikee.

33. Sakramentu onetan espiritu-grazia emoten da, galdutako onoiemen arimeak barriro artzen dau, eta pekatuak loitutako edertasuna barriro sortzen da.

34. Batzuetan, grazi onek, indartsua be indartsua izanik, oneraspen aundia sortzen dau, eta arimeak bakarrik ez, baita gorputz makalak be indar aundiagoak artu dauzala somatzen dau.

Gizonaren erantzun epela

35. Baiña tamalgarria ta negargarria da gure epelkeria ta nagikeria, gungan Kristo artzeko gurari aundiagoak somatzen ez doguzalako, salbatuko diranen itxaropen guztia ta merezimentua Bera da-ta.

36. Izan be, Bera da gure santukuntza ta erospena, Bera lurrean erromes doazanen pozkaria eta santuen betiko atsegiña.

37. Orregaitik, oso negargarria da zerua poztu eta mundu osoa iraunerazoten dauan misterio osasungarri oni askok jaramon gutxi egitea.

38. Aundia, benetan, giza-biotzaren itsukeria ta gogorkeria! Izan be, arek olako doai gurenari ez dautso bear danez jaramonik egiten, eta, doai ori egun oro artuaz-artuaz, aaztu egin da aretzaz.

39. Izan be, Sakramentu guztiz santu au lurreko toki bate(ta)n bakarrik ospatuko balitz eta mundu guztian abade batek baiño sagaratuko ez baleu, *¿zelako gurariak ez litzakez joango gizonak toki aretara ta Jaungoikoaren abade aregana, jaungoikozko misterioak ospatzen ikusteko?*

40. Baiña ez da orrela. Izan be, orain abade asko dira, eta toki askotan da Kristo; eta ori, Jaunartze santua mundu guztian zabaltzen dan negurriz, gizonak-nako Jaungoikoaren grazia ta maitasuna ugariago agertu daitezcan.

41. Eskerrak zeuri, Jesus on eta betiko artzain orri, gu, beartsu ta erbesterauok, zeure Gorputz eta Odol bikaiñaz janaritzeko errukiorra izan zarealako, eta zure agotik urtendako berbaz misteriook artzera dei egin dauskuzulako: "Zatoze neugana, nekatuta eta

sortaz makurtuta zagozen guztiok, eta nik atsedena emongo dautsuet" (Mt 11, 38).

BIGARREN ATALBURUA

**Sakramentu onetan gizonari
Jaungoikoaren ontasun eta maitasun
guztiz aundia agertzen yakoz**

Ikaslearen berbotsa

1. Jauna, nire ustea zeure ontasun eta erruki azkenbanean jarririk, ni, geisorik, Salbatzailleagana nator; gose-egarri nazala, bizitzako iturrira; beartsu, zeruko Erregeagana; morroi, neure Jaun eta Jabeagana; izaki, neure Egilleagana; atsekabetuta, neure Pozkilleagana.

2. Baiña, *¿nondik datorkit niri onenbeste zorion, zu neugana etorri zaitezcan, Jauna? ¿Nor naz ni, zu neuri emon zakidazan? ¿Zelan azartzen da pekataria zeure aurrean aurkezten, eta zelan onartzen dozu zu pekatariagana etortea?*

3. Ezagutzen dozu zuk pekataria, eta zuk ari mesede au egiteko arek ezer onik ez daukana ondotxo dakizu. Autortzen dot, ba, nire zatarkeria, ezagutzen dot zure ontasuna, goratzen dot zure errukia, eta zure maitasun larregiagaitik eskerrak damotsudaz.

4. Izan be, au zeu zareana zerealako egiten dozu, ez nire merezimentuakaitik, onetara zure ontasuna eza-gunago eta zure maitasuna ugariago isuri dakidan, eta ni benetako apaltasunari bikaiñago lotu nakiñon.

5. Zuk au onela atsegin izan eta onela egitea agindu zenduan ezkerro, neuk be atsegin dot ori zuri gogoko izatea; nire gaitzakeriak ez al dau ori galerazoko!

6. Ene Jesus guztiz eztitsu ta biotz bigun ori!, begirunea, eskerrona ta gorapen azkenbageak zor yatzuz, bere aunditasuna iñok azaldu ezin daiken zure Gorputz santua artzeagaitik.

7. Baiña, *¿zer pentsatuko dot Jaunartze onetan neure Jaunagana urreratzean, Berau oneraspenik gartsunenaz artu gura dodanarren be, Berak merezi dauanez ezin gurtu daikedan ezkerro?*

8. Nire barrua zure aurrean guztiz beeratu eta nigana zure ontasun neurribagea goratzea baiño *¿zer obe ta ongariagorik?*

9. Nik goratu egiten zaitut, ene Jaungoiko ori, eta zu beti goratua izan zaitezala gura dot. Iguindu egiten dot nire burua eta nire zatarkeriaren sakon-sakonean menperatzen nakizu (*naiatzu*). Jaunik Jaunena zara zu, eta ni zaborreria ta pekatarietarik ziztrifena.

10. Zu neuganuntz makurtzen zara, zugana begiak jasoteko duin ez nazan onegana. Zu neugana zatoz, zuk neugaz egon nai dozu eta zeure maira egiten daustazu dei.

11. Zuk niri zeruko janaria ta aingeruen ogia eskintzen daustazuz, nik jan dagidan; eta ogi ori zeu zara, zerutik jatsitako ogi bizia eta munduari bizia emoten daustazuna.

Jaungoikoaren asmo barrendu-eziñak misterio au eratzean

12. Aundiak, benetan, zure maitasuna ta onberatasuna! Amaibagako eskerrak eta gorapenak zor yatzuz zure ontasun miragarriokaitik!

13. Osasungarria ta onuragarria benetan zure asmoa, zuk misterio au sortzean! Bai dala gozoa ta ezitsua, janarizat zeure Gorputza emoten dozuna! Arrigarririk dira zure egintzak, Jauna, aaltsua zure indarra, ezin-esan alakoa zure egia!

14. Izan be, zuk berba egin eta gauza guztiak egin ziran, eta agindu zenduan dana egin zan.

15. Arrigarria, sinisgarria eta giza-adimenak ezin ulertu daikena da zu, nire Jainko Jaun ori, benetako Jaungoiko ta gizon izanik, ogi ta ardao itxurapean egotea, eta artzen zaituanak, zure Jaungoikotasunari kalterik egin bagarik, zu jatea.

16. Zuk, gauza guztien Jauna zarean eta ezeren bearrizanik ez dozun orrek, geure artean nai izan zenduan bizi.

17. Nire biotza ta gorputza orban bagarik iraunerazo egizu, barru garbi ta arima alaiatz zure misterioak sarritan ospatu eta neure betiko salbamenerako artu aal dagidazan, batez be zeure gorapenerako eta bide batez zeure maitasunaren betiko gomutagarritzat sortu ta sagaratu zenduzan-eta.

Opari salbagarriaren aberastasuna

18. Poztu zaitez, ene arima ori, eta eskerrak emon

egiozuz Jaungoikoari, negar-erri onetan onelako doai bikaiña ta berebiziko atsegiña itzi yatzulako.

19. Izan be, misterio au ospatu eta Kristoren Gorputza artzen dozun bakotxean, zeure erospenaren egintza egiten da eta Kristok gordeten dauzan merezimentu guztien parteartzaile egiten zara.

20. Izan be, Kristoren maitasuna iñoiz be ez da gutxitzen, eta Aren erruki aundia iñoiz be ez da agortzen.

21. Orregaitik, arrigarriok artzeko, zure burua beti gogo barriaz atondu eta gu salbatzen gaituan misterio au ardura aundiz erabili bear dozu buruan.

22. Mezako opari santua emon naiz entzuten dozunean, egun aretan Kristo, Andra Mari garbiaren sabelera leenengo aldiz jatsirik, an gizon egin bailitzan, edo gurutzetik eskegita, gizonen betiko salbamenerako nekeak eroanik, il zan eguna bailitzan, misterio ori aundia, barria ta atsegingarria dala sinistu egizu.

IRUGARREN ATALBURUA

Onuragarria da Jauna sarritan artzea

Ikaslearen abotsa

1. Zeugana nator, Jauna, zure doaietan eskuartu dagidan eta zuk, Jaungoiko orrek, zure ontasunez beartsuai atondu zeutsen zeure mai santuan poztu naiten.

2. Zeugan dago nik gura daikedan eta bear dodan guztia; zeu zara nire salbamena ta erospena, nire itxaropena ta sendotasuna, nire dedua ta aintza. "Poztu egizu, ba, gaur, zure morroi onen arimea, nire arimea zeugana, Jesus Jauna, jasoten dot-eta" (Sal 86, 4).

3. Orain, oneraspen eta begirune aundiz artu gura zaitut, zu neure etxean artzeko gogoz nago, Zakeo-k lez zeure bedeinkapena artzea merezi dagidan eta Abraham-en semeen artean artu nagizun.

4. Nire arimeak zeure gorputza gogo beroz artzea, eta nire biotzak zugaz bat egitea gura dau. Emon zakidaz niri, Jauna, eta naikoa dot: zeu bagarik, nire arimea guztiz ase dagian pozkaririk ez dago-ta.

5. Zeu bagarik ezin egon naiteke; zure ikustaldi

bagarik ezin bizi izan naiteke. Orregaitik, bear-beartzezko yat zugana sarritan urreratzea eta nire salbamenaren osagarritzat zeu artzea: niri zeruko janari au kentzean, bidean ondezik jarri ez naiten.

6. Zuk, Jesus guztiz biozpera orrek, errietan zear irakasten eta edozetariko geiso ta gaitz guztiak osatzen ziarduala, bein auxe esan zenduan: "Ez dodaz baraurik bialdu nai, bidean ondezik jarri ez daitezcan" (Mt 15, 32).

7. Egizu, ba, orain beste orrenbeste nitzaz, zure adiskide maitatsuen pozkari izateko geratu zintzazan Eukaristian-eta. Izan be, zeu zara arimearen janari gozoa; eta, zu bear danez artu zagizanak, zeure aintzaren oiñordetzako parteartzaile izango da betiko.

8. Onen sarritan larrapast egiñik, pekatutan jausten nazan onek, eta onen erraz nekatuta eta makalik geratzen nazan onek, sarritan otoitz eta autortza egiñik eta zure Gorputz guztiz santua arturik, bearrezko yat neure burua barriztea, garbitzea ta iziotzea: jaunartu bagarik luzaro egotean, zure asmo santuak aaztuta itzi ez dagidazan.

Jaunartzea, pekatuaren aurkako osagarri

9. Giza-biotzaren gurariak gaztetarik gaiztakerira makurtuta dagoz, eta, zeruko osagarria lagun ez badatorkio, gizona geroago ta txarragoetara doa. Eta Jaunartze santuak gizona gaiztakeritik aldendu eta onbidean sendotu egiten dau.

10. Izan be, orain jaunartu edo Mezea emonarren, onen nagi ta epela banaz, ¿zer izango litzake osagarri ori artu ez eta laguntza ori billatuko ez banau?

11. Orregaitik, egun oro Mezea ezin emon aal badagit edo orretarako aiña gertatuta egon ez banadi be, aldi egokian misterio santuak artzeko aalegiñak egingo dodaz, baita ain grazi aundiaren parteartzaile egiteko be!

12. Izan be, arima zintzoaren pozkaririk aundiena ta bakarra, gorputz ilkorrean zugandik bizi dan artean, auxe da: bere Jaungoikoa sarritan goratu eta bere Maitea biotz eraspentsuz artzea.

Esker-emote gartsua

13. Bai dala arrigarria gubanako zure ontasunaren

isurtea! Zuk, ene Jainko Jauna, ezpiritu guztien Egille ta bizi-emoille orrek, arima gaisoagana etorri eta onen gosea zeure Jaungoikotasun eta gizatasun osoaz asetea!

14. Espiritu zorionsua ta arima zorionekoa, bere Jainko Jauna eraspenez artzea eta orrela zeruko pozez asetea merezi dauana!

15. Benetan, Jaun aundia artzen dau; kanpotar maitagarria ekarten dau bere barrura; lagun mamintsua onartzen dau; adiskide zintzoa aukeratzen dau; maitatzaille ederra ta aundikia laztantzen dau, maite ta gura daitekenik maitagarriena!

16. Zure aurrean, nire arimearen Maite guztiz gozo ori, isilik begoz zeru-lurrak eta euron apaintasun guztia; izan be, areik goragarritzat eta edergarritzat daben edozer zeure esku zabaletik artu dabe, eta amaibagako jakituria dauan zure izenaren aintzaraiño iñoiz be ez dira eldu aal izango.

LAUGARREN ATALBURUA

Jauna oneraspenez artzen dabenai grazia ugari emoten yake

Ikaslearen berbotsa

1. Ene Jaun eta Jainkoa! Atondu egizu zure morroi au zeure bedeinkapen gozoz, zure Sakramentu gurgarrira bear danez eta oneraspenez urreratzea merezi dagidan.

2. Biztu nire biotzean zure maitasun-garra; astindu nire lozorro astun au. Zatoz ni ikustera zure grazi osasungarriaz, iturrian lez Sakramentu onetan osozorik gordeta dagoan zure gozotasuna nire espirituak nasai-nasai miaztu aal dagian.

3. Argitu neure begiak be, onenbesteko misterioa begiratzeko, eta sendotu nire sinismena, misterio au biotz-biotzez sinistu dagidan.

4. Zeuk egiña da, Jauna, eta ez giza-aalitzatek. Zeuk eratua, eta ez gizonen asmatua. Aingeruen adimen zoliaren gaiñetik dagoan au ez da iñor ulertzeko ta arakatzeko gauza.

5. Eta nik, pekatari doillor, auts eta errauts nazan onek, ¿zelan arakatu ta ulertu aal izango dot onelako ezkutu santu ta guren au?

6. Jauna, biotz lauaz eta siniste sendo ta benetakoaz eta zeure aginduz, zeugana urreratzen naz begirunez beterik eta uste onez, eta biotz-biotzez sinisten dot zu ementxe zagozana Jaungoiko ta gizon lez.

7. Zeu artu zagidazala eta maitasun-lokarriz zeugaz bat egin naitela nai dozu, Jauna. Orregaitik, zeure errukiari eskatzen dautsat eta aparteko grazi au eskatzen dautsut: zure maitasunaren su-garretan urtu ta ezcreztu naitela, aurrerantzean beste pozkari guztiak alde batera itzirik.

8. Izan be, Sakramentu bikain eta gurgarri au gorputz-arimen osasuna eta espirituaren gaitz guztien osagarria da. Emen, nire oitura txarrak osatu, griñak ezi, tentaldiak azpiratu edo gutxiagotu egiten dira; ariman grazi eragilleagoa isuri, onoimena geitu, sinismena sendotu, itxaropena indartu eta maitasuna sutu ta zabaldu egiten da.

9. Izan be, ondasun asko be asko emon eta gotu egiten dira; ariman grazi eragilleagoa isuri, onoimena geitu, sinismena sendotu, itxaropena indartu eta maitasuna sutu ta zabaldu egiten da.

9. Izan be, ondasun asko be asko emon eta emoten dautsezuz beti zure Sakramentu onetan zu oneraspen aundiz artzen zaituenai. Ene Jaungoikoa, nire ari-mearen eusgarri, giza-makaltasunaren barrizaille eta barruko pozkari guztien emoilie ori!

10. Askotariko atsekabeen aurka pozkari aundia isurten dautsezuz, eta euren ezerez sakonetik zeure laguntzaren itxaropen alaitsura jaso dozuz eta euren barrua poztu ta argitzen dauan grazi barria emoten dautsezuz.

11. Eta onela, Jaunartze aurretik larri ta oneraspen bagarik egozanak, gero zeruko jan-edari onegaz sendotuta, bizikera obero aldatuta somatzen dabe euren burua.

12. Onelako ezkuzabala zara zure aukeratuentzat. Eta eurenez makal-makalak dirala eta artzen dabezan onoimena ta grazia zugandik utsean (*doan*) datozala ikusi ta ezagutu dagien egiten dozu ori.

13. Izan be, eurenez otzak, gogorrak eta oneraspen bageak izanik, zugandik sutsuak, alaiak eta oneraspen-sutsuak izateko grazia artzen dabe.

14. Izan be, samurtasun-iturrira apalik urreratu ezkerro, ¿nor ez da andik ezti apur bataz urtengo? Edo-ta, su aundi baten ondoan egon ezkerro, ¿nor ez

da zerbait berotuko?

Kristok jaungoikozko bizitza emoten dau

15. Zu beti iturri bete ta gaiñezka dagoana zara, beti garrez dagoan sua, ifioiz be atzamatzen ez dan sua.

16. Orregaitik, iturritik ura ugari artzen eta ase arte edaten izten badauste be, nire egarria aseta geratu daiten, nire ezpanak zeruko iturburu orretara urreratuko dodaz, besterik ezean ango ur-tantaxo bat artu dagidan, eta, alan, legortuta geratu ez naiten.

17. Eta arteetan be guztiz zerukoa eta kerubiñak eta serapiñak lako sutsua ezin izan banaiteke, neure oneraspena biztuten eta nire arimea gertatzen jardungo dot: bizia emoten dauan Sakramentua apalik artzean, jaungoikozko sugar orretatik txingartxoren bat neuganatu dagidan.

18. Eta niri falta yatana, nire orde zornidu egizu zeuk, Jesus on eta Salbatzaille guztiz santu orrek, errukiz eta doan, zuk guztiak egin dautsezuz dei-ta, urrango au esanez: "Zatoze neugana, nekatuta ta sortaz makurtuta zagozen guztiok, eta nik atsedena emongo dautsuet" (Mt 11, 28).

19. Nik, benetan, neure bekokiko izerdiaz egiten dot lan, eta biotza miñak oiñazetzen dau; nire pekatuen sorta aundiaren azpian nago eta inguratzen naben tentaldiak kezka beteten nabe. Geiago be bai: griñen zurrunbilloak inguratuta eta astinduta ikusten dot nire burua.

20. Eta ez dot aurkitzen niri laguntza ekartera etorri daitenik, ni askatu ta onik atara nagianik iñor be ez dago, zeu izan ezik, nire Jainko Jaun eta Salbatzaille ori; zeure ardurapean izten dot nire burua nire gauza guztiakaz batera, ni zaindu ta betiko bizitzara eroan nagizun.

21. Onartu nagizu, Jauna, zeure izenaren gorapen eta aintzarako, janari ta edarizat zeure Gorputza ta Odola emon zeustazan orrek.

22. Ene Jainko Jaun eta Salbatzaillea, zure misterioa sarri artzeaz, neure oneraspenaren zaletasuna be geitu daitela.



BOSGARREN ATALBURUA

Sakramentuaren bikaintasuna
eta abadetzaren gurentasuna

Maitearen berbotsa

1. Aingeruak lako garbia eta Joan Bateatzaillea lako santua bazintzaz be, Sakramentu au artzeko ezta ikutzeko be ez zintzake duin izango.

2. Izan be, Kristoren Gorputza sagaratu ta erabiltea eta aingeruen ogia jatea, ez yakoz giza-merezimenteru zor.

3. Egikizun au aundia da, benetan, eta neurribagea abadeen bikaintasuna, aingeruak eurak be emon ez yakena abadeak emon yake-ta.

4. Elizearen arauz abade egindakoak bakarrik dabe Mezako Oparia egiteko eta Kristoren Gorputza sagartzeko eskubidea.

5. Abadea, ain zuzen be, Jaungoikoaren ordekoa da, eta erabagiz eta aginduz egiten dau berba; baiña orretan egille nagusia eta eragille ezkutua Jaungoikoa da, dana bere menpean daukana eta izaki guztiak bere aginduari esana egiten dautsoena.

6. Orregaitik, Sakramentu guztiz bikain onetan zeure zentzuetan eta ezaugarri agiritan baiña, dana aal dauan Jaungoikoagan geiago jarri bear dozu zure sinistea.

Abadeak, aingeruen maillan

7. Bildur eta begirune aundiz urreratu bear dozu, ba, misterio onetara. Ausnartu egizu zure barruan eta begiratu gotzaiñaren eskuak ezartetik artu dozun egikizuna.

8. Abadea zara, opari santua egiteko sagaratu zaitue. Beraz, opari au Jaungoikoari zintzoro ta oneraspen aundiz aldi egokian eskintzeko aalegiñak egizuz, eta edozetan akats bagarik agertu zaituz.

9. Ez dozu zure sortea arindu, bestetara baiña: zure burua korapillo estuagoaz lotu eta santutasun bikaiñagora igoteko beartu dozu.

10. Abadeak onoimen guztiakaz apainduta egon eta beste guztientzat bizikera santuaren eredu izan bear dau.

11. Abadearen bizikereak, ala-olako gizonen bizikerea izan bagarik, zeruko aingeruen antzekoa edo lurreko gizon bikaiñena lako izan bear dau.

12. Abadea, meza-soiñekoz jantzita, Kristoren ordekoa da, bere buruaren eta erri guztiaren alde Jaungoikoari, biziro ta apalik, otoitz egiteko.

Bere bizikereaz gurutzaren ezaugarri da

13. Bere bularrean eta sorbaldan gurutzaren ezaugarria daroa, Kristoren Nekaldia beti gogoan erabili dagian.

14. Bere aurrean, kasuillan, gurutzea daroa, Kristoren lortzak arduraz begiratu dagizan eta arei sutsu jarraitu dagitsen.

15. Bere sorbaldan be gurutzea daroa, enparaduen edozein irain Jaungoikoagaitik eroapenez eroan dagian.

16. Bular-gaiñean gurutzea daroa, bere pekatuakaitik negar egin dagian; bere atzean be badaroa, besteen pekatuakaitik errukiz negar egiteko, eta Jaungoikoaren eta pekatarien bitartekoa dala jakin dagian.

17. Jaungoikoagandik grazia ta errukia jaristea merezi dagian arte, ifioiz be ez dau itzi bear otoitzari ta opari eskintzeari ekitea.

18. Abadeak mezea emoten dauanean, goratu egiten dau Jaungoikoa, poztu egiten dauz aingeruak, onbidea erakusten dautso Elizeari, oraindiño lurrean bizi diranai laguntza emoten dautse, atsedena illai, eta bere burua ondasun guztien partezartaille egiten dau.

SEIGARREN ATALBURUA

Jaunartzerako zelan gertatu
bear izaten dan

Ikaslearen berbotsa

1. Jauna, zure bikaintasuna ta nire zatarkeria gogoratzen dodazanean, bildur-ikaraz jarri eta lotsatuta geratzen naz.

2. Zeugana urreratzen ez banaz, bizitzatik iges egiten dot; eta, bear ez danez artzen bazaitutu, irain aundia

egiten dautsut. ¿Zer egin bear dot, ba, ene Jaungoikoa, neure irakasle eta bearraldietan neure laguntzaille ori?

3. Zeuk irakatsi egidazu bide zuzena. Agertu egidazu buru-jardun egokiren bat, jaunartzeko bear danez gertatu aal naiten.

4. Izan be, zure Sakramentu au neure onerako artzeko, edo onelako opari bikain eta jaungoikozko au eskintzeko, nire biotza oneraspen eta begirune aundiz gertatzen jakitea bearrezko yat.

ZAZPIGARREN ATALBURUA

Norbere barrua aztertzea
eta ontzeko asmoa

Maitearen berbotsa

1. Sakramentu au eskiñi, erabili ta artzeko, biotz apala, begirune eraspentsua, sinismen osoa eta Jaungoikoa goratzeko asmo zintzoa bear-bearrezkoak yakoz Jaungoikoaren abadeari.

2. Zure barrua arduraz arakatu eta, aal dagizunez, benetako damuaz eta autortza apalaz garbitu ta apaindu egizu, ez daukazun edo ez dakizun pekatu astunen batek zure barrua artegatu ez dagian eta Eukaristi onetara etortea galerazo ez dagitzun.

3. Zure pekatu guztiai gorroto izan egiezu; baiña, batez be, egun barruko zure utsegiñakaitik damu ta tamal aundia izan egizu.

4. Eta, astirik badozu, autortu egiozuz biotz-barruan Jaungoikoari zure kazkarkeria ta zalekeria guztiak.

Barruko azterketa

5. Damu izan eta negar egizu, oraindiño orren lizunkoi ta mundukoi zarealako, griñetan orren gordiña, zalekerietan orren artegatsua;

6. zentzunak zaintzeko orren ardurabagea, irudikerietan orren sarritan naastua;

7. inguruko gauzetarako orren makurtua, eta barrukoetarako orren nagia; barre ta nabarkerietarako orren erraza, eta negar eta damurako orren sorra;

8; lizunkerietarako ta aragiaren nasaikerietarako

orren zolia, eta laztasun eta eraspenerako orren alpe-rra;

9. barriak jakiteko eta gauza ederrak ikusteko orren arduratsua, eta gauza apalak eta iguingarriak laztantzeko orren otza; askoren jabe izateko orren gosetia, emoteko orren esku-estua, eta eukiteko orren zekena;

10. berba egiteko orren barritsua, isilik egoteko orrelako zaletasun gutxikoa; ekanduetan orren nasaia, egintzetan orren gogo-ariña;

11. jateko orren neurribagea, Jaungoikoaren berbe-
tarako orren gorra; atsedenerako orren gertua, eta lanerako orren motela ta geldia;

12. ipuin eta barriketarako orren zolia, otoitzean iratzarririk egoteko orren logura; azkenera eltzeko orren bizkorra, adi egoteko orren nagia,

13. otoitzean orren legorra; orren erraz entzungor, orren gutxitan gutziz batua;

14. sumiñerako orren laster eragiña, enparaduak atsekabetzeko orren erraza; epaitzeko orren azartua, agiraka egiteko orren zorrotza;

15. goraldian orren baikorra, zoritxarraldian orren jausia; asmo onak sortzen orren ugaria, asmoak egiñez burutzen orren meatza.

Norbere buruaren oparia

16. Zeure makaltasunarenak diran orreik eta zure beste obenak damu ta iguin aundiaz autortuta gero, zure bizikerea ontzeko eta onbidean aurrera egiteko asmo sendoa artu egizu.

17. Gero, zure gauza guztiai uko egiñik eta biotz-biotzez, eskiñi egidazu zure burua neure izenaren aintzarako, zure biotzeko opari-maian betiko erre-
oparizat, edo bardin dana, emon egidazuz zintzoro zure gorputz osoa eta zure arima osoa.

18. Orrela opari santua eskintzeko eta nire gorputzaren Sakramentua onuraz artzeko duin izango zara.

19. Izan be, asmo bikain eta garbiz, Mezan eta Jaunartzean, Kristoren Gorputzagaz batera, norbere burua Jaungoikoari eskintzea baiño eskintza ederragorik eta pekatuak kentzeko ordaintza aundiagorik ez dago.

20. Gizona, bere eskuan dagoana egiñik, grazi ta

parka-eske neugana urreratu daiten bakotxean benetan damutzen bada, "neure izenagaitik! —diño Jaunak—, ez dot nai pekatariaren eriotza, bere jokatibidez damutu eta bizi daitela baiño" (Eze 33, 11), "ez dodaz aren pekatuak gogora ekarriko" (Eber 10, 17), bestetara baiño: pekatu guztiak parkatuko yakoz.

ZORTZIGARREN ATALBURUA

Kristok bere gogoz eskiñi eban
bere burua oparizat gurutzean

Maitearen berbotsa

1. Besoak zabalik eta gorputza billoizik, zu Jaungoikoagaz adiskidetzeko oparizat eskintzekorik nigan ezertxo be itzi bagarik, zure pekatuen ordaintzat Aita Jaungoikoari neure burua eskiñi neutsan neure gogoz gurutzean.

2. Olantxe egin bear dozu zeuk be: egun oro, mezea emotean eta aalbait gogotsuen, zeure borondate guztiaz eta zeure indar eta gurari guztiaz, zure burua opari garbi ta santu lez eskiñi bear daustazu.

3. Izan be, ¿zer nai dot zugandik, zure burua oso-orik neuri eskiñi dagidazula baiño? Zeu bagarik emon daistazun edozer, ez yat ezertxo be gogoko, ez nabil zure doaien billa-ta, zeure billa baiño.

4. Neu bagarik, gauza guztiak eukiarren be, ez litzakizuz naikoa izango. Era berean, zeure burua eskintzen ez badozu, ez dot atsegin zuk eskiñi aal daistazun ezer be.

5. Eskiñi egidazu, ba, zeure burua, Jaungoikoagaitik osorik emonik, eta zure oparia gogoko izango yat.

6. Neuk be Aitari zure alde nire burua osorik eskiñi neutsan; nire Gorputza ta Odola be jan-edarizat emon nebazan, ni osorik zeurea izan nendin eta zu beti neurea izan zeitezan.

7. Baiña, zeugan geratzen bazara eta zure burua nire borondateari gogo onez eskintzen ez badaustazu, zure oparia be ez da osoa izango, eta gure arteko batasuna be ez da batasun osoa izango.

8. Orregaitik, neure grazia ta benetako askatasuna lortu nai badozuz, zure egintza guztien aurretik zure burua Jaungoikoaren eskuetan gogoz eskiñi bear

dozu.

9. Euren buruari benetan uko egiten dakienak gutxi diran ezker, gutxi be gutxi dira barruz egiazko askatasunez dabizan arima argituak.

10. Auxe da nire berba sendoa: "Gauza guztiak ukatzen ez dauzana, ezin izan daiteke nire ikasle" (Mt 14, 33). Beraz, benetan neure ikasle izan nai badozu, zeure burua eskiñi bear daustazu zure gurari guztiakaz batera.

BEDERATZIGARREN ATALBURUA

Gure burua ta gure gauza guztiak
Jaungoikoari eskiñi bear daustaguz
eta otoitz egin bear dogu guztien alde

Ikaslearen berbotsa

1. Jauna, zeru-lurretan dagoan guztia zeurea da.

2. Nire aldetik, nire izate guztiaren gogozko eskintza zeuri egin gura dautsut, eta beti zeurea izan gura dot.

3. Jauna, biotz lauaz nire burua zeuri eskintzen dautsut, eta betiko gorapen eta oparizat beti zeure morroia izango nazala agintzen dot.

4. Ikusi ezinda be, berton dagozan aingeruen aurrean gaur eskintzen dautsudan zure Gorputz guztiz bikaiñaren opari santuagaz batera, neu be onartu nagizu, neure ta erri guztiaren osasunerako zain daiten.

5. Zeure opari-altaran eskintzen dautsudaz, Jauna, pekatu egiten asi nintzan egunetik gaur arte, zure ta aingeru santuen aurrean egin dodazan pekatu ta gaitzakeri guztiak:

6. zure maitasun-garretan guztiak batera erre ta kiskaldu dagizuzan, eta nire pekatuen orban guztiak kendu dagidazuzan, eta nire barrua gaitzakeri guztietatik garbitu dagizun, eta pekatu egiñez galdu neban grazia barriro emon dagidazun, eta guztia parkatu eta barriro be, zure errukiz, zeure bakezko ta maitasunezko laztana emon daistazun.

Pekatuaren damua

eta Jaungoikoaganako uste ona

7. ¿Zer egin daiket nik besterik nire pekatuen ordainez, apalik eta negarrez neure erruak autortu eta

etenbagarik zeure parkamena eskatu baiño?

8. Ene Jaungoikoa, zeuri egiten dautsut dei, zeugana nator, eta biotz onez entzun nagizula eskatzen dautsut. Gorroto dautset biotz-biotzez nire pekatu guztiai, eta barriro iñoiz be ez dodaz egin nai. Neure pekatuen damu bizia dot eta izango dot bizi nazan artean. Gertu nago arcik ordaintzeko, eta, neure indarren negurriz, arein ordezen oben-nekea beteteko.

9. Parkatu nagizu zeuk, ene Jaungoiko orrek, parkatu nire erruak zeure izen santuagaitik; onik atara egizu zure odol bikaiñaz erosi zenduan nire arima au.

10. Zeure errukipean jarten naz. Zeure eskuetan izten dot nire burua. Egizu nitzaz zeure ontasanari dagokionez, eta ez nire gaiztakeriak eta pekatuak merezi dabenez.

Onartu dagiala Jaunak gudan dagoan ona, berea da-ta

11. Nire egintza on guztiak be —gutxi ta utsez beteak izanarren—, zeuri eskintzen dautsudaz; zeuk arteztu ta santutu egizuz, gogoko ta atsegingarri izan dakizuzan, gero ta geiago obetzen dozuzala. Eta zigazaiso ezerez eta alper au betiko zorion santura eroan egizu, arren.

12. Era berean, jainkozaleen gurari santu guztiak, nire etxeko, adiskide, anai-arreba, nire maite guztien eta zure maitasunagaitik niri naiz besteri on egin dauskuenen bearrizanak be, zeuri eskintzen dautsudaz;

13. Baita nik emen edo eurenen alde otoiartzak egiteko edo mezako opari santua emoteko eskatu daustenen alde be, naiz biziak naiz illak dirala:

14. Guztiak zeure graziaren laguntza, zeure poztasun samurra, arriskueta babesa eta nekeetan pozkaria somatu dagien: gaitz guztietatik atarata, pozez beterik, eskerrak gartsu emon dagitzuezan.

Eskari gartsua

15. Baita neure eskariak eta erruki-oparia be eskintzen dautsudaz, batez be zerbaitean kalte, atsekabe, irain, ezbear edo gatxen bat egin daustenen alde;

16. Baita nik noizbait berbaz edo egiñez, jakinda edo

jakin bagarik, atsekabetu, kezkatu, iraindu edo pekatutara eroan nebazanen alde be: guztioi gure pekatuak eta alkarreganako iraiñak parkatu dagiguzuzan.

17. Urrindu, Jauna, gure biotzetatik susmo, asarre, sunin eta burrukak, baita alkarreganako txera ona galerazo eta lagun-urkoaganako maitasuna otzitu aal dagian edozer be.

18. Erruki, Jauna, erruki zakiez zeure errukia eskatzen dautsuenai; zeure grazia emon egiezu bear dabena; eta zeure grazia artzeko eta betiko bizitzara joateko duin egin gagizuz. Amen.

AMARGARREN ATALBURUA

Jaunartzea ez dogu erraz itzi bear

Maitearen berbotsa

1. Graziaren eta jaungoikozko errukiaren iturrira, ontasun eta garbitasun-iturrira, sarritan joan bear dozu, zure zalekeri ta griña txarretatik osatu eta deabruaren tentaldi ta maltzurkeri guztien aurka indartsuagoa ta bizkorragoa egin aal zaitez.

2. Aterioak, fruturik eta osagarririk aundierna Jaunartzean dagoala badakian ezkeri, beti ta aal dauan guztietan zintzoak eta jainkozaleak Jaunartzetik urrintzen eta arei eragozpenak jarten jarduten dau.

3. Arima batzuek, ain zuzen be, Jaunartzerako gertatzen asten diranean, orduantxe sufritzen dabez Satanas-en erasorik latzenak.

4. Izan be, espiritu gaizto ori, Job-en liburuak diñoanez, Jaungoikoaren semeen artean sartzen da, oi dauan zitalkeriaz artegatu edo bildurtiegi egiteko, edo estutzeko; eta orrela euren oneraspena epeltzeko eta biotzean ezbaiek sortzeko, bearbada Jaunartzetik guztiz urrindu dagizan edo epel jaunartu dagien.

5. Baiña ez yake aren maltzurkeriak jaramonik egin bear, bestetara baiño: izan daitekezanik zatarrenak eta ikaragarrienak izanda be, aren irudikeriak bere buruan birrindu bear doguz.

6. Zorigaitzoko iguingarri orren lepotik irri ta barre egin bear da; gudan sortzen dauzan erasoak eta astiñaldiak gora-beera Jaunartze santua ez da itzi bear.

Oneraspenik ez dogula uste dogunean

7. Sarritan, oneraspena lortzeko ardura larregia, baita autortzeko estutasun larregia be, Euskaristia artzeko eragozpena izaten da.

8. Onetan, beti sen oneko gizonen burubideari jarraitu egiozu, eta kezka eta larritasunak alde batera itzi egizuz, Jaungoikoaren grazia galerazo eta adimeneko eraspenna kendu egiten dabe-ta.

9. Ezbear edo zoritxar txikiren batek ez zaitu Jaunartze santutik aldendu bear; aalbait lasterren zoaz autortza egitera, eta egin dautsuezan irain guztiak gogo onez parkatu egizuz.

10. Baiña, okerretara, norbait zeuk iraindu badozu, apal-apalik parka-eskatu egiozu, eta Jaungoikoak be, ontasun utsa dan ezkeri, pozik parkatuko zaitu.

4. Egia esateko, autortza gogoratzeak edo Jaunartzea atzeratzeak, ¿zer onik dakar? Garbitu egizu aalbait lasterren zure barrua. Jaurti leenbaileen zure ariman sartu dan edena eta zoaz arin osagarri-eske: luzaro geroratuko bazendu baiño obeto somatuko dozu zure burua.

Ez gaitez Jaunartzetik urrindu

12. Gaur errazoi au dala-ta Jaunartzea izten badozu, biar zio aundiagoa agertu daitekizu; orrela, Jaunartzea luzaro itzita, Berau artzeko zure burua gero ta gutxiago gertatuta egoala somatuko zeuke.

13. Beraz, nagikeri ta geldikeri ori ainbat bizkorren jaurti egizuz; izan be, luzaro kezkatu ta artega ibiliaz eta egun oroko eragozpenakaitik Sakramentu santu onetatik alde egiñaz, ez dozu ezer irabaziko.

14. Geiago oraindiño: Jaunartzea asko berandutzeak, kalte aundia egiten dau, geienetan ariman gogorik-eza sortzen dau-ta.

15. Au negargarria! Badira epel eta nasai batzuk, euren arimea ardura geiagor zaindu-bearra ez eukitearren, autortza ta Jaunartzea erraz beranduegotzen dabena. Orrela jokutzen dabena, maitasun urria ta oneraspen motela dabez benetan!

19. Zorionekoa benetan, egoki balitzakio ta iñori agertu bagarik egin aal baleu, egun oro jaunartu guraz eta orretarako gertatuta egoteko, biotz garbiaz bizi dana! Olakoa zorionekoa izango litzake benetan

eta oso atsegingarria Jaungoikoarentzat!

Gogozko Jaunartzearen indarra

17. Ala ta guzti be, apaltasunagaitik edo bidezko dan zerbaitegaitik norbaitek Jaunartzea noizean bein izten badau, goragarria da orrelakoa beronen begiruneagaitik.

18. Baiña astiro-astiro epeltasuna sortzen bayako, alakoak bere burua bizkortu eta aal dauana egin bear dau; eta Jaunak, batez be asmo ona begirutzen dauan ezkeri, ornidu egingo dau ari falta yakona, aren gurari onai lagun egiñik.

19. Baiña lege-bidez eragozpenen bat eukiarren be, alakoak jaunartzeko gogo ona ta asmo zintzoa izan begiz. Orrela, ez dau Sakramentuaren frutua guztiz galduko.

20. Izan be, edozein elizkoik ordu oro be gogozko Jaunartzea egin daike onura aundiz; ori egitea iñok be ez dautso galerazoten.

21. Baiña egun batzuetan eta aginduta dagoan aldian, bere Eroslearen Gorputza Sakramentuan begirune samurrez artu eta norbere pozkaria baiño Jaungoikoaren aintza ta gorapena geiago billatu bear dauz.

22. Izan be, Kristoren Gizakundea ta Nekaldiaren misterioa ausnarturik, Areganako maitasunean iziotzen dan bakotxean, gogozko Jaunartzea egiten dau, eta, agirian izan ezarren be, janaritu egiten da alakoa bere espirituari.

23. Jaieguna urreratzean, edo oitureak eraginda baiño gertatzen ez dana, ondo gertatu bagarik egongo da sarritan.

24. Zorionsua, mezea emoten naiz jaunartzen dauan bakotxean, norbere burua oparizat Jaunari eskintzen dautsana!

25. Mezako opari santua emotean, astiroegia edo ariñegia izan bagarik, bidezko negurria gorde egizu, zeugaz bizi diranen jokabidearen eraz.

26. Iñori be ez zakioz izan bear nekegarri ez gogai-karri, nagusiak guztientzat jarri dabena bideari jarraitu baiño, zeure oneraspen eta guraria baiño bes-teen onerako dana geiago begiraturik.

AMAIKAGARREN ATALBURUA

Kristoren Gorputza
eta Liburu santua [Biblia]
arima zintzoari bear-bearrezkoak yakoz

Ikaslearen berbotsa

1. Ene Jesus Jaun guztiz gozoa! Aundia benetan arima eraspentsuaren gozotasuna zure maian zeugaz batera jaten dauanean! Izan be, janaldi onetan janaritzat zeu bakarrik, bere Maite bakar ori, aurkezten yako, bere biotzak gura daikenik guragarriena.
2. Nik zure aurrean biotz-biotzez negar-malko gozoak pozik isuriko neukez benetan, eta onekaz, Mari Madalen-en antzera, zeure oiñak bustiko neukez!
3. Baiña orain orrelako eraspentetik urrin be urrin nago, urrin benetan maitasuneko negar-malko isurte orretatik! Izan be, zure aurrean eta aingeru santuen aurrean nire biotzak garretan egon bear leuke, eta pozaren pozez negar egin.
4. Bene-benetan Eukaristian neure aurrean zaukadaz-ta, Sakramentua antz-irudiz estalduta izanarren be.
5. Izan be, nire begiak ezin begiratu izango leuke zure jaungoikozko argitasun garbia, eta mundua be ezereztuta geratuko litzake zure aintza aundiaren diztira-aurrean. Orrexegaitik egokitzen zakioz (*zaiakoz*) nire makaltasunari / Sakramentupean estaltzen zareanean.
6. Aingeruak zeruan dauken eta gurtzen daben Berbera daukat eta gurtzen dot nik lurtean; nik oraindiño sinismenaren estalkipean; areik, barriz, aurpegiz-aurpegi eta estalki bagarik.
7. Ni benetako sinismenaren argitan pozik egon eta ibili bear dot, betiko argiaren eguna agertu eta irudien gerizak ezereztu daitezcan arte.

*Osotasuna eldu daitenean,
erdizkakoa utsera joango da*

8. On osoa eldu daitenean, ez dira Sakramentuak erabiliko: zeruko aintzan dagozan zoriotsuak ez dabe Sakramentu-osagarririk bear-eta.

9. An Jaungoikoaren aurrean beti pozik dagoz, Aren aintza aurpegiz-aurpegi ikusirik; eta, argitasun onetatik Jaungoikoaren argitasun-barrura aldatuta, gizon egin zan Jaungoikoaren Berbea asieran izan zanez eta betiko izango danez miazten dabe.
10. Miragarriok gogoratzen dodazanean, nire inguruko gauza guztiak, bñta espiritu-pozkariak be, oso gogaikarri biurtzen yataz: nire Jauna bere aintzan argiro ikusi dagidan artean, lurtean ikusten eta entzuten dodan edozer ezeretzat dot-eta.
11. Zeu zara testigu, ene Jaungoiko ori, ezek ez iñok be poztu ez naikena, ezta izakik nire espiritua baretu be, zeuk izan ezik, betiraanean ikusi gura zaitudan ene Jaungoiko orrek.
12. Baiña au eziña da aragi ilkor onetan bizi nazan artean. Beraz, eroapen aundia izan eta gurari guztietan nire burua zeure menpean ezarri bear dot.
13. Auxe da, Jauna, orain zeruko zure erreñuan zeugaz poztan diran santuak be egiten ebena; mundu onetan bizi ziran artean, sinismen eta eroapen aundiz zeure aintzaren etorrerea itxaroten eben.
14. Eurak sinisten ebena sinisten dot neuk be; eurak itxaroten ebena itxaroten dot neuk be. Beraz, zeure graziaz, neuk be eurak eldu ziran tokira eltzeko ustea dot. Bitartean, bidean sinismenak zuzendu eta zure santuen ikasbideak indartuko nau.
15. Liburu santua [Biblia] be benetako pozkari ta nire bizitzaren izpillutzat izango yat. Eta osagarritzat eta, bide batez, berebiziko igeslekutzat, zeure Gorputz guztiz santua eukiko dot batez be.

Berbearen ogia eta Eukaristi-ogia

16. Izan be, bizitza onetan batez be gauza bi bear-bearrezkoak yatazala somatzen dot, eta eurok bagarik bizitza samin au ezin eroan izango neukela. Nire gorputzaren espetxe onetan lotuta nagoala, gauza bi bearrezkoak yatazala autortzen dot: janaria ta argia.
17. Geiso onen arimea ta gorputza janaritzeko, zeure Gorputz santua emon daustazu, eta, nire oinkadak argitzeko, zeure berbea dan argiontzia jarri zenduan.
18. Gauza biok bagarik, eziñezkoa izango litzakit zuzen bizi izatea: Jaungoikoaren berbea nire adimena-arentzat argia eta zure Sakramentua neure bizitza-

ogia da-ta.

19. Gauza bi oneik, Eliza santuaren ondasuntegiko alde batean eta bestean jarritako mai bi dirala esan daiteke. Bata, altara santuko maia da; emen, ogi santua dago, edo bardin dana, Kristoren Gorputz bikaiña;
20. eta bestea, Jaungoikoaren legearen maia; onek ikasbide santua dauko, egiazko sinismena irakasten dau, eta Santu-Santua oial-ostean ezkutuan dagoan tokiraiño ziur-ziur garoaz.
21. Millaka eskerrak emon bear dautsudaz zuri, ene Jesus on orri, betiko argiaren argi orri, zure morroi, profeta, apostolu ta irakasleen bitartez emon zeuskun ikasbide santuaren mai onegaitik.
22. Eskerrak zeuri, gizonen Egille ta Erosle orri, mundu guztiari zeure maitasuna agertzeko / apari aundi au atondu dozulako, eta berton, irudizko bildotsa bagarik, zeure Gorputz-Odol guztiz santuak jan-edateko emon dozuzalako.
23. Paradisuko atsegin guztiak daukazan jan-edan santu onetan, zure zintzo guztiak poztu ta edari salbagarriaz mozkortu egiten dozuz, eta, gozotasun zoriotsuagoaz izanda be, aingeru santuak be geugaz batera maikide dira.

Kristau-abadetzaren bikaintasuna

24. Aundia ta dedugarria benetan abadeen egikizuna! Eurai emon yake goi-goiko Jauna berba santuakaz sagaratu, euren ezpanakaz bedeinkatu, euren eskuetan euki, euren agoan artu eta enparaduai banatzeko eskubidea.
25. Abadearen eskuak oso garbiak, agoa oso txukuna, gorputza oso santua eta biotza oso orbanbagea izan bear dira, garbitasun guztiaren Egillea aren barruan ostatuz ainbat aldiz egoten dan ezkerok.
25. Kristoren Sakramentua orren sari artzen dauan abadearen agotik berba santu, garbi ta egokiak baiño ez dabe urten bear.
27. Lauak eta lotsakorak izan bear dabe Kristoren gorputza begiratzen oituta dagozan begiak. Garbiak eta beti zerurantz jasota egon bear dira zeru-lurren Egillea ikutzen daben eskuak.
28. Auxe esaten yake Legean abadeai batez be: "Santu izan zaitzeze, ni, zuen Jainko Jaun au be, santu

naz-ta" (Ab 19, 2).

Abade-otoitza

29. Jaungoiko guztiaaldun ori, lagun egin daiskula zure graziak: abadetza artu dogun guztiok, zure zerbitzaritzan duintasunez eta eraspenez, biotz garbiz eta barru onez jardun aal dagigun.
30. Eta, bear geukenez, orrelako zintzotasunez ezin bizi bagaitekez, egin doguzan pekatuakaitik egoki negar egitea eta aurrerantzean espiritu apalez eta borondate onez zu gogotsuago otseintzeko laguntza emon egiguzu.

AMABIGARREN ATALBURUA

Kristo artu gura dauanak
ardura aundiz gertatu bear dau bere burua

Maitearen berbotsa

1. Nik arima garbiak maite dodaz; santutasun-emoillea naz ni. Biotz garbiaren billa nabil, nire atsedentokia antxe jarteko.
2. Ni zeugana etorri eta zeugaz geratzea gura badozu, jaurti zugandik legamin zaarra eta garbitu zure biotzeko bizilekua.
4. Urrindu zugandik mundu-usaiña izan dagian edozer eta zalekeri-zaratots guztiak; teillatuan txori bakarra lez jesarri zaitzez, eta damu aundiz eta ari-mearen samintasunez, zeure bizitzako geiegikeriak erabili egizuz buruan.
5. Izan be, edozein maitatzaillek bere maiteari tokirik onena ta ederrena gertatzen dautso, eta orretantxe ezagutzen da maitea etxeratzen dauanaren maitasuna.
6. Jakin egizu, orraitaiño, gertakera ori zure egintzen merezimentuz ezin lortu izango dozuna, beste gauzarik gogoan izan bagarik urte betean gertatzen jardunarren be.

*Guzti-guztia, Jaungoikoak utsean (doan)
damoskun doaia da*

7. Neure erruki ta graziagaitik bakarrik izten yatzu

nire maira eltzen; aberats batek eskeko bati bere maira deitzen dautsala, eskekoak mesede ori ordaintzeko bere eskerron apala baiño ez baleu lez.

8. Egizu, ba, zeuk aal dagizuna; baiña oituraz edo bearrez egin bagarik, bildurrez, begirunez eta maitasunez artu bear dozu zugana etorteko ontzat dauan zure Jainko Jaun maitearen Gorputza.

9. Neu naz deitu ta etorteko agindu neutsuna. Neuk emongo dautsut ez daukazuna: urteratu zaitez, ba, eta artu nagizu.

10. Eraspen-grazia emoten badautsut, eskerrak emon egidazuz: eraspen orren duin zarealako ez gero, zutzaz errukia erabili dodalako baiño.

11. Eraspenik ez badaukazu eta oso legor bazagoz, ekin otoitzari, negar egin, dei egin; eta ez gelditu nire grazi salbagarriaren apur bat edo tantatxo bat artzea merezi dagizun arte.

12. Zeu zara ni bear nozuna, eta ez nik zu. Ez zatoz zu ni santutzeraz, okerretara baiño: neu natorkizu zu santutzeraz ta obeto biurtzera: zu santukuntza-eske urreratzen zakidaz (*zaiataz*), zeugaz alkartu naiten eta grazi barriak artu dagizuzan, eta orrela barriro gero ta geiago obetzeko adoretu zaitez.

13. Ez iguindu grazi barri au, bestetara baiño: zure barruan zeure maitea artzeko, zure biotza ardura aundiz gertatzeko aalegiñak egizuz.

14. Ez yatzu naikoa Jaunartze-aurrean eraspina eukitea. Bearrezko yatzu Sakramentua artuta gero be eraspina barruan arduraz iraunerazotea. Izan be, Jaunartze-aurrean izaten dan gertatzea baizen bearrezkoa da Jaunartze-ostean norbere barruan batuta egotea:

15. Jaunartze-ostean eukiten dan barruko batze ori da-ta barriro grazi aundiagoa jaristeko gertakerarik onena.

16. Eta okerretara: Jaunartze-ostean inguruko atsegiñetara beingoan doanak, barriro jaunartzeko gertakera aundirik ez dau agertzen.

17. Azkenez, zaindu zure burua barrikeratik, eta zure biotzaren ezkutuan Jaungoikoaz atsegindu zaitez: mundu guztiak be ezin kendu daiketuzna daukazuta.

18. Neuri emon bear daustazu oso-osorik zure burua, aurrerantzean zeugan bizi ez zaitez, neugan baiño, ardura guztietatik askatuta.

AMAIRUGARREN ATALBURUA

Arima jainkozaleak
Eukaristian Kristogaz bat egitea
biotz-biotzez gura izan bear dau

Irakaslearen berbotsa

1. ¿Nok emongo daust, Jauna, zu bakarrean aurkitzea, eta nire biotz guztia zeuri zabaltzea, eta nire arimeak gura dauanez zeugan poza artzea, eta onezkero ni iñok be ez iguintzea, ez izakiren batek ni beragana erakartea edo nire ardurarik ez izatea, eta maitatzailleak bere maiteagaz berba egin eta, adiskidea bere adiskideagaz pozten danez, zuk niri ta nik zuri bakarrean berba egitea?

2. Auxe da eskatzen dodana; auxe da nik gura dodan bakarra: oso-osorik zeuri batzea eta nire biotza izaki guztietatik urrintzea; Jaunartzearen eta Mezako oparia ospatzearen bitartez, zeruko ta betikoetan gero ta geiago atsegiña artzen ikasi dagidan.

3. Ene Jainko Jauna, ¿noiz egongo naz zugaz bat-bat eginda eta zugan sor eginda, nire buruaz guztiz aaztuta? Emon egidazu, Jauna, zu nigan eta ni zugan egotea eta onela biok betiko bat eginda irautea.

4. Benetan, zeu zara nire maitea, millaken artetik aukeratua; nire arimeak zeugan dauko bere atsegiña eta bere bizitzako egun guztietan zeugaz bizi izatea gura dau.

5. Zeu bakarrik zara nire bake-egillea, zeuk emoten daustazu bakerik aundiena ta benetako atsedena; izan be, zugiandik kanpo, nekea, miña ta zoritxar azkenbagea baiño ez dot aurkitzen.

6. Benetan, "Jaungoiko ezkutua zara zu" (Is 45, 15), ez dozu zuk gaiztoak artu-emonik, eta apalakaz eta biotz-lauakaz egiten dozu berba.

Jaungoikoa, gizonaren ogi

7. Samurra da, benetan, zure Espiritua, Jauna! zugan dagoan gozotasuna zeure semeai erakusteko, zerutik jatsitako ogi guztiz samurraz janaritu gura izan dozuz-ta.

8. Benetan zu, gure Jaungoiko ori, zure zintzo guztiai

urreratzen zakiezan (*zaiakezan*) beste, bere jaungoikoak urreratzen yakozan onelako erri aundirik ez dago; izan be, zureai, egun oro atsegintzat eta euren biotza zerura jaso dagien, jateko ta poza artzeko zeure Gorputza emoten dautsezu.

9. Izan be, ¿non dago kristau-erria besteko erri ospagarririk? Edo-ta, ¿ba-ete-dago zerupean Jaungoikoak arima jainkozalea baiño maiteago dauan izakirik? Jaungoikoak berak egiten dautso ikustaldia arimeari, beronegan bere bizilekua egiteko, arimea bere aragi aintzatsuz janaritzen dauala.

10. Ori bai mesede esan-eziña, ontasun arrigarria, maitasun miragarria, Jaungoikoak gizonari emona!

11. Baiña, ¿zelan ordainduko dautsat Jaungoikoari mesede au, onenbesteko maitasun au? Nire biotza oso-osorik Berari emotea baiño atsegiñago izango yakonik ezin emon daikeot, Beragaz biotz-biotzez bat eginda egon daiten.

12. Nire arimea Jaungoikoari guztiz batuta egon daitenean, nire barrua pozez gaiñezka alaituko da.

13. Orduan, Jaunak auxe esango daust: "Zuk neugaz egon gura badozu, neuk be zeugaz egon gura dot." Eta auxe da nire erantzuna: "Neugaz geratu zaitez, Jauna, nik gogoz beti zeure ondoan egotea gura dot-eta. Auxe da nire gurari bakarra: nire biotza zeuri batuta egon daitela beti-betiko."

AMALAU GARREN ATALBURUA

Kristoren Gorputza artzeko
jainkozale batzuen gurari gartsuak

Ikaslearen berbotsa

1. "Zure zintzoentzat gordeta daukazun gozotasuna bai dala aundia, Jauna!" (Sal 31, 20).

2. Zure Sakramentua artzera eraspen eta maitasun aundiz datorkizuzan arima santu batzuk gogora ekarten dodazanean, lotsaz beterik geratzen naz, ni zure mai santura onen epel eta otz urreratzen nazala ikusirik.

3. Eta lotsatu egiten naz nire burua onen legor eta gurari bagarik ikustean, eta zure aurrean maitasunez guztiz kiskalduta ez egotean, eta zure jainkozaletariko askoren atsegiña ta gurari sutsuak nik ez

somatzean.

4. Areik, Jaunartzeko gurari sutsuak eta euren arimetan egoan maitasun beroak eraginda, euren negarmalkoai eutsi-eziñik egoten ziran; zeugana, iturri bizi zorean Jaungoiko orregana eltzeko / gorputzarimako egarriz bizi ziran, eta, zure Gorputza poztasun beteaz eta espiritu-goseaz artu arte, euren gose-egarría ezin baretu izaten eben, eta gutxiago ase.

5. Arein sinismena bai sutsua ta benetako! Zu Eukaristian zagozala agertzeko ezaupide argia zan.

6. Oneixek dira, benetan, euren Jauna ogia zatitzean ezagutzen dabenak; euren biotza sugarretan dauke, Jesus arekaz batera dabil-eta.

7. Orrelako gurari ta eraspina eta orrenbesteko maitasun indartsu ta gartsua / sarri askotan nigandik urrin dagoz.

8. Erruki izan zakidaz, Jesus on, bigun eta errukitsu ori; eta zure eskeko oni zure jaungoikozko biotza kiskaltzen eban maitasunaren pitin bat somatzea emon egioz noizean bein:

9 nire sinismena sendotu, nire itxaropena zeure ontasunean geitu, eta nire maitasuna, zeruko mana onegaz guztiz iziotuta, iñoiz be atzamatu ez daiten.

10. Indartsua da, Jauna, zure errukia, niri neuk gura dodan mesede ori egiteko, eta, zeuk gura izan dagizun egunean ni ikustera etorri zakidazanean, niri zeure espirtu gartsu ori isurteko.

11. Eta, zure morroi aukeratuen gurari biziak kiskaldu banengie be, zure graziaren bidez gurari berook somatzea gura dot.

Orregaitik, Jauna, zure arima maitatzaille gartsuen lagunkide izateko eta arein artean egoteko onartu nagizula gura dot eta eskatzen dautsut.

AMABOSGARREN ATALBURUA

Eraspen-grazia apaltasunaz
eta norbere burua ukatzeaz jaristen da

Maitearen berbotsa

1. Eraspen-grazia etenbagarik billatu, biotzez eskatu, eroapenez eta uste onez itxaron eta eskerak emonda artu bear dozu, gero apaltasunez zaindu

eta, aal dagizunez, beragaz batera lan egin dagizun; eta, Jaungoikoa etorri daiten artean, zuri zeruko doai orregaz ikustaldia egitea nai izango dauaneko aldia ta erea bere eskuetan itzi egizuz.

2. Batez be, beeratu egin bear dozu zure burua, zure barruan oneraspen gutxi edo bat be somatzen ez dozunean; baiña ez dozu orregaitik larregi kikildu bear edo geiegi biotz-mindu bear.

3. Jaungoikoak luzaro ukatu dauana, sarritan unetxo baten emoten dau; eta otoitz-asieran ukatu euskuna, batzuetan azkenean emoten dau.

4. Zeruko graziaz beti laster emongo baleuskuz eta geure gurarien neguriz, gizonak ori ezin izango leuke ondo eroan, beronen berezko makaltasunagaitik.

5. Itxaron egizu eraspen-grazia uste onez eta eroapen apalez. Eta, zuk zegaitik jakin bagarik, Jaungoikoak eraspen ori kentzen edo emoten ez badautsu, errua zeure buruari ta zeure pekatuari ezarri egiezu.

6. Batzuetan ezerezkeria bat da grazia galerazo ta estaltzen dauana (orri ezerezkeria esatea baiño obe litzake aundia esatea, onen ondasun guragarria kentzen dauskun ezkeri).

*Apaltasunagaz batera,
norbere buruari uko egitea*

7. Baiña eragozpen ori —txikia naiz aundia izan— kentzen eta azpiratzen badozu, lortu egingo dozu eskatzen dozuna.

8. Zure burua biotz-biotzez Jaungoikoari emoten dautsazunean, atsegingarri yatzun au edo ori zeurretzat gorde bagarik, bere eskuetan izten dozunean, bake aundiz Berari bat eginda zagozala somatuko dozu: norbere burua Jaungoikoaren nai ta borondateari iztea baiño gozoagorik eta atsegingarriagorik ezer be ez dago-ta.

11. Orrelako orrek lortzen dau Jaungoikoagaz bat eginda egotea Eukaristi santura urreratzean.

9. Beraz, norbaitek, bere biotzetik zalekeri ta gurari guztiak alde batera itzirik, bere asmoak biotz lauaz Jaungoikoagana jasoten badauz, alakoa jaungoikozko grazia artzeko ondo gertatuta egongo da, eta eraspen-doia artzeko duin izango da.

10. Izan be, utsik aurkitzen dauzan edontziak bere

bedeinkapenez beteten dauz Jaunak. Eta norbaitek beeko gauzak osoago ukatu eta alakoa norbere burua iguintzeaz illago egon, ari grazia ariñaigo etorten yako eta aregan ugariago sartzen da, eta aren biotzak, askatuta, goragoetara egiten dau egaz.

11. Orduan, “gaiñezka izango dau poza, eta biotza miraritu ta zabaldu egingo yako” (Is 60, 3), Jaungoikoaren eskua beragaz dagoala ikusiko dau, eta oso-osorik Jaungoikoaren eskuetan jarri dala betiko. Orrelaxe izango da bedeinkatua biotz-biotzez Jaungoikoa billatzen dauana eta bere arimea alperrik artu ez dauana.

12. Orrelako orrek, Eukaristi santura urreratzean, Jaungoikoagazko batasuna lortzen dau. Aundia, benetan, grazi ori; eta lortu be, bere oneraspena edo pozkaria bere begien aurrean ez daukalako lortzen dau, eta, oneraspen eta pozkari guztien gaiñetik, Jaungoikoaren aintza ta dedua billatzen dauzalako.

AMASEIGARREN ATALBURUA

Gure bearrianak
Jaunari agertu bear dautsaguz,
bere grazia eskatzen dautsagula

Ikaslearen berbotsa

1. Une onetan eraspentsu artu gura zaitudan ene Jaun guztiz samur eta maitagarri ori! Zuk ondo ezagutzen dozu nire makaltasuna, baita nik daukadan bearri-zana be; zoritxar eta zalekeri askotan jausita nagoala, nekatuta, zirikatuta, artega ta orbanduta nagoala.

2. Osagarri-eske natorkizu, pozkaria ta jasogarria eskatzen dautsudaz. Dana dakianari nire biotzeko ezkutu guztiak agirian daukazanagaz, eta berak bakarrik guztiz poztu ta lagundu naikenagaz diardut berbetan.

3. Iñok baiño obeto dakizuz zuk geien bear dodazan ondasunak, badakizu onoinetan be oso beartsu nagoana. Emen nozu zure aurrean, txiri ta billoizik, grazi ta erruki-eske.

4. Jaten emon egioz goseak illik dagoan eskeko oni; nire otza zeure maitasun-suaz berotu eta nire itsutasuna zeure aurpegiko argiaz argitu egizu.

5. Lurreko guztia garrastu egidazu, nekegarri ta

naibage guztiak ondo eroateko eroapena emon egidazu; eta lurreko gauza kaskar eta igarokor guztiak iguindu ta aaztuta itzi dagidazala.

Ni Kristo biurtu naitela

6. Nire biotza zeugana jaso egizu, Jauna, zeugaz bizi daitela zeruan, eta lurrean ara-orra ibiltzen ez egidazu itzi.

7. Aurrerantzean zeu bakarrik izan zaitez nire gozotasuna betiko: nire jan-edaria, nire maitasuna ta poza, nire atsegiña ta ondasun guztia zeu bakarrik zara-ta.

8. Zeure aurpegiaz iziotu, kiskaldu eta zeu biurtu nagizu, barruko batasun-graziaz eta maitasun gartsuaren isurteaz zugaz espiritu bakarria egin naiten.

9. Ez egidazu itzi zugandik baraurik eta legortuta alde egiten; erruki izan zakidaz, ostera, zure santuari buruz ainbestetan arrigariro egin dozunez.

10. Zu beti garretan iñoiz be atzamatzen ez dan sua, eta biotza garbitu ta adimena argitzen dauan maitasuna izanik, ni zeugana urreratzean, ¿ez ete-nintzake txingar gori biurtuko eta maitasun utsez aulduko?

AMAZAZPIGARREN ATALBURUA

Kristo artzeko maitasun gartsua
ta gurari bizia

Ikaslearen berbotsa

1. Oneraspenik audienaz eta maitasunik gartsuenaz, biotzeko indar eta bero guztiaz artu gura zaitut, Jauna, euren bizikera santuz eta oneraspen beroz atsegingarri izan yatzuzan santu ta arima sutsuak gura izan ebenez.

2. Ene Jaungoikoa, betiko maitasuna, zorion azkenbaga ori! Santu batek be iñoiz ez euki ez somatu aal izan ez dauan guraririk adoretuenaz eta begirunerik gorengoenez artu gura zaitut.

3. Eta arelako oneraspen-biozkadak eukiteko duin ez banaz be, nire biotzeko gurari guztiak eskintzen dautsudaz, arelako gurari gartsu guztiak neuk bakarrik izango baneuz lez.

4. Geiago be bai: biozperatasunez beteriko adimenak asmatu ta gura daiken guztia, begirune apalez eta biotzeko eraspenez zeugana aurkezten dot eta zeuri eskintzen dautsut.

5. Neuretzat ez dot ezertxo be itzi gura, nire burua ta nire gauza guztiak, gogoz eta pozik, zeuri eskiñi baiño.

6. Ene Jaun eta Jainkoa, nire Egille ta Eroslea! Gizakunde-misterioa iragarri eutsan aingeruari, eraspen apalez, auxe erantzun eutsan Andra Mari Birjiña goragarriak: “Ni Jaungoikoaren mirabea naz. Egin daistala Berak zeuk diñoizunez” (Lk 1, 38). Neuk be gaur zeure Ama guztiz santuak artu ta gura izan zenduzan aiñako ardura ta begirune, gorapen eta dedu, eskerron, duintasun eta maitasun, sinismen, itxaropen eta santutasunez artu gura zaitut.

7. Eta Joan Bateatzaillea, zure Aurrelari zorionsua ta santu guztietarik aundiena, amaren sabelean egoala, Espiritu Santuak eraginda, zure aurrean pozez saltoka asi zanez; eta geroago, zu, ene Jesus, gizonen artean ikusi zenduzanean, bere burua guztiz beeratuta esaten ebenez: “Senarraren adiskidea, aren ondoan dagoana, adi-adi egoten yako, poztu be poztu egiten da senarraren berbotsa entzutean” (Jn 1, 29). Orrelaxe neuk be nire burua gurari bizi ta santuetan kiskaldu eta nire biotzeko maitasun guztiaz zeuri emon gura neuskizu.

Otoitza ta eskintza izaki guztien orde

8. Orregaitik, biotz jainkozaleen pozaldia, gurari gartsuak, goiko argi ta zeru-ikuspenak, baita zerulurretan izakiak eskiñi dautsuezan eta emon daitketzuezan onoinen eta gorapen guztiak be, zeugana aurkezten dodaz eta zeuri eskintzen dautsudaz.

9. Onartu egizu guztia neure alde eta neure otoitzak eskatu dausteaz guztien alde. Guzti-guztiak, zeuri dagokizunez, zeu goratu ta aintzatu zagiezala beti ta beti.

10. Artu, ene Jainko Jaun orrek, zu negurri bagarik goratu ta bedeinkatzeko daukadazan antzi ta gurariak, guzti au zeure azkenbagako aunditasun ezinesan alakoari zor yako-ta.

11. Orain eskintzen dautsudan au egun oro eta neure biotzeko une guztietan eskiñi gura dautsut. Eta

zeruko aingeruai eta zure zintzo guztiai, erreguz eta maitasunez, neugaz batu daitezala dei egin eta eskatzen dautset, zuri gorapenak eta eskerrak emoteko.

12. Goratu zagiezala erri, jatorri-talde ta berbeta guztiak, eta zure izen santu ta guztiz eztsua poz aundi ta eraspen gartsuz goretsi zagiezala.

13. Eta zure Sakramentu goragarria eraspen eta begirunez ospatu eta sinismen osoz artzen daben guztiak zeure grazia ta errukia lortzea merezi dagiela eta ni pekatari onen alde apal-apalik oitiz egin dagiela.

13. Eta, euren eraspenaren gurariak beteta eta gura eben batasuna lortuta, mai santutik guztiz poztuta eta arrigarriro janarituta alde egin daginean, nitzaz, eskeko onetzaz, gomutatu daitezala, arren.

AMAZORTZIGARREN ATALBURUA

**Gizonak, Sakramentu au jakinguraz
arakatu bagarik,
bere eretxia sinismen santuaren
menpean ezarrita,
Kristoren antzekoa izan bear dauala**

Maitearen berbotsa

1. Sakramentu sakon au alperreko jakinguraz ez arakatzeko ardurea izan egizu, ezbai sakonetan ondoratu ez zaitez.

2. Jaungoikoaren aunditasuna arakutzen dauana, Aren aintzaren astuntasunak zapaldu egiten dau. Gizonak ulertu daikena baiño askozaz geiago egin daike Jaungoikoak.

3. Egia eraspen eta apaltasunez arakatzea, barriz, laketuta dago, beti ikasteko gogoz izan ezker eta Eliz-gurasoen irakasbide sendoetan ibilteko aalegiñak egiten badira.

4. Zorionsua benetan, eztabaideetako bide latzak alde batera itzirik, Jaungoikoaren aginduen bide leun eta sendotik doan arima laua!

5. Amaikatzok galdu eben eraspina, euren adimenetik gora dagozan gai ulergatxak arakatu gura izatearren! Sinistea da eskatzen yatzuna eta bizikera akasbagea, eta ez adimen zorrotza, ezta Jaungoi-

koaren misterioak sakonkiro ezagutzea be.

6. Zu baiño beerago dagozan gaiak ulertzeko gauza ez bazara, ¿zelan ulertuko dozuz zu baiño gorago dagozanak?

*Misterio oneik fedea ta apaltasun aundia
bear dabez*

7. Jaungoikoari menpetu zakioz, eta zure eretxia sinismenaren menpean itzi egizu, eta jakituri-argia emongo yatzu, egoki ta bearrezko yatzun bestean.

8. Arima batzuek sinismenaren aurka ezbai astunak izaten dabez Sakramentu onetan; baiña ez dira eurak ezbai orre in errudun, arerioa baiño.

9. Ez atsekabetu ezbai orrekaitik, eta etorri dakizuzan bururapenen aurka be ez jardun eztabaidan, ezta erantzunik emon be deabruak dakartzuzan ezbaiai.

10. Sinistu egizuz beste bagarik Jaungoikoaren berbak, sinistu Aren santuak eta profetak, eta arerio gaiztoak zugandik iges egingo dau.

11. Jaungoikoaren morroiai oso onuragarri yake sarritan onelako tentaldiak eroatea. Izan be, deabruak ez dauz sinisbageak eta gaiztoak zirikatzen, bere menpean ziur daukaz-ta; aren tentaldiak eta larrialdiak zintzo ta jainkozaleen aurka joaten dira.

12. Urreratu zaitez, ba, Sakramentura sinismen lau ta sendoaz, eta merezi ez dauana eskatzen dauanaren begiruneaz.

13. Eta, zuk ezin ulertu daikezuna, dana aal dauan Jaungoikoaren eskuetan itzi egizu guztiz ziur. Jaungoikoak ez dauz ziririk sartzen; ustea norbere indarretan larregi jarten dauanak, ostera, bere burua atzipetzen dau.

14. Jaungoikoa arima lauakaz dabil eta apalai agertzen yake; txikiak emoten dautse adimena, arima garbia argitzen dau, eta jakin-zale ta arroai ostendu egiten dautse bere grazia.

*Giza-adimenak ezin artu daike
Jaungoikoaren azkenbagatasuna*

15. Giza-adimena makala da eta arek uts egin daikero bere buruari; benetako sinismenak, barriz, ezin egin daikero utsik bere buruari iñoiz be. Giza-adimenak eta berezko ikerketak fedeari jarraitu bear dautso

beti, ez dau aren atzetik joan bear eta gutxiago sinismena ausi.

16. Izan be, Sakramentu guztiz santu onetan, sinismenak eta maitasunak nagusitza aundikiro agertu eta era ezkutu ta miragarri jarduten dabe.

17. Jaungoiko guztiaaldun, azkenbaga ta betikoak zeru-lurretan egintza arrigarri ta ulertu-eziñak egiten dauz; eta miragarri orreik giza-ikerketak guztien gaiñetik dagoz.

18. Jaungoikoaren egintzak giza-adimenak erraz ulertzeko bestekoak balitzaz, ez litzakez, ez, miragarriak eta esan-eziñak izango.

IZTEGITXOA

abagune: oportunidad, ocasión.
 adibagetu: distraer.
 agiraka: reprensión, corrección.
 akastun: defectuoso, imperfecto.
 aldakortasun: inconstancia.
 alogereko: mercenario.
 ameskoi: soñador, iluso.
 aolkulari: consejero.
 aran: valle.
 arau: regla (o ley) de la comunidad, norma.
 araudi: conjunto de reglas (o de leyes) de la comunidad.
 arauz: según.
 arima jainkozale: alma devota.
 arrenkura: queja
 arrigintza: edificación, construcción.
 atsedendu: descansar.
 atzipetu: engañar.
 aurki: seguramente.
 aurre-baldintzak: condiciones previas.
 auskor: frágil, quebradizo.
 azartu: atreverse; atrevido, osado.
 azterraldi: prueba.
 babeskin: escudo.
 baikortasun: optimismo
 barrikeri(a): curiosidad; cosas curiosas.
 barru-bizikera: vida interior.
 begi-luze: curioso (persona).
 berariz: particularmente, singularmente.
 berarizko: especial, particular.
 berezi: especial.
 berezkuntza: preferencia.
 bidazti: caminante, viajero, transeunte.
 brinbel: umbral.
 burubide: consejo.
 dedu: honor.
 destaiña: desprecio.
 doillor: vil, ruin.
 duin: digno.
 duintasun: dignidad.
 egiaztu: demostrar, probar, comprobar.
 egiera: ceremonia.
 ekaitz: tempestad; ekatxa: la tempestad (B).

egikizun (eginkizun): ministerio.
 eginkor: 1) factible, posible; 2) persona activa.
 enda: raza.
 eden: veneno.
 emoitz: dádiva.
 epaitu: juzgar.
 erabide: orden.
 eraso: 1) ataque; 2) persecución
 eraspén: 1) devoción; 2) afecto.
 eraspentsu: devoto, fervoroso (ikusi jainkozale).
 eroan: 1) llevar; 2) sufrir, soportar.
 eroankor: 1) soportable, tolerable; 2) sufrido.
 esamesa: hablilla.
 erospen: redención.
 eroستا: lamento, queja (quejido).
 errauts: ceniza.
 esameslari: vituperador, censorador, murmurador.
 estalki: velo.
 etsi on: resignación, conformidad.
 etxagintza: construcción, edificación.
 gai: 1) materia, objeto, cosa, asunto; 2) apto, idóneo, útil, competente.
 garaitu: vencer, triunfar, aventajar.
 geldierazo: hacer detenerse, hacer parar.
 geldo: apático, persona de poca energía.
 gertatu: preparar, disponer.
 goi-ikuspen: contemplación.
 griña txarrak: pasiones.
 gutxietsi: menospreciar.
 idatzi: escribir.
 igaro: 1) pasar, atravesar; 2) tolerar, sufrir (ikusi eroan).
 igarokor, igeskor: transitorio.
 igitu: moverse.
 ikusi: ver.
 ikerketa: investigación.
 ikusketa: visión.
 ikuspegi: panorama, vista panorámica.
 ikuzi: lavar.
 irabazkor: meritorio.
 iruzur: engaño; iruzur egin: engañar.
 izadi: naturaleza, creación.
 izaki: criatura.

itsasi: adherir, pegar.
 itun: triste.
 itzungi: apagar.
 izan be: porque, en efecto.
 jainkozale, jaungoikozale: devoto, piadoso, fervoroso.
 jakin-zale: curioso.
 jarduketa, jardunaldi: ejercicio, prueba.
 jasankor: sufrido, paciente, tolerante.
 jaso: levantar.
 jasogarri: alivio.
 jauretze: templo.
 jazo: acaecer, suceder.
 jopu: esclavo, siervo.
 joputza: esclavitud.
 jori: pingüe, fecundo.
 kiñatu: provocar, hostigar.
 koldarkeri: pusilanimidad.
 laketu: permitir, dejar.
 lau: 1) cuatro; 2) sencillo, simple.
 lautasun: sencillez.
 lema: timón.
 lillurapen: encanto, fascinación.
 lor: tribulación.
 maratz: diligente, cuidadoso, solícito.
 marmartzale: destractor, murmurador.
 mende: siglo.
 miaztu: probar algo (comidas o bebidas), gustar algo.
 miazkatu: lamer, chupar.
 mukur: base del árbol, parte inferior del tronco.
 mustada: gusto.
 mustatu: saborear.
 nabarkeri: ostentación.
 nabarkoi: disipado.
 nabarmendu: descollar, distinguirse, sobresalir.
 noraezan: por necesidad, a la fuerza.
 oarkabetu: distraerse, apartar la atención.
 oarkabetzeak: distracciones.
 obari: provecho.

oin-estun: grillete, grillo.
 oizko txatxarkeriak: pequeñeces acostumbradas.
 ondape: fundamento.
 odi: caño; tubo.
 oiñaze: tormento, pena.
 oldartsu: impetuoso.
 ondoratu: sumergir.
 oneraspen: devoción.
 oneretxi: afecto.
 onespen: beneplácito, aceptación.
 onoiemen: virtud.
 onulari: consejero.
 onura: provecho.
 orban: 1) mancha; 2) cicatriz.
 ospe: honor.
 otsein: esclavo, siervo.
 otseindu: servir.
 pentzutara: a merced de.
 pozaldi: consolación.
 pozbide: consolación, consuelo.
 pozkari: consuelo, consolación.
 sagaratu: consagrar.
 santukuntza: santificación.
 sorgortuta: absorto, arrobado.
 sor egon: estar absorto.
 sorta: carga.
 txiro: pobre.
 txirotasun: pobreza.
 utsal: vano.
 zabarkeri(a): distracción, disipación, negligencia, indolencia, desidia.
 zalantza: duda, indecisión, incertidumbre.
 zalckeri(a): vicio; concupiscencia.
 zalckeri(a) makur edo oker: desordenada tendencia.
 zaletasun: afecto, afición.
 zear-mearka: divagando.
 zeami: amenaza.
 zuribide: disculpa.
 zuritu: 1) blanquear; 2) disculpar.

AURKIBIDEA

Berba bi	3	8. Barru-barruko adiskidetasuna Jesusegaz	32
		9. Pozkaririk-eza	33
		10. Jaungoikoaren graziari zor yakon eskerrona	34
		11. Gutxi dira Jesusen gurutze-zaleak	35
		12. Gurutze santuaren bide ederra	36
LEENENGO LIBURUA			
Espiritu-bizikerarako burubide egokiak	5		
1. Kristoren antz-bidea	5		
2. Norberari buruzko eretxi apala	5		
3. Egiaren jakintza	6		
4. Egitekoetan zuertasuna	7		
5. Bibliako irakurgaiak	8		
6. Gurari okerrak	8		
7. Alperreko itxaropetik iges egin bear da ...	8		
8. Adiskidetasun larregitik iges egin bear da ...	9		
9. Esanekotasuna ta menpetasuna	9		
10. Alperreko berbak ez doguz esan bear	10		
11. Bakea zelan lortu	10		
12. Zoritxarrak dakarrezan onurak	11		
13. Tentaldiak gogor zelan egin bear yaken	12		
14. Ez dogu erizkeriarik egin bear	13		
15. Maitasun-egintzai buruz	13		
16. Iñoren akatsak eroan-bearra	14		
17. Komentu-bizikereari buruz	15		
18. Eliz-Guraso santuen jarraibideak	15		
19. Erlejoso onaren jardunaldiak	16		
20. Bakartasanerako maitasuna	17		
21. Biotzeko damua	19		
22. Giza-zoritxarra ausnartzea	20		
23. Eriotzari buruzko ausnartzea	21		
24. Pekatarien auzia ta oiñazeak	23		
25. Gure bizikerearen obekuntza gartsua	24		
BIGARREN LIBURUA			
Barru-bizikerarako burubideak	27		
1. Barru-bizikerea	27		
2. Menpetasun apala	28		
3. Gizon ona	29		
4. Biotz garbia	30		
5. Norbere buruatzaz	30		
6. Barru onak emoten dauan poza	30		
7. Jesuseganako maitasuna gauza guztien gaiñetik	31		
		8. Barru-barruko adiskidetasuna Jesusegaz	32
		9. Pozkaririk-eza	33
		10. Jaungoikoaren graziari zor yakon eskerrona	34
		11. Gutxi dira Jesusen gurutze-zaleak	35
		12. Gurutze santuaren bide ederra	36
IRUGARREN LIBURUA			
		Barruko pozkaria	41
		1. Arima zintzoari Kristok barruan dirautsana ..	41
		2. Egiak arima-barruan egiten dau berba	41
		3. Jaungoikoaren berbak apaltasunez entzun bear dira	42
		4. Jaungoikoaren aurean egiaz eta apaltasunez bizi bear dogu	43
		5. Jaungoikozko maitasunaren ondoren miragarriak	44
		6. Benetako maitatzailearen ezaupidea	45
		7. Grazia estaldu egin bear da	46
		8. Norbere burua aintzagarritzat ez artzeaz	47
		9. Gauza guztiak Jaungoikoagana zuzendu bear doguz	48
		10. Gozoa da Jaungoikoa otseintzea	48
		11. Biotzeko gurariak aztertu eta ezi egin bear dirala	49
		12. Eroapena zelan lortzen dan	50
		13. Menpeko apalak esaneko izan bear dau	51
		14. Jaungoikoaren epai ezkutua ausnartu egin bear doguz	51
		15. Zelan jardun eta zelan egin bear dogun otoitz	52
		16. Jaungoikoagan bakarrik billatu bear da benetako pozaldia	53
		17. Gure ardura guztiak Jaungoikoagan itzi bear doguz	53
		18. Kristoren antzera, nekeak eroan bear doguz	54
		19. Iraiñak ondo eroan bear doguz	55
		20. Norbere makaltasuna autortzea	55
		21. Doai ta grazi guztien gaiñetik, Jaungoikoagan atsedendu bear da	56

22. Jaungoikoagandik artutako doai ugarien gomutea	58	53. Jaungoikoaren grazia ez da lurreko gauza atsegingarriakaz naasten	81
23. Biotzari bake aundia emoten dautsoen lau gauza	59	54. Izatearen jokera batzuk	82
24. Barrikerietatik iges egin bear dogu	60	55. Izatearen usteltasuna	83
25. Biotzeko bake sendoa zetan dagoan	60	56. Geure buruakatu eta Kristoren antza artu bear dogu	84
26. Adimen askatuaren bikaintasuna	61	57. Uts batzuetan jausten dana ez da larregi kikildu bear	85
27. Norberaganako maitasuna, eragozpenik aundiena	62	58. Goiko gaiak ez doguz arakatu bear	86
28. Miin txarto-esaleen aurka	62	59. Gure uste ta itxaropen osoa Jaungoikoagan jarri bear doguz	88
29. Jaungoikoari zelan egin bear dautsagun dei	63		
30. Jaungoikozko laguntza zelan eskatu bear dogun	63	LAUGARREN LIBURUA	
31. Izaki guztiak igundu, Egillea aurkitu aal izateko	64	Altarako Sakramentua.....	91
32. Norbere burua ukatzea	65	1. Jesukristo begirune aundiz artu bear dogu ..	91
33. Biotzaren aldakortasuna	66	2. Sakramentu onetan Jaungoikoaren ontasun eta maitasun guztiz aundia agertzen dira	93
34. Maitatzaillearentzat, Jaungoikoa da atsegin bakarra	66	3. Onuragarria da sarritan jaunartzea	94
35. Bizitza onetan ez dago tentaldiak ez eukiteko ziurtasunik	67	4. Grazia ugari emoten yake	95
36. Gizonen eretxi utsalen aurka	68	5. Sakramentuaren bikaintasuna	97
37. Biotz-askatasuna lortzeko, norbere burua ukatzea	68	6. Jaunartzerako zelan gertatu bear izaten dan ..	97
38. Kanpoko gauzetan norbere burua ondo zaindu bear dogu	69	7. Norbere barrua aztertzea	98
39. Gizonak ez dau arduratsuegia izan bear	70	8. Kristok bere gogoz eskiñi eban bere burua oparizat gurutzean	99
40. Gizonak, berenez, ezer be ez dauko	70	9. Gure burua Jaungoikoari eskiñi bear dautsagu	99
41. Oraingo dedu guztiak igundu-bearra	71	10. Jaunartzea ez dogu erraz itzi bear	100
42. Ez dogu bakea gizonakan jarri bear	71	11. Kristoren Gorputza ta Biblia arima zintzoari oso bearrezkoak yakoz	102
43. Munduaren jakintza utsalaren aurka	72	12. Kristo artu gura dauanak, bere burua gertatu egin bear dau	103
44. Kanpoko gauzarik ez dogu billatu bear	72	13. Arima jainkozaleak Eukaristian Kristogaz bat egitea gura izan bear dau	104
45. Ez yake guztiak sinistu bear	73	14. Kristoren Gorputza artzeko gurari biziak ...	105
46. Berba iraingarriak diaruskuezanean, ustea Jaungoikoagan jarri bear dogu	74	15. Eraspen-grazia apaltasunaz jaristen da	105
47. Neke astun guztiak ondo eroan bear dira	75	16. Gure bearrizanak Jaunari agertu bear dautsaguz	106
48. Betirauneko eguna	75	17. Kristo gure Jauna artzeko maitasun gartsu ta gurari bizia	107
49. Betiko bizitza gura izatea	77	18. Gizonak Sakramentu au ez dau jakinguraz arakatu bear	108
50. Jaungoikoaren eskuetan jarteko erea	78		
51. Egikizun apalai ekin bear dautsegu	80	Iztegitxoa	111
52. Pozkarien duin bagarik, bere burua zigorraren duin dala sinistu bear dau gizonak	80		

OBRAS DE KEREXETA

KEREXETA-REN IDAZLANAK

(A = Agortuta - Agotado.)

1. Orbelak (1959) (A).
2. Bitargi (1960) (A).
3. Jesukristo gure Jaunaren Barri Ona (lau Ebanjelioak alkartuta: 1960-61) (A).
4. Apostoluen Egiñak (1961) (A).
5. Eguneroko Meza (Missale Romanum: 1963) (A).
6. Gogarteak (Aita Basabe-Kerexeta: 1963) (A).
7. Didaje eta Apostoluen Siniskitza (1965) (A).
8. Apostoluen Egiñak eta Idazkiak (1965) (A).
9. Alkartasun Barriko Itzak eta Gaiak (1965) (A).
10. Argi-bide Txikia (Zugasti-Kerexeta: 1965) (A).
11. Jesukristo gure Jaunaren Berri Ona (lau Ebanjelioak alkartuta, gipuzkeraz: Kerexeta—Zugasti: 1966) (A).
12. Jesukristoren Barri Ona (lau Ebanjelioak: 1966) (A).
13. Itun Berria (Novum Testamentum, osorik, gipuzkeraz: Orixe—Kerexeta—Zugasti: 1967; 2ª edición: 1974) (A).
14. Salmutegia (1967) (A).
15. Salmudia (gipuzkeraz: Kerexeta—Zugasti: 1968) (A).
16. Umeen Biblia (1969; 2ª edición: 1974; 3ª edición: 1982) (A).
17. Umeen Biblia (gipuzkeraz: Kerexeta—Zugasti: 1969) (A).
18. Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco (cinco volúmenes: 1970-71-72 y 74).
23. Gure Salbaziño-egintza (Alkartasun Barria: Ascea-PPCna: 1972).
24. Alkartasun Barria (Novum Testamentum, osorik; 2ª edición: 1972) (A).
25. Jesukristoren Barri Ona (2ª edición; bilingüe: 1973) (A).
26. Ebanjelio Alkartuak (1973) (255 orrialde, 300 pta.).
27. Kristau-Ikasbidea (4-garrena) (1974).
28. Eliz-Guraso Apostolikuak (Padres Apostólicos) (1975) (Premio "Agirre-Saria" en Baiona en 1976) (293 orrialde, 500 pta.).
29. Euskal-Biblia (Biblia completa) (1976) (1.500 pta.).
30. Mezako Irakurgaiak Euskal-Biblian (1976) (125 pta.).
31. Astegunetako Meza-Otoitzak eta Jainko Erriaren Otoitza (1977) (300 pta.).

32. **Diccionario Euskérico**(1977) (150 ptas.).
33. **Iparragirre´ren Bizitza**(1978) (700 pta.).
34. **Gernika´ko beste Arbola**(1979) (650 pta.).
35. **Orbelak, Bitargi**(2ª edición), **Udazken** (bilingüe) (1980). (217 págs., 300 ptas.).
36. **Elizearen Otoitza**(1982) (270 orrialde, 300 pta.).
37. **Domeka eta Jaiegunetako Ospakizunak Abade bagarik**(1982) (150 pta.).
38. **Bolibar** (bilingüe: 1984) (333 págs., 800 ptas.).
- 39-40. **Vascos en Colombia**(2 volúmenes) (1985). (8.500 ptas.).
41. **Casas Solariegas de Bizkaia**(vol. I) (en orden alfabético) (1987). (343 págs., 1.500 ptas.).
42. **Linajes y Casas solariegas de Elorrio** (245 págs. de texto y 393 fotografías) (1988).
43. **Lau Ebanjelioak**(1988) (237 orrialde, 670 pta.).
44. **Berrio-Otxoa**(bilingüe) (1988) (texto y 34 fotos) (100 ptas.).
45. **Fededunen Otoitza**(1988) (47 orrialde, 160 pta.).
46. **Casas Solariegas de Bizkaia II** (por pueblos; incluido en el vol. VIII del "Diccion. Onom. y Heráld. Vasco") (1988).
47. **Alkartasun Barria**(1988).
48. **Kenpis** (Jesukristoren Antz-bidea) (1989)
49. **Kunran** (esku-idazkiak = manuscritos) (1989).

EN PREPARACION:

Vascos en Ecuador.

Vascos en Perú.

Escudos Vascos(de los siete territorios vascos;
texto y dibujos; seis volúmenes).

Primer volumen: **Escudos de Bizkaia.**

Jaime de Kerexeta.
Elizburu, 24.
48230 ELORRIO (Bizkaia)
Tel. 682 00 12